

ERALDAKETA GLOBALARI NEURRIA HARTZEN:

**EUSKAL GIZARTEA ARO
EKONOMIKO BERRIAN**

**Andoni Eizagirre Eizagirre
Ainara Udaondo Alberdi**

Egileak:

Andoni Eizagirre Eizagirre eta
Ainara Udaondo Alberdi

Mondragon Unibertsitateko Humanitate eta
Hezkuntza Zientzien Fakultateko irakasle eta
ikertzaileak

Lehen edizioa: 2020ko apirila

Lege gordailua: D00340-2020

ISBN: 978-84-09-19452-0

Diseinua: Maraka & Cuchillo.

MARAKA *cuchillo*

Inprenta: Gertu S. Coop.



Aitorpena – Ez kormetziala – Berdin partekatu (by-nc-sa):

Ez da onartzen jatorrizko obraren erabilera komertzialik, ezta eratorritako obrarena ere. Eratorritako obraren banaketa jatorrizko obra arautzen duen lizentzia berberarekin egin behar da.



**Mondragon
Unibertsitatea**

Humanitate eta Hezkuntza
Zientzien Fakultatea

LANKI Kooperatibismoaren Ikertegia

Gipuzkoako
Foru Aldundia
Diputación Foral
de Gipuzkoa



**ETORKIZUNA
ERAIKIZ**
El futuro de Gipuzkoa



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

LAN ETA JUSTIZIA
SAILA
DEPARTAMENTO DE TRABAJO
Y JUSTICIA

6 SARRERA

10 **ERALDAKETA GLOBALAK ETA ESKUALDEEN
GARAPEN SOZIALA ETA EKONOMIKOA**

12 **Eraldaketa globalak: joera-aldaketen garaia**

14 1. Ekonomiaren globalizazio berria

40 2. Eraldaketa digitala

50 3. Patroi ekonomikoak eta geoekonomia

90 4. Ziklo historikoen inflexio-puntua

92 **Eskualdea transformazio globalen argitan**

94 5. Eskualdearen garabiderako faktore nagusiak

116 6. Eraldaketa produktiboa eskualde
industrialetan

126 7. Eskualdeen arteko ezberdintasun horizontalak

136 **EUSKAL GIZARTEA ARO
EKONOMIKO BERRIAN**

138 8. Lurraldeko erronka sozio-ekonomikoak:
eragileen diskurtsoak

144 9. Egitura sozialaren eta
ekonomikoaren eraldaketak

182 10. Euskal gizartea aro berrian: diagnostikoa

210 11. Euskal gizartea aro berrian: erronkak

256 12. Enpresak eta lehiakortasun-faktore berriak

282 **AZKEN OHARRAK**

284 **BIBLIOGRAFIA**

The image features a dark magenta background with a series of thin, parallel, wavy lines in a lighter shade of magenta. These lines flow from the top left towards the bottom right, creating a sense of movement and depth. The word "SARRERA" is centered at the bottom in a white, all-caps, serif font.

SARRERA

Dudarik gabe, 2008ko atzeraldiak galera ekonomiko eta sozial handiak utzi ditu familietan, enpresetan eta herri-erakundeetan; kasu askotan, galerak atzeraezinak izango dira, eta, hamar urte luzeren ostean berriz ere eskualde lehiakorrekin bat egitea lortu dugun arren, kostatzen ari zaigu herri-erantzun eraginkor eta bidezkoa ematea langabeziari, ezberdintasun sozialei eta txirotasunari. Herri-erronkei buruzko eztabaida publikoa, ordea, sarritan nor bere baitan bildurik planteatu ohi da, erronka horiek munduaren eraldaketa globalei arreta berezia ipini gabe ulertu eta konpondu ahalko bagenitu bezala. Pentsa dezagun une batez nola eragiten digun, esate baterako, suspertzen ari diren herrialdeek balioa ekoizteko kate globaletan duten pisuak edo gaitasun berritzaileak. Edota zer eragin izango duen mundu-mailako konbergentzia teknologikoak europar eskualdeetako lan-merkatuan, aberastasunaren sorreran eta gizarte-kohesioan.

Mundura irekia dagoen herria izaki, 1970eko hamarraldiaz geroztik gure lurraldearen egitura ekonomikoan eta sozialean izandako aldaketak, eta lurraldearen garabide sozialean azaleratu zaigun abagune berria, ezinbestean, eraldaketa globalen argitan ulertu behar ditugu. Hori dugu lan-egitasmo, eta, liburu honekin, aurreneko pausoak urratuko ditugu.

Azken hamarkadetan, egiturazko transformazio bat bideratzen, eskualde aberatsekin bat egiten, eta ziklo ekonomikoei hain mendekoak ez izateko baldintza sozial, instituzional eta ekonomikoak ezartzen ahalegindu gara, Europako merkatu ekonomikoan integratu eta nazioarteko komertzioan lehiatzera irten garen aldi berean. Era berean, baina, enpleguaren ezaugarri berriekin, arrakala handiak sortu dira lan-merkatuan eta aurrerabide sozialean; enpresen arteko dinamismoan aldeak etengabe handitzen ari dira, eta europar eskualdeetatik gero eta urrunago gaude lurraldeko eragile nagusien berrikuntza-jarduerak garatzeko gaitasunean. Lurraldeko aurrerabideari eta kohesioari dagokienez, ordea, ohiko politika-molde eta erabakiekin aterabidea emateko aukerak ere lausotu egin dira; enpleguaren bidez herritarren laneratzeko eta gizarteratzeko sendotasuna gero eta ahulagoa da, eta lurraldearen hazkunde inklusiboaren zimendu nagusiak auzitan jarri zaizkigu.

Liburua idazterakoan, egitura sozioekonomikoaren alderdi nagusietan herri giza nola gauden ulertzeko ahalegina egin dugu. Horretan lagundu dezakeelakoan, bi zati nagusi bereizi ditugu. Lehenengo zatian, arreta ipiniko dugu mundu-mailako eraldaketa globaletan eta eskualdeen garabidean izaniko eraginetan. Izan ere, Europaren arazo nagusietakoa eskualdeen arteko dibergentzia-prozesua da. Bigarren zatian, arreta gure eskualdean ipiniko dugu. Azken berrogei urteotako bilakaera laburbiltzeko ahalegina egin dugu. Neurri honen pareko egitasmoetan ohikoa den antzera, hainbat ideia, adierazle eta informazio estatistiko aipatu gabe utzi ditugu, atalak irakurterrazagoak egite aldera. Izango dugu aurrerantzean ere horiek lantzeko okasioa.

Ikerketa konparatua, noski, inportantea da, eskualde arrakastatsuen ongizate-eta oparotasun-mailak lortzeko zer-nolako pizgarriak, instituzioak eta giza kapitala behar diren jakin dezagun. Tarteka bada ere, erreferentziazko eskualdeetara luzatuko dugu begirada, beraz. Alabaina, lurraldearen bilakaerari, tamainari eta baliabideei neurria hartzea ere ezinbestekoa da, etorkizun hobeagoaren itxaropena egitasmo lorgarria izango bada. Bestela esateko, norberaren herria ezagutzea inportantea da, herrialdeen arteko alderaketa zentzugabeak saihesteko, eskuetan zer dugun jakiteko, eta hori nola hobetu adosteko. Hori dela eta, liburu honetan, berrogei urteko barne-konparaketak lagundu diezagukeela iritzita, egitura sozial eta ekonomikoa mundu-mailako transformazioen argitan nola aldatu den ulertu nahi dugu, bereziki. Egitura ekonomikoak erakusten digu aldaketa teknologikoa 1990eko hamarraldiaz geroztik bizia izan dela, lurraldeko enpresek oro har berrikuntza xurgatzeko gaitasuna izan baitute, eta, horren ondorioz, hobekuntzak izan dira produktibitatean eta lansarrietan. Era berean, ordea, enpleguaren eta soldataren distribuzioa ere zeharo aldatu zaigu sektore produktiboen artean, eta, herri modura, pertsonen hezkuntza-inbertsioari ez diogu ahal besteko errentagarritasuna atera. Egitura sozialean ere, hiru belaunaldi eskaseko epean bestelakotu dira orekak giza kapitalaren maila formatiboari, demografiari, ongizateari eta gizarte-mailei dagokienez, besteak beste. Liburuak eraldaketa horiei egingo die kasu gehien, guretik zer ikasi badugu eta.


Lehen unetik argi gera dadin, baina, egitura sozial eta ekonomikoaren dimentsio-
etako bakoitza hartu, bereizi eta garatu ordez, esplikazio-lerro berean integratuko
ditugu, liburuaren xedea baita azalpen dinamiko eta erlazionalen bidez nola gau-
den ulertzea. Datu eta informazio ugari eskura dugun garaiotan, arrisku behinena
ezagutza urriko ekarpen partzialak egitea da. Liburuan, ahalegin berezia egin dugu
informazio eta datuen artean loturak egiteko eta interpretazio bat eskaintzeko.
Horri esker, gaur egungo egoerari buruzko analisisia eta azalpena landu ahala, aise
igarriko dugu zer aukera eta erronka ditugun herri modura.

Liburuak ikerketa batean du jatorria; zehazki, 2017ko udaberrian eta 2018ko
lehen sei hilekoan Gipuzkoako eragile ekonomiko eta sozial nagusiekin eginiko
ikerketa-solasaldietan (Eizagirre 2018). Orduan entzun eta ikasitakoetatik tiraka,
irakurketa berriak egin eta informazio estatistikoa baliatu dugu, lurraldearen gaur
egungo aukerak ulertzeko asmoak motibatuta. Hori dela eta, liburuan zehar Euskal
Autonomia Erkidegoan (EAE) arreta ipini arren, sarritan, Gipuzkoan zentratuko
dira analisiak, baina oro har ideia nagusiak orokortzeko modukoak direlakoan
gaude. Jakitun gara, noski, liburuan ez ditugula auzi guztiak landu. Solasaldietan
ikasi genuen auzi txiki asko dagoela. Horietako batzuk guk geuk erabaki dugu ez
lantzea, eta badira ziurrenik behar beste ezagutzen ez ditugun beste hainbat gai-
auzi ere. Esan bezala, liburuak egitasmo baten parte den heinean, datozen urteotan
ekimen herrigileekin elkarlanean hobetzeko aukera izango dugu. Liburuak, gure
lurraldeko pertsonen beharrezanez erantzuna emate aldera, egitasmo lorgarriak
zehazten laguntzeko ekarpenean parte hartu nahi du.

ERALDAKETA GLOBALAK ETA ESKUALDEEN GARAPEN SOZIALA ETA EKONOMIKOA

Eraldaketa globalak eta eskualdeen garapen soziala eta ekonomikoa





Eraldaketa globalak: joera-aldaketen garaia

XX. mendearen azken herenetik gaur arteko ibilbide historikoan, munduko dinamika, egitura eta prozesu ekonomiko eta sozialak zeharo bestelakotu dira. Izan ere, auzi teknologiko, ekonomiko, demografiko eta geopolitikoaren arteko interakzio sistematikoek eraginda, aldaketak eskala globalekoak dira, sakonera handikoak, eten-gabeak, berehalakoak eta askotarikoak. Hori dela eta, aldaketak igar daitezke hiru mendeko prozesu luzean egonkorturiko joeretan. Joera-aldaketen garaia da.

Eraldaketa horien izaera eta garrantzia ulertzea, eraginak hautematea edota joera berrien bilakaera aurreikustea zeregin gero eta zailagoa da. Alde horretatik, esan genezake munduko dinamiken konplexutasuna, joeren aldakortasuna eta etorkizun hurbilarekiko ziurgabetasuna eskutik hartuta datozela.

Lehenik eta behin, azpimarra egingo diegu munduaren gaur egungo eraldaketa nagusiak ulertzen lagunduko diguten hiru auzi nagusiri, kapitulu banatan, betiere Mendebaldeko ekonomia aurreratuen talaiatik begiratuta: globalizazioaren ekonomia berria da bat (lehen kapitulua), aldaketa teknologikoa eta digitalizazioa bestea (bigarren kapitulua), eta hirugarrena, berriz, gorabidean dauden geoekonomia eta patroi ekonomikoak (hirugarren kapitulua).

Auzi horien arteko lotura argia den arren, munduko dinamiken joera-aldaketak edo inflexio-puntuak (*global turning points*) eta berritasun nagusiak argitze aldera, kapitulutan bereizita landuko ditugu. Hala ere, kapituluetan aurrera egin ahala, ideia osagarriak eta zehaztasunak gaineratuko ditugu. Hori dela eta, hainbat kasutan, kapitulu eta atalek metatze-izaera izango dute.



1 EKONOMIAREN GLOBALIZAZIO BERRIA

- 
- 1.1. SARRERA**
 - 1.2. BALIO-KATE GLOBALAK
ETA BERE ERAGINAK**
 - 1.3. NAZIOARTEKO KOMERTZIOA**
 - 1.4. GORABIDEAN DAUDEN
AUZI POLITIKOAK**
 - 1.5. GLOBALIZAZIOAREN
BALDINTZATZAILEAK
ETA OSAGAIK**

1.1 SARRERA

1970eko hamarkadaz geroztik, ekonomia globala eta nazioarteko merkataritza eraldatzen ari dira. Begirada epe ertaineko zikloan (1973-2019 urteak) ipiniz gero, fenomeno bereizgarrienen artean ekonomia postindustrialerako trantsizioa eta ekoizpen-egituren globalizazioa nabarmendu ditzakegu. Biak ere aldi berean ari dira gertatzen. Izan ere, aurrerapen teknologikoak ahalbidetzen ditu manufakturen ekoizpen efizienteagoa, informazio eta datuen fluxu globala, eta eskala planetarioan ondasun eta zerbitzuen produkzioarako hornidurak lortzea, garatzea eta merkaturatzea.

Kapitulu honetan, lehenik eta behin, ikusiko dugu ekoizpena, komertzioa eta inbertsioa gero eta gehiago balio-kate globaletan antolatzen direla. Globalizazioaren dimentsio teknologikoa eta komertziala landu ostean (1.2. eta 1.3.), arreta ipiniko dugu globalizazioaren dimentsio sozial eta politikoetan (1.4.). Izan ere, Mendebaldeko ekonomia aurreratuetan, oraindik orain intentsitate bereziarekin azaleratu dira askotariko erreakzio eta mesfidantzak. Guztiak dira globalizazioaren baldintzatzaile eta osagaiak. Análisi integralak balioko digu ekonomia global berria behin-behinean zer forma hartzen ari den ulertzen.

1.2. BALIO-KATE GLOBALAK ETA HAREN ERAGINAK

Berrikuntza teknologiko orok askotariko eraginak izaten ditu: alde batetik, eki-po-ondasun eta material berriak sortzen ditu; bestetik, egitura ekonomikoa, ekoizpen-prozesua eta enpresa-eredua eraldatzen ditu. 1970eko hamarraldiaz geroztiko transformazio produktiboek eta balio-kate globalek ere zeharo eraldatu dituzte harreman komertzial, enpresarial eta sozialak.

1.2.1. BERRIKUNTZA TEKNOLOGIKOA ETA ERALDAKETA PRODUKTIBOA

Industria Iraultzaren hastapenetan, XVIII. mendearen bigarren erdialdetik aurrera, ondasun berrien ekoizpenari ekin zitzaion enpresa txikietan. Berrikuntza teknologikoak direla eta (lurren-energia, lurren-motorrak, ehungailu mekanikoak, kotoia), ondasunen produkzioa (ehungaiak eta burdina) hiriguneetan kokatu zen. Eraldaketa teknologikoak eta negozio-eredu berriak aukera eman zuen hiriguneetan lehen enpresa txikiak sortzeko.

XIX. mendearen azken laurdenean, makineria eta energia elektrikoaren bidez, ondasun berriak ekoitzi zituzten (automobila, irratia, produktu kimikoak, hegazkina, etxeko tresnak). Iraultza elektrikoak industrializazioaren aro berria zabaldu zuen, eta horren eraginak ugariak izan ziren: kaleen eta etxebizitzaren argiztapen elektrikoak, prozesu industrialen eraldaketa (motor elektrikoak, metalurgia, hozte-sistema) eta urruneko komunikazioa (telefonoa, irratia), besteak beste. Berrikuntza teknologiko horiek, ordea, beste hainbat ondorio ere ekarri zituzten: enpresen tamaina handiagotu, eta enpresa-sorkuntza hiri handietan edota baliabide mineralak zeuden tokietan (meatzaritza-eremuak) pilatu zen. Era berean, XX. mendean zehar, lana ekoizpen-katean zatikatu eta enpresetan zuzendarien figura indartzearekin batera, soldatapeko langileen ekoizpena, portaera eta diziplina handitzeko teknikak etengabe sofistikatu ziren (i.e. eginkizunen izendapena, jarduera mekanizatu, kalitate-arauak betetzea).

Berrikuntza teknologikoak beti izan ditu eskutik eraldaketa produktiboa, negozio-eredu berria, eta enpresen eta hirien handiagotzea. Ekoizpenaren antolaketan, industrializazioak bi eraldaketa ekarri zituen Mendebaldeko herrialdeetara. Alde batetik, enpresako antolaketan aktibo ukigarri berriak (makineria eta ekipo-ondasunak) baliatzeari esker, lanaren banaketa eta espezializazioa bideratu ziren; alegia, ekoizpen-prozesua zatikatu, eta pertsonen lana eginkizunen arabera bereizi zen. Halako neurriak enpresaren barruan hartu eta garatzen ziren. Zehazki, enpresa-kudeaketako arduradunak, hobekuntza produktiboa ebatzi, eta enpresako ekoizpen-sailak komunikatzen ziren; hala, ekoizpen-prozesua eraberritzen

ERALDAKETA GLOBALAK ETA ESKUALDEEN GARAPEN SOZIALA ETA EKONOMIKOA

zen, produkzio estandarizatua igo eta kostuak jaisteko xedearekin. Azken unean, ekoizpeneko teknika berriei esker, helburua gauzen produkzio handiena eskuratzeko inbertsio ahalik eta txikiena egitea zen. Hori dela eta, XIX. mendearen bukaeran eta XX. mendean zehar, ondasun eta zerbitzuen eskaera soziala eta kontsumoa ere hazi egin ziren merkatu nazionalan, eskalako ekonomian ekoizpena handitu ahala kostu unitarioa txikitzen zelako. Gainera, enpresen tamaina eta eskaintza-ahalmena handitu ahala, hornitzaileei eskaera handiagotzearekin batera enpresei beherapenak egiten zitzaizkien. Neurri horiek (produkzioaren espezializazioa eta eskaintzaren igoera, eskaeraren handitzea eta beherapenak) barne-eskalako ekonomiak sortu zituzten.

Horrez gainera, beste alde batetik, gune jakin batzuetan, enpresak metatu eta kanpo-eskalako ekonomiak garatu ziren. Izan ere, herri edo hiriguneetan, sektoreko enpresak ezarri, edo industria eta zerbitzuetako aktibitateak kontzentratu ziren. Hori batzuetan gertatu zen ekoizpen-prozesuko hornitzaileen gertutasunak kostuak merka zitzakeelako. Beste batzuetan, berriz, arrazoi nagusiak ziren gobernuen inbertsioa, errepide-sarea, komunikazio-baliabideak, zerga-beherapenak, edo jite geografiko eta kulturalako motibazioak. Alde horretatik, herrialde industrialetan, barne- eta kanpo-eskalako ekonomiak baliatu ziren hazkunde ekonomikoaren eta ongizate sozialaren pilare nagusi modura.

Ekonomia-eredu hori da, neurri batean, eraldatzen ari dena. Azken lau hamarkadetan zehar, informazio- eta komunikazio-ekipoetan inbertsioak egin eta kontrol numerikoa, ordenagailu bidezko diseinua eta produkzioa, robotika eta datu-sare eskuragarriak lantegian integratzearekin batera, erabat aldatu dira ekoizpen industrialeko sistemak, eta, hedaduraz, baita nazioarteko merkataritza ere. Izan ere, berrikuntza teknologikoak produktu berriak ekarri ditu, eta nekazaritza, industria eta zerbitzuen alorretako produkzioan ezagutza, teknika eta prozedura sofistikutuak garatu ahal izatea; horren ondorioz –jarraian ikusiko dugunez–, sektoreetako aktibitateak eraberritu edo berriak sortu dira, nazioarteko ekonomien artean interdependentzia handiagoa eragitearekin batera.

Beste era batera esanda, aro industrialeko enpresa arketipoa (ekoizpen-tokiaren aprobetxamendu intentsiboa, industriaren kontzentrazio fisikoa, eskalako ekonomia, lanaren banaketa eta espezializazioa, ekoizpen-moduaren jabetza, zuzendaritza eta eskulana bereiztea) eraberritzen ari da. Izan ere, harreman komertzial globalak erabat berregituratu dira, azken hamarkadetan garraioan eta informazio- eta komunikazio-teknologietan (IKT) izandako aurrerapenek hala erraztu eta bideratuta. Adibidez, kontainerren erabilerak merkantzien garraioaren kostua 36 aldiz txikiagotu eta manufaktura-produktuena merkeagotu ditu; aldiz, IKTen bidezko mezuen garraioak zero kostua du. Hori dela eta, esate baterako, merkantzien kostua txikitzearekin, fabrika eta eskulana Txinara lekualdatu daitezke (*blue-collar worker*), eta, mezua zero kostuan eta berehalakoan igor daitekeen heinean, bulegoko lana Indiarra aldatu daiteke (*white-collar work*).

1.2.2. EKOIZPEN-KATE GLOBAL ETA MALGUA

Eduki teknologiko altuko industrian (mikroelektronika, robotika, bioteknologiak, industria aerospaziala), aise igar daiteke nola ari den berrikuntza teknologikoa ekoizpen-eredua eraldatzen, baina baita sektore eta aktibitate tradizionalen eraberritzean (nekazaritzan, industrian) eta berrien sendotzean ere: enpresentzako zerbitzu aurreratuetan (diseinua, komunikazioa, aktibo finantzario berriak) eta zerbitzu berrietan (aisialdia, osasuna, bideo-jokoak, industria kulturala).

Horrez gainera, ordea, eraldaketa izan da zenbait eskualde, hiri edo herrialdetako enpresa heterogeneoak sare bidez lan egiten hasi diren heinean. Ekoizpen-prozesuaren antolaketa globala eta malguagoa da. Alde batetik, sare digitalekin, automatizazioak lanaren prozesua berregituratu du. Adibidez, diseinua, ingeniariaritz, kudeaketa, fabrikazioa eta muntaketa gaur egunean modu ez-linealean, pertsonalizatuan, malguagoan eta robotekin interakzioan antolatu eta kudeatzen dira. Bestetik, ekoizpen-planten sakabanaketa erraztu da: eskura ditugun produktu eta ondasunak mundu-mailan koordinaturiko ekoizpen-sistemen emaitza dira, eta herrialde askotako hornitzaile eta azpi-hornitzaileak dituzte.

Ekoizpen-prozesuan horniduren kate globala garatzea erraztu duten faktoreak askotarikoak dira: garraio-sistemen hobetzea, ekoizpen-guneen arteko komunikazioa bideratzen duten IKTen zabalkundea, komertzioari mugak txikiagotu dizkieten liberalizazio komertzialeko prozesuak (eskualdeko integrazio ekonomikoak, nazioarteko akordio aldeaniztunak), edota susperraldian dauden herrialdeak atzerriko inbertsioari zabaldu izana, besteak beste. Esate baterako, European, produktioaren zati garrantzitsu bat Europako ekialdera aldatu da, AEBko aktibitate produktiboa Mexikora, eta Txinako esportazioan ere gero eta pisu handiagoa du atzerriko balio erantsiak. Hori horrela izanda, aukera bat da, esate baterako, ekoizpen-prozesuko eginkizunak azpikontratatzeta, aprobetxatuz sare bidezko teknologiak fabrikatzaile eta hornitzaileen arteko informazioaren transferentzia bizkorra ahalbidetzen duela. Enpresa txikizkari (*retail*) handiak –Walmart, Carrefour, Costco, Schwarz Group, Kroger, Tesco, Amazon.com– horren muturreko adibideak dira. Nolanahi den, tipo ideal gisa formulatuta, ekoizpenaren fragmentazioarekin, zatiak bereizten dira; osagaietako bakoitza eraginkorrena den tokian garatuko da, osagaiak gero toki batera igorritz produktuaren azken muntaketa egiteko. Horrek esplikatzan du, bidenabar, nazioarteko fluxu komertzialaren garrantzia.

Ekoizpen-baldintza oso malguetara egokitzeko aukera eta premia dela eta, beraz, bi modu osagarritan hauteman liteke enpresaren eraldaketa: alde batetik, enpresa txiki, malgu eta interkonektatuak sortu dira; eta, bestetik, enpresa erraldoiak agertu dira, zeinek gaitasuna baitute eremu globalean barreiatuta produktuak eskuratu, hornitzaileak baliatu, ekoitzi eta manufakturatuta, salmentako bulegoak ezarri edota banatzeko, besteak beste. Enpresa horien irabaziak (diru-sarrera eta fakturazioa)¹ edota merkatuko balioak (balio estimatua edo burtsako balioa)² alde batera utzita, konpainia berriak joera-aldaketaren erakusbide dira, eta nazioarteko agertoki komertzialean lehiatzen diren enpresen ingurumaria zein den argitzen digute.

Bilakaera ulertzeko, etxetresnen eta automobilen industria adibide modura hartu besterik ez dugu. Sektore bi horiek, jatorrian, serieko ekoizpen-katean antolatu ziren, eta lantegi berean produktu estandarizatuaren ziklo osoa ekoitzi eta merkaturatu izan dute. Haatik, gaur egunean etxetresnen eta automobilaren industria aztertuz gero, merkatu globaleko ekoizpena eta zerbitzua zatikatu dira, ekoizpen-metodoen berrikuntza erabatekoa da, eta energia-baliabide berrien erabilera hazi da. Industriaren eta produkzio-ereduaren bi tipo ideal balira bezala da, eta Mendebaldeko ekonomiaren aldaketa laburbiltzen digute.³

1.2.3. ENPRESA-ESTRATEGIEN PRAKTIKA ESPAZIALAK

Globalizazio berriaren ezaugarri bereizlea da produkzioa, komertzioa eta inbertsioa balio-kate globaletan (*global value chains*) antolatzea eta ekoizpena zenbait herrialdetan zatikatzea.⁴ Merkatuko lehia nazional eta internazionala handia izaki, ekoizpenaren antolaketa espaziala aldatu da. Zehatzago esateko, egitasmo berria askotariko praktika espazialekin konbina daiteke: batzuetan, enpresatik kanpo (*outsourcing*) edo enpresaren barruan (*insourcing*), prozesuari, zerbitzuari edota produktuari loturiko zatikatzeak gertatu ohi dira; beste hainbatetan, enpresaren aktibitatea herrialdez lekualdatzen da (*offshoring*), eta hornidura-katearen

1. *Fortune Global 500* rankinga, <https://fortune.com/global500/2019/> [Kontsulta-eguna: 2019-06-06.]

2. Vlastelica, R. (2019). Amazon Becomes Most Valuable Company, Inching Past Microsoft. *Bloomberg*, January 7.

3. OECD (2018). *Multinational enterprises and global value chains: New Insights on the trade-investment nexus*. No. 2018/05. Paris: OECD Publishing.

4. *World Trade Organization* (2019). *Technological Innovation, Supply Chain Trade, and Workers in a Globalized World*. Global Value Chain Development Report, 2019. Geneva: World Trade Organization.

kudeaketa globala ere hobets daiteke (*supply-chaining*). Enpresa-estrategietan, halako praktika espazialek ekoizpen eta zerbitzuen produkzio eraginkorragoa lortzeko xedeari erantzuten diote.

Kasu batzuetan, beraz, enpresak geografikoki kontzentratzen dira, euren lehiakortasuna hobetu dezaketen harreman-sistemak eratuz. Baina, beste kasu askotan, industrialdeak eta metatze-ekonomiak ez dira aski enpresaren lehiakortasun-posizioa hobetzeko. Hori dela eta, enpresek ekoizpenaren nazioartekotzea hobesten dute antolaketa eta garapen-estrategia gisa. Batzuetan, enpresek aktibitatearen zati bat azpikontratazioaren bidez kanporatzen dute; besteak beste, ekoizpeneko kostuak murrizteko (enpresa nagusiak, ekoizpen-prozesua kontrolatu, eta marketina eta azken banaketa gidatzen ditu, eta, hortaz, azpikontraturiko enpresek diseinuari erantzuteko doitzen dute ekoizpena, esate baterako). Beste batzuetan, berriz, ekoizpena nazioartekotzen da, lurraldeko estrategiak ez direlako aski enpresa lehiakorra izateko edota merkatu berriak xurgatzeko. Azken kasu horretan, ekoizpenaren integrazio bertikala gerta daiteke (korporazioak enpresa subsidiarioak ditu ekoizpen-prozesuko aktibitatez arduratzeko, esate baterako), edo diferentziazio horizontala lehenesten ahal du (korporazioak enpresa subsidiarioak sortzen ditu produktua munduan sal dadin, eta enpresa horiek produktuaren salmentaz arduratzen dira merkatu segmentatu edo lokalean, esate baterako, marketinaren bidez). Gerta daiteke, halaber, enpresak, euren dimentsioa –enpresaren tamaina, gaitasun finantzarioa, merkatu-kuota– irabazteko xedearekin, beste enpresa batzuekin fusionatzea.

Era batera edo bestera, baina, Mendebaldeko ekonomietan, gune industrialak berregituratu dira; gorabideko herrialdeetan, eremu industrialak sendotu dira (bereziki Pazifikoko arroan eta Asiaren ekialdean); ekonomia oso ezberdinen arteko interakzioek garrantzi berria hartu dute, eta balio-kate internazionalen bidez zenbait herrialdetako ekoizpen-, komertzializazio- eta banaketa-sistemak lotu dira. Nazioarteko finantzetan ere antzera gertatzen da. Mundu-mailako interdependentzia ekonomikoa da eragin behinena.

1.2.4. ERALDAKETA PRODUKTIBOAREN ERAGIN SOZIOEKONOMIKOAK

Askotarikoak dira berrikuntzak, beraz, ikusi berri dugunez: aldaketak gertatzen ari dira ondasun eta zerbitzuen ekoizpenean, enpresen antolaketan, ekoizpen eta merkatuen geografian, eragileen arteko harreman enpresarial eta komertzialetan. Alde horretatik, ekonomia aurreratuei dagokienez, lanaren nazioarteko banaketa berriarekin, lanpostu eta aktibitate batzuk globalizazioaren onuradun dira, eta teknologia euren probetxurako baliatzen duten pertsona, konpainia eta eskualdeek produktibitatea, merkatuko aukerak eta ordainsariak hobetzen dituzte. Era berean, mundu-mailan ere, globalizazioak –3. kapituluan ikusiko dugunez– eskualde askoren hazkunde ekonomikoa eta ezberdintasun globalen txikiagotzea bideratu ditu (Potrafke 2015).

Eraldaketa produktiboak oso bestelako eragin sozioekonomikoak ere baditu, ordea (Milberg eta Winkler 2013). Atal honetan, ipin dezagun arreta ekonomia aurreratuetan nabarmentzen ari diren eragin negatiboetan (Rodrik 1997). Alde batetik, Mendebaldeko herrialdeetan, enplegu industrialaren pisuaren galera nabarmendu da (tokiko efizientzia txikiagoa eta azpikontratatzeko marjina handiagoak direla eta), eta antzeko prozesua gertatu da lehen sektorean ere. Era berean, enpresei eta lurraldeei gaur egunean merkeagoa zaie teknologia baxuko ondasunak inportatzea, eta, beraz, nazioartean tokiko eremuan baino prezio lehiakorragoetan ondasun eta zerbitzuak eskuratzeko aukera handitu da. Bi eragin horiek direla eta, azken hamarkadetan, herrialde aurreratuetan enpleguaren konposizioa eraberritu, langile-klasearen bizitza-maila aldatu, eta ezberdintasun bertikala (pertsonek artekoa) eta ezberdintasun horizontala (pertsona-taldeen artekoa, eskualdeen artekoa) hazi dira.⁵

Ameriketako Estatu Batuetan (AEB), esate baterako, 1990eko hamarraldian zehar ezberdintasunak hazteak barne-merkatuan eskaintza eta eskaera jaitea ekarri du (enpresa produktiboak galtzea, inbertsio pribatua ahultzea, enplegua ezegonkortzea, soldatak izoztea). Hori, gainera, ziklo ekonomikoaren fase hedatzailean (BPG errealean eta langabezia emaitza onak azaleratu diren sasoian) ere gertatu da. Sakonean, horixe dago preseski 2008ko atzeraldiaren oinarrian: ordainsariari maileguak hartu dio lan-indarra erreproduzitzeko ordezkoa (enpleguan eta soldatan bainoago, maileguan oinarritzen da lan-indarraren edo langileen bizi-

5. Bussolo, M., M.E. Dávalos, V. Peragine eta R. Sundaram (2019). *Toward a New Social Contract: Taking on Distributional Tensions in Europe and Central Asia*. Washington: International Bank for Reconstruction and Development / The World Bank.

tza-maila mantendu eta birsortzea), eta zorpetze pribatuak eta pizgarri artifizialek ekonomia kontsumista ekarri zuten 1990eko eta 2000ko hamarraldietan, finantza aktiboen burbuila lehertu zen arte. 2008an, AEBn, zor pribatua zor publikoa baino lau aldiz handiagoa zen (herritarren gehiengoak ez zuen finantza-erreserbarik; biztanleriaren % 56 subprime kredituaren bidez bizi zen; ondasunak berme gisa uzten ziren kontsumo-maileguen trukean; ikasleen maileguak gazteen etorkizuna baldintzatzen zuen, eta berankortasuna eta ez ordaintzea arrunta zen). Eskariaren shockak, kontsumoa eta inbertsioa hondoratu, eta, hedaduraz, BPGaren hazkundean eragin zuen. 2009. urtean, zorpetze pribatuaren tasa % 298 izatera iritsi zen, eta horrek jarraian ekarri zuen hain zuzen ere zor publikoa etengabe haztea (2007an, zor publikoa BPGaren % 64,66 zen; 2010ean, aldiz, % 95,41, eta, 2017an, % 106,23). Gainera, kontsumo pribatuan, atzerriko produktuak ziren nagusi (Asiaren ekialdean eta bereziki Txinan ekoizitako produktuak), eta horrek pagamendu-balantzaren defizita handiagotu zuen. Eraldaketa produktiboak eragin dibergenteak ditu, beraz, dinamika global oparoetan arreta lokala ipiniz gero.⁶

Ezberdintasun sozialak haztearekin batera, beste alde batetik, ekonomia global berriaren bigarren eragin nagusia aktibitate ekonomikoa enpresa bakanetan kontzentratzea da. Hori dela eta, merkatuko lehia irekia (enpresen arteko konkurrentzia eta kompetentzia) gero eta lausoagoa da.⁷ Hori ere aparteko garrantzia duen bilakaera da. Izan ere, azken bi mendeotan, ongizate sozialeko faktore-eragile garrantzitsuetako bat enpresen arteko lehiakortasuna izan da ekonomia aurreratuetan. Lehiak inbertsioa haztea, enplegua sortzea eta kontsumo familiarra eragin ditu. Era berean, enpresen arteko lehiak aukera eman du, erregulazio onuragarriekin, aurrerabide teknologikoak sustatzeko eta horiek ondasun eta zerbitzu merkeetan islatzeko eta eskari soziala hazteko. Bien bitartean, etxeetan sare bidezko konexioa izateak ere kontsumo-portaerak aldatu ditu, eta, ekonomia berrian, eduki teknologiko altuko produktuak kontsumitzen dira prezio baxuetan. Azken bi hamarkadetan, ordea, joerak bestelakotzen ari dira, oligopolio globalen sendotzea (korporazio tradizional handiak, monopolio digital berriak) eta enpresen kontzentrazioa direla eta. Izan ere, 1980ko hamarkadan zehar, AEBen, susperraldian diren herrialdeekin eta nazioarteko enpresa lehiakor berriekin lehiatu ahal izateko, neurri lagungarri modura hobetsi zen monopolioen aurkako legeria arintzea eta patenteen sistema indartzea. Hori dela eta, alde batetik, AEBn egiazki enpresa erraldoien produktibitatea bideratu da, baina, bestetik, horrek eskutik ekarri ditu merkatua enpresa gutxitan kontzentratzea eta horien errentagarritasun-tasa haztea, enpresa berrientzat merkatuko sarbidea zailtzea, eta lan-errentaren parte-hartzea txikitzea (Grullon et al 2019).

6. Bernanke, B.S. (2019). *When Growth is not Enough*. Remarks prepared for delivery on June 26, 2017, at the European Central Bank Forum on Central Banking at Sintra.

7. *International Monetary Found (2019). World Economic Outlook: Growth Slowdown, Precarious Recovery, Ch.2 «The Rise of Corporate Market Power and Its Macroeconomic Effects»*. Washington: International Monetary Found.

Ikuskizun da nola eragingo duen horrek epe motz-ertainean merkatu-dinamketan, lehiakortasunean, inbertsioan, berrikuntza sozioteknikorako pizgarrietan eta prezioetan. Baina merkatuko boterea esku gutxitan biltzeak, Adam Smithek iragarri bezala, ondorio kaltegarri bi ditu. Alde batetik, ondasun eta zerbitzuen prezioak monopolioaren logikei erantzutea ekarri ohi du. Merkatu lehiakorrean, ondasunaren prezioa produktu baten unitate bat gehiago ekoizteak dakarren kostu totalaren gehikuntza zatekeen (koste marjinala). Haatik, ekonomian lehia ahuldu ahala, prezioak ezartzeko eskumena handitzen zaio enpresari, eta, ondorioz, osaketa monopolistako irabazi handiak eskuratu, eta ekoizpen-faktoreak ere ez dira modu optimoan esleitzen. Bestalde, ekonomian moral ekintzailea ere urtu egiten da (i.e. enpresen sorrera, ibilbide sozial eta teknologiko alternatiboen garapena, baliabideen esleipen egokia, aukera-berdintasuna, errentaren eta aberastasunaren banaketa justuagoa).⁸

Azken unean, beraz, garraio-sistemek eta IKTek ekonomiaren globalizazio berria eta zehazki ekoizpeneko eta hornidurako balio-kate osoa mundu-mailan zatikatu ahal izatea erraztu eta bizkortu dute. Bestela esanda, aurretik zeuden sektoreen prozesu produktiboak eraldatu, eta sektore berrien eta gauzak egiteko beste modu batzuen egonkortzea ekarri dute (Schiller 2014). Ikusi den moduan, ordea, ekonomian balio-kate globalak egonkortzeak askotariko eraginak ditu. Gure azalpenean, Mendebaldeko ekonomien adibidea baliatu dugu, baina, datozen hiru kapituluetan, beste hainbat ere aipatu eta sakonduko ditugu. Eraginak oso ezberdinak baitira pertsona, talde edo eskualde bakoitzarentzat.

1.3. NAZIOARTEKO KOMERTZIOA

Ekonomia global berriaren bigarren elementu bereizlea, balio-kateak mundu-mailan zatikatu ahal izatearekin batera, nazioarteko komertzioaren erregimena eta haren krisia dira (Frieden *et al* 2017; Rodrik 2011). Horren arrazoi nagusia, hain zuzen ere, XXI. mendeko enpresa berrien jarduna ekoizpen eta banaketarako egitura globalean oinarritzea da.

XX. mendearen bigarren erdialde osoko komertzioaren xedea merkantzien truke askea arautzea izan zen, nagusiki produktu bukatuetan eta bitarteko ondasun bukatuetan baitzetzan salerosketa. Azken unean, nazioarteko komertzioa libera-

lizatu eta arautzeko erakunde nagusiak (1947. urteaz gero, Muga Zergei eta Merkataritzari Buruzko Akordio Orokorra, eta, 1995 urtetik aurrera, MME Munduko Merkataritza Erakundea) eraginkorrak izan dira herrialde batean osoki ekoiztako manufakturak eta ondasunak beste herrialde batera esportatu behar izan direnean.

Haatik, nazioarteko trukearen izaera eta xedea erabat aldatu dira gaur egunean (Baldwin 2015): komertzioa balio-kate globaletan egituratu da (enpresen lehiakortasun-abantailak ez du izaera nazionalik); eraldaketa teknologikoak zerbitzuen komertzioa ere bestelakotu du, eta, merkataritza eta inbertsioei buruzko patroiklasikoak aldatzearekin batera, trukeen geografian susperraldian dauden herrialdeek eta bereziki Txinak gero eta pisu handiagoa dute. Hori dela eta, testuinguru komertzial berrian, konpainien kezka nagusiak inbertsioak eta jabetza intelektuala babestea dira, eta ekoizpen, prozesu eta kudeaketa konplexuaren osagai diren esportazioa, inbertsio zuzena eta kontratazioa modu lehiakor eta efizientean egitea. Horrek guztiak nazioarteko merkataritzaren xedea eta araudia erabat itxuraldatzea dakar. Bestela esateko, eragile nagusien xedea finantzak, zerbitzuak, informazioa eta bitarteko sargaiak edo insumoak (ekoizpen-prozesuan kontsumituriko ondasun eta zerbitzuak) modu seguru eta eraginkorrean trukatzeko da. Esate baterako, produktu teknologikoen balio erantsia fabrikazioaren aurreko eta osteko zerbitzuetan dago gaur egunean –ensanbladuran bainoago–, nahiz eta aldi berean ekoizpenerako balio-kateak mundu osoan zehar hedatuak dauden. Eraldaketa produktiboak bete-betean eragiten du nazioarteko komertzioaren izaeran, xedean eta erregulazioan, beraz.

Neurri berean, ekonomia aurreratuetan, industriak eta lantegiak ere utzi egin diote ekoizpen-prozesuen erdigunea izateari: garapen elektronikoa eta informatikoa prozesu mekanikoari nagusitu zaio; enpresek eta konpainiek zerbitzuen prestazioak eta informazioaren fluxuak lehenesten dituzte baliabideetan inbertsioak egiteko orduan, ondasunen ekoizpenari loturikoak bainoago; garraibideen eta komunikazioaren aurrerapenak tokiko merkataritza txiki utzi dute globalizazioaren testuinguruan. Alde horretatik, mundu ultrakonektatu batean, produkzioa, inbertsioa eta komertzioa balio-kate globaletan antolatzen dira, baina, horrez gainera, nazioz gaindiko dinamiketan berritxuratu dira ekoizpen-ondasunak ez ezik ezagutza zientifikoa, kode kulturalak eta kontsumo-ondasunak ere.

Hori dela eta, nazioarteko komertzioaren erregimena trantsizio-fase lauso eta gatazkatsuan dago, ugariak baitira globalizazio berrian birkokatu nahian ari diren eragile, interes eta egitasmoak (Gereffy 2013). Gainera, nazioarteko merkataritzako aktibitateak erabat aldatu dira zerbitzu eta hornidura-kate

globalekin, eta, horren ondorioz, erregulazio aldeaniztunen ordez, herrialde inplikatuena arteko akordioak nagusitzen ari dira. Aukera erreal, praktikoa eta operatiboa da, hain zuzen ere, nazioarteko komertzioan alde ugariena arteko akordioak garatzea, geometria aldakorreko formatuekin. Auzi berrietan, MMEko 164 herrialdeak ados jartzeko aukera baztertua dago, baina, bien bitartean, gobernantza-sistema berririk ez da egonkorta.

Bestalde, trantsizio horretan, gero eta indartsuago ageri dira, besteak beste, lan-babeserako marko juridikoaren ahultzea, aktibitate ekonomikoaren liberalizazioa, edota lan-harremanen indibidualizatzea. Gainera, ekoizpen globalak eta enpresa txikizkarien nagusitasunak osagai eta horniduren azpikontratazio-politika bereziak ahalbidetzen ditu (gerta liteke enpresa handiak ekoizpen-prozesu osoan lantegi baten jabetza ere ez izatea), eta horren ondorio zuzena da laneko, osasuneko eta ingurumeneko betekizunen erabateko arduragabetzea (etikoa, administratiboa, zigortzailea) (Lessenich 2016). Horrek ere, noski, lehiarako aukera ezberdinak eragiten ditu enpresa batzuen eta besteen artean, gardentasuna eta erregulazioa hobetsi ezean.

1.4. GORABIDEAN DAUDEN AUZI POLITIKOAK

Globalizazio berrian –ekoizpen-kate globalekin eta nazioarteko harreman komertzial eraberrituekin batera–, hirugarren gai esanguratsua herrialde aurreratuetan gaur egunean azaleratzen ari diren fenomeno politiko eta sozialak dira. Horien artean sakonduko ditugu, kasurako, erregulazio liberalaren krisia, globalizazioaren zatiketa-arriskua, eta erdiko klasearen mutazioa. Halakoak ere, ezinbestean, globalizazio-prozesuaren osagai eta baldintzatzaileak dira, aurreko atal banatan aipatu ditugun dimentsio produktibo eta komertzialekin batera. Jarraian, beraz, globalizazioaren dimentsio politiko eta sozialean ipiniko dugu arreta, hiru gogoeta-adibide baliatuta.

1.4.1. ORDENA LIBERALAREN ESTUTASUNAK

Mendebaldeko gizarteetan ordena ekonomikoa antolatu eta kudeatzeko XX. mendearen bigarren erdialdean zehar baliaturiko gobernantza-sistema krisian dago. Horren erakusgarri dira nazioarteko ordena ekonomiko liberalaren legitimazioa higatzea, auzi globalak kudeatzeko erakunde aldeaniztunen gaitasun ez-eraginkorra (Nazio Batuen Erakundea, Munduko Merkataritza Erakundea, Mundu Bankua), eta protekzionismoaren aldeko adierazpen berrien hauspotzea, besteak beste. Izan ere, ordena liberalaren ongarririk (alderdi-sisteman oinarritutako demokrazia, enplegu beteko gizartea, ongizatezko mekanismo erregulatzaileak, nazioarteko gobernantza aldeaniztuna) zalantzati ageri dira, erronka berriei ganoraz erantzun ezinda.

Ordena liberalaren legitimazio soziala bete-betean ezegonkortu duten fenomenoak, bitxia irudi badu ere, gaur egungo dinamika ekonomikoak eurak dira. Horietako batzuk nazioarteko merkataritzari eta finantzei daude lotuak: 1990eko hamarkadaz geroztik, egonkortze ekonomiko eta finantzariarako gaitasuna erabat murriztu zaie gobernu nazionalari; 1890-1975 urteen arteko monopolioaren aurkako legediaren aplikazioa baztertu, eta, azken hamarkadetan, sendotu egin dira enpresen arteko kontzentrazioak eta merkaturako boterea duten enpresak (Posner eta Weyl 2018); enpresen soberakinak modu asimetriko eta ez-eraginkorrean banatzen dira soldaten, goi-zuzendarien ordainsarien eta dibidenduen artean; kapitalaren jabetza oso kontzentratua dago (AEBan, adibidez, biztanleriaren % 10ek aktibo finantzieroen % 92 du, eta erdiko klaseko langileak ez du akzioetan parte hartzeko aukera errealik); finantzak mugarik gabe deserregulatu dira, eta finantza-merkatuek, ondorioz, epe motza eta irabazi handiak lehenetsi dituzte, sektore produktiboaren kaltetan aurrezkiak aktibo finantzieroetara erakarritik eta inbertsio pribatua zaildu eta defizit publikoa nabarmenduz. Globalizazioaren finantza-dimentsioa ulertze aldera, esate baterako, zenbatetsi da 2007. urtean dibisen merkaturuan 1,9 bilioi dolarrera iritsi zirela diruaren transakzio mundialak, eta kapitalaren halako mugimenduak bete-betean eragin du herrialdeen arteko erregulazio-lehian, kapitalarentzat nor erakargarriagoa izango.

Ekonomia errearen eta finantza-ekonomiaren arteko aldeak ere azpimarra merezi du. Mendebaldeko herrialdeetan, 2008ko finantza-krisiak, ekonomiaren zaurgarritasuna (arazoak pertsonen bizitza-baldintzetan, enpresen ekoizpen-gaitasunean, bankuen kaudimenean) ez ezik, sistema finantzarioaren ahultasunak ere azaleratu zituen. 1990eko hamarraldiaz geroztik, nabarmena izan da kapital-fluxuen nazioarteko mugikortasuna, aurrekaririk gabekoa, sistema finantzarioaren liberalizazio- eta desarautze-prozesu orokortua dela eta. Finantzen nagusitasunaren garaia ere bada. Bestela esateko, finantza-fluxuek utzi egin diote fluxu komertzialek baldintzatuak egoteari, eta iparra bankuen aktibitatea da (finantzazioa interes-tasa baxuenean eta xedea errentagarritasun-tasa altuenetan oinarritua). Finantzen eta ekonomia errearen arteko etenaren erakusle modura, banku-aktiboen eta BPGaren arteko harremana hazi egin da. Era berean, 2007. urtean, BPGarekiko komertzioa eta finantza-fluxuak maximo historikora heldu ziren. Giro horretan, 2007ko udaran finantza-krisia lehertu, eta, 2008ko udazkenean, Lehman Brothersen porrotarekin, krisia eurogunera iritsi zen; kredituaren eta higikorren prezioaren hazkunde konbinatuak esplikatzen ditu geroko defizit komertziala eta fiskala (Tooze 2019). Alabaina, merkatuko mekanismoen egokitzapen automatikoa berrogei urtez ahotan erabili ostean, berehalakoan portaera ekonomikoa bestelakotu, merkatuaren efizientziaren ideia baztertu, eta erakunde publikoen interbentzioa hobetsi zen. Bilakaera oldarkor hori –eta bidean eragindako kalteak– ezin daitezke bazterrean utzi ordena liberalaren krisiari buruzko gogoeta egitean.

Nazioarteko merkataritza eta finantzei loturiko auziekin batera, bigarrenik, ordena liberalaren krisia lanaren eta kapitalaren arteko errenta-banaketa loturiko transformazioek ere esplikatzen dute. Mendebaldeko herrialdeetan, lan-errentaren munduko batez besteko jaitsiera 5 puntu portzentual ingurukoa izan da azken hogeita hamabost urteotan (Karabarbounis eta Neiman 2013). Lanaren parte-hartzea sektore gehienetan jaitsi da; ez soilik kualifikazio ertain-baxuko langileen parte-hartzea (beraz, lan-errentak pisua galdu izanaren esplikazioa ezin da izan produktzioa lan intentsiboko sektoreetatik intentsitate baxuagoko sektoreetara aldatu izana). Azken urteotako fenomeno orokorragoekin du lotura: teknologia berriek makineria eta ekipo-ondasunak (kapital produktiboa) merkatu eta eraginkorrak egin dituzten heinean, enpresetan kapitalak lana ordezkatzeko joera sendotu da. Hori erraztu egiten da, gainera, langileek botere erlatiboa galdu (i.e. afiliazio sindikalaren jaitsiera), enpresen marjinak igo, eta enpleguaren konposizioan kualifikatuen eta ez-kualifikatuen artean aldaketak gertatu ahala (Jorgenson eta Timmer 2011). Neurri horien ondorioetako bat, noski, inbertsioak gora egitea eta BPGa eta kontsumoa igotzea da; alegia, ongizate sozial agregatuak gora egiten du, baina beste ondorioa da herritarren artean banaketa gero eta asimetrikoagoa dela enpleguari, ordainsariei eta mugikortasun sozialari dagokienez. Bi zehar-ondorio,

adibiderako: lan-errentaren parte-hartzea erori, eta kapital-errentarena hazi egin da (Piketty *et al* 2018); kapitalismo industrialeko soldata-harremana hautsi egin da, eta maileguak gero eta pisu handiagoa du kontsumo pribatuan. Hori dela eta, hazkundera izan den eskualde eta gizataldeetan ere, azken hamarkada hauetako erreakzio negatiboa, eta ordena liberalari kritika soziala, neurri batean, banaketa partzialari loturik dago.

Alde horretatik, ekonomia industrialaren antolaketa politiko, sozial eta ekonomikoa zimendatu izan duten zutabe oinarritzkoak ez dira gai herrialde aurreratuen dinamika nagusiak ulertu, arautu eta kudeatzeko. Ongizate-estatuak ahultzearekin, krisi ekonomikoaren eragin sozialak arintzeko gaitasunak mugatuta dauden heinean, ordena liberalarekiko aukera apurtzaileen eskari politikoak geldiarazi eta alternatiba liberala berbideratzeko eraginkortasuna eta sinesgarritasuna ere gero eta txikiagoak dira. Populismoa sintoma bat da. Hainbat gizarte-sektoretan globalizazioak atzean utzi (*left-behind*) dienaren edo galtzaileak direnaren bizipena ere badago, eta alderdi tradizionalen aurkako hautematea, mobilizazioa edota botoa ere indarra hartzen ari da. Erakundeek auziak modu eraginkorrean kudeatzeko gaitasuna galtzeak ordena liberala eta haren legitimazioa soziala ahultzen ditu.⁹

1.4.2. MERKATARITZAKO SISTEMA ALDEANIZTUNAREN KRISIA

Ekonomia-gaiei buruzko agenda politikoaren bigarren adibidea nazioarteko komertzioa sistema aldeaniztunaren krisia da. XX. mendearen bigarren erdialdean, bi printzipio baliatu dira, alde edo molde: alde batetik, herrialde batek aduanako muga-zerga jaisten badio beste bati, honek ere hari gauza bera egin beharra dio, neurri asimetrikoak ekiditeko (elkarrekikotasun printzipioa); bestetik, MMEko herrialde-kide batek beste bati baimen komertziala emanez gero, gainontzeko guztietara ere zabalduko du (ez-diskriminazioaren printzipioa).

ERALDAKETA GLOBALAK ETA ESKUALDEEN GARAPEN SOZIALA ETA EKONOMIKOA

Printzipio bi horiekin bideratu nahi izan dira, hain zuzen ere, 1930eko Depresio Handia eta Bigarren Mundu Gerra, eta, gero, 1944tik aurrera, liberalizazio komertziala, garapen ekonomikoa eta egonkortasun finantzarioa. Gogora dezagun AEBko Gobernuak Smoot-Hawley Legea onartu zuela, 1929ko krisi ekonomikoak eraginda, eta horrek ehun urtetako muga-zergen igoera handiena ekarri zuen (% 20ko batez besteko igoera), eta, finantza-krisia Europara iristearekin batera, komertzioaren mugak orokortu, eta % 66 jaitsi zen komertzioaren nazioarteko fluxua. Protekzionismoari leporatu zitzaizkion, hain zuzen ere, ekonomia globalaren hondamendia eta Bigarren Mundu Gerra lehertu zituen nazionalismo ekonomikoa. 1930eko urteetan harturiko neurriek utzitako irakaspena argia zen. Hori dela eta, irakaspén historikoak, eskualdeen integrazio ekonomikoak eta ekoizpen-kate globalek garrantzia hartzeak bost hamarkadako epean nazioarteko komertzioan pixkanaka neurri aldeanitzunak egonkortzea eta neurri protekzionistak ahultzea ekarri dute.

Haatik, estatuen arteko gerra komertzialek erakusten dute, alde anitzeko eta kooperaziozko gobernantza ekonomikoaren kaltetan, merkataritzako azuetan pixkanaka nagusitzen ari direla unilateralismoa (AEBren errepresalia komertzialak Europar Batasunari eta Kanadari, boikotak MMEri, Ipar Amerikako Merkataritza Libreko Ituna indargabetzea, esate baterako)¹⁰ eta bilateralismoa (Txinaren eta Errusiaren arteko aliantza, edota Europar Batasunak eta Kanadak erdietsia, adibidez).¹¹ MMEren eta herrialdeen arteko gatazken konponketarako mekanismoak, nazioarteko auzitegi ekonomikoaren papera jokatzuz, balio handikoak izan dira. Izan ere, herrialdeek ziurtasuna izan dute, nork bere egin zezakeelako premisa nagusi bat, alegia, ondasunen esportazioa bermatua dagoela eta muga-zerga oportunistek ez dutela komertzioa trabatuko. Ostera, arauen gaineko arduragabekeriak eta ziurgabetasunak eskutik ekarri ohi dituzte konfiantzaren galera, inbertsioen motelaldia eta ongizatearen galera agregatua.

Zehazki, gerra komertzialak nazioartera irekitako ekonomiak kaltetzen ditu. Izan ere, neurri protekzionistak sendotuz, inportazio-eskubide altuagoek merkataritza-kostuak eragiten dituzte (ondasun komertzializatuen kopuru gero eta handiagoren eta prezioaren igoera etengabearen eraginez). Hori oraindik eta gehiago nabarmentzen da gaur egunean ekoizpen globaleko hornidura-kateen garrantzia dela eta; ekonomiako balio-kate globalen pisua dela eta, salgaiek hainbat muga gurutzatzen dituzte (bitarteko ondasunek, bereziki). Prezioen inguruko ziurga-

10. Krugman, P. (2018). Making Tariffs Corrupt Again. *The New York Times*, Sep 20; Smith, D. (2019). Trump's new Cuba crackdown puts US at odds with Canada and Europe. *The Guardian*, Apr 17; Elliot, L. eta R. Partington (2018). US on brink of trade war with EU, Canada and Mexico as tit-for-tat tariffs begin. *The Guardian*, May 31; Rappeport, A. eta J. Tankersley (2018). Trump Berates Canada and Threatens Car Tariffs as Nafta Talks Falter. *The New York Times*, Sept 26; Behsudi, A. (2019). Trump ramps up attack against WTO. *Politico*, July 26.

11. Westcott, B. (2019). Xi meets 'best and bosom friend' Putin amid raging US trade war. *CNN*, June 5; Stavridis, J. (2019). China and Russia Want to Control the 'World Island'. *Bloomberg*, June 10; Beattie, A. (2019). Canada and the EU build the transatlantic Axis of Nice. *Financial Times*, July 26; Darrah, K. (2019). EU and Canada agree on interim alternative to WTO appeal court. *Financial Times*, July 25.

betasunak esplikatzeko du neurri batean nazioarteko komertzioa moteltzea. Jar dezagun adibide bat: enpresa edo herrialde batek nazioarteko balio-kateetan parte hartuz gero (jo dezagun haren produkzioa nagusiki beste herrialdeetan sargai (*input*) industrial gisa erabiltzeko osagaiak direla), eta komertzio globala ahuldu eta balio-kateak eteten badira, kasu horretan kanpo-superabit handiko herrialdeak kaltetuak izango dira. Europa, esate baterako.¹²

Hori da hausteko zorian dagoena;¹³ modu koiunturalean, gainera, Donald Trump AEBko presidentea, gerra komertzialari ekitearekin batera, bertan behera utzi du MMERen gatazkak konpontzeko auzitegiko epaileen izendapena.¹⁴ Horrek ezohiko egoera bat dakar. Izan ere, gaur egunean, ekonomien arteko interdependentzia hazi egin da (XX. mendearen bigarren erdialdeko AEBren nagusitasunarekin alderatuta, esaterako, botere ekonomikoa sakabanatua dago, eta auzi ekonomiko, komertzial, finantzario, teknologikoen gaineko erabakiak deszentralizatu egin dira), eta aukerakoa izan zitekeen lehiakideen artean politika aldeaniztunak koordinatu eta ebaztea. Momentuz, ordea, joera bestelakoa da, eta muga-zergen gatazkak nabaritasuna hartu du. Gainera, muga-zergen gatazkek, fluxu komertzialen makalatasuna eragiteaz gainera, egiturazko izaera hartu ahala, eragina dute finantza-merkatuetan, arlo teknologikoan, erregulazioan, zergetan eta kontsumo-portaeretan. Esate baterako, gerra komertzialaren eta moneta depreziatzearen epe motzeko eragina da herrialde esportatzaileetan lehiakortasuna galtzea, eta galera horri erantzunaz kapitalak errentagarritasun altuagoak lortzearen ordainetan (likidezia dagoen heinean onurak bilatzen dira) jatorriko herrialdean burbuilak eragitea. Historiako irakaspen ekonomiko nagusiak aldiro errepikatzen dira.

Esandako guztia AEBren eta Txinaren arteko lehia komertzialak berresten du. 2018an zehar, AEBren eta Txinaren artean alde batek besteari ezarritako muga-zergak hesiak ipini dizkiote komertzioari; zehazki, muga-zerga berriek urteroko trukearen 360.000 milioi dolar baino gehiagoko balioa izan dute.¹⁵ AEBren aldetik, muga-zergen inposizioa modu progresiboan egin da, eta herrialde askori eragin die: aurrena (2018ko urtarrila), eguzki-panelen inportazioari % 30eko muga-zergak (Kanadari izan ezik) eta garbigailuei % 20koa; ondoren (2018ko martxoa), altzairuaren inportazioari % 25eko muga-zergak eta aluminioari % 10ekoa (neurri horrek bereziki Txina eta Europar Batasuna kaltetu zituen); jarraian, Europar Batasunak erantzun zuen 3.200 milioi dolarreko balioarekin AEBko produktu-sortari % 25eko muga-zergak ezarri, eta Txinak ere AEBko 128 produkturen inportazioei % 15etik % 25era arteko muga-zergak igo zituen; eta AEBk aukera ireki zuen automobilen inportazioari % 20tik % 25era arteko muga-zergaren igoera ebazteko. Orduz

12. Riley, Ch. (2019). The trade war is part of a 'perfect storm' hitting Europe's biggest economy. *CNN Business*, August 7; Pladson, K. (2019). German Industry Suffered Worst Annual Drop in a Decade in June. *Bloomberg*, August 7.

13. Donna, S. eta B. Baschuk (2019). Trump's Bid to Dismantle Global Trading System Poised for a Win. *Bloomberg*, July 30.

14. Miles, T. (2018). U.S. blocks WTO judge reappointment as dispute settlement crisis looms. *Reuters*, August 27; de Miguel, B. (2019). La UE lanza una vía alternativa en la OMC ante el bloqueo de Trump. *El País*, Jun 10.

15. Hirtzer, M. eta T. Polansek (2018). Trade wars cost U.S., China billions of dollars each in 2018. *Reuters*, December 28.

geroztik, gerra komertzialak ez du etenik izan.¹⁶ Gerra komertzialei ekin aurretik, AEBk Txinari ipinitako muga-zergak % 3koak ziren, eta Txinara inportatzen diren ondasun estatubatuarrenak, berriz, % 8koak.

Beste adibide bat ipintze aldera, nazioarteko merkataritzaren arauak hausten ditu AEBk europar enpresak mehatxatu izanak Iran edo Kubarekin negoziak egiteagatik.¹⁷ Huawei enpresa txinatarrarekin negoziak egiteari edo hornidurak lizentziarik gabe saltzeari AEBk enpresei debekua ezarri izanak, berriz, erakutsi du erabakiek kontsumitzaileengan eragin dezaketela epe-tarte laburrean (kontsumitzaileari Googlek garaturiko Android sistema operatiboa gaurkotzeko aukera eragozten zaiolako, kasu honetan).¹⁸ Guztiarekin, nazioarteko dinamiketan, AEBk aldiro baliatu ditu zigor ekonomikoak, muga-zergen mehatxua edo dolarra erabiltzea nazioarteko ordainketetan, bereziki esku-hartze publikoa hobesten duten ekonomietan,¹⁹ baina 2010eko hamarraldi osoan zehar ageriko garrantzia hartu dute, eta arauen-sistema aldeaniztunak pisu nabaria galdu du harreman komertzialetan. Txinarekin duen lehia berezia –teknologikoa eta industrial– dela eta (Sun eta Grimes 2017), azken bi hamarkadetan, AEBko administrazioak sarritan ebatzi du konpainiek Txinari enpresen, horniduren edota teknologiaren salmenta debekatzeko ere (esate baterako, 2015. urtean Intel, Nvidia eta AMD konpainiei erdiekoaleen alorreko teknologia saltzea galarazi zitzaien). Alde horretatik, muga-zergak, arau-sistema aldeaniztuna kaltetu, eta berariazko osagaia bilakatzen ari dira nazioarteko komertzioaren dinamikan.²⁰

Taularen beste aldean ere, ifrentzuak bistakoak dira: Txinako ekonomian, aparteko garrantzia dute gobernuek enpresei emaniko subsidiok; beren portaeren bitartez, jabetza-eskubidea era batera edo bestera urratzen dute, eta, Txinan, ahula da herrialde aurreratuetako esportazioen barneratzea (Txinaren eta AEBren arteko balantza komertziala, adibidez, oso desorekatua da: 419.000 milioi dolar dira Txinaren mesedetan). Portaera-patroi horiek ez datoz bat merkataritza aldeaniztun askearen dinamika arruntarekin. Halere, Txinak bere horretan ez ditu MMEren arauak bortxatzen, 2001. urtean bere sarbidea onartzearekin batera protokolo berezia aplikatzea ebatzi zelako, eredu ekonomiko berezia zuen heinean (gorabidean dagoen herrialdea izaki).²¹ Hori dela eta, Txinak badu esku-hartze publikoarekin inbertsioak egiteko aukera (bereziki, mendekotasun teknologikoa duen alorretan) eta atzerriko inbertsio zuzena baldintzatzeko diskrezio-maila altua (aukera du, beraz, atzerriko enpresei Txinako espazio ekonomikoan aritzeko baimenaren ordaine-

16. Ikus muga-zergei buruzko ezarpenak denbora errealean: Wong, D. eta A.C. Koty (2019). The US-China Trade War: A Timeline. *China Briefing*, Aug 6. [Kontsulta-eguna: 2019-08-11.]

17. Seadat, P. (2018). Europe faces a choice over Iran: uphold its values or surrender its credibility. *Euronews*, June 5; Tertrais, B. (2018). Trump is wrong over Iran, but Europe can't afford to divorce the US. *The Guardian*, May 16.

18. Tsang, A. eta A. Satariano (2019). Huawei's European Customers Are Put on Hold by U.S. Ban. *The New York Times*, May 24.

19. Brown, E. (2019). Neoliberalism Has Met Its Match in China. *Brave New Europe*, Aug 8.

20. The Economist (2019). More American tariffs on Chinese imports are coming. *The Economist*, Aug 2; Patrick, S.M. (2019). Trump's Search for Absolute Sovereignty Could Destroy the WTO. *World Politics Review*, March 25.

tan bazkidetza-neurria eskatzeko eta hedaduraz haien teknologia bereganatzeko). Baina, azken hamarkadetan nazioarteko erakundeek halako portaerak toleratu izan badituzte ere –lehenago Japonian edota Hego Korean bezalaxe–, oraindik orain Txinak munduko ekonomian harturiko pisua dela eta, enpresek joko-arau desorekatuekin aritzeak ordena liberal aldeaniztunaren mugak sendotzen ditu. AEBk preseski hori leporatzen dio; alegia, esportazio-politika sendoa bideratzen duen aldi berean elkarrekikotasun printzipioa ez aplikatzea.²² Txinaren hazkunde esponentzialak eta 2008ko finantza-krisi globalaren osteko faseak bestelako mundu bat azaleratu dute, eta auzi haiek kezka nagusi bilakatu dira.

Europako Batzordeak (EB) ere, 2019. urtean, Txinari buruz esan du «gobernantza-eredu alternatiboak sustatzen dituen lehiakide sistemikoa» dela;²³ arau eta portaera aldeaniztunekin bat ez datorren antolaketa politikoa eta ekonomiko berezia dituela, alegia («socialism with Chinese characteristics»). Txina ekonomia askeko merkatu internazionalen lehiatzen da, baina haren politika ekonomikoa esku-hartze publikoan oinarritua dago (ikus 3.5. kapitulua). Hori dela eta, EBk MME eraberritzeko xedea du, eta ez bertan behera uztekoa.²⁴ Erreformak, besteak beste, modernizatu asmo ditu subsidioei buruzko araudia, jabetza intelektuala, enpresa publikoen auzia, zerbitzuen arautegia, segurtasun nazionalaren klausura, eta garapen bidean dagoen herrialdearen kontzeptua. EBk, gainera, badaki gobernantza aldeaniztunaren alternatiba bakarra potentzia biren politika dena (AEB eta Txina), EBren kaltetan.

Ingurumari gatazkatsu horretan, azken urteotan, nazionalismo geopolitikoak eraginda, arreta piztu dute ekonomia globalaren segmentazioak eta globalizazioaren bereizketak. Hipotesiak zera dio: munduko ekonomian badaude bi globalizazio ezberdin eta bereizi garatzeko aukerak; gaur-gaurkoz bederen, AEBk eta Txinak garaturiko estrategiak (merkataritzarako azpiegiturak, sistema produktiboak, lidergo teknologikoa eta digitala) bateraezinak diren neurrian. Izan ere, hurrengo bi kapituluetan zehar ikusiko dugun moduan, ezagutza teknologikoa, berrikuntzen garapen komertziala eta produktibitatearen hazkundera AEBko eta Txinako eremu jakinetan kontzentratzen ari diren heinean, lehia teknologiko eta geopolitikorako aukerak areagotu dira. Muturreko irakurketa baten arabera, joera ekonomikoak linealki estrapolatuz gero, Txinak paper hegemonikoa eskuratu dezake munduan, baina susperraldian (Txina) eta gainbeheran (AEB) dauden potentzia bien arteko eskualdatzea ez da modu baketsuan egingo, eta agertoki belikoa aukerako agertokia da –historian zehar munduaren hegemonia eskualdatu den hamasei kasuetatik hamabitan gertatu bezala (Allison 2018)–. Tesi horren aurrean, irakurketa errealistago bat ere planteatu daiteke, ordea: herrialde bien artean merkataritza- eta

21. https://www.wto.org/english/thewto_e/acc_e/a1_chine_e.htm [Kontsulta-eguna: 2019-04-06.]

22. Swanson, A. (2019). Trump Presses World Trade Organization on China. *New York Times*, July 26.

23. European Commission (2019). Commission reviews relations with China, proposes 10 actions. *European Commission - Press release*. Brussels, March 12.

24. http://trade.ec.europa.eu/doclib/docs/2018/september/tradoc_157331.pdf [Kontsulta-eguna: 2019-07-14.]

finantza-harreman handiak direla eta, bi ekonomiak deskonektatzea biziki zaila da, baina herrialde bakoitzak bere burua aski izateko ahalegina egingo du (auzi teknologikoan, komertzialean, energetikoan, elikaduran), eta, bi eragin-eremu sortu, eta gainontzeko herrialdeak batera edo bestera lerrokatzera behartuko dituzte.²⁵ Adibide bat: Huawei esku artean du sistema operatibo propioa (HarmonyOS), zeina Androidekin lehiatuko baita; gailu adimendun guztientzako sistema operatibo bakarra izateko xedea du, eta, egitasmoa gauzatuko balitz, merkatua zatikatuko litzateke (Googlek ez luke Windowsena bezalako monopoliorik lortuko), eta gerta liteke, gainera, Android baino hobea izanez gero, Huawei mugikorrek teknologia hobea eta merkeagoak ere izatea.²⁶ Hori adibide bat baizik ez da. Bien bitartean, gorputza hartzen ari da, teknonazionalismoaren erakusle gisa, Internet bitan zatitzea, operadore, eragile eta datu-fluxu banarekin.

Nolanahi ere, arau aldeaniztunen ahultzea bistakoa da; alegia, eskualde-mailako akordioak eta akordio bilateralak indartzen ari dira, baita potentzia nagusien portaera unilaterala ere. AEBk, gainera, lidergo ekonomikoak galtzeko aukera erreala begitantzen dituen heinean, gerra komertziala indartu eta luzatuko du, bere baitan itxiz. Lehen datuek hala iradokitzen dute. XX. mendearen bigarren erdialdean zehar, nazioarteko komertzioak etengabe gora egin du. Zehazki, 1990eko hamarkadaz geroztik eta 2008ra bitartean, ondasun eta zerbitzuen komertzioa munduko BPGaren % 39 izatetik % 61 izatera pasatuko da.²⁷ Haatik, gerra komertzialarekin, esportazioen % 50 izan da gutxienez kaltetua, eta, 2019. urtearen hasieran, komertzio globala munduko BPGaren % 58 izatera jaitsi da.

2018. eta 2019. urteetan, esaterako, Txinaren kasuan osagai elektronikoak, ekipo elektrikoak eta makineria izan dira kaltetuenak, eta eurogunean, berriz (5.500 milioi dolarreko zerga-tarifak orotara), metal basikoa eta metal fabrikatua. AEBk ezarritako muga-zergek 300.000 milioi dolarreko balioa dute (268.000 milioi euro), komertzio osoaren % 13 (1930. urtean, Depresio Handiaren testuinguruan, Smoot-Hawley Legea onartu zenetik, inoizko handiena), eta horri gaineratu behar zaizkio Txinak herrien arteko komertzioari ezarritako zergak (100.000 milioi dolar; alegia, 89.3000 milioi euro).²⁸ Txinaren eta AEBren arteko harreman partikularrean arreta ipiniz gero, berriz, muga-zerga erantsiak ezarri eta lehen hilaletan (2019ko ekaina), zera ikus daiteke: Txinatik AEBra esportaturikoa % 7,8 jaitsi da (39.283,3 milioi dolar) 2018ko ekainarekin alderatuz, eta, maiatzarekin alderatuta, % 4,2. Nabarmenagoa izan da AEBtik txinatarrek inportaturikoan eragina: urteko jaitsaldia % 31,4koa izan da, eta, maiatzarekin alderatuta, %13,2koa (9.359,3 milioi dolar). Era batera edo bestera, gerra komertzial eta teknologikoak eskaintzari loturiko krisiak eragin ditzakete.

25. Rachman, G. (2019). The US, China and the return of a two-bloc world. *Financial Times*, March 11.

26. Goh, B. eta S. Jiang (2019). Huawei unveils Harmony operating system, won't ditch Android for smartphones. *The Guardian*, Aug 9.

27. Gunnella, V. eta L. Quaglietti (2019). The economic implications of rising protectionism: a euro area and global perspective. *ECB Economic Bulletin*, Issue 3/2019

28. Foy, M. (2019). U.S. Consumers Have Borne the Brunt of the Current Trade War. *The National Bureau of Economic Research*, May 2019.

Ikusi egin beharko da zer eragin dakartzan desglobalizazioan eta kate produktiboan dislokatzean, bai eta ere nazioarteko ekonomiaren bilakaeran eta gobernantza-sisteman. Gure asmoei dagokienez, beraz, nazioarteko komertzioaren sistema aldeaniztuna krisian dago. Muga-zergen gatazka –hurrengo bi kapituluetan ikusiko dugunez– AEBren eta Txinaren arteko lehia teknologikoa bilakatu da, auzi geopolitikoan bete-betean eragiten duena, eta, bien bitartean, nazioarteko sistema aldeaniztunak erantzun-gaitasun eraginkorrerako zailtasunak ditu. Hori ere bada globalizazio berriaren ezaugarria.

1.4.3. ERDIKO KLASEAREN MUTAZIOA

Gorabidean dauden auzi politiko eta sozialen hirugarren adibidea –ordena liberalearen eta sistema aldeaniztunaren krisiarekin batera– erdiko klasearen mutazioa da. Mendebaldeko herrialde aurreratuetan, erdiko klase zabalak egituratu du gizarte industriala; erdiko klasean kokatu da herritarren gehiengoa, eta integrazio soziala erraztu du. Baina dimentsio material eta instituzional horrez gainera, erdiko klaseak iruditeria subjektibo bat ere elikatu du (erosteko ahalmena eta jabetza, belaunaldien arteko mugikortasun soziala, gizartearen integrazioa, errepresentazio politiko liberala). Gaur egunean, ordea, Mendebaldeko gizarteetan, klase popularrak hauteman du aurrerabideari loturiko balioen eroaleak izateari eta globalizazioaren irabazien onuradunak izateari utzi diotela.

Alde batetik, maila globalean errenta % 80 inguruan (alegia, % 20 aberatsenean) duen Mendebaldeko erdiko klasearen diru-sarrerak geldialdian daude. AEBetan, esate baterako, 1979. urteaz geroztik, % 80 hazi da per capita produktu erreala; erdiko klaseko langilearen irabazi erreala, aldiz, % 7 hazi da (hobekuntza gainera emakumeen laneratzeari zor zaio, zeren gizonezkoen irabazi erreala jaitsi egin da). Horrez gainera, erdiko klaseko langilearen egoera eskastu eta bizitzako kostuak hazi egin zaizkio, edo espektatibak ziurgabetasunez gainetza ditu, eta nabari du bere ondorengoen biografietan agian goranzko mugikortasunik ez dela gehiago izango (mugikortasun sozioekonomikoaren galera). Espektatiben frustrazioak eskutik du erdiko klase asmotsuaren (*aspirational class*) krisia.

Datu orokorrekin ere, neurri batean, hautamen sozial horiek berresten dituzte. Esate baterako, herrialde aberatsetan, erdiko klasea (haren batez besteko soldata errenta nazionalaren % 75 eta % 200 artean kokatzen da) urtzen ari da (erdiko klasearen masa batezbesteko guztiaren % 61 da); errentaren galera 5 puntu portzentualekoa izan da, baina bereziki % 75 eta % 125 artean kokatua dagoen segmentuan izan da galera. Zehatzago esanda, errentaren eskalan behean daudenean intentsitate bereziarekin pairatu dute errentaren galera (diru-sarreraren % 30 baxueneko etxebizitzetan, alegia), eta, hainbat herrialde aurreratutan, erdiko klasea ez da biztanleriaren % 50 osatzera heltzen.²⁹ Guztiarekin, erdiko klasearen parte-hartze portzentuala errenta nazionalan mantentzen da. Bestela esanda, erdiko klasea estutzen ari da, baina erdiko klasearen egoera antzera mantentzen da (Salido & Carabaña 2019).


Zehaztapen horiek aparteko garrantzia dute, erdiko klasearen mutazioa eta ezberdintasun sozialak ganoraz ulertzeko. Izan ere, aldaketa inportanteena da erdiko klasea gero eta gehiago estutzen dela, eta hori lotua dago langabeziarekin eta lan-intentsitatearen jaitsierarekin (behin-behinekotasuna eta aldi baterako enplegua); soldata-sakabanaketa ere handitu da, baina ez da hain adierazgarria. Digitalizazioak eta globalizazioak eraginda, ekonomia aurreratuetan –Europar bereziki–, enplegu gehiena erdi-mailako soldatakoen lanbideetan galdu da: autoktonoen eta behe-erdiko hezkuntza-mailako pertsonen lanbideetan; alegia, fabrikako operadoreak, gidariak, bulegariak, makineriako operadoreak, eskulan kualifikatuko langileak (Goos et al 2014). Talde sozioekonomiko horren disfuntzionaltasuna lane-ratzeko arazoek egiaztatzen dute (Kunst 2019).

Nazioarteko Moneta Funtzak (NMF) eskainitako datuen arabera,³⁰ teknologia enpleguaren dislokazioa eragiten ari da ekonomia aurreratuetan eta zenbait belaunalditan: berrogeita hamar herrialde ekonomiko handienetatik hogeita bederatzitan, eskulana ordaintzera bideraturiko diru-sarreraren proportzioa jaitsi egin da, baina bestela gertatzen da kapitalaren jabedunekin. Diru-sarreraren parte-hartzean, jaitsiera nabariena *baby boom* belaunaldiko kualifikazio baxueneko eskulanean gertatu da, eta bereziki ekonomia aurreratuetan eta sektore automatizagarrienean –fabrikazioa, garraioa, komunikazioak–, baina, oro har, ekonomia aurreratuen gainbeheraren ia erdia eraldaketa teknologikoari zor zaio. Gainera, erdiko klasekoa izatea belaunaldiz belaunaldi zailtzen edota atzeratzen ari da (1. grafikoa).

29. OECD (2019). *Under Pressure: The Squeezed Middle Class*. Paris: OECD Publishing.

30. International Monetary Fund (2017). *World Economic Outlook: Gaining Momentum?* April 2017. Washington: International Monetary Fund.

1. grafikoa: Belaunaldien aukerak erdiko klaseko diru-sarrerak izateko (biztanleriaren portzentajea erdi-klaseko diru-sarrerak dituzten etxeetan, belaunaldiaren eta bizitza-zikloko etaparen arabera)



Erdiko klasearen mutazioak, ordea, aukera-berdintasuna tratatzea eta belaunaldiz belaunaldi estatusa errepikatzea ere iradokitzen du, sakon-sakonean. 1950eko hamarkadaz geroztik, klase popularrak erdiko klasearen estatusa lortzeko aukera izan du, eta, belaunaldiz belaunaldi, pixkanaka, aukerak handituz doa. Hezkuntzaren bidez, goranzko mugikortasun horrek etorkizunaren gaineko espektatiba positiboak eragin ditu biztanleriarengan. Aldaketa sozialaren fluxuek, ordea, orain artean bezala hazteari utzi diote. Beste era batera esanda, halako egonkortze bat gertatu da mugikortasun-tasetan, hezkuntza-ziurtagiriak ez baitu zertan bermatu enplegu kualifikatua; aldi berean, hezkuntza-ziurtagiriak ugartu dira, eta enplegu kualifikatuak sortzea erabat zaildu da. Hori dela eta, belaunaldien arteko mugikortasun-fluxuak eteten ari dira. Baina, horrez gainera, bizitza pertsonalean, norbanakoaren ibilbidean mugikortasun soziala ere etenda geratzeko arriskua dago, bereziki estatus sozialean behera jaitsi ahala: ELGAko herrialdeetan (Ekonomia Lankidetzeta eta Garapenerako Antolakundea; OECD, ingelesezko sigletan), batez beste, % 20 txiroenen artean, % 57 estratu berean harrapatua geratzen da bizitza osoan. Izan ere, haurren txirotasunak eragina du bizi-espektatibetan, konfiantzan, motibazioetan eta kognizioan, eta, ezberdintasunak handitu eta ongizatearen mekanismoak ahuldu ahala, krisia pertsona zaurgarriekin grinatzen da bereziki.

Erdiko klasea mututzen ari den bitartean, beste alde batetik, nazioarteko merkataritzak eta eraldaketa teknologiko eta digitalaren prozesuak errentaren banaketan goian daudenen alde egin du (*winners take all*). Era berean, ekonomia aurreratuetan, desberdintasun sozialak nabarmendu egin dira, zerga-sistemak eta ondasun eta zerbitzuen erregulazioak eraginda. Izan ere, merkatuaren erregulazioa ez da

egokitu teknologia- eta ekoizpen-modu berrietara (enpresa digitalen fiskalitatea, diruaren eta aktibo finantzarioen mugimenduen gaineko zergak), eta horrek enpresa teknologiko handiei merkatuko boterea mantentzea, irabaziak haztea eta onurak prezioetan ez islatzeko aukera ere ekarri die.

Baina, Mendebaldeko gizartean, batzuen eta besteen arteko ibilbide dibergente horri beste fenomeno berri eta sakonago bat gaineratu behar diogu: munduan, etengabe eta arrapaladan, erdiko klasearen tamaina hazten ari da (i.e. aukera duena –zergak ordaindu eta oinarrizko gastuak estali ostean– diru-sarrera netoekin ondasun iraunkorrek erosteko, aisialdirako, oporretan joateko, aurreikusi gabeko egoerei aurre egiteko).³¹ Planeta osoko biztanleriaren lansariak aintzat hartuta, 1998-2008 artean % 75 hazi zen batez besteko soldatan bosgarren dezilean daudenen ordainsaria (% 1 aberatsenen ordainsaria % 65 igo da, eta zortzigarren dezilean daudenen mantendu egin da, esate baterako).

Erdiko klasearen eraldaketari dagokionez, arrazoi nagusietako bat globalizazioak Mendebaldean eta Asiaren ekialdean izaniko eragin ezberdina da, eta horri zor zaio ordainsarien banaketako egitura aldatzea. Aro industrialean –1970eko hamarkadara bitartean–, ekonomia aurreratuek, herrialde barruko desberdintasunak txikitu, eta aberastasun konparatua euren mesedetan handitu zuten munduan; alegia, Mendebaldeko erdiko klasea egonkortu, eta desberdintasun globalak areagotu ziren. Ostera, ekonomia aurreratuen desindustrializazioarekin eta globalizazio berriarekin, joerak bestelakoak dira: aberastasuna mundura hedatu da; mundu-mailako erdiko klasea handitu da; Mendebaldeko erdiko klasea mutatu, estutu eta haren hazkundea gelditu da; ezberdintasun sozialak (eta txirotasun absolutua) eskala globalean txikitu dira (bereziki Txinan eta Europako ekialdean), eta herrialdeen barruko desberdintasuna sendotzen ari da (Milanovic 2016).

1.5. GLOBALIZAZIOAREN BALDINTZATZAILE ETA OSAGIAK

Kapitulu honetan zehar, 1970eko hamarraldiaz geroztiko ziklo ekonomikoaren sintesi-ariketa bat osatu dugu. Izan ere, garraibide eta azpiegiturretan eta IKTetan izandako aurrerapen teknologikoei esker, harreman komertzialak eraldatu, produkzioa, komertzioa eta inbertsioa balio-kate globaletan antolatu, eta enpresa-

31. Kharas H. eta K. Hamel (2018). A global tipping point: Half the world is now middle class or wealthier. *Future Development Blog* (Brookings Institute), September 27, <https://brook.gs/2QeP6VK> [Kontsulta-eguna: 2019-05-06.]

eredu berriak sortu dira. Horrek bete-betean eragin du Mendebaldeko herrialdeen egitura sozioekonomikoan, eta mundu-mailako interdependentzia ekonomiko berriak eragin ditu.

Hori dela eta, Mendebaldeko ordena politiko, ekonomiko eta sozialaren pilare nagusiak ere testuinguru global berrira egokitzen ari dira. Azken hiru mendeotan, konbergentzia-prozesu bat gertatu da ekonomia aurreratuetan (hazkunde ekonomikoa, ongizate soziala, belaunaldien arteko pixkanakako mugikortasuna), baina eraldaketa teknologiko eta produktibo berriak Mendebaldeko gizarteetan eragin ditu eten nagusiak. Dibergentzia ekonomiko horiek, gainera, tentsio politikoak eta sozialak azaleratu dituzte.

Kapitulu honetan iradoki dugunez, dibergentzia ekonomikoak eta tentsio soziopolitikoak nazioarteko merkataritzaren eta, hedaduraz, lurralde eta enpresen agertoki globalaren berriazko osagai eta baldintzatzaileak dira. Esate baterako, AEBren eta Txinaren arteko merkataritza-gatazkak zuzeneko eragina izan du nazioarteko komertzioaren hazkundearen geldialdi bat-batekoan (2017. urteko % 5,5eko hazkundetik 2018. urteko % 2,1era), eta atzeraldi global berriaren aukerak ireki ditu.³²

Historia ekonomikoak aldiro egiaztatu ohi digunez, gainera, makroekonomian, sarritan, aldaketa teknologikoak edota nazioarteko lanaren banaketa berriak besteko garrantzia izan ohi dute tentsio soziopolitikoek eta euren eskutik etorri ohi diren muga-zergei, energiaren prezioari edota moneta eta dibisen gaineko esku-hartzeei loturiko gorabeherak (aintzat hartu besterik ez dago, esate baterako, dibisen merkatu globalak egunero 5,3 bilioi dolarreko bolumena duela). Halako neurriak herrialdeen arteko gatazka-tresnak dira, eta, Mendebaldearen desintegrazio sozialaren testuinguruan, populismorako ongarrria ere badira, epe motzean galtzaileen haserrea (*Angry white man*) instrumentalizatzen baita. Gaur-gaurkoz, ekonomia global berriaren osagai eta baldintzatzaileak dira guztiak ere. Horregatik eskaini diegu espazio propioa ekonomiaren globalizazio berriari buruzko kapitulu honetan.

32. International Monetary Fund (2019). *World Economic Outlook: Still Sluggish Global Growth*, July 2019. Washington: International Monetary Fund.



2 ERALDAKETA
DIGITALA

2.1. SARRERA

**2.2. DISRUPZIO DIGITALAREN
BEREZITASUNAK**

2.3. LEHIA TEKNOLOGIKOA

2.1. Sarrera

Ekonomia globalean, nazioarteko merkataritza berriak –ekonomiaren trantsizio postindustrialarekin, enpresa eredu berrien sorrerarekin eta tentsio soziopolitikoekin batera– sakoneko erronkak azaleratzen ditu, lehen kapituluan zehar ikusi berri dugunez. Eraldaketa digitala da joera-aldaketen beste adierazpen bereizlea, laugarren industria-iraultza eragiten ari dena, teknologian eta enpresako kudeaketan gainjartzen diren hainbat berrikuntza direla eta. Bigarren kapituluan, arreta ipiniko dugu disrupzio digitalaren berezitasunetan eta herrialdeen arteko lehia eta estrategia berrietan.

2.2. DISRUPZIO DIGITALAREN BEREZITASUNAK

XXI. mendearen bigarren hamarraldian, momentuz, sentsore adimendunen eta informazioa atzemateko gailuen garapen esponenzialak, eta datuak biltegitatu eta analizatzeko gaitasunak agertoki teknologiko eta sozial zeharo ezberdinean kokatu gaituzte.

Eraldaketa digitalaren olatu berria da (robotika, Gauzen Internet, adimen artifiziala, makina adimendunak, datu masiboak, 5G teknologia, 3D inprimatzea), eta, informazioari, komunikazioari eta Interneti loturiko iraultzaren ostean, berehalakoan iritsi da. IKTek aukera eman zuten giza jarduera oro informazio bidez transmititzeko, eta, gaur egun, datuek balio ekonomiko garrantzitsua dute jarduera komertzialean. Makina adimendunekin, berriz, giza jardueren azken balio erantsia –informazioa ezagutza bilakatzea– ordezkatzeko aukerak zabaltzen dira. 1980ko hamarkadan manufaktura sofistikatu eta lan-metodoak informatizatzea berritzailea izan bazen, industria berriak (industria digitalizatua) manufaktura ulertzeko, ekonomia giteko edota lana antolatzeko moduak irauli ditu.

Trantsizio berria epe ikaragarri laburrean ari da gertatzen. Alde horretatik, aro bateko eta besteko eraldaketa industrialak, aldaketa teknologikoak eta beste eraldaketak (enpresa, enpleguaren konposizioa, lan-merkatua, errenta) bata bestearekin alderatuz gero, transformazioaren erritmoak eta epe-tarteak ez du parekorik (Schwab 2017): lehenengoa 1760-1840 urteetako da (trena eta lurrin-makina); bigarrena, XIX. mendearen amaiera eta XX. mendearen hasierakoa (ekoizpen mekanikoa); hirugarrena, 1960. eta 2010. urteen artean gertatu zen (konputertzazioa); eta, orain, sentsore digitalen ubikuotasunak, adimen artifizialak eta ikaskuntza automatikoak, eta mundu fisikoaren eta biologikoaren konbinazioak aro berria ireki digute.

1970eko hamarraldiaren osteko ziklo produktibo eta ekonomikoan, ezegonkortasuna eta aldakortasuna dira ezaugarri behinenak. Hazkunde esponenzialak aurrera egiteak, besteak beste, ziklo ekonomikoaren goranzko fasearen abantailak bizkor eta berehala aprobetxatzea eskatzen du. Izan ere, ziklo ekonomikoak gero eta laburragoak dira. Baina, aldi berean, egitura produktiboa eraldatzeak edota berrikuntza teknologikoak xurgatzeko gaitasunak askotariko betekizunak ditu, hala nola hezkuntza-sistema gaurkotzea, inbertsio-ahalegina, gihar finantzarioa izatea eta arrisku-kapitala erakartzea, edota marko ekonomikoa eta kulturala aldekoa izatea. Eraldaketen sakonera eta inpaktua ez ditu teknologiak soilik eragiten, beraz.

Esate baterako, egia da teknologia digitalen pertsonen ezagutzak, gaitasunak eta trebeziak zeharka ebakitzen dituztela (aurrerabide teknologiko oro partziala da kualifikazio batzuen alde, eta gainontzekoak ordezkatu edo ahultzen ditu), eta, gainera, teknologia gero eta bizkorrago ari da ordezkaten laneko gaitasun horiek. Baina eraldaketa digitalen enpleguak eta pertsonak ordezkatzeko giza kapitalaren edota lan-indarra formatu eta etengabe prestatzeko neurri formal eta informalekin araberakoa izango da. Dimentsio teknologikoaz gain, giza kapitalak, formazioak eta etengabeko prestakuntzak badute oraindik ere garrantzia.

Gauza bera esan genezake aldaketa sozial eta kulturei loturiko beste hainbat adibideri buruz ere. IKTek ekoizpena eta banaketa nola eraberritu dituzten ulertzen ari ginen bitartean, berrikuntza-zikloen azelerazioak tupustean ipini gaitu bestelako agertoki batean, eraldaketa digitalaren eraginez. Alde horretatik, globalizazioak eta eraldaketa digitalak ez dute soilik aldaketen erritmoa azeleratu, baizik eta, horrez gainera, erakundeek –enpresak, herri-erakundeak, hezkuntza-sistema, komunikabideak– zeharo bizkortu dituzte eraldaketa horiek barneratzeko erritmoa eta premia ere.

ERALDAKETA GLOBALAK ETA ESKUALDEEN GARAPEN SOZIALA ETA EKONOMIKOA

Denboraren faktoreaz gain, ordea, disrupzio digitalak bestelako berezitasunak ere baditu. Alde batetik, mundu-mailakoa eta orokorra da eraldaketa teknologiko eta digitalaren inpaktu demografikoa (adin-kohorte eta belaunaldi guztiei eragiten die), geografikoa (mundu osoan zabaltzen ari da) edota enpresariala (negozioreen prozesu osoan zehar oinarri digitaleko teknologia disruptibo askotarikoak integratzea eskatzen du). Lehen aldia da iraultza teknologikoak hiru berezitasun horiek dituela. Bestetik, digitalizazioak aurrekaririk gabeko eredua dakar (Baldwin 2019): eskaintza pertsonalizatua, kalitatearen erabateko kontrola (konputazioko teknologia aurreratuen erabilerak erabaki-hartze autonomoa dakar), malgua (3D inprimaketa erabiltzen da prototipaketa azkarrerako, stocken gestiorako, fabrikazio pertsonalerako), kostu berekoa (ekoizpen digitalizatuak kostu bera du toki geografiko batean edo bestean ekoizti), eta eskalako ekonomiarekiko independentea da (serie laburretan ekoiztea efizientea eta errentagarria izan daiteke, betiere berrikuntza-intentsitate handiko lurralde-ekosistemak izan eta proiektuen industrializazioa modu bizkor eta eraginkorrean ahalbidetuz gero).


Euskarri adimenduneko algoritmoen aukerak eta inplikazioak, momentuz, nekez aurreratu ditzakegu bere osotasunean (WEF 2018). Enplegua eta lan-merkatua, ordea, eraldatzen ari dira: ELGAko herrialdeetan, datozen hamabost urteotan enpleguen % 14k automatizazio potentzialeko aukera handiak ditu; beste % 23n, eginkizunak eta jarduerak berrituko dira, eta, 2000ko hamarkadan zehar, dagoeneko hamar lanpostu berritatik lau digitalizazio altuko sektoreetan sortu dira. Era berean, enpresa digitalizatuen mugaz gaindiko erosketak 20 puntu portzentual hazi ziren 2007-2015 artean, beste sektoreekin alderatuz, eta digitalizazio altuko sektoreetako enpresen komertzio-marjinek (produktuengatik enpresak kobratzen duenaren eta produktu horren unitate bat gehiago sortzeko kostuaren arteko aldea), beste enpresekin alderatuz, % 55eko igoera izan zuten.³³

Edozelan ere, egitate bat da digitalizazioak, ondasun ekonomikoaren ekoizpen- eta banaketa-moduak iraultzearekin batera, enpresa, ekoizpen-ehuna eta negozioa ulertzeko moduak eraldatuak dituela dagoeneko. Lana, produkzioa, negozio-eredua edo merkataritza ez ezik, gizartea ere teknologiaren eta datuen erabilerarekin digitalizatzen ari da (programazio-gaitasuna, sozializazio birtuala, plataforma konpartituak, kontsumo- eta komunikazio-patroiak). Gainontzean, efizientzia energetikoaren sustapenak edota osasun-arretaren kostuaren murrizteak (osasuneko teknologia mugikorren erabilerarekin) etorkizun hurbilerako aukera potentzialak iragartzen dituzte kontsumitzaileentzat.

2.3. LEHIA TEKNOLOGIKOA

Herrialdeak ere ari dira estrategia digitala eta berrikuntza teknologikoa berariaz diseinatzen, jakitun izanda aberastasunaren eta ongizatearen erdiguneko osagai nagusi bi direla.³⁴ Horren erakusle partziala da herrialdeen Ikerketa eta Garapenaren (I+G) intentsitatea, edo barne-produktu gordinarekiko (BPG) I+G gastua (2. grafikoa). Epe ertaineko alderaketak erakusten duenez, Europar Batasuneko 28 estatu kideetan eta ELGAN, eboluzioa geldialdian dago; Japonian, gorabeherak daude, eta sendotasunak eta goranzko joerak AEBn, Hego Korean, Israelen eta Txinan nabaritzen dira.

2. grafikoa: I+G intentsitatea, 2000-2017



Iturria: OECD Statistics 2019

I+G gastu orokorra herrialde bakoitzak I+G alorrean egiten duten gastuarekin alderatuta, berriz, auziari beste era batera hartuko diogu neurria (1. taula): 2018. urtean, AEBk egin du I+G gastu osoaren % 24,98, BPGa 19.921,0 bilioi dolarrekoa izanda; Txinak, berriz, I+G gastu osoaren % 21,61 egin du, BPGa 24.646,0 bilioi dolarrekoa izanda. AEBren eta Txinaren artean I+Gn gastu osoaren ia erdia egiten dute, beraz. Gainontzean, aipagarriak dira Japonia, Alemania eta Hego Korea, herrialde zeharo desberdinak (BPGa, demografia, antolaketa politikoa, kokapen geografikoa) izanda ere ahalegin handia egiten baitute eremu zientifiko-teknologikoan.

34. OECD (2018). *OECD Science, Technology and Innovation Outlook 2018: Adapting to Technological and Societal Disruption*. Paris: OECD.

1. taula: I+G gastua herrialdeka (2018)

HERRIALDEA	BPGA BILIO DOLARRETAN	I+G-A BILIO DOLARRETAN	I+G GASTU OSOAREN %
Txina	24.646,0	485,53	%21,61
AEB	19.921,0	565,7	%24,98
Japonia	5.469,9	191,46	%8,30
Alemania	4.253,8	120,81	%5,30
Hego Korea	2.087,8	90,19	%4,02
India	10.146,1	86,24	%4,04
Kanada	1.810,0	32,42	
Brasil	3.293,0	38,53	
Singapur	528,6	13,85	
Israel	326,0	13,2	
Frantzia	2.885,4	64,92	

Iturria: R&D Magazine Survey 2018. Egileak ondua

Ekonomia lehiakorretan herrialdeak egiten ari diren ahalegina ulertzeko beste modu bat berrikuntzaren intentsitatea da (2. taula). Ahalegin horren aparteko adibide modura ipini ohi dira Hego Korea, Suedia eta Singapur. Ekonomia berritzaileen artean, momentuz, Europako herrialdeak sendo ageri dira (Suedia, Alemania, Suitza, Finlandia, Danimarka eta Frantzia).

2. taula: Herrialdeen berrikuntza-intentsitatea

2019 Rank	2018 Rank	Ald.	Ekonomia	Puntuazio osoa	I+G Intentsitatea	Manufaktura balio-erantsia	Produktibitatea	Goi-Tek Dentsitatea	Efizientzia tertziarioa	Ikertzailleen Kontzentrazioa	Patenteen jarduera
1	1	0	S. Korea	87.38	2	2	18	4	7	7	20
2	4	+2	Germany	87.30	7	3	24	3	14	11	7
3	7	+4	Finland	85.57	9	16	5	13	9	8	5
4	5	+1	Switzerland	85.49	3	4	7	8	13	3	27
5	10	+5	Israel	84.78	1	33	8	5	36	2	4
6	3	-3	Singapore	84.49	13	5	11	17	1	13	14
7	2	-5	Sweden	84.15	4	15	9	6	20	5	25
8	11	+3	U.S.	83.21	10	25	6	1	43	28	1
9	6	-3	Japan	81.96	5	7	22	10	39	18	10
10	9	-1	France	81.67	12	41	13	2	11	20	15
11	8	-3	Denmark	81.66	8	21	15	12	19	1	28
12	12	0	Austria	80.98	6	11	12	24	8	9	18
13	14	+1	Belgium	80.43	11	26	10	9	41	16	9
14	13	-1	Ireland	80.08	32	1	1	16	15	14	38
15	16	+1	Netherlands	79.54	16	29	21	7	42	12	12
16	19	+3	China	78.35	14	13	47	11	6	39	2
17	15	-2	Norway	77.79	17	49	23	15	17	10	11
18	17	-1	U.K.	75.87	20	45	26	14	5	21	19
19	18	-1	Australia	75.38	19	56	17	20	18	15	6
20	22	+2	Canada	73.65	22	39	27	22	31	19	8
21	20	-1	Italy	72.85	24	22	20	19	29	29	26
22	21	-1	Poland	69.10	36	20	40	18	16	38	37

Iturria: Bloomberg 2019 Innovation Index

Munduko lidergo ekonomikoa gaur egun neurri handi batean eremu teknologikoan –eta ikerketako eta garapeneko inbertsioetan– mugarrizten den heinean, komeni da arreta IKTen sektorean eta I+G jardueretan ipintzea (Mas et al 2018). AEB nagusi da teknologia berrien sektorean I+G jarduerarekin loturiko adierazle nagusietan (I+G inbertsioa, ikertzaileak, ikerketarako laguntzak, sektore teknologikoaren produktibitatearen hazkundea).

Halere, ikuspuntu historikoa aintzat hartuz gero, Txina modu azeleratuan ari da txikiagotzen efizientziaren arraila: 1995. urtean, Txinan, IKTen sektorean ekoiztako balio erantsia AEBren % 16,7 zen (EBn, AEBren % 69,1); 2016. urtean, aldiz, Txina lehia gailendu zitzaion, eta % 102,8ra iritsi zen (AEBn diseinatu eta Txinara deslokalizatutako hardwarearen fabrikazioa kontabilizatuta, betiere) (EBn, AEBren % 79,6). Era berean, 2006-2016 artean, Txinak, AEBekin alderatuz, teknologiko industriaren balio erantsia hirukoiztu zuen; produktibitatea 4,5 aldiz handiagoa izan zen, eta I+G-a hiru aldiz gehiago hazi zen. AEBn, 2016 urtean, I+G gastuaren eta IKTen sektoreko balio erantsiaren arteko ratioa % 11,9koa zen (EBn, % 5,2koa), eta, Txinan, 2006. eta 2016. urteen artean, % 3,9koa izatetik % 5,7koa izatera pasatu zen (1,8 puntu portzentualeko iguera esanguratsua, alegia).

Bien bitartean, EB eremu teknologikoan atzera geratu da adierazle guztietan. EBri, gainera, adimen artifizialean –Siemens edo Bosch–, sareen teknologian –Nokia eta Ericsson–, eta, zer esanik ez, ICTetan orohar edota super-ordenagailuetan eta bioteknologietan, bestelako erronka bat zabaldu zaió: lehia teknologikoa munduaren birkokatze geopolitikoa eragiten ari da (AEB eta Txina dira bi eremu nagusiak), eta horrek EBri merkataritzako estrategia eta aliantzen azuia ezabatzeko beharra zabaltzen dizkio, hirugarren kapituluan ikusiko dugun moduan.

Neurri berean, telekomunikazioen alorrean, AEBko enpresa teknologikoak nagusi dira (mikroelektronika hornitzailea –Intel–, modemak eta IP helbidea –Qualcomm–, datu-biltegiak –Cisco–, telekomunikazioko zerbitzuak –ATT–, telefono adimendunak, sistema eragilea –Android–, softwarea). Alabaina, Txina da –berezi-ki adimen artifizialari emaniko lehentasunarekin– etorkizun hurbilean munduko lidergoa lehiatzeko aukera errealak dituena, azken urteotan haririk gabeko komunikazio-sareen teknologian nabarmendu denez. Azken horrek garrantzi aparta du, sare-teknologiak gaur egungo gizartearen azpiegitura direlako eta Gauzen Internet ahalbidetzen dutelako. Enpresa gutxiren esku dago, gainera, telefonia mugikorreko operadoreentzat transmisio-ekipamenduak eta sistemak ekoiztea (2018ko urtearekin 5G teknologiko patente gehien hurrenkeran Huawei –1.554–, Nokia –1.427–, Samsung –1.316–, LG –1.274– eta ZTE –1.208– enpresek dituzte).³⁵

35. IPlytics Platform (2019). *Who is leading the 5G patent race? A patent landscape analysis on declared SEPs and standards contributions.* http://www.ippromagazine.com/ippromagazine/news/article.php?article_id=6701 [Kontsulta-eguna: 2019-05-06.]

Era berean, Txinako enpresa teknologikoak (Alibaba, Huawei, Tencent, Ant Financial, Didi Chusing, Baidu) superpotentzia teknologikoak (Microsoft, Amazon, Apple, Google, Facebook, Intel, Oracle, Netflix, IBM) besteko ahalegina ari dira egiten I+G arloan. Txinak arlo erabakigarri orotan ditu enpresa lehiakorrek –komertzio elektronikoan, Interneteko produktu eta zerbitzuetan, eta telekomunikazioetan, besteak beste–, eta, gaur-gaurkoz, AEBren eta Txinaren arteko aldea nabaria izan arren, Txina epe oso laburrean ari da aldea txikiagotzen sektore teknologiko aurreratuetan.

Ziberespazioak ere azpimarra merezi du: WeChat (WhatsApp eta Facebook ordeztuz), Baidu Maps (Google Maps ordeztuz), Didi (Uber ordeztuz), Youku (Youtube ordeztuz) erakustera datoz Txinan badaudela antzerako zerbitzu paraleloak, baina aplikazio aurreratuak ere badituzte, eta, berrikuntza digitalean eta negozio-eredu berrietan, aurrea hartua diete AEBko enpresa teknologikoei (adibidez, baditu mugikorrek aplikazioak hainbat zerbitzu batean batzen dituenak). Beste alde batetik, aintzat hartu behar da Txinako enpresen indargune nagusia bere merkatu zabala dela: gaur-gaurkoz, 829 milioi internauta dago Txinan. Gainontzean, Txinak, adimen artifizialean 2030. urtean mundu-mailako lidergoa erdieste aldera, bilioi bat yuan (120.000 milioi euro) inbertitzeko egitasmoa du indarrean; gaur egunean, adimen artifizialaren sektoreak 3.500 milioi dolarreko balioa du Txinan.

Era batera edo bestera, eraldaketa-prozesu orokorraren erakusle dira, bestalde, industria-alorreko programa nazionalak ere: *Made in China 2025* (Txina), *Advanced Manufacturing Partnership* (AEB), *Industrie de Futur* (Frantzia), *Smart Society 5.0* (Japonia) edota *National Technology Initiative* (Errusia). Baina, enpresa edo herrialdea izan, bakoitza bere erritmo, intentsitate, lehenetsun eta magnitudearekin, agerikoa da herrialde eta enpresen estrategiak ahalegina egiten ari direla gaur egunean digitalizazioa industriara –eta bizitza sozialeko beste arloetara: hezkuntza, osasuna, administrazioa, aisialdia, etxea– integratzeko (Bughin et al 2019).

Bigarren kapituluak, hain zuzen ere, balio digu jabetzeko eraldaketa digitala adierazle funtsezkoa dela munduko dinamiken joera-aldaketa ulertzeko. Horren garrantzia hirugarren kapituluan zehar ere azaleratuko dugu, munduko patri ekonomiko berriei buruzko azalpenean.



PATROI
3 EKONOMIKOAK ETA
GEOEKONOMIA

3.1. SARRERA

**3.2. MUNDU-MAILAKO HAZKUNDE
EKONOMIKO EZBERDINAK**

**3.3. EUROPAREN KRISIALDI
EKONOMIKOA**

3.4. PATROI EKONOMIKO BERRIAK

**3.5. EZBERDINTASUNEN
KRONIFIKAZIOA**

3.6. TXINAREN ESZENARATZEA

3.7. KONTZENTRAZIO ESPAZIALAK


3.1. SARRERA

Testuinguru ekonomiko berria ulertze aldera, aurreko bi kapituluetan, globalizazioan eta berrikuntza teknologiko eta digitalean ipini dugu arreta, hurrenez hurren. Ekonomia globalaren grabitate-zentroa ere lekualdatzen ari da (Khanna 2019). Kapitulu honetan, eraldaketa sakon horretan ipiniko dugu arreta, gaur egungo joera-aldaketen hirugarren erakusle nagusia den heinean. Izan ere, suspertzen ari diren herrialdeetan, errenta-maila ezohiko erritmoetan hazten ari da, eta horrek hazkunde-erritmo txikiagoak eragin ditu herrialde egonkortuetan (EB, Japonia, AEB). Patroi ekonomiko berriak zein diren azaldu, eta konbergentzia globaleko zantzuetan ipiniko dugu arreta; Txinaren garrantzia ere azpimarratuko dugu, eta, azkenik, eskualdeen arteko dibergentzia nabarmenduko dugu. Patroi ekonomiko berrien aurrean gaude.

3.2. MUNDU-MAILAKO HAZKUNDE EKONOMIKO EZBERDINAK

BPGaren urte arteko aldakuntza-tasei dagokienez, ekonomia aurreratuetan, 1980ko hamarkadan, batez bestekoa % 3,3koa izan zen, eta, 1990ekoan, % 2,9koa; orduz geroztik, baina, urteen joan-etorrian BPGaren urte arteko aldakuntza-tasa % 1,7 eta % 2,3 artean ibili da. Susperraldian diren herrialdeen kasuan, oster, 1980koan % 3,4koa eta 1990ekoan % 3,8koa izan zen; 2000. urtean, % 6,3koa, eta, 2011. eta 2017. urteen artean, % 4,8 eta % 6,4 artean ibili zen (3. grafikoa).

3. grafikoa: BPGaren urte arteko aldakuntza-tasak (%) eremuka



Iturriak: NMF, Eurostat, Eustat. Egileak ondua

Herrialdeka, berriz, azpimarratzekoa da Txinak izan duen bilakaera: 1980az geroztik, BPGaren urte arteko aldakuntza-tasa % 9,4, % 10,4 eta % 10,5ekoa izan da hiru hamarkadatan, hurrenez hurren; 2011-2017 urteen artean -1.200 milioiko biztanleriarekin-, aldiz, hazkunde-tasan beheraldia izan arren, % 7 inguruan ibili da. XIX. mendean, Ingalaterrak eta AEBk bost hamarkada behar izan zituzten per capita errenta bikoizteko; bada, gaur egunean gorabidean dauden herrialdeek hamar urte eskas behar izan dituzte; Txina, gainera, azken hogeita hamar urteotan % 10 metagarrian hazi da. Indiaren hazkunde-maila egonkorragoa da, eta, hamarkada hauetan guztietan, % 5,6 eta % 8,2 artean ibili da. AEBn eta bereziki EBn eta hura osatzen duten herrialdeetan, ostera, BPGaren urte arteko aldakuntza-tasak mote-lagoak eta aldakorragoak izaten ari dira (3. taula).

3. taula: BPGaren urte arteko aldakuntza-tasak (%) herrialdeka

HERRIALDEA	2013	2014	2015	2016	2017
Txina	7,8	7,3	6,9	6,7	6,9
India	6,4	7,4	8,2	7,1	6,7
Brasil	3,0	0,5	-3,6	-3,5	1,0
AEB	1,7	2,6	2,9	1,5	2,3
Japonia	2,0	0,4	1,4	0,9	1,7
Europar Batasuna	0,3	1,6	2,3	2,0	2,4
Alemania	0,5	1,9	1,7	1,9	2,2
Frantzia	0,6	0,9	1,1	1,2	1,8
Italia	-1,7	0,1	1,0	0,9	1,5
Portugal	-1,1	0,9	1,8	1,6	2,7
EAE	-1,7	1,6	3,0	3,1	2,9

Iturriak: NMF, Eurostat, Eustat. Egileak ondua

XX. mendean zehar, eta bereziki bigarren erdian, munduko BPGa zazpi aldiz handitu da (5 bilioi dolar konstantetik 35 bilioi dolarrera); hala, 2010. urtean, 70 bilioi dolarrera iritsi da, baina herrialdeen hazkundera asimetria izan da. 1990eko hamarkadaz geroztik, herrialde aurreratuen BPGak ez du % 3,2 gaititu; oster, gorabidean dauden herrialdeen hazkunde-tasak handiagoak izan dira, eta 2008ko atzeraldiak asimetria areagotu baizik ez zuen egin. Alderaketa BPG nominalean egin ordez erosahalten-parekotasunean eginez gero, gorabideko herrialdeen posizioa oraindik eta hobea izango litzateke, gainera. Guztiarekin, globalizazio berrian, aurreikusten da 2025. urtean transakzio ekonomikoetan susperraldian diren ekonomien pisua % 75koa izango dela, eta salmenten eta erosketen interdependentsia ekonomikoak iradokitzen du Mendebaldeko enpresetan nabarmen haziko dela multilokalizazio-estrategien garrantzia. Munduko ekonomia AEBko ekonomiatik banantzen ari da (*decoupling*), eta herrialde berriak dira munduko ekonomiaren hazkunderaren motorra, beraz.

Ekonomiaren erdigunea nola lekualdatzen ari den ulertzeko, munduko BPGaren portzentajearen bilakaerak ere baliatu daitezke. Lehen milurtekoan, Asiak –biztanleriaren pisua zela eta– munduko BPGaren % 70 ekoizten zuen, eta Europak, % 9;

1500. urtean, berriz, % 67 eta % 18, hurrenez hurren. XVIII. mendearen hastapenetan, Txinak munduko produktuaren % 22,3 ekoizten zuen (Indiak % 24, Europako herrialdeek % 22,9, AEBk % 1,8). 1820. urtean, Industria Iraultzaren hastapenetan, Europa % 24ra iritsia zegoen (Asiak, aldiz, BPGaren % 60 ekoizten zuen). 1900. urtean, joerak bestelakoak ziren: Europak munduko BPGaren % 37 ekoizten zuen, AEBk % 17 eta Asiak % 30; 1950. urtean, berriz, % 30, % 30 eta % 20, hurrenez hurren (Maddison 2007). 1970eko hamarkadaren bukaeran, Txinak % 5 sortzen zuen (Indiak % 3,4). Bestela esanda, Industria Iraultzak herrialde batzuen gorakada eta besteen beherakada nabaria ekarri zuen.

2000-2016 urteetan arreta ipiniz gero,³⁶ berriz, AEBren BPGa munduko BPGaren % 27,6 zen 2000. urtean, eta, 2015ean, % 22,6; bada, 2030ean, % 20,2 izatea aurreikusten da; euroguneara (EB 15) % 20,9, % 14,9 eta % 12,2 da urte horietarako; Japonian ere beharaldia aurreikusten da (% 8,8, % 6,1, % 4,4); Errusia (% 3,4, % 3,8, % 3,6) eta Brasil (% 3,3, % 3,2, % 2,9) mantendu egingo dira, eta, ostera, igoerak izango dira Indian eta Txinan: Indiako BPGa mundu osokoaren % 4,2 zen 2000n eta % 6,9 2015ean; bada, 2030ean % 10,0 izatea aurreikusten da, eta Txinakoa, berriz, aurreikusten da % 8, % 19,6 eta % 23,7 izatea urte horietarako, hurrenez hurren.

Beste datu batzuen arabera, NFMren arabera,³⁷ 2014. urtean, Txinaren BPGak AEBrena gainditu zuen; gaur egunean, betiere NFMren arabera, Txinak ekoizpen globalari % 18,2ko ekarria egiten dio (AEBk % 16,5koa), eta aurreikuspena da 2050. urtean Txinak munduko BPGaren % 25,3 ordezkatzea, India % 18,5era heltzea, AEB % 14,7an geratzea eta EB % 10era jaitea. Ikus daitekeen moduan, Mendebaldeko herrialdeek munduko BPGari egiten dioten ekarpena bestelakotzen ari da; abiapuntu oso ezberdinetatik, konbergentzia ekonomiko handiagoa gertatu da epe laburrean (*catching-up*), eta joera asimetrikoek aldeak handitzea ekarriko dute (esate baterako, eurogunearen kasuan, pisu absolutua eta erlatiboa galdu dira, eta, bilakaera ekonomiko berrian, galtzaile netoa da). Gaur egunean, Txina munduko lehen ekonomia da (BPGari dagokionez, betiere); 2010. urteaz geroztik, eragin handia du munduko hazkundera, eta, pixkanaka, mundu-mailako salgaien prezioak finkatzeko erreferentzia nagusia bilakatzen ari da, AEBri lekukoa hartuz.

Herrialdeen zorpetzea da, asimetriak ulertze aldera, ziklo historiko garaikidean ekonomiaren beste ezaugarri bereizlea. Mendebaldeko herrialde gehienetan, zorpetzeak kapitalismoaren esplikazio kulturala aldatzea iragartzen du: luzaroan ulertu bada ere oraindikiko esfortzua eta gozamina atzeratzea izango direla etorkizunean seme-alaben ibilbidearen aterabidea (belaunaldien artean aktiboak transferitzea), orain, ostera, badirudi gaur egungo arazoan aterabidea seme-alaben etorkizuneko esfortzuan eta sakrifizioan bilatzen ari garela (belaunaldien artean pasiboak transferitzea).

36. OECD (2016). *OECD Science, Technology and Innovation Outlook 2016*. Paris: OECD.

37. International Monetary Found (2015). *World Economic Outlook: Uneven Growth Short- and Long-Term Factors*, April 2015. Washington: International Monetary Found.

Zor publikoari erreparatuz gero (4. taula), esplikazioa konplexua bada ere, zorpetzeak besteak beste iradokitzen du defizit komertzialean, kanpo-zorreetan edota familia-errenta erabilgarriaren gastuan oinarrituriko ekonomiak garatu direla Mendebaldeko herrialdeetan, oro har, azken hamarkadetan. Horretan funtsatu dira ekonomia aurreratu nagusiak azken bi hamarkadetan.

Baina, zorpetzearen analisia osatze aldera, hartzekodunak ere aipatu behar dira. Izan ere, halako zorpetzeek azaleratzen dute likidezia asko ere badela. Hartzekodunen talaiatik begiratuta, Europaren eta AEBren arteko aldeak nabariak dira. Europari dagokionez, hartzekodun nagusiak tokiko finantza-sektorea (bankuak, aseguru-entitateak, inbertsio-fondoak) eta Europako herrialdeak dira, eta, gero, atzerriko herrialdeak (Txina eta Ekialde Hurbileko petrolio-ekoizleak). Eurogunean, ordea, egoera berezia da: gobernu nazionalak ez daude zorpetuak euren monetan, baizik eta euroan. Azken unean, beraz, banku nazionalak gobernuen zorrak hartzeko gaitasunik izan ezean, edota likidezia gabe geratuz gero, azken erabakia Europako Banku Zentralak (EBZ) hartzen du (gaur artean, zorra erostea ebatzi du). AEBn, berriz, hartzekodunak nagusiki atzerrikoak dira (2017ko datuen arabera, zorraren % 45 atzerriko inbertitzaileen esku dago: % 18,7 Txinakoak dira, % 17,2 Japoniakoak, % 5 Irlandakoak), baina zorra dolarretan emana dago. Zehaztapen horiek uste baino garrantzia handiagoa dute; esaterako, zorrarekiko menpekotasuna kudeatzeko gobernu nazionalen ahala oso ezberdina delako kasu bakoitzean.

3.3. EUROPAREN KRISIALDI EKONOMIKOA

Ikusitakoak ikusita, Europa koiuntura zailean dago. Europako Banku Zentralaren (EBZ) portaerari erreparatuz gero, hazkunde baxuak, inflazio txikiak eta bizitza luzeko gizarteak (gizarte zaharkitua) erabat baldintzatzen dute Europa.

Esate baterako, 2019. urtean, eurogunearen BPGa % 1,1 inguruan hazteko aurreikuspenak daude, eta interes-tasak oso baxu mantentzea da ekonomia dinamizatzeko erabaki bakarra (EBZk 2016. urteaz geroztik bankuei astero uzten dien diruaren interes-tasa % 0 da; egunekoa *-Marginal Lending Facility-* % 0,25; eta egun bateko gehiegizko erreserbei dagokiona *-Deposit Facility Rate-*,

4. taula: Zor publikoaren eboluzioa*

HERRIALDEA	1980	1992	2007	2012	2018
Espainia	15.997 % 16,58 425 €	174.047 % 45,42 4.433 €	383.79 % 35,60 8.404 €	890.726 % 85,70 19.062 €	1.173.109 % 97,10 24.995 €
Frantzia	94.100 % 20,83 1.751 €	454.900 % 40,22 7.725 €	1.252.867 % 64,50 19.574 €	1.892.540 % 90,60 28.850 €	2.315.298 % 98,40 34.542 €
Italia	562.266 % 92,91 9.925 €	911.700 % 109,65 16.045 €	1.606.203 % 99,80 27.385 €	1.990.140 % 123,40 33.344 €	2.321.957 % 132,20 38.469 €
Grezia	1.602 % 22,53 165 €	51.992 % 79,97 4.984 €	239.915 % 103,10 21.690 €	305.085 % 159,60 27.726 €	334.573 % 181,10 31.204 €
Portugal		39.555 % 54,45 3.973 €	120.089 % 68,40 11.379 €	212.556 % 126,20 20.268 €	244.906 % 121,50 23.831 €
Belgika	68.615 % 76,36 6.957 €	244.917 % 133,93 24.326 €	299.997 % 87,00 28.124 €	404.289 % 104,30 36.298 €	459.651 % 102,00 40.081 €
Alemania		705.567 % 41,62 8.713 €	1.600.016 % 63,70 19.461 €	2.225.204 % 80,70 27.634 €	2.063.172 % 60,90 24.852 €
Austria		87.270 % 56,0 11.071 €	184.675 % 65,00 22.229 €	261.041 % 81,90 30.886 €	284.758 % 73,80 32.144 €
Suedia			137.070 % 39,20 14.927 €	163.555 % 38,10 17.116 €	181.290 % 38,80 17.721 €
Finlandia	3.669 % 10,89 766 €	33.309 % 39,26 6.589 €	63.425 % 34,00 11.966 €	107.708 % 53,90 19.848 €	137.545 % 58,90 24.927 €
Norvegia	% 46,71 5.278 €	% 44,08 10.402 €	147.084 % 51,50 31.049 €	117.545 % 29,10 23.270 €	121.386 % 36,17 23.085 €
Danimarka		% 66,77 15.290 €	63.755 % 27,30 11.643 €	114.026 % 44,90 20.352 €	101.434 % 34,10 17.470 €
Erresuma Batua	% 42,52 2.934 €	% 33,36 4.937 €	877.421 % 41,70 14.250 €	1.745.862 % 84,10 27.320 €	2.054.185 % 86,80 30.822 €
AEB	% 41,18 3.706 €	% 68,61 13.447 €	6.817.151 % 64,66 22.631 €	13.005.177 % 103,22 41.418 €	18.331.051 % 106,23 56.347 €
Japonia	% 48,81 3.222 €	% 67,99 15.979 €	5.779.027 % 175,43 45.235 €	11.050.180 % 229,01 86.633 €	10.113.742 % 234,98 79.795 €
Txina	% 0,97	% 4,98	756.575 % 29,04 573 €	2.284.570 % 34,27 1.687 €	4.998.052 % 46,79 3.596 €

Iturriak: Eurostat, OECD, IMF, Egileak ondua

*Zor osoa (milioi eurotan), BPGaren %, per capita zorra, hurrenez hurren.

2018. urteko zutabeak: Norvegiakoa 2016koa da; Txina, Japonia eta AEBkoa 2017koa.

berriz, - % 0,40).³⁸ Herrialde zorpetuen irakurketa baikorra da: halako neurriek finantzazio-kostuen prezioa jaitea dakarte (esate baterako, Espainiak zor guztia BPGaren % 200 baino gehiagoan du, eta zor publikoa urtean 100.000 milioi euro inguruan birfinantzatzen du), eta finantza-kostuetan aurrezteak diru-kutxa publikoari aukerak erraztu eta enpresei eta familiei aukera ematen die zorra kitatzeko eta hazkunde ekonomikoa eragiteko. Baina, aldi berean, horren ifrentzuak dira bankuen negozio inportanteena (maileguen errentagarritasuna) erabat ahultzea, finantza-merkatuetan prezioen formazioa desitxuratzea, gordailuak zigortzea, inbertsio pribatuak bestelako aterabideak topatzea (espekulaziorako joera eta higikorren prezioa handitzea), eta, bereziki, ekonomiaren motelaldia, gizarte zaharkitu batean.

2011. urteaz geroztik diruaren prezioa igo gabe mantentzeak ez du soilik ezohiko moneta-politika bat iradokitzen, baizik eta baita Europako herrialde nagusien akidura (Alemania) edo atzeraldia (Italia) ere. Nolabait esateko, ekonomiaren portaera ziklikoa saihesteko ahalegina susma daiteke, 2007ko atzeraldiaren ostean oraindik errekuperatu ez eta krisi berria atzeratu nahiko balitz bezala (aitzitik, fase hedatzaile ortodoxo batek inflazioa eta kohesio sozialeko indize handiagoak ekarriko lituzke). Hori dela eta, moneta erraztea eta likidezia beste atzeraldi bat atzeratzeko eta egoera soziala hobetzeko neurri bortxatuak dira. Horri gaineratuz gero ekonomia susperraldian egon zenean ere (2013-2018) ezinezkoa izan zela interes-tasak igotzea, pentsatzekoa da beste atzeraldirik izanez gero moneta-politikak ez duela eskainiko aukera hedatzaile eraginkorrik. Gaur-gaurkoz, tasa baxuek ez dute inflazio-efekturik, eta, atzeraldi-egoeran, zailagoa dirudi halako efekturik erdiestea.

Auzia konplexua den arren, Europaren egoera ulertzeko, koiunturako faktoreak, ekonomiaren motelaldia eta gerra komertziala ez dira aski esplikazio, eta sakonagoko auziak ere badaude. Horien artean, hauek aipatu daitezke: aldaketa teknologikoa eta haren eraginak (produktibitate agregatua enpresa bakanetan kontzentratzea, enpleguaren ezegonkortasuna, enpresen inbertsioen motelaldia), eta, eskaintzari loturiko auziekin batera, eskaeraren ahulezia ere bai (mailegua eskura egonagatik ere, familia-kontsumoa, inbertsioa eta salmenta geldialdian daude, eta sektore pribatuak aski du zorrak kitatzearekin). Euroguneak hamabi urte luzetan ez du jakin izan nola kudeatu aldaketa teknologikoa eta finantza-sistemaren krisiaren osteko egoera (ekonomien atzeraldia, banku-krisia, estatuaren zor publikoa). Etorkizun hurbilean, gainera, moneta-politikaren estimulurako eragin-ahalmenak berea emanda, onurak gero eta txikiagoak eta mugatuagoak izango dira. Momentuz, EBZren neurriak erreaktiboak dira; alegia, geldialdiaren testuinguruan, moneta estimuluak eskaintzera lerrokatua dago (interes-tasen beherapenak, aktiboak erosteko programak, likidezia injektatzea, bankuen gehiegizko erreserbengatik kobratzea eta hartara aktiboek eta diruak zirkulatu dezaten behartzea).

Alde horretatik, Japoniaren oihartzuna, partzialki bada ere, agerikoa da (*the specter of Japanification*): hazkundera geldialdian, eta gizartea zaharkitua, Japoniak bi hamarkada oso eman ditu interes-tasak % 1 baino baxuago dituela, sarritan inflazio negatiboarekin, eta 2016an lortu zuen 1997ko BPG nominala parekatzea. Japoniak, halere, beste hainbat ezaugarri berezi ere baditu; esate baterako, zor publikoa BPGaren % 240 da (eurogunean, % 86, baina herrialdeen artean alde handiekin), bankuak erabat zorpetuak daude, eta, oro har, inbertsioa eta kontsumoa oso baxuak dira. Europaren egoera bestelakoa da. Gainontzean, Japoniako adierazle ekonomikoek erakusten dute per capita errentaren hazkundera eta enplegu betea (ekoizpenaren hazkunde erreala baxua izan arren, biztanleriaren txikitzea dela eta) aukera bideragarriak izan daitezkeela motelaldi baten testuinguruan ere.³⁹ Europan, agertoki hori gero eta gertuago egon liteke.

Guztiarekin, eurogunea herrialde oso ezberdinek osatzen dute (bi hamarkadatan, dibergentzia areagotu egin da, gainera);⁴⁰ euroaren krisiak ere interes oso kontrajarriak azaleratu ditu, eta asmatu beharko da nola kudeatu motelaldi estruktural baten testuinguruan herrialdeen arteko konbergentzia eta herrialdeen enplegua, ongizatea eta kohesioa.⁴¹ Nolanahi ere, aurrekontu publikoaren, zorra jaulkitzearen eta finantzazioaren bidez ekonomia garatzeko aukera dutenek (Alemaniak alde batetik, Herbehereak eta herrialde nordikoez bestetik) zerga-politika berrikusteari uko egiten diote. Alemaniak, esaterako, 2018. urtean, 58.000 milioi euroko aurrekontu-superabita izan zuen (3,38 bilioi dolarreko BPGaren % 1,7ren baliokidea). Europa zatikaturik dago; interesak ugariak eta kontrajarriak dira, eta Europak oinarri prekarioak ditu proiektu partekatu bat izateko.

3.4. PATROI EKONOMIKO BERRIAK

Herrialdeen dinamismo asimetrikoei munduko biztanleriaren bilakaera erantsiz gero (5. taula), neurria egokiago hartuko diegu munduko dinamikei. 1800. urtean, Txinan 321,68 milioi eta Indian 168,57 milioi ziren (munduko biztanleria bilioi ingurukoa zen); 1950. urtean, berriz, Txinan 569,61 milioi eta Indian 382,25 ziren (munduko biztanleria, 2,525 bilioi ingurukoa); 2020 urtean, Txina 1.387.792 pertsonara eta India 1.386.909 pertsonara helduko dira (munduko biztanleria 7.656.528 pertsona ingurukoa izango da). Bien bitartean, urte horietan, AEBren

39. OECD (2019). *OECD Economic Surveys: Japan 2019*. Paris: OECD Publishing.

40. Eurostat (2018). *Eurostat Regional Yearbook, 2018 edition*. Luxembourg: Publications Office of the European Union.

41. OECD (2018). *OECD Economic Surveys: European Union 2018*. Paris: OECD Publishing.

ERALDAKETA GLOBALAK ETA ESKUALDEEN GARAPEN SOZIALA ETA EKONOMIKOA

bilakaera hau izan da: 1800. urtean 6,8 milioi, 1950. urtean 158,8 milioi eta 2020. urtean 341.387 milioi. Gaur egunean, AEB eta EB 27 munduko biztanleriaren % 4,45 eta % 6,72 dira, hurrenez hurren. Ostera, Txina (% 18,12) eta India (% 18,11) biak batera munduko biztanleria osoaren herena baino gehiago dira; ekonomia globaleko bi eragile nagusi ere badira, eta, Mendebaldeko herrialdeekin alderatuta, joera dinamikoak dituzte hazkunde-tasetan.

Hori dela eta, herrialdeen arteko hazkunde ekonomikoen arteko aldea eta munduko biztanleriaren bilakaera aintzat hartuz gero, fenomeno deigarri bi azpimarratu daitezke paisaia teknoekonomikoan: bata, errenta-mailaren eta garapen teknologikoaren arteko konbergentzia eskala globalean, eta bestea, ekonomia Pazifikoaren arrora eta Asiaren ekialdera lekualdatzea. Ezagutzaren ekonomia digitalizatu eta birtualizatu gaur egunean herrialde askorentzat da aukera erreala, alegia.

5. taula: Munduko biztanleria

	2001	2010	2020	2050
AEB	284.969 (%4,59)	309.330 (%4,48)	341.387 (%4,45)	439.010 (%4,71)
EB27	484.216 (%7,80)	501.792 (%7,27)	514.913 (%6,72)	523.804 (%5,62)
ELGA	1.158.225 (%18,68)	1.229.690 (%17,83)	1.291.087 (%16,86)	1.393.722 (%14,97)
Brasil	173.808 (%2,80)	193.253 (%2,80)	207.143 (%2,70)	215.288 (%2,31)
Txina	1.277.904 (%20,61)	1.341.335 (%19,45)	1.387.792 (%18,12)	1.295.604 (%13,92)
India	1.071.374 (%17,28)	1.224.614 (%17,75)	1.386.909 (%18,11)	1.629.008 (%17,50)
Indonesia	216.204 (%3,48)	239.871 (%3,47)	262.570 (%3,42)	293.456 (%3,15)
Errusia	146.162 (%2,35)	142.958 (%2,07)	141.002 (%1,81)	126.188 (%1,35)
Mundua	6.200.003	6.895.889	7.656.528	9.306.128

Iturria: OECD (Population & Migration). Egileak ondua

Industria iraultza hedapen mugatukoa izan zen. Esate baterako, iraultza elektrikoak nazioarteko komertzioa, kapitalen fluxua eta enpresa multinazionalen hedapena sendotu bazituen ere, produktibitatearen hazkundeak, ekonomiaren eraldaketa produktiboak eta bizitza-kalitatea hobetzeak aurrena Ipar-Atlantikoari eragin zion, eta, gero, Japoniari, eta urteko hazkunde-tasa batez beste % 2 ingurukoa zen. Gaur egungo iraultza ekonomikoaren irismena, geografari eta demografiari dagokienez, zabalagoa da, eta, gainera, susperraldian dauden herrialdeetan, ikusi dugunez, hazkunde-tasak nabarmen dira handiagoak. Horrek, ikuspuntu historiko zein geografikotik begiratuta, munduaren bilakaera ekonomikoan ezohiko joera bat azaleratzen du.

Eskutik hartuta datozen bi fenomeno dira patroi ekonomikoaren eta geoekonomiaren aldaketa. Hain zuzen ere, eraldaketa teknologiko berriaren berezitasunetako bat da ekonomia aurreratuko herrialdea izateko aukera behetik gora jarri dela. Nolabait esateko, estandar ekonomiko bakarrerako konbergentzia globala gertatzen ari den zantzuak badaude.

3.4.1. Patroi ekonomikoak aro industrialean

Laburtu dezagun zein izan den orain arteko bilakaera orokorra, gaur egungo berezitasunak azaldu aurretik:

- XVIII. mendeko industria-iraultzak parekorik gabeko aberastasuna ekarri zuen epe luzera Mendebaldeko herrialdeetara: per capita errentaren igoera; kapital fisiko eta teknologikoaren eta giza kapitalaren hazkundeak; aurrerapen teknologikoarekin denbora osoko enpleguaren eskaria maila agregatuan haztea, biztanleria osoak eta aktiboak ere gora egin zuten aldi berean; produktibitatearekin langileak asteko lanordu kopuru txikiagoa eta aisialdirako aukera izatea, eta aldi berean biztanleria aktiboa haztearekin lanorduen totala igotzea, baita soldatak eta lan-baldintzak ere; sektoreen artean eta sektoreen barruan (nekazaritza, industria, zerbitzuak), lanbideak pisu aldakorra hartu zuen, baina, langileen autoikaskuntzak eta soldaten pizgarriak –teknika, prozesu eta makineria berrien erabileran trebatuz– enpleguaren konposizio sektorial eta okupazionala aldatu arren, sektore eta okupazioen arteko enplegu-trantsizioak erraztu ziren, eta, oro har, produkzioak gora egin zuen sektore guztietan.

- Mendebaldeko gizartearen aberastasunak, ordea, beste hainbat ertz ere izan ditu:
 - Desberdintasun sozioekonomikoen bilakaera denboran zehar heterogeneoa eta aldakorra da (Lindert eta Williamson 2016); hastapenetan, disrupzio teknologikoei beti desberdintasunak eragin izan dituzte, baina, epe ertain-luzera, per capita errenta hazi eta desberdintasun soziala txikitu egin izan da, 1970eko hamarkada arte bederen (Atkinson 2015);
 - Produktibitatea hazten den ondasun eta zerbitzuetan, kostuak jaitsi ziren. Baina hori bezain inportantea da monopolioen aurkako legedia eta irabazien gaineko erregulazioa (Clayton legea 1914, Glass-Steagal legea 1932). Horri esker, merkatuko lehia sustatu, prezioak horren argitan esleitu, eta ondasun eta zerbitzuen prezioak jaitea ere ahalbidetu zen, eta horri zor zaio, hain zuzen ere, aurrerapen teknologikoa oro har ekoizle eta kontsumitzaileen mesedetan izatea;
 - Aberastasunaren hazkundera herrialde gutxi batzuren eskuetan ipini zen, eta mataza beraren haria izan da desberdintasun horizontala (herrialdeen arteko desberdintasun ikaragarria). Azken ia berrehun urteotan, herrialde industrializatuen eta gainontzeko herrialdeen arteko dibergentzia-prozesua elikatu da; sarritan, kapitalaren akumulazioaren interbentzio militarra ere baliatuta.

3.4.2. Gorabideko patroi ekonomikoak

Simon Kuznets-en herrialdeen garapenari buruzko hipotesiak oihartzun handia izan du. Haren arabera, herrialde baten garapen- eta hazkunde-prozesuak, hasieran, ezberdintasunak eragiten ditu, inbertsio handiak egin behar direlako azpiegiturretan eta kapital-ondasunetan, baina, gero, ezberdintasunak modu gradualean txikitzen dira, enpleguaren sorrerak eta produktibitatea handitzeak soldaten igotzea eta diru-sarreraren banaketa orekatua ekarri ahala. Kuznetsek 1960eko hamarraldian idatzi zuen hipotesia, AEB ikergai hartuta, eta, beraz, ziklo bakarra –Industria Iraultzaren zikloa– aztertzeko aukera izan zuen.

Liburuan zehar ikusten ari garen moduan, orain bestelako ziklo batean gaude, eta goizegi da hipotesia kontrastatzeko. Alabaina, aro industrialeko patroi ekonomi-koekin alderatuta (3.4.1. atala), oso bestelako joerak ari dira indarra hartzen. Gure asmoetarako, hiruk bederen arreta merezi dute: globalizazioaren egitura berria, enpleguaren polarizazioa eta merkatuaren kontzentrazioa, hurrenez hurren. Patroi ekonomiko berriak ez dira herrialdeen arteko joeretara mugatzen, baizik eta herrialdeen baitan ere badute eragina. Ipin dezagun arreta hiru auzi horietan.

1. Globalizazioaren egitura berria

Herrialdeen arteko konbergentzia da hurrengo urte eta hamarkadetan sendotu daitekeen patroi ekonomikoa. Dagoeneko estandar ekonomiko bakarrerako konbergentzia globala hauteman liteke, kapitulu osoan zehar ikusten ari garenez. Iraultza ekonomiko-industrialean, 1870etik eta 1970era bitarteko prozesu luzean – eta bereziki azken zatian– gertatu da ekonomia aurreratuen arteko konbergentzia; bada, orain bi hamarkada eskaseko epean garatu da konbergentzia globalerako prozesua. Alabaina, horrek globalizazioaren egituran eta dinamikan orain arteko joerak bestelakotzea ekar lezake. Hipotesia egingarria bada, 1.2. kapituluan esanikoak eraldatu litezke. Ikus dezagun.

Azken urteotan, osagai globalen fluxuak aldatzen ari dira. Komertzioan (ondasun eta zerbitzuen komertzioa), pertsonetan (migrazioak, turismoa, ikasle atzerritar-rrak) eta kapitalean (atzerriko inbertsioak eta karterako inbertsioak), fluxu globalak makaldu egin dira, eta, aldi berean, informazio-fluxuen osagaiak dira (Interneteko trafikoa, nazioarteko telefono-deiak, material inprimatuaren komertzioa) modu progresiboan hazten ari direnak. Ideia, datu eta ezagutzen nazioarteko trukea da azkeneko hamarkada osoan zehar globalizazioaren eroale nagusia.⁴² Horrek aldaketa iradokitzen du globalizazioaren dinamikan. Izan ere, zerbitzuen komertzioa ondasunen komertzioa baino intentsitate handiagoarekin (% 60ko hazkunde-aldearekin) ari da hazten, eta, gaur egunean, zerbitzu berriekin (ondasunetan txertaturiko zerbitzuak, filialetara bidalitako ukiezinak, doako zerbitzu digitalak), nazioarteko komertzio-fluxuaren erdiak zerbitzuei dagozkie.

Globalizazioaren egitura eta dinamika berria ulertzeko, ordea, balio-kate globalei erreparatu behar zaie.⁴³ Lehen kapituluan ikusi bezala, 1970eko hamarraldiaz geroztik, garraibideen eta IKTen bultzadarekin eta liberalizazio komertzialerako prozesuekin, globalizazioaren eroale nagusiak balio-kate globalak izan dira. Azken hamarraldi luzean, ordea, joerak bestelakotzen ari dira. 2000ko hamarraldiaren erdialdean jo zuten goia balio-kate globalen abantailek. Izan ere, komertzioaren eta hazkunde ekonomikoaren arteko harremana txikitzen ari da, eta, gaur egunean, munduko merkataritza BPG globalaren tasa antzekoetan ari da hazten (2008ra bitartean, komertzio internazionala produkzio globalaren bikoitza hazten zen).

42. Altman, S.A., P. Ghemawat eta P. Bastian (2019). *DHL Global Connectedness Index 2018: The State of Globalization in a Fragile World*. Bonn: Deutsche Post DHL Group.

43. Lund, S., J. Manyika, J. Woetzel, J. Bughin, M. Krishnan, J. Seong eta M. Muir (2019). *Globalization in Transition: The Future of Trade and Value Chains*. McKinsey Global Institute, McKinsey&Company.

ERALDAKETA GLOBALAK ETA ESKUALDEEN GARAPEN SOZIALA ETA EKONOMIKOA

Nazioarteko komertzioaren hazkunde-tasaren jaitsieraren faktoreak, noski, ugariak dira. Atzeraldiari eta haren eraginei loturiko faktore koiunturalek badute eragina. 2008ko atzeraldiak enpresen inbertsio-ondasunak jaitea ekarri du; ziurgabetasunak eta konfiantzaren galerak zuhurtziaz atzera egitea eragin du enpresetan (stocken jaitsiera eta inbertsioa atzeratzea), eta kreditua garestitzeak eta gainzorpetze pribatuak ere fluxu komertzialak ahultzea bultzatu du. 2008ko finantza-krisiaren ondoren, eragileen presentzia globala moteltzen hasi, eta, pixkanaka, gelditu egin da (*Slowbalisation*).

Baina sakonagoko eraldaketak ere ari dira gertatzen, eta hipotesi gisa planteatu liteke egiturazko aldaketak gertatzen ari direla globalizazio-prozesuan. Joerak ulertzeko, komeni da sakonago eraldaketa berrietan arreta ipintzea (faktore estrukturaletan, alegia).

Lehen kapituluan ikusi bezala, ekonomia globalak askotariko eraginak izan ditu, horietako batzuk kaltegarriak, bereziki Mendebaldeko gizarteetan, eta, horren ondorioz, indarra hartu du alde anitzeko akordioak modu unilateralean eta arbitrarioan hausteko legitimazio sozialak. Baina analisi kamutsa da dinamika globalak Mendebaldeko erreakzioaren argitan baloratzea. Badira sakonagoko beste hainbat eraldaketa.

Lehenik eta behin, susperraldian dauden herrialdeetan, aldaketa sozioekonomikoa gertatu da; klase ertaina egonkortu, eta soldatak igo dira, eta Mendebaldeko enpresentzat gero eta garestiagoa da deslokalizazioaren kostu-abantailen baliatzea. Ekoizpen-prozesua munduko hainbat tokitan zatikatzearen arrazoi nagusia lekualdatzearen abantaila konpetitiboaz baliatzea izan da, eta horren zio nagusia enpresen irabazia eskulan merkean oinarritzea izan da. Haatik, susperraldian dauden herrialdeetan ere lan-kostuak handitzeak eta enpresen arteko konpetentziak lehia-abantaila galtzea ekarri du, eta, azken unean, baita produkzioa deslokalizatzeako pizgarriak makaltzea ere.

Bigarrenik, berrikuntza teknologiko eta digitala dela eta, lan-faktorearen garrantzia txikiagotzen ari da ekoizpen-prozesuan (ekoizpen askotan, soldata-kostuaren pisua txikitzen ari da). Gainera, ekoizpen-kostuko soldataren pisu txikiago horrekin batera, balio-kate globalak gero eta gehiago ezagutza intentsiboan eta kualifikazio altuko enpleguetan oinarritu dira. Hirugarrenik, munduan zehar herrialdeen barruan egitura sozioekonomikoa eraldatu eta erosahalmena handitu ahala, kontsumoa hazten ari da herrialde horietan (barne-kontsumoa, alegia), eta horrek eragina du esportaziorako produkzioaren txikitzean eta nazioarteko komertzioaren intentsitatearen ahultzean.

Laugarrenik, balio-kate globalen garrantzi erlatiboa ahultzen ari da, eta fluxu komertzialak eskualde-mailan kontzentratzen ari dira.⁴⁴ Arrazoiak ugariak eta kontraesankorrek dira. Arrazoi batzuk susperraldian dauden herrialdeetako aldaketa sozialei eta herrialde horien arteko komertzio-fluxuen handitzeari lotuak daude. Beste batzuek, berriz, Txinaren merkatu-baldintzak direla eta (jabetza intelektualari loturiko arazoak, teknologia transferitzeko exijentzia), Mendebaldeko enpresen itzulerarekin dute zerikusia (*reshoring*). Eta badira, halaber, kontsumo-ohiturek eragindako motiboak ere: bezeroaren eskariari eta pertsonalizazioari (*customization*) modu bizkor, malgu eta egokian erantzute aldera, ekoizpeneko faseak (produkzioa, berrikuntza, diseinua, marketina) gertu lokalizatzeari ekin zaio. Esate baterako, Txinaren eraldaketa teknologiko eta produktiboa dela eta, merkatu aurreratua da (berrikuntza handikoa, erdiko klase sendokoa, kontsumitzaile-eremu oparokoa), eta multinazionalen I+G zentroak ere ari dira Txinara lekualdatzen. Ekoizpen-prozesua gune batera lekualdatzea muturreko adibidea da, baina ohikoa bilakatzen ari da eskualde-eremu berean lokalizatzea (*nearshoring*); AEBko jarduerara produktiboa Mexikora lekualdatzea da horren adibidea. Ikuskizun da halako eskualde-lekualdatzeek zer-nolako bilakaera izan dezaketen European.

Bestela esanda, munduko konbergentzia teknologiko eta soziala gertatzen ari den heinean, nekez pentsa genezake globalizazioa eta balio-kate globalak orain artekoen modukoak izango direnik. Momentuz, patroi ekonomikoak ezegonkortzen ari dira, eta ikuskizun da globalizazioaren egiturak eta prozesuak zer bilakaera izango duten.

2. Enpleguaren polarizazioa

XXI. mendearen hasierako patroi ekonomiko berriak ulertze aldera, enpleguaren polarizazioa da bigarren gai inportantea. Herrialdeetan lanbide-patroiak eraldatzearekin batera, enpleguaren polarizazioa (soldataren banaketako bi poloetako enplegua sendotzea) aurreikusten da, bien artekoa gelditu edota txikitzearekin batera.

Automatizazioak lan-merkatuan izan ditzakeen eraginei dagokienez, agertokiei buruzko prospekzioek, gaur arteko joeretan oinarrituta, hau diote: batetik, enplegu ez-kualifikatuko lanpostuak haziko dira (eskulan ez-kualifikatuko zerbitzuak, eginkizun ez-errutinarioak, baina balio erantsi ahulekoak, produktibitatearen hazkunde baxuarekin), bereziki eskuzko trebeziei eta komunikazio interpersonalei loturikoak; bestetik, kualifikazio eta abstrakzio altuko langileak areagotuko dira, produktibitatea hobetu eta soldata altuak ahalbidetzen dituzten teknologiak baliatuta; eta, hirugarrenik, langabeziaren arrisku potentziala nabarmenduko

44. De Backer, K., C. Menoni, I. Desnoyers-Jamesi eta L. Moussiégti (2016). *Reshoring: Myth or Reality?* Paris: OECD Publishing.

da, edo, hobeto esateko, errutinazko eginkizunak nagusitzen diren enpleguak desagertuko dira, eta robotek modu efizientean lan egingo duten lanpostuetako landunak arriskuan ipini, beraz.

Agertoki horren arabera, enplegu ez-kualifikatua ez da 1980ko urteetan bezain-beste galduko; areago, robotek eta ordenagailuek algoritmoen bidez diseinaturiko prozesuei jarraituz ordezkatu ahalko dituzten errutinazko eginkizunak leudeke arriskuan (eskulaneakoak zein kognitiboak izan); horrek aurrerabide teknologiko partziala (*task-biased technological progress*) iradokitzen du, eta modu batera edo bestera eragingo luke, enplegu motaren arabera. Guztiarekin, ziurgabetasunezko auzia da zer-nolako eraginak izango dituzten gaur egunean robotizazioak eta adimen artifizialak lan-merkatuan eta hazkunde ekonomikoan (alderatu ikuspegiak: Arntz et al 2016; Autor 2015; Autor eta Dorn 2013; Bárány eta Siegel 2017; Emmenegger 2012; Frey eta Osborne 2017). Badakigu, ordea, garapen teknologikoa modu azeleratuan ari dela gertatzen eta artefaktuek badutela jarduera adimendunerako gaitasuna (ikus 5.4. kapitulua).

Nolanahi den, enpleguaren konposizio sektorial eta okupazionala aldatzearekin batera, lan-merkatuaren konfigurazio berrian eragingo duten beste hiru auzi ere badaude: bata, produktibitatearen igoera enpresa bakanetan kontzentratzen ari dela (Andrews et al 2015); bigarrena, produktibitatearen igoerak ez duela eskutik izango enpleguaren sorrera (Autor et al 2017); hirugarrena, lan-modalitate oso ezberdinak (laneko harremanetan, kontratazio-moduetan) sortuko direla eta ziurgabetasuna, prekaritatea eta zaurgarritasuna erdiguneko kezkak izango direla pertsonen ibilbide profesional eta laborlean (Datta 2019). Alde horretatik, beraz, lan-merkatuaren konfigurazioan ekonomiaren digitalizazioak eta robotizazioak garrantzia izango badute ere, pertsonen lan-zaurgarritasuna ulertzeko aldagai gehiago ere badago. Auzi hauek guztiek, gainera, inplikazio makroekonomikoak ere badituzte. Esate baterako, lan-merkatuko teknologia berrien eragina dela eta, azken bi hamarkadetan, soldaten eta inflazioaren eboluzioaren arteko lotura hautsi da: enpleguaren ezegonkortasunak eta laneko baldintzek eskarian eragiten dute, eta prezioak igotzea saihestu; hedaduraz, soldatak hobetzea ere tratatzen du. Gaur arteko premisa ekonomiko nagusiak eraberritzen ari dira.

3. Merkatuaren kontzentrazioa

Hirugarrenik, patroi ekonomikoen joera-aldaketa ulertze aldera, oligopolio globalak, merkatu-sarbiderako hesi artifizialak edota enpresen eskaintzaren diferentziaziorako gaitasunak aipatu behar dira. Izan ere, joera horiek aukera ematen dute prezioak nahieran ezartzeko (merkatuko nagusitasuna dela eta,

irabaziak ez dira –zertan– prezio baxuagotan islatu), eta eskala handian errenta mugagabeak irabazteko. Horren ifrentzua da, ordea, enpresen dinamismoa eta berrikuntza sozioteknikoa, lehiarako aukera-berdintasuna edota lansaria bezalako auzi funtsezkoak makaltzen ari direla.

Erraldoi teknologikoena da lehiakortasun askeari eta berrikuntzari buruz kezka eragiten duen adibideetako bat. 2018. urtean munduan plataforma digitalek zer-nolako merkatu-kuota izan zuten aztertuz gero, zera ikus daiteke:⁴⁵ bilaketan % 95,9 Google bidez egiten da; hodei-konputazioan (Interneten bidez konputazio-zerbitzuak eskaintzea ahalbidetzen duen teknologia), Amazon Web Services (% 31,6) eta Microsoft Azure (% 16,8) nagusitzen dira; publizitate digitalean, Facebookek % 38,3 eta Googlek % 21,6 bereganatzen dute; telefonia mugikorrean, Androidek merkatu-kuotaren % 80 du, eta komertzio elektronikoaren erdia Amazonena da. Industria polarizatuak dira, eta e-monopolioaz eta duopolioaz hitz egin daiteke. Gainera, enpresa horiek dira erabiltzaile eta enpresa-bezero gehien dituztenak (esate baterako, Amazonen saltzen duten enpresak, Google edo Facebooken publizitate-zerbitzuak erabiltzen dituzten enpresak), eta, datu horiek informazio-iturri gisa baliatuta, erraldoi teknologikoen egitasmoetan dago epe motz-ertainera eremu orotan (publizitatea, e-komertzioa, enpresentzako zerbitzuak, telekomunikazioak, entretenimendua, aseguruak) lehiatzea.

Gaiak gero eta kezka gehiago eragiten du, zalantza funtsatuak baitaude haien posizio monopolistikoaz eta merkatuko kontrolaz (Internet, sare sozialak, telefono mugikorretako sistema eragileak dira gaur-gaurkoz esanguratsuenak). Merkatuen gaineko nagusitasunak erabateko aukera ematen die informazioa ustiatzeko, lehiakide potentzialak erosteko edota haien jarduna kopiatzeko (Facebooken kasua WhatsApp, Instagram eta Snapchatekin, esate baterako).⁴⁶ Neurri berean, erraldoi teknologikoez ez dute soilik merkatu-kuota handia, baizik eta horrez gainera merkatuan aritzeko plataformak euren kontrolpean dituzte. Googleri horrek eman dio aukera AdSense for Search plataformaren bidez publizitatea bere mesedetan egiteko edo erabiltzaileek beraren Google Shopping zerbitzua lehenesteko, esate baterako. Beste adibidea da Amazonek bere plataforman salerosketak egin ohi dituzten enpresen informazioa baliatu izana, gero marka zuriko produktuak sortu, merkaturatu eta desplazatzeko. Lehiakideen faltan, erregulazioa da azken aterabidea, baina gobernuen esku-hartzeak tentsioak eragiten ditu. Bien bitartean, EBren urratsak (datuen babeserako legeak, herritarren eskubide digitalak, copyrightari buruzko direktiba berria) momentuz bederen azalekoak dira.⁴⁷

45. Jiménez, M. (2019). El poder amasado por los gigantes tecnológicos hace saltar todas las alarmas. *Cinco Días*, Jun 10.

46. Boffey, D. (2017). This article is more than 2 years old Google fined record €2.4bn by EU over search engine results. *The Guardian*, 27 Jun; Toplensky, R. (2019). Margrethe Vestager to hit Google with another fine. *Financial Times*, March 15.

47. Ikus Margrethe Vestager europar Lehiakortasun komisarioari elkarriketa (2019): A Convenient Life and a Good Life May Not Be the Same Thing. *The Atlantic*, April 6.

Guztiarekin, bi hamarkadaren buruan, merkatuaren kontzentrazioa ia erabatekoa da arlo ugarian; besteak beste, zentro logistikoetan eta saltokietan, automozioan, txikizkarien salmentan, enpresa handien kontu-ikuskaritzako zerbitzuetan, agroindustrian, produktu kimikoetan, finantza-zerbitzuetan, ordainketa digitalaren sektorean eta bidaiarientzako hegazkinen fabrikazioan. Lehiakortasuna lausotzen duten moduak, gainera, ugariak dira (prezioen kartelak, enpresen eta haien banatzaile nagusien arteko fusioak, eskusibotasun-akordioak, bat-egiteak eta eskuratzeak). Joera berri horiek aparteko kezka eragiten dute (De Loecker eta Eeckhout 2017; Tepper eta Hearn 2019).

Laburbilduz, beraz, patroi ekonomiko berriak hauteman ditzakegu: lehen ondorioa da estandar ekonomiko bakarrerako konbergentzia globala hauteman daitekeela; bestea, herrialdeen barruan –enpleguaren konposizio berriak eta enpresa digitalen nagusitasunak eraginda– ezberdintasunak handituko direla. Batak eta besteak ezohiko agertokia irekitzen dute Mendebaldeko gizarteetan, gainera.


3.5. EZBERDINTASUNEN KRONIFIKAZIOA

Patroi ekonomikoan eta geoekonomian gertatzen ari diren aldaketak ezin daitezke ganoraz ulertu bi prozesuen arteko elkarreraginak aintzat hartu ezean. Alde horretatik, munduko ekonomien hazkunde asimetrikoak erdiko klasearen iraultza ekarri du (munduaren herena erdiko klasekoa da, eta Txinan hazi dira biztanleen erdiak baino gehiago); munduko pertsonen arteko ezberdintasunak txikiagotu dira (herrialdeetan, aldiz, hazi egin dira), eta txirotasun absolutuaren jaitsiera nabarmena gertatu da. Bada beste aldaketa esanguratsu bat: XX. mendearen bigarren erdialdean, munduko biztanleria bikoiztu egin zen (6.000 milioi izatera heldu zen), eta BPGaren hazkundeak, mundu-mailako per capita errenta igo ordez, txirotasun globala handitzea ekarri zuen. Joera hori bestelakotu egin da, bereziki susperraldian dauden herrialdeek munduko ekonomian gero eta garrantzi handiagoa hartu ahala.

Neurri berean, baina, desberdintasun sozialei buruzko indizeek bestelako zehaztapenak egitera ere behartzen gaituzte. Gera bedi bat behintzat aipatua: maila globalean, errenta baxuenak (planetan, errenta baxueneko pertsonen % 50) hazkunde esanguratsua izan du; malnutrizioari dagokionez, 2002. urtean biztanleriaren %15,1ek izatetik 2016. urtean % 10,8k izatera jaitsi da, eta, oster, Saharatik hegoalderako

Afrikan, txirotasun absolutuak ez du egoera iraultzeko arrastorik erakusten. Munduko biztanleriaren bizi-itxaropena adierazle aski esanguratsua da; beste hainbat adierazlelek egiaztatzen dituzten aldeak eta ezberdintasunak berresten ditu, gainera (4. grafikoa).

4. grafikoa: Munduko biztanleriaren bizi-itxaropena 1800., 1950. eta 2012. urteetan



Iturria: OurWorld in Data

Aintzat hartu behar da Afrikan 2020. urtean 1.352.662 biztanle (guztiaren % 18,3) izatetik 2030. urtean 1.703.537 (% 20,8) eta 2050. urtean 2.527.556 (% 26,6) izatera pasatzea aurreikusten dutela bilakaera demografikoari buruzko prospekzioek; 1950. urtean, Europak biztanleria osoaren % 25 biltzen zuen; orain, ordea, % 7ren azpitik. Gaur egunean, Afrikan, batez besteko adina 19,8 urtekoa da (EBn, 42,7koa), eta 2050. urtean 24,8koa izatea (EBn, 46,6koa) aurreikusten da, eta biztanleen erdiak hiriguneetan biziko dira (EBn, aurreikusten da 2020. urtean biztanleriaren % 74,4 hirigunean

bizitzetik 2050. urtean % 81,2 bizitzera pasatuko dela). Urbanizazio-prozesuak, gainontzean, esangura soziologikoa ere badu: trantsizio hori egitean, ohiturak, pentsatzeko moduak, jarrerak eta jokabideak erabat aldatzen dira. 2007an, gizate-riaren historian lehen aldiz, nekazaritza-eremuetako biztanle kopuruari gaina hartu zioten hirikoek.

Afrikaren kasuan, bestalde, atzerriko inbertsio zuzenak azpimarra merezi du. Afrikak jasotzen duen atzerriko per capita inbertsio zuzena munduko baxuena da. Txina da Afrikan mailegu-emaike handiena, eta azpiegitura-proiektuak finantzatu ditu. Hiru dira arrazoi nagusiak: Txinan, azpiegiturak dagoeneko mugara iritsiak daude eskualde batzuetan; estatuak subsidioak ematen dizkie azpiegitura-enpre-sarik eta enplegurik gal ez dadin; teknologia zaharkituak dira (ez dute balio Txinako ingurumen-krisiari erantzuna ganoraz emateko, eta Afrikara lekualdatzen dira). Era berean, Txinaren inbertsioak herrialdearen interesetara lerrokatuak daude (baliabide naturalak, eraikuntza eta garraioa), eta, ostera, manufaktura-sektoreko inbertsioa urria da.

Beste era batera esateko, Txina azkenaldian zorpetze-maila altua eragiten eta enplegu gutxi sortzen ari da Afrikan (inbertituriko milioi bat dolarren ordainetan, 1,78 enplegu sortzen da). Orotara, Txinak munduan dituen inbertsioen % 4 dago Afrikan. Europaren kasuan, berriz, lehenengoa da inbertsio zuzenean (bai inbertsio metatuan, bai inbertsio berrietan), eta, Txinarekin alderatuz, manufaktura-sekto-reak eta enpresentzako zerbitzuek pisu handiagoa dute Europaren inbertsio zuzenean.

Datu horiek guztiak munduko iraultza ekonomikoaren tentsio lokal eta globalak iragartzen dituzte. Izan ere, epe motz-ertainean, ikaragarritzko desorekak eragin ditzakete biztanleria handieneko kontinentean. Afrikak aurretik dituen erronketan ere (auzi industrialak, komertzialak, ekologikoa, hezkuntza eta gaitasunen sustapena) faktore erabakigarriak izan daitezke inbertsioei loturiko fenomeno horiek guztiak.

3.6. TXINAREN ESZENARATZEA

Testuinguru horretan, bestalde, Txina potentzia ekonomiko eta politiko gisa ageri da (Naughton 2017). 1970eko hamarkadatik aurrera, Txinak, ekonomia erreformatu, eta merkatu globalera bideraturiko politikei ekin zien. Txina 2001. urteko abenduan MMEn sartzea da ziurrenik eboluzio horren ikur agerikoena (sarbideari buruzko protokoloan zehaztu zen 15 urteko epean Txina ez zela merkatuko ekonomia gisa katalogatuko, eta neurri komertzial aldean iztunak diskrezio-gradu handiarekin koordinatzeko aukera ematen zitzaion). Txinak, lau hamarkadako epean batez beste urteko % 9,7ko hazkundea izanik, eraldaketa nabaria izan du, munduko fabrikatzaile eta esportatzaile handiena bilakatuta. Bestalde, biztanleriari dagokionez, 1950. urtean 582.603 pertsona izatetik 2010. urtean 1.341.335 pertsona izatera pasatu da. Azaldu dezagun Txinaren bilakaera eta zer eragin duen munduko ekonomian.

3.6.1. Mundua ez da laua

2000ko hamarkadaren hasieran, hipotesi batek oihartzun berezia izan zuen. Haren arabera, geografiak garrantzia galduko luke merkatu globalen funtzionamenduan, lehiakortasun perfektuko mundu lau baten mesedetan, eta, horren ondorioz, globalizazioak eta berrikuntza teknologikoak mundu osoan barreiatuko lituzkete aukerak, talentua eta kualifikazioa.⁴⁸ 2001. urtean, Txina MMEn sartzearekin batera, gobernantza-sistema aldean iztuna egonkortzea eta eredu ekonomikoen konbergentzia –Mendebaldeko kapitalismo liberalarekin homologagarria izatea, alegia– irudikatzen dira.

Iruditeria hori AEBren nagusitasun teknologikoan zetzan. XX. mendearen bigarren erdialdean, AEBk, unibertitateen eta bereziki I+G militarren bultzadarekin, lidergo teknologikoa egonkortua zuen. Hori dela eta, AEBren eta Txinaren arteko harremanak bien mesedetan irudikatu ziren hasieran (*positive-sum game*) AEBren estrategietan: 1970eko hamarkadan, AEBk Txinan irabazietarako merkatu handi,

48. Friedman, T.L. (2005). It's a Flat World, After All. *New York Times Magazine*, Apr 3, 32-37.

Txinak aurrerabiderako bide luzea eta garestia txikiagotzea erdietsi zuen AEBko teknologia baliatzeari esker. Txinak lehen unetik erakutsi du baduela atzerriko inbertsioei loturiko teknologia xurgatu eta baliatzeko gaitasuna. Horren luzapen modura, bilakaera honela irudikatzen zen: Txinako merkatua munduari irekiko zaio; txinatar kontsumitzaileek Mendebaldeko produktuak erosiko dituzte; Mendebaldeko enpresek Asiako merkatuan inbertituko dute itzulkin handiak aprobetxatuz, eta Txinako eskulan merkeak Mendebaldeko kontsumitzaileei aukera emango die ekipo-ondasunak kostu baxuan eskuratzeko. Bestela esateko, nazioarteko komertzioak, teknologiaren eta produkzioaren garapenerako kostuen beherakadak, eta inbertsioen fluxuak joko-arauak eta mundua lautzea (*flat world*) eta simetria ekarriko lituzkete, iruditeria horren arabera.

Gaur egunean, ostera, Txinaren hazkunde esponenziala dela eta, bi herrialdeen arteko harremanak zero baturako joko gisa hautematen dira (*zero-sum game*).⁴⁹ Izan ere, AEBren nagusitasun ekonomiko, teknologiko eta geopolitikoak (telekomunikazioetako azpiegiturak, jabetza intelektuala, posizio militarra) aurrez aurre dute lehiakide berria (Rachman 2011). Horren adibide bat da AEBren eta Txinaren artean dagoen lehia bizia ordenagailu kuantikoetan informazioa prozesatzeko abiadura bizkortzeko egitasmoan. Beste adibide bat «Made in China 2025» estrategia da (gaitasun zibernetikoetan, IKTetako sektore teknologikoetan, aeronautikan eta adimen artifizialean munduko lidergoa eskuratzeko Txinaren egitasmo berria).

Bigarren eta hirugarren kapituluetan zehar ikusten ari garenez, arlo teknologiko eta industrialean, Txinak badu ekonomia aurreratuekin lehiatzeko gaitasuna. Gaur-gaurkoz, ezagutza, ikerketa teknologikoa eta berrikuntzen garapen komertziala klusterretan taldekatzen ari den heinean, mundu-mailako ekintzailletza teknologikoa (gutxienez 1.000 milioi dolarreko balorazioa duten enpresa berriak) Txinan eta AEBan kontzentratzen ari da. Joera orokorra bi herrialde horiek gainontzeko guztiak teknologiaren transferentzia-prozesutik bazterreratzea da, talentuaren, enpresa teknologikoen eta lehia globalaren gune nagusiak euren eskualde jakinetan kontzentratuz eta biak ere egitasmo bertsuetan lehiatuz. Mundua ez da laua.

3.6.2. Gatazka-ardatzen ugaritzea

2010eko hamarraldian, AEBren eta Txinaren artean ardaztu dira, hain zuzen ere, nazioarteko politikako eztabaidagai eta liskar nagusiak. Joera-aldaketak igar dai-tezke, ordea, auzi komertzialek ez ezik auzi teknologikoen ere gatazketan pisua hartu ahala.⁵⁰

AEBren eta Txinaren arteko gatazka batzuk merkatu-dinamikei eta muga-zergei loturikoak dira. Izan ere, Txinak 120.000 milioi dolarreko inportazioa egiten du AEBtik, eta, aldiz, 540.000 milioi dolar ingurukoa esportatzen da Txinatik AEBra. Balantza komertzialaren saldoan, aldea ikaragarria da. Era berean, AEBk Txinako produktuei muga-zergak ezarriak dizkie (250.000 milioi dolar baino gehiago). Gainontzean, badago AEBren gailentasun ekonomikoaren galera iragartzen duten hainbat adierazle. Horietako bat da AEBren zor publikoa (Txinak ditu AEBko Altxor Publikoan bonuen % 20, eta zenbatetsi da Txinak 1,3 bilioi dolar dituela AEBko bonutan). Bestea da harreman komertzialaren defizita: AEBren defizit komertzial osoaren % 66 (Txinak, zuhurtziaz, soja eta gasa erosiz orekatu izan du AEBrekiko defizit komertzial bilaterala, ordea).

Mendebaldeko ekonomien argitan, Txinaren berezitasunetako bat da nazioarteko komertzioan lehiatzen dela, eta, horretaz gain, ez da merkatu-ekonomia bat. Hori dela eta, Txinak balia ditzake irekiera komertziala (esportazioa) eta gainontzeko herrialdeetan inbertsioa egitea (enpresen jabetzea, esate baterako), baina, aldi berean, Txinan, arau bereziak daude atzerriko herrialdeetako enpresen sarbide-rako eta inbertsio zuzenerako (Txinako ekonomiako sektore gehienak jabetzari eta kontrolari itxiak dira atzerriko enpresentzat), eta atzerriko merkatuko inportazioari ere mugak ezarriak dizkio. Txina, beraz, merkatu berrietara zabaldu da, baina, aldi berean, ekonomiaren planifikazioa eta estatu-kontrola mantentzen ditu (enpresa kopurua, merkatu-kuota, enpresa kotizatuak aintzat hartuta, Txinan pisu txikia dute bertako enpresa pribatuek; bestalde, munduko 500 enpresa handien artean, 129 txinatarrek dira, eta horietatik % 80,2 enpresa publikoak dira).⁵¹

Baina inplikazioak bestelakoak ere badira. Txinako merkatua ez dago atzerriko lehiari irekia, eta horrek askotariko abantailak ematen dizkio. Esate baterako, Txinako merkatuan ez dago atzerriko lehiakide pisuzkorik, eta, horren ondorioz, enpresa txinatarrek kontsumitzaileen errentak eta barne-merkatuko irabazi handiak baliatzen dituzte atzerriko merkatuan lehiazeko. Era berean, Txinan, estatuak ekoizpenaren

50. Wolf, M. (2019). The looming 100-year US-China conflict. *Financial Times*, June 4.

51. Yangpeng, Z. (2019). In a first, China has more companies on Fortune Global 500 list than the US. *South China Morning Post*, July 22.

ia kontrol erabatekoa du, eta horrek aukera ematen dio enpresei subsidioak eta finantzazioa interes-tasa mesedegarrietan emateko eta enpresak nazioartean baldintza hobekoetan lehiatzeko eta inbertsio errentagarriak egiteko. Mende-baldeko ekonomien begietara, beraz, Txina ezohiko neurriekin eta abantailarekin lehiatzen da mundu globalizatuko merkatu-ekonomian.

Txinak askotariko muga garbiak ezarriak dizkie komertzioari eta lehiakortasunari. Izan ere, Txina lehen posizioan dago atzerriko inbertsio zuzenari, zerbitzu digitalen komertzioari eta telekomunikaziokoei mugak ezartzeari dagokionez.⁵² Alde horretatik, Txinaren kasuan, arrakasta ekonomikoaren giltzarria –merkatu globalen aprobetxamendua eta esportazioa garrantzitsuak izan arren– egiazki arau alde-aniztunetatik erabat urrunduriko kapitalismo berezi batean egon liteke: besteak beste, sistema produktiboa metaketa publiko-pribatu berezietan datza; Txinako merkatuan lan egiteko, atzerriko enpresek tokiko bazkidearekin partekatu behar dute teknologia (ohikoa da, gainera, produktuak eta prozesuak kopia ostean atzerriko enpresa kanporatzea); eta abantaila konparatiboa duten enpresei (zerbitzuen sektorea bere osotasunean) sarbidea eragotzi zaie.

Horri esker, esate baterako, balio-kate propioa eratu du automobilaren industrian: atzerriko enpresek, Txinako espazio ekonomikoan sartzearen ordainetan, teknologia transferitu behar izan zuten –Ford, Volvo, General Motors–, eta, gaur egun, Txinan osoki ekoizitako automobilak saltzen dira nazioarteko merkatuan. Beste adibide esanguratsu bat abiadura handiko tren da: errailak hornitzeko kontratuak eskuratu nahi izan zituzten atzerriko enpresek trenbideen estatu-enpresarekin asoziatu behar izan zuten, eta hitzarmenak zehazten zuen ekoizpen-kateko zati batzuk Txinara eskualdatzea. Modu batera edo bestera, Txinak urrats handia egin du bi hamarkadako epean arlo teknologiko eta industrialean.

Ingurumari horretan, AEBk –diskurtso merkantilista argi batekin– 2010eko hamarraldi osoan zehar argudiatu du Txinak ez duela betetzen jabetza intelektualaren aitortza («sekreto industrialaren eta patenteen inbasioa»), garapen teknologikoak kopia ohi dituela jabetza intelektualetik eratorritako royaltien esplotazioagatik ezer ordaindu gabe, edota aldiro monetaren depreziazioaren aurkako arauak hausten dituela yuana modu artifizialean devaluatu eta herrialdearen esportazioei mesede egitearren, «nazioarteko merkataritzan lehiakortasun-abantaila bidegabea» baliatuz.⁵³

52. OECD (2019). *Measuring the Digital Transformation: A Roadmap for the Future*. Paris: OECD.

53. Swanson, A. (2019). The U.S. Labeled China a Currency Manipulator. Here's What it Means. *The New York Times*, Aug 6; Mohsin, S. (2019). U.S. Labels China a Currency Manipulator, Escalating Trade War. *Bloomberg*, Aug 6; Beattie, A. (2019). Donald Trump sets a toothless dog loose on China. *Financial Times*, Aug 7.

Haatik, azken urteotan, gatazka-ardatzak modu nabarmenean arlo teknologikoan zentratu dira. Gutxietsi gabe herrialde bien arteko desoreka komertziala edota balantza komertzialaren saldoa, AEBren gatazka-ardatz berria kapitalen kontrolari eta bereziki politika industrialari eta teknologikoari loturikoa da. Horrek erabat baldintzatuko du nazioarteko merkataritza hurrengo urteetan. Izan ere, Txinak erakutsi du egitasmo teknologiko beregaina duela. Kontuan izan behar da, gainera, AEBko ondasun eta zerbitzuen esportazioaren % 20 eduki teknologiko altuko enpresen zori zaiola (ordenagailuak, hegazkinak, makina-erreminta, robot industrialak, ekipo zientifikoak, bereziki).

2019ko udaberrian AEBren eta Txinaren artean telekomunikazioetako segurtasunaren inguruan sorturiko tentsioak lehia teknologikoa azaleratzen du sakon-sakon. Izan ere, merkatu globalean ekimena hartzen duenak abantaila izan ohi du (*first-mover-advantage*); alegia, arlo teknologikoan ekimena duenak, irabaziez gain, gainontzekoei estandarrak ezartzeko gaitasuna izaten du. 4G teknologian AEBk hasieran izaniko gidaritzak bereziki Apple eta Google enpresen lidergoa ekarri du, baina errezeloa dago antzerakoa gertatuko ote den Txinak lidergoa duen 5G teknologiarekin (Huaweiren sarea hobetsiko zatekeen, esate baterako, urrutiko robot gidatuen ebakuntza kirurgikoetan, hiri-garraio telegidatuetan, gailuen urrutiko kontrolean). Gatazka teknologikoa dago guztiaren erdigunean. AEBk Huawei galarazi izana Googleren sistema eragilea (Android) eta aplikazioak gaurkotzea eta txip aurreratuen diseinua eta fabrikazioa baliatzea, sakon-sakonean, enpresa txinatarra bainoago Txina estutzeko modu bat baizik ez da, lidergo teknologikoa oztopatu edo bederen atzeratzeko.

Ildo beretik, arlo teknologikoan, adierazle nagusiei buruzko joerak (datuen nagusitasuna eta erabilera, teknologia patentatuak) modu azeleratuan aldatzen ari dira, Txinaren mesedetan. 2001. urtean, Txinak AEBko 265 patente aurkeztu zituen patenteen bulegoan; 2014. urtean, berriz, 7.921 izan ziren (% 2.889ko hazkundera, alegia). Era berean, teknologia digitalean eta datuetan oinarrituriko berrikuntzek garrantzia hartu ahala, esate baterako, 2013-2016 epeko Txinaren patenteen % 60 IKTei zegozkien; ELGAko herrialdeetan, aldiz, % 33. Bestalde, informatikari loturiko ekoizpen zientifikoan, Txina AEBren eta EB 28ren atzetik dago nabarmen, baina, adimen artifizialari loturiko ikerketan, EB 28ren parera iritsia dago, eta estrategia ardaztua du teknologia berrienetan. Auzi teknologikoak esplikatzen du ekosistema digital biren pixkanakako garapena, eta, alde horretatik, baita mundu-mailan horniduren balio-kate globalean gertatzen ari den jaitsiera ere (ikus 3.3.2. kapitulu globalizazioaren egitura berriaz esanikoak). Horrek esplikatzen du, bide batez, AEBko goi-akademietatik ikasle eta ikertzaile txinatarrek (360.000 ikasle eta ikertzaile orotara) kanporatzeko aukera planteatu izana.

Hori gutxi ez, eta, lur arraroak gaur egungo industrian ezinbestekoak dira (LED argiak, plasmazko pantailak, mugikorrek, auto elektrikoak bateriak), eta Txinak lur arraroen % 83 ekoizten du, eta % 55eko erreserba du. Horri guztiari gaineratu behar zaio garraio- eta komunikazio-azpiegituren arloko kontinente arteko proiektua (*Zetaren Bide Berria*, edo, ingelesez, *Belt and Road Initiative*), zeinak adarkatzeak baititu Latinoamerikan eta Afrikan, eta Txinaren garrantzi eta proiektu globala iragartzen baitu. Proiektu horrek, Asiaren erdialdean eta Afrikan hasitako azpiegiturekin batera, badu irakurketa geopolitikoa, baina bada beste auzi bat ere: azpiegituren proiektuak epe luzera aktiboak eskuratzeko estrategia ere badira. Aldaketa inportantea da: Txinak, bi hamarkadatan superabitu komertziala izanda, dibisa-erreserba handiak metatu ditu, baina azkenaldian AEBko Altxor Publikoko bonuen errendimendua baxua dela eta, aktiboak herri-lanetan birkokatzen hasi da.

Gainontzean, Txina lehen ekonomia mundiala da erosahaltenaren parekotasunean, munduko esportatzaile nagusia, eta, I+G eta defentsa-alarretan, dagoeneko planeta osoko bigarren aurrekontu handiena du. Bestalde, AEBko multinazionalen negozioak zaurgarriak dira Txinako ekonomiaren eta kontsumoaren aurrean, eta, beraz, Txinaren aurkako politika komertzialen zehar-kaiteak mundu globalean pairatzen dira. Hori batzuetan gertatzen da enpresek Txinan dituztelako euren hornidura- eta manufaktura-katearen zati handienak (Apple), besteetan Txina delako euren merkatua (Google, Intel, Qualcomm, KFC, Starbucks, AMD), eta sarritan zio biengatik (General Motors, Ford, Chrysler).

Alde horretatik, defizit komertzialari aurre egiteko muga-zergak baliatzea, zuzenean eta zeharka, AEBko kontsumitzaile eta enpresen kalterako izan liteke. Hutsegite estrategikoa da balio-kate globaleko ekoizpen-testuinguruan logika merkantilistarekin aritzea. Izan ere, ekoizpeneko balio-kate globalen garrantzia dela eta, AEBk Txinako produktuei muga-zergak ezarri inportazioei galga ipini nahi izateak –D. Trumpen xedea– ez du zertan ekarri AEBko produkzio lokalaren sustapena, muga-zergek besteak beste horniduren prezioa igotzen dutelako. Horrez gainera, Txinari negozio-estrategiak doitzeko aukera ematen dio merkatu zabalak. Esate baterako, Huawei, 2019ko bigarren hiruhilekoan, Applek mundu osoan baino telefono mugikor gehiago saldu ditu: 58,7 milioi terminal orotara apiril eta ekain artean, haietatik % 62 Txinan (36,4 milioi unitate), Applek epe berean saldutako 33,8 milioi iPhoneak baino gehiago. Bi datu gehiago: Huaweiaren munduko salmentak % 8,3 igo ziren epe horretan, eta Txinan egin du negozioan urrats handiena (hiri txikietan zentratuz salmenta-estrategia).

AEBren kasuan, ostera, 2019ko lehen sei hilekoan, gerra komertzialaren testuinguruan, % 7,9 hazi da ondasun eta zerbitzuen defizit komertziala, bi arrazoi osagarri direla eta: bata, fluxu komertzialak berregituratu izana, eta, ondorioz, Txinako produktu merkeen inportazioa Asiako beste herrialdeetako prezio garestiagoekin ordezkatu behar izatea; bestea, AEBko enpresek Txinako ekipo-ondasunak, erdibideko produktuak eta kontsumo-ondasunak euren garapenerako behar izaten dituzte, eta, muga-zergekin, prezioak igo egin dira. Horrek zera berresten digu: enpresek utzi egin diote unitate nazional autoerreferentzialak izateari, eta produkzioa kate-maila globaletan antolatzeak zaharkitua utzi du herrien arteko muga-zergen gatazka politiko klasikoa.

Txinaren eta AEBren arteko harreman partikularrean arreta ipiniz gero, berriz, muga-zerga erantsiak ezarri eta lehen hilabeteen (2019ko ekaina), zera ikus daiteke: Txinaren maiatzeko superabita, AEBkoarekin alderatuz, % 11 hazi zen (balantza komertzialaren saldo positiboa 26.590 eurokoa izan zen, alegia), eta, 2018ko eskaintzarekin alderatuz, % 3. Era berean, Donald Trump AEBko presidentearen merkataritza-politikaren beste ifrentzua da dirulaguntza publiko handiak ezinbestekoak direla, esate baterako, bertako baserriarren produktuak lehiakorrik izan daitezzen; halaber ikusteko dago zer-nola eragingo dion 1.400 milioi pertsonako merkatuaren galerak AEBko nekazaritzako elikagaien sektoreari.

3.6.3. Europar Batasuna eta Txina

Ezbairik gabe, EBk ere mundu teknologiko bipolar horren argitan birdefinituko ditu merkatu irekiari eta lehia-politikari buruzko estrategiak eta diskurtsoak. AEBren eta Txinaren artean gatazka komertziala eta teknologikoa luzatu, zein behin-behineko akordioak erdietsi, kasu batean eta bestean trantze txarrean dago Europa; Europako herrialde askok inbertsioak eginak dituzte 5G sarean Huawei eta ZTE enpresekin, eta, bien bitartean, AEBren etengabeko mehatxua jasotzen dute, hornidura eta produktu txinatarrak bazterrean utz ditzaten.

Fluxu zientifiko eta teknologikoak AEBren eta Txinaren eraginpeko bi eremuetan itxiko badira, aukera bat da EBk ezagutza, teknologia eta merkatu aski handi eta sendoa garatzea, eta hirugarren bide bat irekitzea. Alabaina, gaur-gaurkoz, plataforma teknologikoei, patenteei, startupeki, adimen artifizialeko edo robotikako inbertsioei dagokienez, EB AEBtik eta Txinatik oso urrun dago, eta ez du politika teknologiko bateraturik.

EBk, gainera, nazioarteko gai politiko eta ekonomikoetan ez du ikuspuntu adosturik, eta zatikatua dago, herrialdeak ez baitira ados jartzen nola jokatu atzerriko inbertsio zuzenen aurrean. Txina abila da, eta modu bilateralean negoziatzen du, beti eskuan hartuta maileguak, kontratu-esleipenak, merkataritza-harremanak eta teknologiarren transferentzia. Ardatz franko-alemaniarrek EBren eta Txinaren arteko harremana hobesten du (gobernantza aldeaniztuna eta elkarrekiko komertzio-irekiera); herrialde periferikoek, Visegrad-eko ardatzak (Hungaria, Polonia, Txekiar Errepublikak eta Eslovakia) eta herrialde nordikoek, aldiz, hitzarmen bilateralak hobesten dituzte (xede kontrajarriekin, baina iritzita bestela Alemaniaren interesak soilik nagusitzen direla).

Azken hamar urteotan, Txinako aktiboen inbertsio zuzena (fusioak, jabetzeak, inbertsio berriak) laukoiztu eta 318.000 milioi dolarrera iritsi da Europako herrialdeetan (epe berean, AEBkoa baino % 45 aldiz handiagoa), eta, kontuan izanik EBko aktiboen herena Europakoak ez diren konpainien esku dagoela, horietatik % 9,5k Txinan, Hong Kongen edo Macaon dute egoitza nagusia (AEBan eta Kanadan dauden konpainiena % 42 izatetik % 30 izatera pasatu da hamar urtean). 2016. urtean, esate baterako, Txinako inbertsio zuzena 35.000 milioi euro izatera iritsi zen (2008. urtean baino 50 aldiz gehiago), eta, bitartean, EBk 8.000 milioi euro zeuzkan Txinan inbertituta. Aintzat hartu behar da, 2018. urtean, Txinak, AEBekin harremanak apurtuta, IKTen industrian atzerriko inbertsio handienak Europan egin dituela; «europar subiranotasun digitala» (E. Macron) oinarri ahuleko guraria da.

Testuinguru horretan, Alemania bereziki gero eta zuhurragoa da Txinarekin. Izan ere, Txina azken hamarkadetan Alemaniarentzat merkatu oparoa izan den arren, Txinak oraindik orain Europako industria lehiakorretan (eduki teknologiko handiko teknologian) esku hartu du. Alemanian eta oro har Europar Batasunean, aro berria zer den ulertzeko, beharrezkoa izan da Midea enpresa txinatarra Kuka robotikako enpresa alemaniarraz jabetzea. Hori dela eta, esate baterako, Alemaniak arau bereziak ezarri berri dizkio atzerriko inbertsio zuzenari sektore estrategikoetan, eta Europako Batzordeak ere europar enpresa estrategikoen erosketak ikuskatzeko sistema egokitu du.⁵⁴

Alemaniaren egoera biziki larria da. Alde batetik, herrialde esportatzailea da: munduko kapital esportatzaile handien artean dago (Txina baino gehiago), eta, azken hamarkadetan, herrialdearen hazkundea bereziki industriaren esportazioan oinarritu da (2008. urteaz geroztik bereziki AEBra eta Txinara esportatuta, orduarteko Europako esportazioak aldatuz). Bestetik, ordea, etorkizun hurbilean baditu hainbat arronka, sektore industrialari loturikoak nagusiki: batzuk automobilgintzari

loturikoak (auto elektrikoaren auzia) eta besteak gai komertzialei loturikoak. Azken horri dagokionez, AEBk komertzioa orekatzeko asmoa du, eta, kasu horretan, automobilen inportazioa jaits liteke; bestalde, Txina da Alemaniak gehien esportatzen duen merkatua, baina Txinaren eraldaketa komertzial eta ekonomikoak Alemaniako produktuen inportazioa jaistea eragingo du.

Gaur-gaurkoz, Alemaniaren superabit komertziala parekorik gabekoa da (2018an, 260.000 milioi euroko superabit komertziala, Alemaniako ekonomiaren % 8aren parekoa). Gaur egunean, Alemania da ekonomia sendoenen artean esportazioen mendekoen dena, eta nazioarteko merkataritzaren gorabeheren aurrean zaugarriena, beraz (haren BPGaren % 50 esportazioei lotua dago). Egiazki, Alemanian, estatuaren kontuek superabita dute; zor publiko netoa BPGaren % 40ren azpitik dago; atzerriko superabita BPGaren % 7koa da, eta badu inbertsio publikorako neurriak hartzeko gaitasuna, 2008ko atzeraldiarekin 2009an 50.000 milioi euroko neurri-sorta baliatu zuen bezalaxe (AEBn, baina, 750.000 milioi dolar baliatu ziren, esate baterako).

Une kritikoetan, Alemaniaren portaera ekonomikoa garrantzitsua da, eta Alemaniako BPGaren geldialdiak, jarduera ekonomikoaren jaitsierak (2019ko bigarren hiruhilekoan, automobilen salmenta 2009ko gutxienekoetan dago) eta atzeraldi teknikorako arriskuak hainbat kezka eragin du.⁵⁵ Izan ere, Alemaniak Europako herrialde askori zuzenean eragiten die; besteak beste, produkzio-kateen eta esportazioen eraginez, bereziki eskualde irekiei eta egitura ekonomikoan industriari pisu esanguratsua duten eskualdeei. Eurogunearen arkitektura berezia eta Europako aurrekontu antiziklikorik eza dela eta, gainera, Alemaniaren bultzada fiskala –politika fiskal hedakorra– da aukera bakarra, zeren eta atzeraldietan gainontzeko herrialdeen egitasmoa uzurtze-neurriak saihestera baizik ez baita mugatzen, eta neurri proaktiboen seinalerik ez da izaten.

Alabaina, perspektiba laburra eta zabala bereiziz gero, diagnostiko ekonomikoak Alemaniaren egoerari buruzko seinale askotariko eta kontrajarriak azaleratzen dizkigu, eta hazkunde-tasetan izan duen jaitsiera ulertzeko pistak baditugu. Begirada laburrari erreparatuz gero, Alemanian, adierazle guztiek egiaztatzen dute ekonomia bizia dela, eta, 2009ko urtetik aurrera, joerak bestelakotu dira (langabezia % 3koa da; sektore pribatuaren zorra txikia da eta kredituak indarra du; enpresek inbertitzen dute; inflazioa % 1,7koa da; azken hiruhilekoetan, soldataren batez besteko urte arteko igoera % 2koa izan da). Haatik, begirada luzeak azaleratzen du azken bi hamarkadetako doitze fiskalak eta aurrekontu-superabitek ondorioak ekarri dituela, hala nola barne-eskaria ahultzea, inbertsio pribatua kanpoko merkatuetara lekualdatzea, eta azpiegitura teknologiko eta digitalean lehiakortasuna galtzea.

55. Look, C. (2019). Bundesbank Warns German Economy Could Enter Recession. *Bloomberg*, Aug 19; Arnold, M. eta S. Provan (2019). German industrial output fall exacerbates fears of recession. *Financial Times*, Aug 7; Nienaber, M. (2019). Shrinking German economy 'on edge of recession' as exports stutter. *Reuters*, Aug 14.

Digitalizazioa –aurreko bi kapituluetan ikusi bezala– lehiarako testuingurua eta baldintzak zeharo aldatzen ari da, eta horren argitan ulertu beharrak daude automobilgintzaren, datuen informazio- eta kontrol-sistemaren, edota energia kudeatzeko modu berrien inguruko aukerak eta desafioak. Globalizazioaren egitura eta dinamika ere aldatzen ari dira, eta Asiaren ekialdeak dagoeneko badu AEBekin eta Alemaniaren lehiatzeko aukera; Txinak mugikortasun elektrikoan eginiko urratsa da horren adibidea. Alde horretatik, herrialdeen arteko muga-zergei buruzko gatazkak epe motzean arrastoa utz dezakeen arren (*i.e.* Alemaniako esportazioaren jaitsiera eta ekonomiaren uzkurtzea), diagnostikoari eta pizgarri fiskalei buruzko debateak epe ertain-luzeko begiradarekin aintzat hartu behar luke eraldaketa globalak. Liburuaren lehen bloke teorikoan iradoki nahi dugu komeni dela sintomak eta kausak ez nahastea. Nazioarteko eskariak modernizazioa eta inbertsioa eraldaketa teknologiko berrietan egitea eskatzen du, eta, munduko lehiakide ekonomikoek tamaina ikusita, gainera, aukerakoena adimen artifiziala eta halako alorretan europar-mailako partzuzergo teknologikoak garatzea da. Alde horretatik, politika fiskalak begirada laburrekoak izanez gero (eskari-arazoak dituen industriari laguntzea, automobilgintzarako dirulaguntzak onartzea, nazioarteko plantak ixtea eta hartara gehiegizko ekoizpena xurgatzea eta barne-enplegua babestea), atzeraezineko egoera ekar lezake eraldaketa globalean. Kausak dira arretra merezi dutenak. Horregatik da garrantzitsua Alemaniak urteotan zer neurri hartuko dituen.

Gainontzean, Europako merkatuaren liberalizazioak Txinari aukera eman dio balio erantsi handiko proiektuetan esku hartzeko: azken hamarkada bietan, Europa osoko Txinaren atzerriko inbertsio zuzenaren erdia baino gehiago Frantzia, Alemanian eta Erresuma Batuan egin da, eta ia laurdena herrialde nordikoetan. Txinak kapitala sartu du Europako 350 konpainiatan. Era berean, mundu-mailako eragina duen azpiegitura berrira (*Zetaren Bide Berria*) bildu dira Grezia, Portugal eta Italia, besteak beste eskulanean intentsiboak eta gastu biderkatzaileak diren proiektuak erakartzeko kapitalaren premia dutelako. Azpiegitura erakargarria da maileguak jaso dituzten herrialdeentzat eta kontratista posibleentzat. Txinak, gainera, komertzioari loturiko auzi estrategikoetan (aireportuak, portuak, terminalak), erosketak egin ditu.⁵⁶ Mediterraneoko portuen kasuan (Trieste, Piraeus, Sines, Valentzia), Txinaren egitasmoa da Europaren iparraldeko ibilbidearekin lehiatzea, Europako barne-komertzioa birmoldatuz, eta sare logistiko ezberdin horrek ere aldatu egingo luke industria-katea (Maçães 2019).

Bien bitartean, Txinak erosketen estrategia dibertsifikatu du (robotika, higikorretako aktiboak, futbol-taldeak, proiektu turistikoak, automobilgintza, besteak beste). Europako ekialdean eta Mediterraneon –toki estrategikoa Europarako

sarbidetara inbertsioak egin ditu, eskualdea eraberritze aldera, errepideetan, zentral elektrikoetan eta beste azpiegitura batzuetan, eta, herrialde horietan, Txina balantza komertziala berreskuratzeko aukerako merkatua da, gainera. Txinarentzat, noski, arrisku handiko erabakiak dira –Europako finantza-entitateak bere gain hartzeko prest ez dauden proiektuak dira–, eta beste horrenbeste gertatu da Europako hegoaldeko herrialdeetan zor subiranoaren jabetzeekin ere: 2008ko atzeraldiaren ostean Txinak esku hartzeak, AEBri ez ezik, Europako herrialdeei ere hauspoa eman zien, zor publikoa erositara.

Likidezia-arazoen eraginean, Europa osoan zehar eta sektore ugarietan, Txinaren interbentzioa etengabe hazten ari da. Orobat, EBk Txinara egindako esportazioen balioa 210.000 milioi euro baino gehiagokoa da (bereziki, makineria eta ekipo-ondasunak, ibilgailuak, aireontziak, produktu kimikoak), baina, aldi berean, Txinako inportazioek 395.000 milioi euroko balioa dute (bereziki, makineria eta ekipo-ondasunak, ehungaiak, oinetakoak eta beste kontsumo-ondasun batzuk).

3.6.4. Txinaren erronka nagusiak

Txinak aurretik dituen erronketako batzuk demografiaren tamainari eta hamar-kada gutxiren buruan eboluzio azkarra gertatu izanari lotuak daude (Bigarren Hezkuntzako ikasketarik ez duten pertsonen pisu erlatibo altua, enpleguaren konposizio ezberdina, desberdintasun sozialak), eta beste ahulgune batzuk, berriz, arlo zientifikoan eta teknologikoan izaniko ibilbide berantiarri zor zaizkio (aldeak handiak dira oraindik ere ekoizpen zientifikoan, berrikuntza-indizean, I+G ahalegi-nean eta sektore teknologikoetako lidergoan).

Horrez gainera, azken urteotan, hazkunde tasa moteldu da: alde batetik, 2008ko atzeraldiak eragin dio (nazioarteko eskaria jaitsi da), eta krisia gainditzeko pizgarriak arazoak ekarri dituzte (gastu fiskalak eta moneta-likideziaz burbuilak eragin dituzte, baina motelaldia iritsi da higikorretara, eta gobernu lokalen zorretan eta estatu-konpainietan ere kreditua mugarik gabe baliatzearen eraginak igar daitezke); bigarrenik, herrialdea ikaragarri gainzorpetua dago (moneta-politika bigunaren eta pizgarri fiskalaren ondorioz, hazkundea maileguan oinarritu da, eta enpresek BPGaren % 163ko zorra dute); hirugarrenik, per capita errenta 8.279 eurokoa izanda (2018ko datua), barne-errentak ere goia joa du (txikizkarien

ERALDAKETA GLOBALAK ETA ESKUALDEEN GARAPEN SOZIALA ETA EKONOMIKOA

salmentan, automozioan, energian, eraikuntzan igar daitekeen moduan); laugarrenik, Txinako eskualde berritzaile eta teknologikoetatik haratago, gobernuak ezinbestean motelaldie erantzuteko esku hartu behar izaten du, biztanlerian enplegua sortzeko, alde edo molde biztanleriak lana izan dezan (azpiegituretako inbertsioak eginez bereziki, baina horrek alboan neurrigabeko gastu publikoa eta ingurumen-inpaktua ere baditu).

Txinako ekonomiaren hazkunde-tasaren jaitsierak badu, gainontzean, esplikazio konparatua: historia ekonomikoak berresten du susperraldiak hamarkada batzuk iraun dezakeela ekonomia atzeratueta, kapitala azkar eta kopuru handietan metatu eta atzerriko teknologia inporta dezakeelako (Txinan 1979. eta 1992. urteetako erreforma ekonomikoak hori bideratu du, hain zuzen ere), baina hazkunde-patroi horrek, une jakin batera iritsita, beherako joera hartu ohi du. Txinaren kasuan, egiazki, hazkundera asko luzatu da denboran, baina gaur egunean koiuntura aldatzen hasia dago.

Auzi demografikoa eta haren eraginak ere ikusteke daude. Alde batetik, ugalkortasuna nabarmen jaitsi da: 1963. urtean, 682 milioi biztanle zituen herrialdeak, eta 29,6 milioi jaio ziren; 2018. urtean, berriz, biztanleria ia bikoiztu zen (1.395 milioiko biztanleria), eta 15,2 milioi jaio (1963. urtearekin alderatuta, erdia). Eraldaketa demografiko horrek, bestetik, ekonomiaren hazkunde-mailan ondorioak ditu: lanaren insumoan edo sargaian jaitsiera, eta, gizartearen zaharkitzearekin, berrikuntza teknologikorako eta enpresa-sorkuntzarako aukeren murrizte potentziala. Egia esatera, ordea, Txinan, belaualdi gazteenek dute kualifikazio altuena, eta horrek epe ertainean bederen efektu positiboak ere eragingo ditu. Gainera, per kapitari dagokionez, galeraren balizko efektuak txikiagoak izango dira. Guztiarekin, transformazio demografikoak efektu makroekonomikoak dituen heinean, hori ere Txinako agendaren erdiguneko gaia izango da.

Monetari buruzkoa da beste auzi garrantzitsua. Txinaren moneta-politika berezia da. Alde batetik, Txina da nazioarteko inbertsore handiena. Bestetik, ordea, inbertsio horiek egiteko ez du bere moneta baliatu, baizik eta erreserba-moneta –dolarra–, eta, beraz, AEBk kontrolatzen duen moneta metatu du. Txinako Banku Popularrak 3,9 milioi dolar ditu erreserbetan, eta horietatik 1,3 milioi dolar bonu estatubatuarrei dagozkie. Gaur-gaurkoz, dolarra da moneta hegemonikoa (nazioarteko erreserba eta transakzioen ordainketarako gehien erabilia; kapitalen eta dibisen merkatuan kontaketa-unitate modura baliatua; dolarretan kotizatzen dira munduko produktu estrategikoak). AEBri dollarrak ematen dio munduko boterea

arlo ekonomiko, komertzial eta finantzarioan. Esate baterako, dolarrak erreserba-moneta gisa izan duen erabateko nagusitasunak aukera eman dio AEBri hegegemonia ekonomikoa izateko, baina baita zorra nazioartean kostu baxuan kokatzeko ere (moneta-boterea, alegia). Beraz, Txinaren tamaina ekonomikoa munduko handiena izatera iritsi bada ere, ez du moneta-botererik. Gainontzean, Txinak dollarrarekiko hainbesteko mendekotasuna dauka nazioarteko transakzioetan, ezen, esate baterako, transakzioetan dolarra erabili zutelako atzeman baitzen ZTE eta Huawei enpresak Iranekin ezarritako araua hausten ari zirela.

Era berean, yuana nazioartean ez da ia erabiltzen, Txinak kapital-kontrol zorrotzak hartuak baititu herrialdetik kanpo yuaren zirkulazioa mugatua izateko (azken mugarrria Txinako ekonomiaren 2015eko konfiantza-krisia izan zen: mila bilioi dolar galdu zituen nazioarteko erreserbetan). Haatik, Txinak badu kapitala kontrolatzeko eta kanbio-tasa manipulatzeko gaitasuna, Txinan pisu erlatibo urria baitute inbertsio pribatuak eta atzerriko inbertsioak.

Nolanahi den, ordea, Txina ere epe motzean moneta-politikan hautua egin beharrean dago. Nola mantendu dirua zirkulazioan eta inflazioa saihestu. Hori gutxi ez, eta Txinak AEBko defizita finantzatzeko ardura izan du (AEBk, finantza-krisi globalarekin, % 6ko defizita zuen); mailegu-emaile nagusia da, eta, oro har, neurriak hartu izan ditu Mendebaldeko kontsumitzaileek produktu txinatarrak eros ditzaten. Bestela esanda, atzerriko merkatuekiko mendekotasun handia du, eta zaugarria da dibisen eta monetaren mugimenduen aurrean. Esportazioak, inbertsioak eta hazkundeak, ordea, kostu handiak ditu, lehia geopolitikoak aterabiderik izan ezean.⁵⁷ Neurri berean, superabit komertzial handia du merkataritza-alorrean. Adibide batekin esateko, AEB, produktuen muga-zergak igota, 250.000 milioi dollarrera iritsi da, eta mehatxua egin da 300.000 milioi dollarrera heltzeko; horren inpaktua da Txinako BPGaren hazkunde-tasa zazpi hamarren txikiagoa izatea. Egia da muga-zergak Txinako inportazioen % 96,7an eragitera iristear daudela, eta Txinaren esportazioak dibertsifikatuak daudela eta bosten bat doala AEBra, baina, era berean, Txinaren hazkundeak ezin daiteke barne-kontsumoan soilik oinarritu, azken urteotan ahalegin berezia egin badu ere (barne-gastua puztu ahal du, noski, moneta- eta zerga-pizgarrien bidez).

Hori dela eta, gaur-gaurkoz 8.279 euroko per capita izanda (AEBn 53.263 euro, eurorunean 33.900 euro, Japonian 33.268 euro, Alemanian 40.800 euro), ekonomia aurreratua izateko, ezinbestean aurrezkia, inbertsioa (azpiegitura fisikoak, teknologikoak, ikerketakoak) eta produktibitatea (balio erantsiko lehiakortasuna) hobetsi beharrik ditu. Egia da, halere, Txinaren eraldaketa sozioekonomikoak garrantzi handiko bi berrikuntza ekarri dituela: batetik, hazkunde ekonomikoaren motorra

57. Bird, M. (2019). The Weak Spots in China's Dollar Empire. *The Wall Street Journal*, Aug 7; FT (2019). China developers' dollar debt spooks investors. *Financial Times*, April 29.

barne-kontsumoa da, eta biztanleriaren erosahalmenak atzerriko merkatuarekiko mendekotasuna txikitu du, hazkundearen % 60 barne-kontsumoan oinarritzen baita; bigarrenik, egitura ekonomikoan ere aldaketa handiak egin dira, eta, pixkanaka, atzerriko komertzioak ez ezik, industriak ere pisua galdu du, zerbitzuetako sektorearen mesedetan (aberastasunaren % 51 dakar). Erosteko ahalmena eta demografia Txinaren aberastasun-faktore inportanteak dira. Alde horretatik, barne-kontsumoak eta inbertsioen eskaerak aukera eman dezakete partzialki bada ere esportazioan oinarrituriko hazkundearen ahuleziak arintzeko, eta desoreka komertzialak orekatzeko.

Horrek guztiak iradokitzen du Txinan ere munduarekiko interdependentzia –komertziala, finantzarioa, ekonomikoa– handia dela, baina baita epe ertainean atarabidea lidergo teknologikoan datzala ere, ezinbestean.

Txinaren etorkizunaren inguruan, bi ikuspegi daude, neurri batean azken hamarkadetakoa ibilbideari buruzko bi irakurketa ezberdini loturikoak. Lehen ikuspegiak dio (*free riding* hipotesia) Txinaren arrakasta planifikazio-gaitasunari eta inbertsio produktiboari zor zaiola. Horren arabera, munduarekiko harremana ez da giltzarria izan, eta, beraz, gerra komertzial eta teknologikoak ere ez lioke aparteko ondorio kaltegarriak ekarriko. Haatik, beste irakurketa baten arabera, Txinaren arrakasta ekonomia aurreratuetako teknologia baliatzeari eta atzerriko merkatuetan sartzeari lotua egon da, eta, ondorioz, ikusi egin beharko da epe ertainean zer-nolako ondorioak ekarriko dituzten balizko muga-zergek, Txinara teknologia altuko esportazioen debekuek eta dolarra erreserba-moneta gisa baliatzeak. Bistakoa da, nolahi ere, Txina hurrengo urteetan nazioarteko eragile oso garrantzitsua izango dela.

3.6.5. Txinaren eragina ekonomia aurreratuetan

Nolanahi den, azken mende erdi luzeko ekonomia globalean oro har eta Mendebaldeko herrialdeetan bereziki, Txinak askotariko eragina izan du, aldi historikoaren arabera pisu erlatiboa aldatzen bada ere. Hasieran, Txinak kostuen abantaila konpetitiboan, eskulan intentsiboan eta ordainsari baxuetan oinarritu zuen hazkundera, eta garapeneko eredia produktibitate baxuan zetzan, beraz (*low-road of development*). Haren eraginak bistakoak izan dira ekonomia aurreratuetan,

ordea: munduko fabrika nagusia bilakatu eta jarduera piezen muntaketaren manufakturan eta eduki teknologiko baxuko osagaien manufakturan lerrotzatzearekin batera, Mendebaldeko enpresa industrial tradizionala baliogabetu zuen (*blue collar* lanaren deslokalizazioa). Horrek etorkizunean ere hala izaten jarraitu dezake: herritar askoren txirotasunak eta ongizatearen ausentziak Txinari aukera ematen dio kualifikazio eta soldata baxuko eskulanarekin lehiatzeko eta munduko faktoria –merkantzien esportazioan oinarrituriko ekonomia– izaten jarraitzeko.

Txinak, baina, bestelako estrategiak ere garatu ditu, I+G jardueretan eta IKTen sektoreetan eginiko inbertsioek erakutsi legez, eta, hamarkada hauetan, transformazio estrukturala bideratu du arlo ekonomiko, industrial eta teknologikoan (eskualde ekonomiko bereziak, urbanizazioa, zerbitzuen garapena, ekoizpenaren kalitatea hobetzeko hezkuntza- eta ikerketa-politikak, auzi sozioambientalak). Herrialdearen garapena ez da soilik teknologia, produktuak, hardwarea, teknikak eta gauzak kopiatzean oinarritu. (XX. mendearen bigarren erdialdean zehar argudiatu izan da berrikuntzen zabalkundeak herrialde txiroetako langileen produktibitatea igotzea eta per capita errentaren konbergentzia ekarriko zituela.⁵⁸) Haatik, Txinak markari, berrikuntzari eta garapen teknologikoari berariaz erantzun dio, eta, ekoizpen-katean balio erantsian lehiatzeko gaitasuna erdietsi, eta arlo teknologikoan, logistikan, banka-sektorean eta energian berrikuntzaren abangoardian kokatzea lortu du.

Alegia, garapen ekonomiko eta enpresariala ekoizpen-kostu altuetan eta berrikuntzan, kalitatean eta erronka globalen aurreko erantzunean oinarritzen da (*high road of development*). Bilakaeraren erakusle modura, 2000. urtean, Txinan, lanorduko produktibitatea AEBkoaren % 16 zen; 2016. urtean, aldiz, % 21era iritsi zen (urte horietan, AEBrekin alderatuz, EBn, % 85 izatetik % 69 izatera pasatu da). Gainontzean, ez da bistatik galdu behar Txina yuanaren nazioartekotzean egiten ari den ahalegina ere. Alde horretatik, 2008ko finantza krisiak inflexio-puntua markatu du, gaur-gaurkoz nazioarteko komertzioan eta finantzetan dolarraren nagusitasuna parekorik gabekoa bada ere. Bestalde, gorabidean dauden herrialdeetan –eta Txinan bereziki– ekonomia globalean lehiakorrek diren multinazionalak sendotu dira (*Emerging Market Multinational Companies*); kualifikazio altuko biztanleria hazi da, eta ekonomia aurreratuetako enpresak erostea euren estrategiaren zati


58 Baumol, W.T. (1986). Productivity Growth, Convergence, and Welfare: What the Long-Run Data Show. *The American Economy Review*, 76 (5): 1.072-1.085.

ERALDAKETA GLOBALAK ETA ESKUALDEEN GARAPEN SOZIALA ETA EKONOMIKOA

da. Milurtekoaren hasieran, sinestezina zirudien.

Datozen urte eta hamarkadetan, bestalde, Txinak aukera errealak ditu mundu-mailako lidergo teknologikoa eskuratzeko eta nazioarteko merkataritzaren ibilbidea eraldatzeko. Horren harira, beraren estrategia ekonomikoa epe luzeko egitasmo politiko baten mende dago; alegia, 2049. urtean Txina potentzia hegemoniko globala izatea (Txinako Herri Errepublikakomunistaren ehungarren urteurrenean, alegia). Era batera edo bestera, gaur-gaurkoz bederen, Txina da hazkunde globalaren motor nagusia (5. grafikoa).

5. grafikoa: BPG errealaren hazkundera Txinan eta G20ko herrialdeetan, 1973-2018 (Urtekako aldakuntza %)



Iturria: OECD Economic Surveys: China 2019

3.7. DINAMIKA ESPAZIALAK

Irakurketa partziala egingo genuke munduko ekonomiaren analisisan auzi espaziala Txinara edota Pazifiko aldeko herrialde emerjenteetara mugatuz gero, ordea. Horren garrantzia gutxietsi gabe, subjektu politiko berrien susperraldia ere aipatu behar da; esate baterako, hiriak eta metropoliak. Gainera, nazioarteko berregituratze produktibo eta finantzariorak espazio zehatzetan metatzen ditu berrikuntza-kateko espezializazio-faseak. Joera horiek ere berriak dira, eta patrioi ekonomikoetan zer-nolako aldaketak gertatzen ari diren ulertzeko balio digute.

Kasu horretan ere, bi fenomeno ari dira elkar elikatzen (Rodríguez-Pose 2018; Roses eta Wolf 2018). Alde batetik, eremu geografiko jakin batzuk fluxu globaletara konektatu eta mundializazioaren abantailak xurgatzeko estrategiak garatzen ari dira. Izan ere, hiriguneak dira lurralde-unitate produktiboak: modernizazioari eta berrikuntzari loturiko baliabideak (jarduera ekonomikoak, zerbitzuak, enplegua, talentua) hiriguneetan pilatzen dira, eragileen arteko ezagutzak eta premiak gerturatuz, eta urbanizazio-ekonomiak, produktu eta zerbitzuak ekoitzi edota xurgatzeko, kostuak jaisten ditu. Eskala-ekonomiaren beste fenomeno bat da biztanleria erakartzea. Beste alde batetik, ordea, gune, metropoli edo hirigune horietatik at geratzen diren eskualde, eremu edota herriak dinamika globaletatik erabat urrunduak geratzen ari dira (batzuk eremu desindustrializatuak dira, besteak nekazaritzakoak, eta, oro har, metropolietatik aldenduriko bitarteko hiriguneak, baita herri txiki eta ertainak ere), segregazio-modu berri bat sortu balitz bezala (ikus gai horri buruz 7. kapitulua).⁵⁹

Europako herrialdeetan, esate baterako, aldibereko fenomeno osagarriak dira, estatuen barruan, hiriaren eta periferiaren arteko haustura geografikoa, eta erdiko klase asmotsuaren krisi objektiboa eta subjektiboa. Azken urteotan Mendebaldeko herrialdeetan globalizazioa egokitzeko baliatu den estrategia planifikatuaren zehar-kalteak, beraz, gero eta nabariago hauteman daitezke (Goodhart 2017; Guilluy 2015; Guilluy eta Debevoise 2019; Vance 2016). Horrek iradokitzen du, besteak beste, tokiko garapen-politikak bigarren mailan uzteaz gain bizkarra eman zaiela

59. Gbohoui, W., W.R. Lam eta V.D. Lledo (2019). *The Great Divide: Regional Inequality and Fiscal Policy*. IMF Working Paper No. 19/88

lurraldearen orekarekin eta hainbat eskalaren artikulazioarekin loturiko estrategiei.

Eten espazialak adierazpen gehiago ere baditu, ordea (Manyika et al 2018). Zehazki, disrupzio digitalak nabarmendu egin ditzake mundu-mailan berrikuntza-intentsitate handiko lurralde, ekosistema eta klusterrak. Alde batetik, «mundu-mailan, talentua modu ikaragarri ezberdinean banatua dago, eta gune estrategiko batzuetan –Cambridge, Massachusetts; Silicon Valley; Shenzhen eta Hangzhou– pilatu dira langile digital eta teknologikoak». Hori esplikatzen baliatu ohi den argudio nagusiak zera dio: ezagutza tazituak –industriako praktika eta prozeduren ezagutza espezializatuak eta baldintza konkretuetan soilik balioa hartzen duen ezagutza teknikoak– metatu egiten dira. Ezagutzak gero eta gehiago klusterretan eta eremu konkretuetan multzokatzearekin batera, noski, ikerketa teknologikoa eta berrikuntzen garapen komertziala ere haietan metatzen da. Bestetik, gaur-gaurkoz dagoeneko ebidentziek diote «produktibitatearen hazkundera teknologia digitalak baliatu dituzten enpresa gutxi batzuetan [*frontier firms*] metatu» dela eta «segregazioak munduko herrialde eta enpresetan produktibitatearen atzeraldia –edo geldialdia– orokortu» duela.⁶⁰ Bi joera sendo horien erakusle dira oligopolio globalak (besteren artean, Google, Apple, Amazon, Facebook, Microsoft, Intel, Qualcomm).

Guztiarekin, joera-aldaketen testuinguruan, hurrengo urte eta hamarkadetan, agenda politikoen kezka nagusia izango dira hiri edo eskualdeak sendotzeko eta hiri edo eskualdeen arteko konexio globalak ahalbidetzeko eskala handiko azpiegitura eta baliabide estrategikoak, hala nola mugikortasuna erraztuko duten garraio-sistemak (errepideak, trenbideak, zubi eta tunelak, aireportuak, portuak), fluxuak (oliobideak, gasbideak, kable elektrikoak) eta informazioa partekatzen baliabideak (telefonía-sareak, Internet-kableak, datu-zentroak). Konexio-bide horiek izango dira lurraldeek beren aukerak garatzeko modua (Khanna 2016). Ikuspuntu geopolitikotik begiratuta, berriz, azpiegitura horiek aparteko garrantzia izango dute mundu-mailako harremanetan.



4 ZIKLO HISTORIKOEN
INFLEXIO-PUNTUA

Labur eta modu sintetikoan bada ere, hiru kapitulutan zehar tesi bat landu dugu: paradigma teknoekonomiko berri baten aurrean gaude. Orain artean ikusitakoek joera-aldaketa deritzoguna ulertu eta haren alderdi eta tentsioetako batzuk azaleratzeko balio digute. Kapituluetakota ataletan, izaera oso ezberdineko ezaugarriak erreparatu diegu, baina guztiak dira globalizazio-prozesuaren osagai eta baldintzatzaileak; eragin negatiboak (ez-gogokoak, aurreikusitako gabekoak) ez ditugu auzi disfuntzional gisa ulertu behar, zeren eta berariaz sortuak ez izan arren prozesu berriaren erdiguneko ezaugarriak baitira. Momentuz, askotariko efektuak hauteman litezke nazioarteko ordena ekonomiko liberalaren bilakaera traumatikoan, esate baterako.

2008ko atzeraldia, 1970eko hamarraldiaz geroztiko ziklo historiko berrian, testuinguru komertzial, teknologiko eta geoekonomiko berriaz jakitunago izatea ekarri digu. Bost mendeko begirada luzea baliatuz gero, berriz, munduan zehar Europak eta Mendebaldeak izaniko nagusitasuna ere eraldatzen ari da. Gorabidean dauden herrialdeak, oster, gure ohiko begietatik ikusita, beste dimentsio batekoak dira (biztanleria osoa, lur-azalera eta munduko BPGa aintzat hartuta, esaterako), eta munduaren mapa zeharo ezberdin bat taxutzen dute. XX. mendean zehar irudikatu eta egiaztatutako per capita BPGaren eta askatasun ekonomikoaren arteko harreman lineal eta kausala ere eten egin da (demokrazia liberalak ez du zertan izan, itxura denez, baliabideen esleipen onaren baliokidea, eta, bestelako antolaketa politikoa duten herrialdeetan, bideragarria da XXI. mendean aberastasuna eta oparotasuna sortzea). Mundua aldatzen ari da, baina baita luzaroan baliatu ditugun agertoki politikoak, hipotesi teorikoak eta marko kognitiboak ere. Era berean, hazkunde esponenziala aukera gero eta irrealagoa da, eta Mendebaldeko herrialdeetan kasurik onenean hazkunde moderatuak (% 1 eta % 3 arteko hazkunde-tasak) gertatuko dira.⁶¹

Hiru ziklo historiko gainjarrien inflexio-puntuan (2008ko atzeraldia, 1970eko hamarraldiaz geroztiko ekonomia global berria, Mendebaldearen Aroaren krisia) ulertu behar ditugu joera-aldaketak eta haien zentzua eta esanahia, beraz. Aski da horrekin.

Beti ere, hiru kapitulu hauen helburua izan da gorabidean den ingurumari ekonomikoaren berri ematea. Hiru kapituluetakota edukiak nahikoa dira gure xedea betetzeko; alegia, euskal lurraldeetako jarduera ekonomikoak, egitura ekonomiko industrialak eta enpresek zer-nolako paisaia ekonomiko, teknologiko eta komertzialean lehiatzen diren ulertzea. Gure lanari marko orokorra ipini diogu.

61 Smil, V. (2019). Infinite growth is a pipe dream. *Financial Times*, Aug 9.

Eskualdea transformazio globalen argitan

Ingurumari teknologiko eta ekonomiko berriak sakoneko eraldaketak eta berehalakoak azaieratu ditu, aurreko hiru kapituluetan zehar azaldu dugunez. Hori horrela izanda, tokiko politikek eta lankidetzeta-dinamikek zer neurritan bideratu dezakete lurraldearen garabidea, aberastasunaren sorrera eta gizarte-kohesioa ekonomia globalean? Datozen hiru kapituluak helburua zera da: argitzea lurraldeko eragileek zer neurritan eta nola eragin dezaketen tokiko dinamika ekonomiko eta sozialen garabiderako egitasmoetan.

Laugarren kapituluak, galdera nagusiari erantzun teorikoa emango diogu, gaur egungo ikuspuntu nagusien sintesia eginaz. Badira lurraldeek eskura dituzten hainbat eragin-eremu, baldintzatzaile exogenoekin batera, eta horien aukerei eta mugei buruz argibideak emango ditugu. Bosgarren eta seigarren kapituluak, ikerketa konparatua baliatuz, marko teoriko orokorrari eskualdeen arteko aldeak eta dibergentziak gaineratuko dizkiogu.

Bosgarren kapituluak, arreta ekonomia digitalaren eraginean ipiniko dugu. Azken hamarkadetan zehar, aldatuak izan dira ekonomia aurreratuaren hazkunde-patroietan, eta manufaktura-industriaren galerak desafio ugari ireki ditu, baita eskualdeen ongizateari eta kohesioari loturikoak ere. Baina oraindik orain digitalizazioak oso bestelako erronkak zabaldu ditu eraldaketa produktiboan, eta baliteke azken hiru mendeotako hazkunde-, garapen- eta ongizate-patroietan teknologia berrien eragin positiboa bestelakotzea. Eskualde industrialek zer aukera dituzten eztabaiatuko dugu.

Seigarren kapituluak, eskualdeen arteko ezberdintasun horizontalei erreparatuko diegu. Europan, eraldaketa produktiboak eskualdeen arteko konbergentzia eten du, eta inportantea da horren berri izatea. Geografia ekonomikoa ezinbestekoa da, gure lurraldearen ibilbideari, egoerari, aukerei eta erronkei buruzko irakurketa testuinguru zabalagoan zentzuz hornitzeko.

Azken finean, eraldaketa globalak ezagutu ostean, datozen hiru kapituluak eskualdearen eskalan landuko dugu analisi teoriko eta konparatua. Liburuaren bigarren zatian gure lurraldeari berriaz erreparatu aurretik, garrantzitsua da eskualdeei buruzko analisi dinamikoak egitea. Datozen hiru kapituluak xede hori dute.

The background of the entire page is a solid purple color with a pattern of thin, white, wavy lines that curve across the frame from top-left to bottom-right.

ESKUALDEAREN
5 GARABIDERAKO
FAKTORE NAGUSIAK

5.1. SARRERA

**5.2. EZAGUTZAREN GIZARTEA
ETA AKTIBO INTANGIBLEAK**

**5.3. LEHIAKORTASUNAREN
FAKTORE ENDOGENOAK**

5.4. HEZKUNTZA ETA FORMAZIOA

**5.5. GARAPENERAKO
FAKTORE EXOGENOAK**

5.6. BEHIN-BEHINEKO ONDORIOAK

5.1. SARRERA

Mendebaldeko herrialdeentzat, munduko agertoki ekonomikoa erabat aldatu da, orain arteko hiru kapitulu nagusietan ikusi dugun bezala. Alde batetik, Mendebaldeko herrialdeen merkatu-kuotak pisua galdu du nazioarteko ekonomian. Bestetik, garabidean dauden herrialdeetan, manufaktura-ondasunen esportazioa hazten ari da, eta, gainera, esportazioaren bultzada eta lehiakortasuna lan-kostuetan bainoago produktibitatean, eskulan kualifikatuan eta ikasketa tertziarioen inbertsioan ere badatza. Halako herrialdeetan, hiru hamarkada eskaseko epean gai izan dira lehiakortasuneko gaitasun eta abantaila berriak garatzeko. Izan ere, politika publiko proaktiboa, eskulan merkea, baliabide naturalak, geografia, lan-indar kualifikatua, Mendebaldeko teknologia xurgatzea eta bestelako faktoreak era batera edo bestera konbinatzen jakin izan dute.

Ekonomia global berrian, lurralde baten garapen ekonomiko eta soziala faktore ugariaren araberakoa da. Kapitulu honetan, ekonomia aurreratuetako eskualde industrialek zer aukera dituzten azalduko dugu, plano teoriko batean. Horretarako, bi zati bereziko ditugu: lehenik eta behin, arreta ipiniko dugu eskualde industrialek eskuetan dituzten garabiderako faktoreetan; ondoren, bigarren zatian, baldintzaile exogenoak azalduko ditugu.

5.2. EZAGUTZAREN GIZARTEA ETA AKTIBO UKIEZINAK

Lurraldeen garapenerako estrategia industrial eta ekonomikoan aro teknologikoak ezberdintzea garrantzitsua da. Azken bi mendeotan, berrikuntza teknologikoek garrantzia izan dute herrialdeen eraldaketa produktibo eta ekonomikoan. Esate baterako, Industria Iraultzaren hastapenetan, ehunaren eta burdinaren produktzioak baliabide naturalak erabiltzea eta, gaurko begietara, kualifikazio baxuko lana behar izan zituen, hiri eta enpresa txikietan kokatuta. Makineria eta energia elektrikoak, ostera, aktibo ukigarri (makineria, ekipo-ondasunak, industria-eraiki-

nak) eta finantzarioetan inbertsioa eta kapitala behar izan ditu, ekoizpeneko indarrak (indar eragileak, fabriken antolaketa, lanaren banaketa) transformatu eta espezializatzearekin batera. IKTek eta eraldaketa digitalak, berriz, balioa eman die- te aktibo ukieziinei, giza baliabide kualifikatuei, zerbitzu aurreratuko jardueri eta hirigune sareetuei.

Gauzak horrela, ezagutzaren gizartean, sistema produktiboa birmoldatu eta berpiz- teko ahaleginak, industriaren kontzepzioa erabat aldatzen ari den neurrian, eral- daketa teknologikoari eta oso bestelako negozio-ereduari erantzuteko desafioa azaleratzen du (Perez 2002). Zehatzago esanda, mundu-mailako konbergentzia teknologikoarekin batera (Baldwin 2016), lurraldeko produktibitatea estuki lotzen zaio espezializazio produktiboari eta ekoizpenean baliatzen diren faktoreei eta haien kalitateari (Stiglitz eta Greenwald 2014).

Alde horretatik, lurraldeko ekonomiaren egitura produktiboak aparteko garrantzia du aro teknologikoari erantzuteko aukera, muga eta zailtasunetan. Horren arabera, ezagutzaren gizartean, lurralde bateko ekonomiaren produktibitatearen hazkun- dean inportantzia berezia dute inbertsiorako intentsitateak, lan-faktorearen kua- lifikazioak, IKTen erabilerak, aktibo ukiezin hornidurak (informazio digitalizatua –softwarea eta datu-baseak–, I+G, diseinua, publizitatea, enpresaren formaziorako baliabideak, merkatuko estudioak, esate baterako), eta enpresa-kudeaketaren ka- litateak, besteak beste.

Egitura ekonomikoan manufaktura aurreratuek pisua duten Mendebaldeko es- kualdeetan ere, industriaren kontzepzioa erabat aldatzen ari da, zentzu guztietan. Izan ere, susperraldian dauden herrialdeetan ari da kontzentratzen industria tradizio- nala, eta, gainera, ekoizpen-kate globalean lehiatzeak eduki teknologiko ertain-altuko alorrean espezializatzea eskatzen du, gero eta gehiago. Horri gaineratu behar zaio industria berrian enpresetako zerbitzu aurreratuek ere pisu hazkorra dutela; ekoizpenean ezagutza, teknologia eta negozio-eredu berriak txertatzea eta balio erantsi altuko enpresa-jarduerak garatzea, alegia.

Dudarik gabe, lurraldearen ekonomian eta enpresa-kudeaketan, aktibo fisikoak (makinak, faktoriak, ibilgailuak) garrantzia du gaur egunean ere kapitalaren metaketa gisa. Gure iruditerian eta estrategietan, alderdi materialak hobetsi ohi ditugu pertsonari (ondasunak, jabetza, aberastasuna), enpresari (aktibo fisikoak, balantzea eta emaitzen kontua) edota lurraldeari (azpiegiturak, etxebizitzak, erre- pide-sareak) balioa ematerakoan. Gaur egunean ere, noski, kapital fisikoak badu garrantzia, bereziki IKTei eta digitalizazioari loturikoa baldin bada.

ESKUALDEA TRANSFORMAZIO GLOBALEN ARGITAN

Baina, ezagutzaren gizartean, berezitasuna ez da kapital fisikoan inbertsioak aldatu izana eta orain garrantzia robotek, txipek eta ordenagailuek hartu izana. Horren inportantzia gutxietsi gabe, berritasun nagusia da teknologia berriek ahalbidetzen dituzten kapital ukiezinak hartzen dutela garabidean eta lehiakortasunean pisua (ideiak, ezagutzak, harremanak, softwareak eta datu-baseak, aktibo zientifikoak, inbertsioak egitea patente eta lizentzietan, produktuen diseinua, giza kapitala, jabetza intelektuala, antolaketa soziala, erreputazioa, prezioen sistema, online bidezko marketina, marka).

Gainera, ekonomia aurreratuetan, enpresentzako zerbitzu-jardueretan ez ezik administrazio publikoan, hezkuntzan, osasunean, kulturen eta aisialdian ere IKTek eta ezagutza digitalet garrantzia hartu ahala, ukiezinetak berrikuntzak pisu erlatibo handiagoa hartzen du berrikuntza teknologikoen ondoan. Esate baterako, EBn, enpresa-sektorean, 1995. eta 2017. urteen artean, aktibo ukigarrietako inbertsioa batez beste % 20 igo da; aktibo ukiezinetan, aldiz, % 70.⁶² Era berean, eurogunean, 1995-2013 urteen artean, ukiezinetak batez besteko inbertsioa –enpresako sektorean– BEGaren % 10 da; AEBn, % 15. 2017an, batez beste % 20 izatera heldu da, eta, lehiakortasuna balio erantsian eta produktibitatean oinarritzen duten enpresetan, proportzioa nabarmen da altuagoa.

Gero eta gehiago, enpresen inbertsioetan aktibo ukiezinak pisua hartu ahala, lurraldearen garabidean lehiakortasuna, produktibitatea edota planifikazio estrategikoa ulertzeko moduak, beraz, zeharo aldatuko dira (Haskel & Westlake 2019). Alde horretatik, lurraldearentzat bada garrantzia hartuko duen ideia bat; hain zuzen ere, ingurune sozialeko ukiezinak. Horren arabera, ukiezinak ekonomiak eta informazioan, I+G jardueretan eta kudeaketan inbertitzeko premiak ez dizkie erronkak soilik pertsoneri, enpresei edota administrazio publikoei planteatzen, baizik eta berariaz baita lurraldeari ere. Izan ere, ekonomiaren baldintzatzaileak dira eragileen arteko kapital erlazionala, adimen kolektiboa, talentuaren lehiakortasuna, enpresaren izen ona, herri-marka, giza garapen inklusiboa, ekintzaitetza edo enpresa-sorkuntza, irekiera, baina baita finantzei, auzi geopolitikoei edota gobernu onari eta ustelkeriari loturiko aldagaia ere.

Aktibo ukiezinak eta haien ugaritasunak, beraz, pisu gero eta garrantzitsuagoa hartu dute lurraldearen garabidean, IKTei lotutako aktibo fisikoekin batera. Horrek, besteak beste, zera iradokitzen du: lurraldeko ekonomiaren egitura produktiboa zenbat eta konplexuagoa eta teknikoagoa izan, gero eta nabarmenagoa da faktore lehiakor horiek guztiak modu emankorrean garatzeko aukera.

62. Thum-Thysen, A., P. Voigt, B. Bilbao-Osorio, C. Maier eta D. Ognyanova (2017). *Unlocking Investment in Intangible Assets*, European Economy Discussion Paper 047. Luxembourg: Publications Office of the European Union.

5.3. LEHIAKORTASUNAREN FAKTORE ENDOGENOAK

Lurraldearen garapen ekonomiko eta soziala, epe ertainean, faktore ugariaren mendekoa da. Badaude pertsonari, enpresari edota herri-erakundeei berariaz atxikitako faktoreak, baina epe ertainean hiru garapen-eremu horien aukerak lurraldeko eragile, balio eta egitura sozioekonomiko orokorragoen arabera handiagotu edota mugatzen dira.

Esate baterako, enpresa lehiakorrek, kasu batzuetan, badute ezagutza eta teknologiako sare globalekin konektatu eta lurraldeko eskalan eskuratu ezin daitezkeen berrikuntzako insumo edo sargaiez jabetzeko premia, edo badira enpresa txiki berriak nazioarteko ekoizpen-katean modu lehiakorrean txertatu direnak. Pertsonaren garapenean, berriz, jaiotzetiko gaitasunak eta familiaren kapital ekonomikoa, soziala eta kulturala hezkuntza-ibilbidearen baldintzatzaile garrantzitsuak dira. Herri-erakundeek ere langileen onarpen eta promozioan, teknologiaren baliatzean edota gobernantza-ereduan badute marjina eraginkortasunean, kalitatean eta berrikuntzan hobekuntzak egiteko. Baina enpresak, pertsonak eta herri-erakundeak garapenerako dituen aukerak eta mugak epe ertain-luzean ezinbestean faktore orokorragoen arteko erlazioak bideratzen ditu. Era berean, lurraldearen ekonomia pertsona, enpresa eta herri-erakundeen metaketa hutsa baino gehiago da.

Atal honetan, faktore endogenoak zeri deritzegun azalduko dugu, enpresen garapena adibide modura hartuta, uler dezagun zer pisu duten garapen-politiketan lurraldeari atxikitako ezaugarriek.

Harremanezko faktoreak

Enpresen garapenean, hainbatean, faktore erabakigarriak enpresen arteko elkarlanean praktikak dira. Esate baterako, enpresen artean, balio- eta hornidura-katean, badaude salerosketako jarduera komertzialak. Harreman horretan arreta ipiniz gero, gutxienez hiru aldagairen garrantziaz jabetu gaitezke: bata, dentsitate erlazionala; bestea, estrategia partekatutako bideratzea ezagutzaren eta teknologiaren transferentziari, komertzializazioari eta berrikuntzari loturiko prozesuetan; hirugarrena, enpresen arteko ezagutza, konfiantza eta elkarrekikotasuna. Adibideak balio digu ulertzeko lurraldeko ehun produktiboa ez dela banako enpresa (antolaketa, pertsonak, makineria, aktibo finantzarioak) eta haien metaketa hutsa.

ESKUALDEA TRANSFORMAZIO GLOBALEN ARGITAN

Gainera, lurraldeko enpresa-tipologian enpresa txiki eta ertainek (ETE) pisu erlatibo handia baldin badute, enpresen arteko ezagutzak eta konfiantzazko harremanek garrantzi berezia hartzen dute. Alde batetik, enpresa mikro eta txikien berrikuntza-gaitasun latenteak bideratzeko edota ekimen partekatuak garatu ahal izateko, alderdi informalek (soft izaerako faktoreak) ezinbestekoak dira. Horri lotuta, politika publikoak, sarritan, estrategiak diseinatu eta garatzerakoan errealitate zehatz eta konplexutik urrun geratu ohi dira. Alde horretatik, enpresen beharrezkoak, gaitasunak eta aukerak ezagutze aldera, enpresen garabideko faktoreetan –finantziakoak, humanoak, teknologikoak, dedikaziokoak– harremanen ezagutzak aktibo erabakigarriak izaten dira. Bestela esanda, alderdi informalek tokiko ezagutza eta estrategia enpresa mikro eta txikien eremura gerturatzeko aukera ematen dute, lurraldeko gaitasun endogenoen aprobetxamendua eta ituna hobetzearekin batera.

Lurraldearen ikuspegitik begiratuta, ETEek oro har tokiko merkatuan eta euren bezero tradizionalekin lan egin ohi dute. Baina hori osagarria da industriako eta zerbitzuetako sektoreetan nazioarteko merkatuan aritzearekin. Bi motibo sendo eman daitezke halako aukerak eragiteko. Batetik, tokiko enpresek gaitasuna izan lezakete ekoizpeneko sare eta kate globaletan sartzeko eta berrikuntza altuko zerbitzua eskaintzeko. Bestetik, Mendebaldeko enpresetan, oro har, ekoizpen-kostua handia da, eta badago berrikuntzan, kalitatean eta eskaeraren sofistikazioan espezializatzeko premia, azken hamarkadetan industria tradizionala lekualdatu denez geroztik; gaur egunean, enpresa txikiak nekez lehiatu daitezke kostu baxuko sektoreetan, susperraldian dauden herrialdeetako enpresak direla eta (enpresak Mendebaldean kokatzen ari dira, edota produktu eta zerbitzuak kostu baxuan inporta daitezke euren herrialdeetatik). Horrek guztiak, noski, lurraldeari eta ekoizpen-sistema lokalari erronka berriak irekitzen dizkio, eta, hainbatetan, aukerakoa izaten da berrikuntza-prozesuetan estrategiak ditzuzten enpresek gidatzea ekoizpen-sistema, ETEak traxionatu ditzaketen neurrian.

Enpresen arteko lankidetzarekin batera, beste batzuetan, ikerketaren eta komertzializazioaren arteko ibilbide luzean, elkarlaneko estrategiak enpresen eta beste eragile batzuen artean garatzen dira. Izan ere, berrikuntza (teknologian, enpresaren organizazioan, marketinean) modu askotara garatu daiteke, espezializazio sektorialaren eta berrikuntza mailaren arabera garrantzi erlatibo handiagoa edo txikiagoa hartzen badu ere: batzuetan, berrikuntza-prozesua enpresaren barruko praxiak ekarri ohi du (*learning by doing*), eta enpresako pertsonen garrantzia agerian uzten du, ez baitu zertan mugatu I+G departamentuko kideetara; beste batzuetan, ordea, berrikuntzari loturiko informazioa, gaitasuna edota beharrezko enpresako bezeroek azalartzen dituzte (*learning by using*); eta gerta daiteke eragileekiko interakzioak –aholkularitza-enpresak, ferietara joatea, ezagutzari eta formazioari loturiko erakundeak– erakustea berritzeko premia edota aukera (*learning by interacting*).

Enpresen bilakaera eta berritzeko gaitasuna eta merkatuko posizionamendua ulertzeko, noski, badira enpresari loturiko faktoreak (sektorea eta espezializazioa, tamaina, baliabide fisikoak, giza kapitala, berrikuntza-ahalegina, enpresa-antolaketaren kultura, enpresaren funtzionamenduari buruzko langileen ezagutza formala eta informala). Baina, horiez gainera, enpresen eta enpresa eta eragileen artekoak ere pisuzko faktoreak izan ohi dira (harremanezko faktoreak, lurraldeko eragileen arteko ezagutzen transmisio formal eta informala, eskualdeko lan-merkatua eta espezializazioa, balio erantsi handiko produktu eta zerbitzuak baliatzea, dentsitate eta intentsitate erlazionala, estrategia komertziala, lankidetzak).

Gainera, lurraldeak dinamika enpresarialean eta egitura ekonomiko eta produktiboan homogeneotasunik baldin badu, eragileen arteko harremanak hartzen du pisua enpresaren lehiakortasunean eta lurraldearen garapenean. Izan ere, lurraldeak (tokiko sistema produktiboa, lurralde espezializaturia, klusterra) aukera ematen du esternalitate ekonomikoa aprobetxatzeko (giza kapitala, bezeroen arteko harremanak, informazio- eta berrikuntza-fluxuak) eta esperientzian, praktikan, egunerokoan oinarrituriko ezagutzak (ez kodifikatuak) transferitzeko.

Horrek guztiak iradokitzen digu lurraldearen ekonomian pertsonak, enpresak eta herri-erakundeak erabakigarriak direla, baina baita haien aukerak eta mugak beste hainbat faktoreri estuki lotuak daudela ere. Alegia, lurraldearen ekonomian badaude hainbat baldintzatzaile osagarri: lurraldeko egitura ekonomikoa; giza kapitala (formazioa, etengabeko prestakuntza); formazioko, hezkuntzako eta berrikuntzako inbertsioa ehun produktiboaren aukerei eta beharrei egoki doitzea; konfiantzazko harremanak eta kapital soziala, eta giza baliabideen erabilera ona eta eraginkorra, besteren artean.

Azken unean, beraz, lurraldearen ezagutzak eta eragileen arteko harremanak badute garrantzia enpresen garapenean. Izan ere, enpresen produktibitatea, epe ertaineko ibilbidean, gertuko ingurunearen mendekoa ere bada: lurraldeko beste instituzio publiko, komunitario eta pribatuek (ezagutzari, formazioari eta prestakuntzari loturiko erakundeak, ikerketa-zentroak, administrazio eta gobernuak, finantza-entitateak), euren erabakiekin eta kolaborazio-bideekin finantzen, hezkuntzaren, enplegu-politika aktibo eta pasiboaren edota arauaren eta erregulazioaren arloetan eraginez, produktibitatea ere baldintzatzen dute. Konfiantzazko harremanak sortzea lehiakortasunerako faktore eta abantailatzat har daiteke. Berrikuntza-sistemako eragileen artean, harremanik eza, konfiantza-gabezia edota ezagutza urria uste baino arruntagoak izaten dira, ordea.

Lurraldea eta gobernantza-sistema

Lurraldearen garapenerako politiketan (*i.e.* industria-politika) baliabideen dimentsio tradizionala inportantea da (azpiegiturak, enpresen sorkuntza, nazioartekotzeko aukera erraztaileak eta aholkularitza). Horrez gainera, ekonomiaren sustapenak eta erregulazioak (industria-politika, aurrekontuak, enpresen finantzazioa, zer-ga-politika, finantzak, enpresa pribatuko kapital sozialeko partaidetza publikoa, lan-harremanak) berrikuntzako ekimen sistemikoak garatzeko oinarri materialak ezartzen dituzte. Eragileen arteko konfiantzazko harremanak ezin daitezke, noski, neurri politiko horiek gabe garatu. Baina lehiakortasunerako faktore endogeno horri buruz ere (industria-politika) hainbat zehaztapen egin daitezke.

Alde batetik, eskalaren tamainak ematen du politika industrialak garatzeko aukera (finantzazioa eta diru-laguntzak, giza kapitala, planifikazio estrategikoa, garapenerako eredua, aholkularitza-zerbitzua), baita estrategia orokorragoekin lerrokatzeko ere (hezkuntza arautuari loturiko politikak, esate baterako), edota giza kapitala eraldatu eta berritzeko (formazioa, etengabeko prestakuntza, talentua atxikitzea eta erakartzea). Eskala txikiko lurralde-eremuak zailtasunak ditu politika horiek guztiak osotasunean eta modu integralean aurrera eramateko.

Baina, garapenerako estrategietan, ikusi dugunez, beste hainbat faktore ere badaude dinamika ekonomikoan garrantzia dutenak (eragileen premiak ezagutzea, egitura ekonomikoa, tokiko baliabide endogenoen lerrokatzea eta aktibazioa, lankidetzak, saretzea eta elkarren arteko ikaskuntza sozioteknikoa, adostasun funtzionaltarako erraztasuna), eta horiek gertutasunak erraztu ditzake. Halako kasuetan, ezinbestekoa da tokiko herri-erakundeei, eskualdearen garapenerako agentziei edota erakundeen arteko ezagutzari balioa ematea, garapen ekonomiko eta soziala sustatzeko ez ezik baita enpresen lehiakortasuna bultzatzeko ere. Beste hitz batzuetan adierazteko, gobernantza ere bada lehiakortasunerako faktorea, eta gobernantza-mailak modu eraginkorrean bereizi eta sustatzeak eragina du garapen sozioekonomikoan.

Berrikuntzaren izaera konplexua aitortzea eta gobernantza partekatua garatzea biak ere eskutik hartuta datoz. Berrikuntza-politika ez datza sistema baliabide humano, teknologiko edota finantzarioz hornitzean bakarrik. Horrez gainera, gero eta garrantzitsuagoa da prozesu irekiak bideratzea eragileek abantailak sor ditzaten modu aktiboan. Gobernantza partekatua askotariko eragileen arteko harremana eskatzen du (ezagutzari eta ikerketari loturiko erakundeak, finantza-entitateak, enpresak, administrazio publikoak), baina baita askotariko eskaletako eragileen artekoa ere (tokikoa, eskualdekoa, lurraldekoa, nazionala, mugaz gaindikoa). Bestela

esanda, berrikuntza-sistemaren konplexutasuna ikusita, gobernantza-eredua ere lurraldearen garapen, lehiakortasun eta ongizaterako faktoretzat hartu behar da. Funtsean, gobernantza-sistemak eraginkortasunari ere balioa eman behar dion heinean, lidergo partekatua faktore garrantzitsua da gaur egunean garabiderako eta lehiakortasunerako.

Azken unean, lurraldearen garapenean eta berrikuntzan tokiko gaitasunei probetxu ateratzea lotuta dago tokiko politika sistemikoak garatzeari eta eragileen arteko harreman eta elkarrekikotasunei balioa emateari. Alde horretatik, lurraldearen garrantzia eragileen arteko harremana baino gehiago da: ezinbestekoa da tokiko egitura ekonomikoa aintzat hartzea, ingurune sozial eta instituzionala elikatzea, finantzazio-gaitasuna izatea edota berrikuntzako sarea eragile, gaitasun eta baliabideekin hornitzea (Morgan 2004). Horrek aukera ematen du tokiko baliabideetarako eta lehiarako abantailak lurraldeko eragileen aukera eta gaitasunen neurrira aprobetxatzeko.

Beste era batera esateko, eragileen arteko harreman hutsetan oinarritzea (ikuspegi tolesgabea) bezain antzua da politika publikoetatik neurriak eta ekimenak –errepide-sareak eraiki, azpiegiturak eskaini, dirulaguntzak eta subentzioak eman– testuinguru abstraktueta bezala bideratzea (goitik beherako ikuspegia, *top-down ikuspegia*). Mataza beraren hari bi horiek estrategia partzialak dira, kasurik onenean. Bi dimentsio horien artean orekak zaintzea garrantzitsua da (e.g. lehenengoan zentratzeak industria-politikaren gaitasunak ahaztu ahal dituen bezala, bigarrenean soilik inbertitzeak ezagutza nola ase eta xurgatu ahaztu ahal du). Askotarikoak dira, ordea, egoki kudeatu beharreko orekak. Beste adibide bat: enpresaren berrikuntza soziala eta teknologikoa ezinbestekoa da ezagutza sortzeko eta ekoizpen-prozesuan aplikatzeko gaitasuna aldiro eraberritu dadin; baina lurraldeko ongizatean eta kohesioan arreta ipini ezean, baliabide lokalak (hezkuntza kalitatezkoa, kapital soziala, azpiegiturak) garatu gabe uzten dira, eta, epe motz-ertainean, lurraldearen garapen ekonomikoan igarri ohi da. Hirugarren adibidea: atzerriko dinamiketarik ikastea eta irekitzea gutxiesten bada, portaera endogamiko, itxi eta kontserbadoreak errutina bihurtzen dira, eta, epe motz-ertainean, aldaketa kudeatzeko gaitasunak (humanoa, teknologikoa, finantzarioa) baliogabetzen dira. Adibideok iradokitzen dute ezinbestekoa dela garapenaren dimentsioak orekatzea eta doitzea.

Bestela esanda, lurraldearen garapenak eskatzen du eraldaketa-prozesua ekonomia- eta ekoizpen-sistemaren mekanismo endogenoetara heltzea. Epe motzeko begiradak arreta ipin dezake hazkundean edota magnitude ekonomiko orokorretan (enplegua, aurrezkiak, inbertsioa, produkzioa), baina epe ertain-luzeko

ESKUALDEA TRANSFORMAZIO GLOBALEN ARGITAN

begiradak esan nahi du inbertsioak (aktibo fisiko eta ukiezinak, giza kapitala) enpresatik haratago ingurune osoan gauzatzea. Enpresaren lehiakortasuneko gaitasunak kapitalaren metatze-prozesua eragiten dute hainbatetan, baina, eraldaketa horrekin produktibitateak errendimendu gero eta txikiagoak izango ez baditu, merkatu berriak zabaltzeaz gain ezagutza eta berrikuntza ehun produktiboan zabaldu behar dira, lurraldearen ekonomia garatu eta berrituko bada. Kasu horretan, beraz, lurraldearen garapeneko inbertsio-ahaleginak faktore endogenoen eta gainontzeko eragile eta baliabideen garrantzia azaleratzen du.

Hori dela eta, garabiderako ikuspegi endogenoak lurraldea egitasmoaren erdigunean ipintzen du: abiapuntua diagnostikoa da (egitura sozioekonomikoa, baliabideak, azpiegiturak, merkatuaren tamaina, enpresen ibilbide sozioteknikoa, aukerak, mugak); askotariko gaitasunak aktibatu, sortu eta mobilizatzean funtsatzen da (politika ekonomikoa, giza kapitala, ekoizpen-prozesuari loturiko gaitasun zientifiko, teknologiko eta sozialak, ekipamenduak, etengabeko prestakuntza, gobernantza-sistema, pertsonaren erantzukizuna, giza taldeen enpresa-sorkuntza), eta, alde horretatik, giza garapenaren alderdi ez-ekonomikoei ere balioa ematen die; iparra da lurraldea pertsona erantzuleen garapenerako aukera-eremua izatea, gizartearen ongizate ekonomikoa, sozial eta kulturala une oro gaurkotze aldera. Ikus daitekeen moduan, ikuspegi endogenoan, pertsonaren erantzukizuna eta lurraldearen kontzepzio soziala ere garrantzitsuak dira. Garapenaren kontzepzio horrek epe ertain-luzea ditu xede eta egitasmo. Izan ere, garapena prozesu zirkular modura ulertzen da. Ikuspegi endogenoaren beste alderdi azpimarragarria da prozesua, edo nola garabideratu egitasmoa. Izan ere, garapen-eredu parte-hartzailea eskatzen duenez, eragile ugariaren inplikazioan, akordioan eta legitimazioan oinarritzen da, eta horrek askotariko interes, ikuspegi eta beharren arteko tentsioak irekitzen ditu. Hor ere, gobernantza eta lidergo partekatua aukerako alternatiba politikoak dira.

Politiken rol aktiboa

Azken urteotan, bestalde, arreta berreskuratu du politika industrialak lurraldearen ehun produktiboan lidergoa eta rol eraldatzailea jokatzeari buruzko eztabaidak (Morgan eta Marques 2019). Horren arabera, gaur artean bezala politika publikoek I+G ahalegina, antolaketa, planifikazioa eta koordinazioa estimulatu behar dituzte, eta berrikuntzaren eragileentzat testuinguru lehiakorrek sortzeaz ere arduratu behar dute (azpiegiturak, ekipamenduak, zergak). Baina, horrez gainera, sektore publikoaren izaera, zentzua eta xedea modu aktiboagoan birpentsatzea ere ezinbestekoa da.

Esate baterako, Europako Batzordeak I+G jarduerak desafio globaletara bideratzea aholkatu berri du, Mariana Mazzucatoren proposamen orokorra baliatuta,⁶³ eta 2008. urteaz geroztik landuriko estrategia *Horizon Europe* Programa Markoan

(2021-2029) hezuramituko da. Mazzucatoren jatorriko ideia da ikerketarako eta berrikuntzarako interesa ekarriko duten hastapeneko inbertsioak egin behar dituela sektore publikoak, mundu-mailako erronka handiei (i.e. klima-aldaketa, eraginkortasun energetikoa, elikadura, itsas ingurunea babestea, berdintasuna) aterabidea emango bazaie. Izan ere, merkatuan balio ekonomiko, sozial eta ekologikoa duten ekimenak sarritan eragile pribatuentzat lan nekeza eta garestia diren heinean, sektore publikoak aitzindaritza eta arriskua hartu behar izaten du. Mazzucatoren arabera, alde batetik, berrikuntza zientifiko-teknologiko nagusien jatorrian beti daude finantzazio eta agentzia publikoak; bestetik, gainera, gaur egunean sektore pribatua inbertsio produktibotik aldendua dago, eta, epe motzeko joerak (sesgoak) eraginda, inbertsio finantzarioa hobesten du. Horrez gainera, sektore publikoak beste era batera ere jokatu dezake lidergoa; alegia, berrikuntza zientifiko-teknologikoan sektore publikoaren eskaera-gaitasuna baliatuta (*Public Procurement for Innovation*).

Ikuspuntu horren arabera, beraz, sektore publikoak, merkatuko akatsak zuzentzeaz gainera (azpiegiturak finantzatu, ezagutza-guneak sortu, giza kapitala sustatu), arlo eta teknologia berriak garatzeko eta merkatu berriak irekitzeko erantzukizuna du. Alemania eta Txina energia berriztagarrietan egiten ari direnak balio dezake adibide modura. Inbertsioetarako Europar Bankuak ere estrategia bertikala (misioetara bideraturiko jarduerak) lehenesten du I+Grako finantzaketa-lerroetan. Horrez gainera, Mendebaldeko analisi teoriko eta enpirikoetan ere biraketa sumatzen da; besteak beste, Asiaren ekialdeko herrialdeen politika industrialak direla eta.⁶⁴

Hari horretatik letorke eskualde-mailan ere sektore publikoa diseinatu eta garapen zientifiko eta teknologikoa erronka zehatzetara bideratzeko egitasmoa (Dahl Fitjar et al 2019; Uyerra et al 2019). Adibidez, lurraldeko arlo estrategikoak definitzea eta zenbait eremu aktibatzea inbertsio pribatua eta baliabide endogenoak arlo horietara lerrokatzeko. Alde horretatik, I+G alorreko baliabide humano, finantzario eta zientifiko-teknologikoak eremu lehiakor zehatzetan kontzentratzean datza estrategia (i.e. elektromugikortasun jasangarria, energia eta fabrikazio aurreratua, zahartzaro osasuntsua). Kasu horretan, erakunde publikoak lurraldeko eragileekin partekatzen du lidergoa, eta, lurraldearen ibilbidea, gaitasun zientifiko-teknologiko, produktibo eta finantzarioak, eta aukera-eremu berriak aintzat hartuta, lan-eremu lehiakorak identifikatu eta sustatzeko ardura hartzen du.

Era batera edo bestera, ikuspuntu horiek berrikuntza-politikak ulertzeko modua eraberritzen dute. Azken hamarkadetan, politika horizontala hobetsi eta inplementatu

63. Mazzucato, M. (2018). *Mission-oriented research & innovation in the European Union: A problem-solving approach to fuel innovation-led growth*. Luxembourg: Publications Office of the European Union; Mazzucato, M. (2019). *Governing missions in the European Union*. Luxembourg: Publications Office of the European Union.

64. Rodrik, D. (2019). Where are we in the economics of industrial policies? *VoxDeb*, Jan 21.

ESKUALDEA TRANSFORMAZIO GLOBALEN ARGITAN

da. Horren arabera, sektore publikoaren arduraren merkatuko akatsak zuzentzea eta, beraz, jarduera zientifiko-teknologikoa garatzeko testuinguru erraztaile bat sortzea (*innovation friendly-market*), azken unean balantza komertzialeko saldoa positiboa izateko. Alde horretatik, alde batera uzten dira politika sektorialak (ez du lehentasunik arlo batean edo bestean espezializatzeak), baina, era berean, arlo teknologiko batzuk eta besteak estrategikotzat jo, eta irizpide argirik gabe finantzatu eta bideratzen dira.

Merkatuko akatsak zuzentzeko premia argumentu teoriko neoklasikoetara joz justifikatu izan da: ondasun batzuk publikoak dira, ez-lehiakorak eta ez-baztergarriak (azpiegiturak, ezagutza zientifikoa), eta, beraz, horietan ahalegintzeak ez dakar pizgarririk inbertsio pribatuarentzat; badaude esternalitate positiboak (merkatuak giza kapitalaren garrantzi sozial eta komunitarioa gutxien ditu); badaude informazio asimetrikoari loturiko arazoak (nola baloratu unibertsitatearen meritua); ikaskuntzaren kurba (denbora behar da ezagutzan edota metodoetan trebatzeko eta produktibitatea hobetzeko). Halako arrazoiak –merkatuko akatsak– eman izan dira argudiatzeko zergatik den ezinbestekoa esku-hartze publikoa. Horri gaineratu behar zaio eskalako ekonomia; alegia, garrantzitsua da industriak heldutasun eta tamaina jakin bat erdietsi eta merkaturaren lehiatu bitartean laguntzea.

Nolanahi den, politika industrialak –politika publikoetatik industriaren eremurako estimulatu diren neurriak– horizontalak izan dira; alegia, politikak bideratu dira marko instituzionala eta barne-merkatua hobetzera, azpiegiturak eraberritzera, ekoinpenerako faktoreak (teknologia, giza kapitala, berrikuntza, enpresa-sorkuntza) sendotzera. Analisi ekonomiko neoklasikoaren aurrean, ordea, badaude bestelako marko teoriko eta politika ekonomiko baterako aholkuak. Horiek dira pixkanaka indarra hartzen ari direnak. Kasu honetan, finantzazio publikoa eragile aktiboa da berrikuntza-prozesuetan eta merkatu berrien sorreran. Haren rola ez da izango, beraz, merkatuko akatsak zuzentzea eta birbanaketa egitea. Aitzitik, politika ekonomikoa sektore publiko aktiboago batean funtsatuko litzateke; merkatua orientatuko luke, emaitza distributiboak hobetzeko eta epe ertain-luzean hazkunde-gaitasuna eta produktibitatea hobetzeko.

Zehazki, politika bertikalak lehenesteak esan nahi du estimuluak bideratzea sektore, erronka edo helburu batzuetara, eta, kasu horretan, xede haren mendekoak lirateke lehiakortasunerako programak, marko estrategikoaren antolaketa eta baliabideen mobilizazioa. Ekonomiaren egitura aldatzeko xedearekin erronka eta jardueraren batzuk estimulatzea lehenetsi ez ezik, beraz, gobernantza-eredu konplexuago bat ere aitortzen da; alegia, eragileen arteko kolaborazioa eskatzen du, ardurak eta eginkizunak erronka batzuetara bideratzen diren heinean; finantzaziorako hobesten den irizpide nagusia misioarentzat bultzada izatea denez, proiektuak, aliantzak eta estrategiak lerrokatzea eskatzen du, azken unean.

Mazzucatok hainbat ideia nagusitan laburbiltzen du industria-politika erangikorra.⁶⁵ Lehen ideia nagusia da balio ekonomikoa modu kolektiboan sortzen dela. Mazzucatoren ustetan, horrek esan nahi du aberastasunaren sorrerari buruzko gure iruditeria estua zabaldu behar dugula: negozioetako liderrak eta enpresariak ez ezik, haiekin batera unibertsitateek, erakunde publikoek edota gizarte zibilak ere jarduten dute merkatuan. Hori dela eta, merkatua birbideratu behar da eragile horien guztien ekarpena hobeto aitortu, baliatu eta birbanatzen duen hazkunde-eredu batera. Bigarrenik, Mazzucatok gogorarazten du 2008ko atzeraldiaren jatorrian zor pribatua dagoela –ez zor publikoa– eta horri erantzuna emateko aterabidea ordainsari errealki hobetzea ekarriko duen epe ertain-luzeko hazkundera datzala. Zehazki, inbertsio publikoa egiteak gaitasun produktiboa dakar hezkuntzan, ikerkuntzan eta teknologian (eta, hedaduraz, baita zorraren ratioa / BPGa jaistea ere). Hirugarrenik, aurrerabide teknologiko eta sozialak inbertsio publiko handia dute jatorrian. Gaur egunean ere herri-erakundeek bideratu ahal dituzte –esfortzu pribatuarekin elkarlanean– halako estimulu, pizgarri eta ahaleginak, eta, alde horretatik, aukerakoena da inbertsio publikoa erronka handietara lerrotatzea (oreka demografiko berria, klima-aldaketa, ezberdintasunak, biodibertsitatearen galera, energiaren eta materialen krisia, uraren kudeaketa). Horri lotuta, laugarrenik, ekonomian, askotariko jarduerak eskatzen ditu iraultza berdeak: energia berriztagarrien alor zabalean inbertsioak egitea, baina baita praktika jasangarriak saritzen dituzten politikak ere, askotariko eremuetan ekoizpena, distribuzioa eta kontsumoa eraldatze aldera.

Bosgarrenik, inpaktu handiko ekimenak bideratuko dituzten finantza-estrategiak behar dira. Era berean, seigarrenik, zerga-neurriak sendotzeko premia dago, enpresek irabaziaz gaitasun produktiboan eta I+Gko jardueretan berrinberti ditzaten. Izan ere, kapitalismo finantzarioak ekarri du korporazio handiek inbertsioa euren akzioak erostera bideratzea, burtsako balioa eta goi-mailako exekutiboen ordainsaria handiagotzeko; industriaren finantzarizazioa dela eta, adibidez, efektiboan metatzeak ere goia jo du (bi trilioi dolar Europan eta bi trilioi baino gehiago AEBn). Zazpigarrenik, berrikuntza disruptiboak eta hazkunde esponontzialak inbertsio publikoan izaten dute jatorria, eta horrek enpresako inbertsioaren aukera ireki eta erakarri ohi du. Halako pizgarrien faltan, enpresen dinamismoa suspertzeko neurriak har daitezke (zerga-kredituak eta zerga-tasen jaitsierak), baina, merkatu berrietarako aukeren faltan, portaera kontserbadoreak (alor klasikoetan lehiatzea) sustatu baizik ez da egiten. Zortzigarren ideia modura, herri-erakunde adimendunak funtsezkoak dira. Alde horretatik, gobernuko jarduerak azpikontratatu ordez, sektore publiko ausartak talentua erakartzeko balio dezake.

Horrek guztiak bi kontu orokor azaleratzen ditu. Alde batetik, berrikuntza-politika orok behar ditu egiturak –lerrotatuak, eraginkorrak– eta mekanismo operatiboak,

65. Datozen azalpena eta zortzi ideiak hemendik zuzenean hartuak daude: Mazzucato, M. (2016). *A real industrial revolution*. *Prospect*, September 15.

ESKUALDEA TRANSFORMAZIO GLOBALEN ARGITAN

baldin eta praktikan oinarrituriko ikaskuntza erraztu eta bideratuko bada. Bestetik, sektore publikoari buruzko rol ekintzaileak berritasun ugari eskatzen ditu, eta, lurraldeko tradizioen arabera, doiketak ezinbestekoak izango dira, besteak beste espezializazio-lerroak modu adostuan garabideratu daitezzen. Gainontzean, Mazzucatoren diagnostikoa eta analisia herrialde anglosaxoietan zentratzen dira, eta, beraz, eskualde bakoitzak gai izan behar du bere ibilbidea ganoraz ebaluatzeko.

Industria-politika bertikalek, gainera, mesfidantza sor dezakete: alde batetik, askok zalantza egiten dute agentzia publikoek ba ote duten sektore eta merkatuak identifikatzeko ezagutza, gaitasun eta ikuspegirik; bestetik, arriskua da politikak interes batzuen mesedeetara bideratzea (*rent seeking*); esaterako, interes-taldeen estrategiak edota gainbeheran dauden sektoreak lehenetsi ahal dira. Azken hori, noski, merkatu sortzailea den sektore publikoan ez ezik, merkatu-akatsak zuzentzera mugatu ohi den sektore publikoan ere gerta daiteke.

Hori dela eta, gobernantza partekatuak zentzua hartzen du politika bertikaletan ere. Mazzucatok (2013, 2018), sarritan, Alemaniako kasua aipatu ohi du, adibide modura. Industria-politikan, erakunde bik zeregin garrantzitsua dute: batetik, titularitate publikoa duen garapeneko bankua (*KfW Kreditanstalt für Wiederaufbau*), 1948. urtean herrialdearen berreraikuntzarako sortua; eta, bestetik, Ikerketa Zientifikorako Alemaniako Fundazioa (*DFG Deutsche Forschungsgemeinschaft*), 1933. urtean sortu eta gobernu federalak eta estatuak finantzatua (autoritate independentea, zuzenbide pribatuaren mendekoa, berrikuntza-sistemako eragileek osaturikoa, eta ikerketa-proiektuen esleipeneko ardura duena).

Guztiarekin, estrategia bertikalak modu askotara garatzen dira industria-politike-tan. Batzuetan, programa estrategikoetan, I+G jarduerak erronka sozialetara bideratzeko helburua definitu ohi da (*Horizon 2020 2014-2020*ra Europako Programa Markoa, esate baterako);⁶⁶ beste batzuetan –Asiaren ekialdeko ekonomietan, adibidez–, puntako teknologia susta daiteke, nazioartean lehiazera lerrokatuz eta merkatu-arauekin ebaluatzuz;⁶⁷ beste aukera bat da lehentasuna ematea herrialdeko eskala teknologikoan goren dauden sektore eta jardueri, haiek lor dezaketelakoan lehiakortasun-abantaila handiena.⁶⁸ Era batera edo bestera, nazioarteko erakunde nagusietan, gero eta esplizituagoa da politika ekonomikoak eta industria-politikak berriaz erronka globaletara bideratzeko eskaera.⁶⁹

66. EC (2011). *Horizon 2020 – The Framework Programme for Research and Innovation*. 30.11.2011, COM(2011) 808 final, Brussels.

67. Cherif, R. eta F. Hasanov (2019). *The Return of the Policy That Shall Not Be Named: Principles of Industrial Policy*. INF Working Paper No. 19/74.

Jarraitutasuna eta berrikuntza

Gaur egunean, industria-sektorea trantsizio-fasean dago. Hainbat dira arrazoiak: nazioarteko merkataritzako akordio bilateralen nagusitasuna, kate produktiboen konposizio berria, iraultza digitala eta robotizazioa, karbonoan baxua den eredu energetikorako egitasmoa. Alde horretatik, ehun industrialak biziberritzeak gauzak beste era batera egitea ere eskatuko du. Horrenbestez, orain arte ikusitakoak aditzera ematen du lurraldearen garapenean garrantzitsuak eta askotarikoak direla faktore endogenoak eta berrikuntzazkoak. Horiek, neurri batean, prozesu ebolutiboaren ondorioa dira (*path-dependency*), baina lurraldearen historia ekonomikoak ez ditu zertan etorkizuneko aukerak itxi (*past-dependency*).

Eskualdeko egitura produktiboan berrikuntza eragiteko azpiegitura instituzionala askotarikoa da: batzuk ezagutzari lotuagoak (ikerketa-laboretegiak, unibertsitateak, formaziorako zentroak); besteak, auzi teknologikoan zentratuagoak; batean zein bestean, berrikuntza, transferentzia eta komertzializazioa garrantzitsuak dira. Egitura produktiboa da beste osagaia, eta, horiekin batera, erabaki politikoari loturiko erakundeak daude. Era berean, eragile horiek guztiak testuinguru ekonomiko eta soziokultural batean kokatzen dira, eta adostasun-maila aldakorra dute. Alde horretatik, nekez baztertu daiteke lurraldearen espezializazioa –industrial, demagun–; egitasmoak ezin daitezke hutsune sozial eta instituzionalean eraiki, instantean, modu tolesgabean, errealtate sozioteknikoa alde batera utzita. Baina jakin behar da tokiko gaitasunak (giza kapitala, teknologia, enpresa-kulturaren kudeaketa, azpiegiturak, inbertsio- eta finantzazio-iturriak) eraldaketa-testuinguruan gaurkotzen, eta baita zientziako, teknologiko eta berrikuntzako estrategiak eraberritzen ere (Borras eta Edquist 2019, Simon et al 2019). Bi errealtate horien arteko tentsio zailean (iraganaren pisua eta etorkizuna irekitzeko aukerak), lurraldeak lehiakortasunerako abantailak eraiki behar izaten ditu, tokiko estrategia eta politiken bidez berrikuntzaren osagaiak (ezagutza, ezagutzaren aplikazioa, gobernu erraztailea, marko ekonomiko eta kulturala) eta haien arteko erlazioak esku-hartze publikoarekin biziberritzeko (Grillitsch eta Sotarauta 2019).

Hori horrela izanda ere, arrisku behinena da, ordea, hainbatetan garabiderako faktoreak eraberritzeko zailtasunak izatea. Esate baterako, lurralde batean iruditeria teknologiko eta industrialak sendoa denean, enpresari kosta egiten zaio ulertzea diseinuan, antolaketan eta kudeaketan edota aktibo ukiezinetan inbertitu eta berritzeak ekarriko diola produktibitatea hobetzea eta nazioartean lehiatzeko aukera. Era berean, lurraldeko eragileen arteko ezagutza, ikuspegi partekatua edo elkarlana ahula denean, gerta daiteke zentro teknologikoak enpresentzat merkaturako produktu berria sortzea baina berrikuntza-prozesurako aukerak bertan be-

68. Lin Yifu, J. (2012). *The Quest for Prosperity: How Developing Economies Can Take Off*. Princeton: Princeton University Press.

69. EC (2010). *A Rationale for Action: Europe 2020 Flagship Initiative. Innovation Union*. 6.10.2010. SEC(2010) 1161 final, Brussels; OECD (2012). *Meeting Global Challenges through Better Governance*. Paris: OECD; Obama, B. (2009). *A Strategy for American Innovation*. Washington, DC: National Economic Council and Office of Science and Technology Policy.

hera geratzea komertzializazio-arazoak daudelako, tokiko eragileek ezin dutelako aplikazioa xurgatu, edota enpresek nazioarteko bezeroak erabiltzen dituztelako. Beste jite bateko adibidea ipintze aldera, zorpetzeari buruzko arau zorrotzek eta gastu arruntari soilik erantzuteko tentazioak eraginda, epe luzerako inbertsioetarako aurrekontu-sailak behar bezala ez kudeatzea ere ohikoa izaten da (hezkuntza-sistema eta eskulan kualifikatua, industria, ekoizpen-instalazioak, azpiegitura digitalak, ezagutza, ekonomia errealeran bideraturiko finantza-sistema). Begirada luzea ezinbestekoa da lurralde industrialek eta oro har ekonomia aurreratuek euren egitura produktiboak gaurkotu eta merkatu-dinamiketan posizioa sendotzeko.

5.4. HEZKUNTZA ETA FORMAZIOA

Era berean, lan-merkatuan gertatzen ari diren eraldaketak direla eta, formazioaren eta sistema produktiboaren arteko harremana da lurraldeko eragileek eskuetan duten beste eragin-eremua. Giza kapitala lehiakortasunerako faktorea izateko, baina, hezkuntza-sistemak baditu hainbat erronka aurretik. Hemen, gaitasun kognitiboan eta arrazoitzeko gaitasunean ipiniko dugu arreta.

Teknologiak lana eta ekoizpenaren beste faktoreak –kapitala, bitarteko ondasunak– baldintzatzen ditu, eta faktore horien arteko konbinazioak ondasun eta zerbitzuak (haien produkzioa, kontsumoa, inbertsioa) taxutzen ditu. Aro industrialeko lezio nagusia izan da hezkuntza eta formazioa erabakigarriak direla aldaketa teknologikoaren abantailak baliatzeko. Horren arabera, aurrerabide teknologikoak ekoizpen-faktoreen eraginkortasuna hobetzen duen heinean, produktibitatea izan dadin, ezagutza, gaitasun eta konpetentzia jakinak dituzten langileen okupazioak bideratu behar dira; teknologien berezitasuna da faktoreen efizientzia modu partzalean handitzen duela kualifikazio batzuen mesedetan. Maila eta bereziki ibilbide formatiboak garrantzitsuak dira, baita laneratzeko trantsizioa errazteko prestakuntza ere, aurrerabide teknologikoa kualifikazio batzuen aldera lerrokatzen den heinean.

Aro digitalari bagagozkio, inbertsioa egin behar da automatizazioa baliatzeko, baina, horrez gainera, langileek robotekin eta algoritmoekin batera lan eginaz, produktu, eginkizun edo zerbitzu berriak ere sortu beharrak daude. Aldaketa teknolo-

giko berriekin –robotika, adimen artifiziala– lan egiteko, eta testuinguru digitalean lurraldeko eragileen berrikuntza eta hedaduraz produktibitatearen hazkundera eragiteko, formazioak badu garrantzia, baina jakin behar dugu hezkuntza eta aro digitala egoki doitzen. Hala izan dadin, lurraldeak hezkuntza-politikaren eremuan aintzat hartu behar ditu informazio masiboarekin, makina adimendunekin eta algoritmoekin lan egiteko ezagutzak, gaitasunak eta konpetentziak (esate baterako, informazioa aukeratu, diskriminatu eta baliatzea, edota roboten lan egiteko moduak ulertu eta robotekin lankidetzarako aukerak bideratzea).

Egitasmoa konplexua da, baina hainbat ideia orokor baditugu estrategiak ganoraz doitzeko. Hasteko eta behin, erronkak ondo identifikatu behar dira. Bi dira erronka orokorrak: batetik, gaitasun kognitiboak aro digitalera moldatzea –adimen artifiziala, robotika, sentsoreak, datuak herrialdeen enplegua mututzen ari diren testuinguru batera, alegia–; eta, bestetik, hedaduraz, ikaste-irakaste metodoak ere gaurkotzea. Azken horrek uste baino garrantzi handiagoa du. Izan ere, pertsonen gaitasunak eta ikaste-irakasteko moduak ondo bereiztea eskatzen du.

Pertsonen gaitasunak askotarikoak dira. Hiru gaitasun behintzat ezberdindu daitezke: arrazoitzeko gaitasuna, ezagutza faktikoa, eta errutinazko arazo arruntei aterabidea emateko konpetentziak. Era berean, irakasteko tipo idealak ere alde-ratu daitezke. Batetik, eredu tradizionala dago, hau da, egitateak buruz ikastea, eginkizun, formula eta prozedurak errepikatzea, arazoak lantzea eta irakaslearen lezioak entzutea (lehen tipo ideala). Bestetik, eredu berritzaileagoa dago; pedagogia berritzailea, hots, taldetan lan egitea, azalpenak ematea, eta ikasitakoa eguneroko auziekin erlazionatzea (bigarren tipo ideala).

Tipo idealak dira, noski. Izan ere, praktika bat eta bestea osagarriak dira. Baina biak ondo bereiztea garrantzitsua da, praktika batek eta besteak gaitasun kognitibo bereziak landu eta garatzeko aukera ematen dutelako. Alde horretatik, lehenengo tipo idealak –eredu tradizionala– oinarritzko egitate eta prozedurak ezagutzeko eta errutinazko arazoak konpontzeko gaitasunak erdiesteko balio izaten du. Gaur egunean, berebiziko ezagutza, abilezia eta konpetentziak dira. Gainera, metodo tradizionalak gaur-gaurkoz efektu positiboa du beheko eta erdiko estatus sozioekonomikoko neska-mutiletan (familia ikasietako seme-alabek eskuarki kapital kultural, erlazional, genetikoa eskutik dute, ikastetxearen premiarik gabe). Haatik, bigarren tipo idealak (gaitasun aplikatu, analitiko eta kritikoen transmisioan datzana), berriz, arazoiketa lantzea errazten du.

Hezkuntza-sistemak premisa eta lezio horiek ondo kudeatu behar ditu, aro digitalaren argitan erronka nagusiei ganoraz erantzuna emateko. Izan ere, enple-

guaren konposizioa okupazio- eta produkzio-sektoreka eraberritzearekin batera (teknologia berriak, ingeniari-tza industrial, datuen analistak, adimen artifizialean eta makinan ikaskuntzan espezializatuak, eta eraldaketa digitalean, teknologia berrietan, antolakuntzan adituak hobetsiko ditu), enplegu gehienetan aldiro bestelakotzen ari dira ezagutza, gaitasun eta konpetentziak. Hori dela eta, datu masiboen analisari loturiko teknikak, arazo konplexuak konpontzeko gaitasunak, eta lantaldean euskarri teknologikoak baliatuz aritzea pisuzkoak izango dira etorkizun hurbileko eginkizunetan, baita horiei loturiko abileziak ere (pentsamendu analitikoak, ikaskuntza-gaitasuna, sormena, diseinu teknologikoa eta programazioa, analisi kritikoa, eragin soziala eta arrazoiketa, besteren artean).

Bestela esateko, gaur egunean ezinbestekoak dira, alde batetik, espezializazioko ezagutzak (arloan gainera ezagutza sakon, zehatz eta bikaina), eta, bestetik, beste hainbat gaitasun eta konpetentzia. Azken horiei dagokienez, batzuk ezagutzarekin loturikoak dira (kontrol numerikoa, hizkuntza digitala, zientzia, etika); beste batzuk, agertoki konplexuetarako abileziak (arazo edota proiektuen aterabidea, komunikazioa, sormena, lankidetzak), eta badira izaerari eta balioei loturikoak ere (erantzukizuna, jakin-mina, ekintzaitza, herrikidetasuna).

Hori dela eta, ikusitakoarekin baieztatu daitezke hezkuntza-sistemak baduela lurraldeko eskalan eragiteko aukera. Bi baldintza daude: bata, curriculumek bestelako metodoei tokia egitea, bestelako gaitasun kognitiboak garatzeko; bestea, arrazoitze gaitasunari balioa ematea. Kasu horretan, zalantzarik gabe, formazio aratuak ere funtzio erraztailea joka dezake. Joera-aldaketen testuinguruan (teknologia digitalak, talentuaren merkatu globala, oreka demografiko berria, kontsumitzaile eta bezeroen eskaerak), pertsonen formazioak eta gaitasunak lehiakortasunerako faktoreak dira, baina garrantzitsua da gaitasun kognitiboak bereiztea eta haien garapeneraren mesedetan hezkuntza-ereduen arteko osagarritasunak modu adimentsuan kudeatzea, bateko eta besteko eredu murriztaileetan jauzi gabe.

5.5. GARAPENERAKO FAKTORE EXOGENOAK

Orain artean aipaturiko ideia teoriko orokorrek –bestelako helbururik izan gabe– zera iradokitzen digute: lurraldeko estrategiak, politikak eta harremanen dentsitateak badute lurraldearen dinamika ekonomikoan eragiteko gaitasuna, partzialki

bada ere (Rodrik 2017). Lurraldeko eskalan badira, beraz, garabidean eta hazkundean modu efektiboan eragiten duten faktoreak.

Haien artean, hauek dira lurraldeko eragileek eskuetan dituztenak: industria-politika, enpresa-eredua eta lan-harremanak, giza kapitala, jarduera ekonomiko pribatua, lan-merkatuaren erregulazioa, inbertsio publikoa, eta, oro har, ekonomia etengabe eraldatzeko bokazio eta gaitasun estrukturala, besteak beste. Izaera ezberdinekoak dira, baina agerian uzten dute garabiderako faktoreen dimentsio-aniztasuna (politikoa, humanoa, teknologikoa, kulturala, erregulaziokoa).

Horiekin batera, noski, balantze makroekonomikoan aparteko garrantzia duten faktoreetan ere lurraldeko eskalak badu erantzukizuna. Izan ere, inflazioak, zor publiko eta pribatuak, finantza-portaerak, edota ikerketa, garapen eta berrikuntzak garrantzi erabakigarria dute ekonomiaren hazkunde jarraituan. Ikus daitekeen moduan, beraz, lurraldeko eremuan garapenerako ongari emankorrak erein daitezke. Horrek eskatzen du aro teknologikoa arretaz ulertzea, tokiko ekonomiaren egitura produktiboa berritzeko gaitasuna izatea, eta eragile nagusien artean ikuspegiak partekatu, estrategiak lerrokatu eta politika erraztaileak bideratzea.

Alabaina, jarduera ekonomikoan, beste faktore batzuk ere badaude, hainbatetan baldintzatzaile esanguratsuak, eta lurraldearen eragin-gaitasuna apala edo hutsala izan ohi da halakoetan, azken urteetan erregulazio-eskumenak nazioarteko eskalara transferitu diren heinean. Haien artean, batzuk politika makroekonomikoari lotuak daude (moneta-politika, diruaren trukea, erregimen komertziala, banku-sistemaren arauketa). Esate baterako, Europan, moneta bakarraren sorrerak politika ekonomikoaren tresna nagusi biren galera ekarri zuen (moneta-politika eta kanbio-politika), eta, Europar Batasunean, erronka garrantzitsua izan da nola kudeatu eskualdeen arteko patroien ugaritasuna, adibidez, ibilbide zikloen asimetriek azaleratu bezala (ziklo ekonomikoaren inguruko patroien ugaritasuna, alegia).

Lurraldeko dinamiken baldintzatzaileen artean daude energiaren eta lehengaien prezioari edota kanpoko eskariari loturikoak ere. Era berean, Europan berriki banku-sistema erreformatu izanak ere (Basilea III arautegia) desinbertsioak eragin ditu bankuek –banku bihurturiko aurrezki-kutxek, esate baterako– enpresetan izaniko karteretan; enpresen gizarte-kapitalean parte hartuz aurrezki-kutxen partizipazio horiek hainbatetan enpresak lurraldean sustraitzeko modu eraginkorra izan dira, ordea.

Neurri berean, gaur egungo ekonomian, lurraldeak zikloen eboluzioaren edo sektore baten koiunturaren oso mendekoak dira, eta, zer esanik ez, industria motaren arabera; automozioaren sektorea da horren adibide, eta, epe motzean,

ESKUALDEA TRANSFORMAZIO GLOBALEN ARGITAN

karbonoan baxua den eredu energetikorako trantsizioak doitze-kostuak ekarriko ditu, baita manufaktura-industriaren dinamismoa makaltzea ere, eta, sektoreko ekoizpen-katea herrialdetan zatikatua dagoen heinean, efektua askotarikoa izatea aurreikusten da.

Azken batean, globalizazio berrian, finantzei, produkzioari eta merkataritzari loturiko auzi esanguratsuek XX. mendean zehar egonkorturiko erregulazio instituzionalak bestelakotu dituzte. Horrek eragin du lurraldeko eskala gainditu ohi duten dinamika eta logika ekonomikoek pisua hartu izana. Estatuak eta haren azpiko eskalek –eskualdea, lurraldea, tokia– erregulazio-eskumenak galdu dituzte, beraz.

Hala eta guztiz ere, lurraldeko eskala eta fluxu globalak elkarren arteko tentsioan artikulatu daitezke, hiri globalen gorabideak erakusten duen bezala. Horri gaineratu behar diogu globalizazioaren ekonomia berriak azaleratu dizkigun beste hainbat ebidentzia –aurreko kapituluan azaldu bezala–: ikerketa- eta azpiegitura-kostuak handiak izanez gero, sektoreko merkaturia enpresa erraldoien eskuetan geratzen da; ezagutza, ikerketa teknologikoa eta berrikuntzen garapen komertziala munduko gune estratergiko jakinetan multzokatzen da; produktibitatearen hazkundera teknologia digitalak baliatu dituzten enpresa gutxi batzuetan pilatu da. Zentzu berean, enpresa handien eremua merkatu globala izaten da, berrikuntzaren fase ezberdinetan (I+G, produkzioa, marketina, komertzializazioa) eskalako ekonomiak dituzten heinean. Hori dela eta, enpresa txikiagoek, sarritan, halako enpresen hornitzaile gisa jarduten dute, edota merkatu-nitxoetan edo balio erantsi handiko jardueretan (ezagutza intentsiboko zerbitzuen prestazioan, esate baterako).

Horri estuki lotuta, bestalde, komertzio globalean jarduera ekonomikoa nazioartekotua izateak auzi geopolitikoen mende uzten ditu lurraldea eta enpresa. Gaur egunean, eskualdeetako komertzioaren destinoak eta inportazioaren jatorriak badute eragina garapen sozioekonomikoan; era batera edo bestera, jarduera ekonomikoaren garabide eta hazkundera arreta merezi dute beste herrialdeetako ekonomien osasunak (adibidez, Frantzia, Alemanian, Erresuma Batuan gertatzen denak) edo marko geopolitiko globalak (esaterako, merkataritzaren alorreko muga-zergak). Nazioarteko dinamika politikoez gainontzean, ekonomien arteko harremanak era zuzenean ez ezik, zeharka ere (enpresen bezero, hornitzaile, kontsumitzaileei eragiten dien heinean) mendetasunak eragiten ditu. Bestela esateko, eraldaketa teknologiko, komertzial eta enpresarialaren desfazioa gutxi ez, eta lurraldeko administrazioak, enpresak eta gainontzeko erakundeak ere ziurgabetasun-egoeran jokatzera behartuak daude sarritan, eragile politiko eta ekonomiko nagusien jokamolde aldakor aurreikusezinak direla eta. Gobernantza aldean zuten krisiak –lehen kapituluan azaldukoaren harira– horretan ere badu garrantzia, adibide batekin ilustratzearren.

5.6. BEHIN-BEHINEKO ONDORIOAK

Lurraldearen garabide sozial eta ekonomikoan, askotariko faktoreek eragin dute, zeinek bere pisu erlatibo aldakorra duela, eta, beraz, hedaduraz, baita enpresen produktibitatean, sendotasunean eta, oro har, abantaila konpetitiboan, nazioartekotze-aukeretan edota biztanleko BPGan ere.

Kapitulu honetan ikusitakoak hiru ikasgai nagusi aurreratzen dizkigu:

- batetik, lurraldeak dinamika ekonomikoaren faktore batzuetan eta besteetan eragiteko dituen aukerak eta gaitasunak oso ezberdinak dira;
- bigarrenik, ekonomia globalean, lurraldeen ongizatea, kohesioa eta bizitza-maila, neurri batean, lurraldearen, faktore endogenoen eta haien eraginkortasun ekonomikoaren arabera baldintzatuak daude;
- hirugarrenik, lurraldeak eta tokiko eragileek egitasmo beregainetarako aukerak badituzte ere, ezagutzaren gizartean lehiakortasunerako faktore berri, ugari eta gehiagori une oro erantzuteko gai izan beharko dute.

Horrek guztiak pistak ematen dizkigu gurea bezalako lurralde batean zertan eta nola aritu, lurraldearen egitasmoak eta erronkak gure neurrira diseinatuak izan daitezen (Morisson eta Doussineau 2019). Liburu honetan zehar, aparteko pisua izango du zehaztapen horrek. Ikusiko dugunez, eskualde-mailan garrantzi berezia dute eragileen arteko lerrokatze estrategikoak, gobernantzak, gaitasun teknologikoak eta berrikuntzaren intentsitateak.



ERALDAKETA
PRODUKTIBOA
6 ESKUALDE
INDUSTRIALETAN

6.1. SARRERA

**6.2. EGITURA PRODUKTIBOAREN
ERALDAKETA**

**6.3. AUTOMATIZAZIOA
ETA DIGITALIZAZIOA**

**6.4. TEKNOLOGIA BERRIAK
ETA LANGABEZIA**

**6.5. AUTOMATIZAZIOA
ALA DIGITALIZAZIOA**

6.1. SARRERA

Europar eta ekonomia aurreratuetan, egitura produktiboa hamarkada gutxiren buruan eraldatu da. XX. mendean zehar, industriak pisu handia izan du enplegu osoan eta ekonomiaren balio erantsi gordinean (BEG). Ekonomia aurreratuen hazkunde-patroian, ordea, aldaketak gertatu dira, eta, manufaktura-industriak pisua galtzarekin batera, egitura ekonomikoan industriari loturiko enpleguak eta BEGak ere pisu erlatiboa galdu dute (Nickel *et al* 2008). Kasu batzuetan, halere, jarduera tertziario berriak produkzio industrialari loturikoak izan dira (ekoizpenera lerrokaturiko zerbitzu aurreratuak), eta komeni da tertziarizazio-prozesua eta desindustrializazioa ondo bereiztea, beraz.

Ingurumari horretan, eraldaketa digitalak erronka berriak ireki ditu. Kapitulu honen helburua ekonomia digitalizatuan eskualde industrialek zer aukera dituzten argitzea da. Hiru mendeotako bilakaeraren argitan, aldaketa teknologikoak epe ertain-luzean europar-eskualdeetan garapen ekonomikoa eta soziala ekarri baditu ere, hainbat berrietasunek zalantza jartzen dute oraingoan gauza bera izango ote den. Era berean, eragileek inbertsioak automatizazioan ala digitalizazioan egiten dituzten bereziko dugu (herri-garapenerako bi estrategia ezberdin balira bezala), eta azalduko dugu eskualde lehiakor eta kohesionatuak zer-nolako erronkak dituen ekonomia digitalean.

6.2. EGITURA PRODUKTIBOAREN ERALDAKETA

Europako herrialdeetako manufakturen galerari buruz aritzerakoan, bereizi egin behar dira produkzioa eta enplegua. Izan ere, herrialdeak alderatuz gero, zera ikus daiteke: produkzioaren balio erlatiboaren jaitsiera heterogeneoa izan da, baina, enpleguaren kasuan, ostera, nabaria eta homogeneoa da industriako enpleguaren pisuaren galera erlatiboa.

Alde batetik, herrialde industrializatu goiztiarretan (*Early industrializers*) jarduera industrialaren produktibitatea hobetu eta industriaren balio erantsi gordinaren eta bereziki enplegu industrialaren proportzioa jaitsi egin dira. Beste herrialde batzuetan, berriz, enplegu industrialaren proportzioa garrantzia berantiarra izan da, pisu txikikoa, eta errenta apaletatik abiatu da; halakoetan, galera bizkorrago gertatu da, eta desindustrializazioaren ondorioak ere nabarmenago azaleratu dira (*Pre-mature desindustrializers*). Bereizketa hori eginda, ordea, enpleguaren galera joera orokorra da, globala, eta, lehenago edo beranduago, ekonomia industrializatu eragiten die (Rodrik 2016).

Eraldaketa horri erabat lotuta ageri dira –lehen kapituluaren ikusitakoaren harira– eskarian, teknologian eta nazioarteko integrazio komertzial eta finantzarioan izaniko bilakaerak. Beste era batera esateko, eraldaketa teknologikoak industriako sektorearen produktibitatea hobetu izanak eta globalizazioarekin enpleguaren eskulana eta gaitasuna errenta baxuko herrialdeetara orokortu izanak ekonomia aurreratuetakoa desindustrializazioa esplikatzen dute. Baina hori gertatu den aldi berean, enpleguaren eta BEGaren ratioak mantendu egin dira ekonomia globalean.

Industriari buruzko halako auzi zehatzek garrantzi berezia dute. Izan ere, industrializazio-prozesuak aberastasunaren sorrera, errentaren banaketa, ongizate soziala, belaunaldien arteko mugikortasun soziala eta bizitza hobea ahalbidetu zituen Europako herrialdeetan. XX. mendearen bigarren erdialdean zehar, Europako herrialdeen arteko konbergentzia sozioekonomikoa ezin daiteke bestela esplikatuz. Baina enpleguaren egitura produktiboan pisua galtzeak eta enpleguaren eta errentaren banaketaren arteko desberdintasun handiak egonezina sorrarazten du gaur-gaurkoz herritarren ongizatean eta espektatiba subjektiboetan. Alde horretatik, biografia pertsonal eta laboralak garatzeko aukera-markoa bestelakotu egin da. Desberdintasun berriak ere (*new inequalities*) errenta ugariaren iradokitzaile dira lurralde industrialetan (Wilkinson eta Pickett 2019), hurrengo kapituluaren sakonago ikusiko dugun bezala.

Izan ere, eraldaketa teknologikoak oso bestelako testuinguru sozialean kokatu gaitu. Orobat, gizarte industrialaren transformazioak bi berezitasun ageriko izan ditu: bata, sektore industrialeko enplegua hiru hamarkada eskaseko denbora laburrean doitu dela (prozesu ikaragarri bizkor eta traumatikoa, beraz); bestea, automatizazio-prozesuak dibergentzia nabaria eragin duela produktibitatearen eta lan-errenten artean (Acemoglu eta Restrepo, 2018).

Gizarte industrialak –ongizatezko erregimen garatuetan– eskutik izan zituen, kapital fisiko eta teknologikoaren hazkundearekin batera, denbora osoko enpleguaren sorrera, per capita errentaren igoera eta aberastasunaren birbanaketa, eta hori da, hain zuzen ere, eraldaketa teknologiko eta digitalarekin eteten ari dena. Hazkunde inklusiboak baditu aurretik hainbat erronka –langabezia-tasa eta behin-behinekotasunak murriztea, produktibitatea igotzea eta soldatak hobetzea, besteak beste–, baina, aro postindustrialean, erronken arteko aterabide lineal eta automatikoa da hautsita dagoena, hain zuzen ere; aktibo ukigarrietan inbertitzeak edota produktibitatea hobetzeak ez du zertan ekarri enplegua sortzea eta egonkortzea.

6.3. AUTOMATIZAZIOA ETA DIGITALIZAZIOA

Alabaina, manufakturen pisuaren galera ez da aski lurraldearen osasun ekonomikoa eta kohesio sozialaren higatzea ganoraz esplikatzen. Datuek zera erakusten digute: egitura produktiboan manufakturek pisua galdu duten herrialdeek dute, hain zuzen ere, manufakturen intentsitate teknologiko ahulena, eta aldaketa teknologikoaren eta industriako eginkizunen automatizazioaren ondorio kaltegarriak ere ari dira pairatzen (Ridao-Cano eta Bodewig, 2018).

Zehaztapen hori ikerketa konparatuak berresten du (Gregory *et al* 2016). Azaldu dezagun xeheago eta argiago:

- herrialde digitalizatuetan (Danimarka, Herbehereak, Suedia) eta roboten erabilera garatuena duten herrialdeetan (Alemania, Japonia, Hego Korea, Singapur) ez da langabezia tasa handitu. Aitzitik, korrelazio negatiboa hautematen da digitalizazioaren eta langabeziaren artean. Enpresa-mailan ere, garapen teknologiko berriak aplikatzeak enplegu agregatua eta produktibitatearen hobekuntzak eragiten ditu enpresan (Koch *et al* 2019). Gainera, hipotesi gisa iradoki liteke robotizazioa eragiteko arrazoi aski sendoak direla eskulanaren urritasuna (langabezia-tasa baxua) eta biztanleria zaharkitzea (Acemoglu eta Restrepo 2017a);

- automatizazioarekin, enpleguaren balantze neto agregatua positiboa da (robotizazioak jarduera edo eginkizun berriak sortzen ditu, edo, errenta-efektuak eraginda, enplegatuen kontsumo-gaitasun eta -ohiturek lanpostuak sortzen dituzte beste sektoreetan, enplegu netoa hain zuzen), eta produktibitatea eta langileen soldatak ere hobeto dira. Neurri batean, ordea, enplegu berri horren distribuzioa polarizatua da, eta balantze positiboaren ifrentzua eskulangileen eta kualifikazio baxuko langileen egoera da, bai eta arrakala sozial eta ekonomikoa ere, lan-faktorearen kualifikazio askotarikoek eragina;
- langile kualifikatuagoak gero eta gehiago dira (goi-ikasketak dituzten langileen eskaintza erlatiboa hazi egin da), baina, halere, euren soldata igo egin da, ikasketa-maila baxuagoak dituen biztanleriarekin alderatuta. Alegia, aurrerapen teknologikoa eta kualifikazio altuko langileak –gaur-gaurkoz bederen– osagarriak dira, eta euren soldata merkatuko eskaintza altua baino azkarrago ari da hazten.

Manufaktura-industriaren pisua galtzeak ez ezik, beraz, erronka digitalari erantzuteko gaitasunak ere esplikatzen du zertan den eskualdeen garapen ekonomiko eta soziala.

Guztiarekin, eraldaketa digitala eta konputerizazioa fenomeno berriak dira, behin betiko ondorioak ateratzeko. Gaur artean, lau mendeotako irakaspen historiko nagusia da aurrerabide teknologikoak enpleguaren banaketa sektoriala ekarri eta enplegu netoa sortu ohi duela, produktibitatea hobetu eta epe ertainera disrupzioaren hastapenetako desberdintasun sozialak txikitu eta kohesioa eragitearekin batera. Izan ere, aurrerabide teknologikoa pertsonen osagarria izan da, eta garrantzi berezia izan du enpleguaren sorreran. Horrek ez du zertan oraingoan horrela izan.

6.4. TEKNOLOGIA BERRIAK ETA LANGABEZIA

Langabezia-tasan teknologia berrien efektu netoa zer-nolakoa izango den etengabeko kezka izan da azken hiru mendeotan. Alabaina, ikerketa konparatuak momentuz erakusten digu lurralde baten garapen sozial eta ekonomikoan (per capita errenta, desberdintasunak, langabezia-tasa) aparteko eragina dutela digitalizazioak, langileen formazioak (hasierako ikasketa arautuaz haratago jarduera formatiboetan parte hartzeko erantzukizunak, laneko esperientziak eta lan berrietan aritzeko gaitasunak) eta sektore ekonomikoen dinamismoak.

Historia ekonomikoak ere berresten digu eraldaketa teknologikoak eragin positiboa duela epe ertain-luzera ekonomian eta enpleguan: hasieran, eragina disruptiboa da, baina ordezkapen-efektu horren eboluzio arruntena izan ohi dira produktibitatea haztea, jarduera ekonomiko berria sortzea, eta sektore berritzailetako enplegu eta soldatak hobetzea. Azkenean, aurrerabide teknologikoak eta giza kapitala eskutik hartuta garatu dira, aldi berean osagarri egin direlako produktibitatearen hazkundera eta enpleguaren konposizio sektorialeko eta okupazionalako aldaketak; eraldaketa-prozesuarekin enplegurik jaitsi gabe, beraz.

Horren arabera, formazioak aukera ematen du aurrerabide teknologikoari lotutako gaitasunak bideratzeko (lanpostu kualifikatuak produktibitatea hobetuz) eta laneratzeko aukerak (langabeenak eta gazteenak) errazteko. Epe ertainean, lan-merkatuko aldaketa bakarra enpleguaren konposizioa lan- eta produkzio-sektore berrietan doitu izana litzateke. Hori emankorragoa izan da, gainera, kapitaleko stocka (pertsonek formazioa, kapital fisikoa, aktibo ukiezinak, antolakuntzako berrikuntza, enpresa-sorkuntzako kultura) hobetzeko ahaleaginean politika aktiboetan elkarlaneko ikuspuntuak hobetsi diren eskualdeen kasuan.

Eraldaketa teknologikoek lana eta kapitala eraginkorragoak egitearekin batera, soldatak, kontsumoa eta produkzioa hazi egin dira azken bi mendeotako ibilbide historikoan zehar, eta enplegua sortu da sektore eta lan-arlo berrietan (batzuetan, gaitasun profesional kualifikatuak, eta, besteetan, errentadunen kontsumo-premiak asetzeko jarduerak sortu dira). Gaur artean, enpleguaren mutazioari buruzko prospekzioak joera horien luzapenetan oinarritzen dira, emantzat jotzen baita oro

digitalean ere enplegu-aukera berriak irekiko direla garapen teknologiko altuko sektore eta lan-arloei loturiko alorretan. Alde horretatik, eraldaketa teknologiko berriarekin (digitalizazioa, automatizazioa, robotikan eta adimen artifizialean oinarrituriko garapen teknologikoak), eragin positiboak izango dira enpleguan. Ziurrenik, halere, eragin positibo agerikoenak produktibitatea haztea eta faktore produktiboak modu efizienteagoan garatzea izango dira.

Ikusi egin beharko da, ordea, aurrerantzean ere hala gertatuko den.⁷⁰ Izan ere, hori argituko diguten aldagaiak momentuz galdera gisa soilik formulatu ahal ditugu: zein izango da enpleguaren automatizazio-prozesuaren eskala? Enplegu konplexuen, analitikoaren, zerbitzuen alorrekoen automatizazioa zer neurritan gertatuko da? Nolakoa izango da egitura okupazionala? Saldo netoa positiboa ala negatiboa izango da?

Adimen artifiziala edota robotizazioa zer den eta euren gaitasun potentzialak zein izango diren eztabaidara irekitako auziak dira. Ibilbide sozioteknikoak, gainera, egitasmoei eta mundu desiratuei lotuak ere badaude: makinak gizakien prozesu mentalak erreproduzitzea edo arazoei ikuspegi alternatiboarekin aterabidea ematea bi aukera soziotekniko ezberdin dira.

Eraldaketa digitalak irismen disruptiboa baldin badu enpleguan, izango da robotek eta algoritmoek gaitasun potentziala dutelako pertsonen eginkizunak eremu guztietan –lan kualifikatuari loturiko eginkizunak barne– ordezkatzeko. IKTen eragin garrantzitsua informazioa eskura ipintzea izan zen –informazioa baliabide unibertsala eta irismen errazekoa da, oro har–; bada, iraultza digital berriak aukera emango du makina adimendunek informazioa ezagutza modura erabiltzeko, eta horretan ere giza faktorea ordezkatu da.

Makina adimendunek datuetatik ikasteko gaitasuna duten heinean, ikasten dutena kontrolatzea zailduko zaigu, eta haien erabakitzeke gaitasuna eta autonomia urrats potentziala litzateke, hori gaur-gaurkoz hastapenetan egon arren. Hala izanez gero, historia ekonomikoaren irakaspenak errepikatu daitezzen, ordea, ez da aski izango pertsonak laneratzeko formazio profesionalean inbertsioak egitea, baizik eta pertsonak soilik egin ahalko dituzten eginkizunak asmatu beharko dira.

Izan ere, robotikari eta adimen artifizialari loturiko garapen teknologikoak gai izango balira ekoizpen-faktore tradizionalen eraginkortasuna areagotzeko ez ezik lanpostuak kualifikazio guztietan zehar ordezkatzeko, orain artean ezagutu gabeko egoera batean geundeko. Bestela esanda, eragin bakarra ez da langabeziaren arriskua izango. Horrez gainera, pertsonen laneratzea ezingo da langileen forma-

70. Ikus eta alderatu Acemoglu eta Restrepo 2017b; Autor 2015; Avent 2016; Brynjolfsson eta Mitchell 2017; Chiacchio et al 2018; Frey eta Osborne 2015; Kleinberg et al 2018; Mokyr et al 2015; Moretti 2010.

zio profesionalean eta eraginkortasunean oinarritu, baizik eta enplegu berrien sorreran. Agertokia oso bestelakoa litzateke. Bigarren kasuan, gainera, eskatuko luke ondasun eta zerbitzu berriak sortzea, eta hori ideiak eta produktuak berrituta soilik da posible, balio ekonomikoak enplegua iraunkortu dezan.

Irudikatu besterik ez dago gaur egunean gaitasun informatikoak zenbat jarduera errutinazko egiten dituen: azken lau hamarkadetan zehar, konputerizazioak eskulaneke eginkizun errutinarioak ez zik intelektualak ere automatizatu ditu, eta, areago, berriki, aurrerabide teknologikoa gai izan da adimenaren eta sormenaren konbinazioan oinarrituriko eginkizunak ordezkatzeko (ibilgailu autogidatuak, tratamendu medikoetarako robotak, zerbitzu juridikoak, eta abar). Makinen gaitasun konputazionalarekin batera, gainera, prezioak ere gero eta eskuragarriago daude, eta horren efektuak askotarikoak dira, teknologia generikoa den heinean.

Nolanahi den, agertoki bat edo bestea gertatu, aldea ikaragarria da, eta eraldaketa digitalak lan-merkatuan izango duen inpaktua ulertzeko bi modu ezberdin azaleratzen ditu (Frey 2019).

6.5. AUTOMATIZAZIOA ALA DIGITALIZAZIOA

Dudarik gabe, lurraldearen espezializazio produktiboaren arabera, digitalizazioarekin, lanpostuak automatizatze probabilitatea ezberdina da; enpleguen zaurgarritasuna, epe motzean bederen, nabarmen txikiagoa izango da zuzendaritzako, irakaskuntzako, osasuneko, ingeniarietzako, gizarte-zerbitzuetako, IKTetako eta jarduera zientifiko-teknologikoetako lanpostuetan. Haatik, ekonomia aurreratuetan, automatizazioak –eta susperraldian dauden herrialdeetako lehiak– manufakturarako enplegu tradizioaletako lanpostu eta bereziki eginkizunen galera ekarriko du (baita sektore tertziarioko eginkizun errutinarioetan ere: garraioa, komertzioa, finantzen eta higiezin jarduerak). Alde horretatik, pertsonaren ezaugarri indibidualak badute garrantzia (adina, hezkuntza-maila, antzintasuna, lanpostuko ardura, enpresaren tamaina eta arloa), baina langile baten lanaren konputerizazioa lurraldeko dinamismo ekonomikoaren eta jarduera-sektorearen arabera da hein handi batean.⁷¹

Bestela esanda, lurraldeak garrantzia hartzen du, eta teknologia berrien eraginak

ezberdinak izango dira hazkunde ekonomikoan eta enpleguan. Politikak aktibatuz gero berrikuntza eragiteko –aurrerabide teknologikoak eta automatizazioak inbertsioak eskatzen dituzte jarduera produktibo gisa–, eraldaketa produktiboak langileekin osagarri egiteko, eta pertsonak hezkuntza eta formazio profesionalekin etengabe prestatzeko (hezkuntza-politika, informazio masiboarekin eta robotekin eta algoritmoekin lan egiteko ezagutzak), digitalizazioak joera historikoak berrets ditzake epe motzeko epean bederen.


Estrategia digitalak, ordea, egitura ekonomikoa garatzea ez ezik, arlo askoren garapena eskatzen du, berrikuntza sustatuz, baliabideak modu eraginkorrean aprobetxatuz eta ezagutzan oinarrituriko ekonomien digitalizazioa erraztuz, biztanleko errentan eta produktibitatean emaitzak positiboak lor daitezzen: administrazioan (zerbitzu publiko digitalak, inbertsioak datu irekietan, aplikazio elektronikoa orokortzea), giza kapitalean (herritarren oinarrizko gaitasun digitalak, teknologia berrietako espezialistak, IKTetako tituludunak, STEM diziplinak), azpiegitura digitaletan (banda zabaleko telekomunikazio-sare eta -zerbitzu ultralaster berrietarako sarbidea), edota enpresetan teknologia digitalak integratzea.

Dena den, lurraldeko eragileek inbertsioak automatizaziora bideratuz gero, berrikuntzako ahalegina bigarren mailan utziz eta pertsonari loturiko faktoreak teknologiarekin ordezkatzuz, orduan, galerak nabaritu dira enpleguan, soldatan eta kohesioan, errenten arteko ezberdintasunek hala eraginda. Aintzat hartu beharreko agertokia da, hala ere: automatizazioak, robotizazioak eta adimen artifizialaren ezarpenak eginkizun ugari modu azkar, hobe eta eraginkorragoan egitea ekarri du, baina pertsonen eta teknologien arteko osagarritasuna saihestu eta makinek eta algoritmoek pertsonak ordezkatzeko bilatuz gero, produktibitateak ez du ekarriko balio ekonomikoko lanpostu berririk, enplegurik eta hazkunde iraunkorrik. Lurraldeko enpresetan teknologia berriak xurgatzeko gaitasunaz haratago doa afera, beraz.

Automatizazioa ala digitalizazioa, bi aukera zeharo ezberdin izan daitezke, epe ertaineko horizontean. Azken batean, eredu eta ehun ekonomikoa gaurkotzeko ahaleginak berebiziko garrantzia eman behar die alderdi produktiboari, hezkuntzari eta teknologiari. Halere, agerikoa da, kasurik onenean, enpleguaren eta aberastasunaren sorkuntza netoak berekin ekarriko dituela sektoreen, enpresen eta langile-kategoriaren arabera enplegua eta ordainsaria zeharo modu ezberdinean banatzea ere (arrakala digitala eta haren efektua enpleguaren konposizioan). Ikasgai aparta da gure lurraldearentzat. Aldaketa horiek guztiak ganoraz ulertzea dagokigu, eraldaketaren esanahia hauteman eta lurraldearen garabiderako erronka berri eta bereziak interpretatzeko.



ESKUALDEEN ARTEKO
7 EZBERDINTASUN
HORIZONTALAK

- 
- 7.1. SARRERA**
 - 7.2. ESKUALDEEN ARTEKO
EZBERDINTASUNAK**
 - 7.3. EZBERDINTASUN BERRIAK**
 - 7.4. ONDORIOAK**

7.1. SARRERA

Azken urteotan egiaztatu da eskualdeen arteko ezberdintasunak nabaritu egin direla Mendebaldeko herrialde aurreratuetan (Rosés eta Wolf 2018a, Storper 2018). Horrek baliogabetu egin ditu bizpahiru hamarkadatan baliaturiko postulatu nagusiak; esaterako, arraste-efektuaren bidez (*bandwagon effect*) eskualde dinamikoek atoian eramango zituztela atzean geratuak.

Aurreko bi kapituluetan jasotako ideia teorikoei dimentsio geografikoa gaineratuko diegu oraingo honetan. Horrek balioko digu ulertzeko ezberdintasun horizontalak (eskualdeen arteko ezberdintasunak) nabarmentzen ari direla. Globalizazioaren ekonomia berrian, eskualdeen arteko ezberdintasunak dira fenomeno deigarrienetako bat. Lehen zatian, auzi berezi hori landu eta azalduko dugu, Europari erreparatuta. Bigarren zatian ikusiko dugu ezberdintasunen artean lotura estua dagoela. Kapituluak gaur egungo Europar Batasunari buruzko bestelako ikuspegia izateko ere balioko digu.

7.2. ESKUALDEEN ARTEKO EZBERDINTASUNAK

Azken bi hamarkadetan, manufakturako eskualdeetan eta hiri txiki eta ertainetan, enpleguaren eta ordainsarien beherakada erlatiboa gertatu da, baita hiri horien inguruetan eta nekazaritza-eremuetan ere. Bien bitartean, hiriguneetan kontzentratu dira manufaktura eta zerbitzu aurreratuei loturiko enpleguak, denak ere produktibitate eta balio erantsi altukoak, prestigioakoak, eta ordainsari nagusikoak.

Jarduera industrialaren bertutea eskualde-sakabanaketa izan da (alegia, industria zenbait eskualdetan garatu eta biztanleriaren dentsitatean orekak mantendu izana). Era berean, egitura ekonomikoaren eraldaketak, ondasunen, kapitalaren eta eskulanaren integrazioak, eta teknologiaren zabalkundeak eta elektrifikazioak ekarri zuten (munduko bi gerren etenaren salbuespenarekin) enpleguaren konposizioan industriak eta zerbitzuek garrantzia hartzea XX. mende osoan zehar. Neurri horretan, konbergentzia gertatu zen estatuen artean eta estatuen barruko

eskualdeen artean (1950-1980 hamarraldien artean, bereziki). Mendebaldeko ekonomietako industriak, beraz, eragin positiboak izan zituen aukera-berdintasunean eta belaunaldien espektatibetan, modu orokor samarrean.

Haatik, azken hamarkadetako desindustrializazioak manufakturako eskulana galtzea, errenta-maila txikia eta lekualdatze demografikoa eragin ditu Europako eskualdeetan –industria astuneko eta meatzaritzako eremuetan bereziki– (Hainaut, Wallonia, Haute-Normandie, Nord-Pas-de Calais, eskualde saxoiak), ia kasu gehienetan (esate baterako, makineriako eta automobilgintzako espezialistek egokitzen jakin dute, hala nola Kataluniak, Lombardiak, Stuttgart inguruak). Izan ere, ikatz-meatzaritza eskualdea izateak abantailak ekarri zituen XX. mende osoan zehar (lan-indarraren parte-hartze altua industrian, garapen ekonomikoa), baina, 1960eko hamarraldiaren ostean, industriako enpleguak goia jo, eta, heldutasun industrialarekin batera, beheraldia hasi zen. Industria astunaren ordezkoa finantza-zerbitzuek hartu zuten, aro berriaren ikono gisa, balio erantsiak pisua hartuta, eta bestelako garapen-eredu bat bideratu zen banku handien edota aseguru-konpainien egoitzak biltzen zituzten hiriburu eta hiriguneetan.

Hori gutxi ez, eta per capita errenta baxueneko eskualdeak dira desberdintasun bertikal (pertsonek artekoa) handiena dutenak. Izan ere, eskualde desindustrializatu gehienetan, garabiderako ez ezik, aukera-berdintasunerako politikak ere baliogabetuak daude, azpiegitura zaharkituak, hezkuntza-maila baxuagoak eta zerbitzu publikoen urritasunak eraginda. Halako eskualdeetan errenta hobetzeko aukerak eskatu dira; giza kapitala atxikitze eta talentua erakartzeko zailtasuna erabatekoa da, eta, garapen-maila baxuak azpiegiturarako eta enpresa-sorkuntzarako pizgarriak gogogabetzen dituen heinean, ezberdintasunak areagotu eta iraunkortzen ari dira.

Bien bitartean, metropoli-eremu handietan eta hiri-inguruetan, joera bestelakotu egin da: 1960ko eta 1980ko hamarraldietako gainbehera gainditu, eta jarduera ekonomikorako toki dinamikoak bilakatu dira, han ari baitira pilatzen garabiderako faktore lehiakorak, produktibitatea eta ordainsari altuko enpleguak. 1990eko eta 2000ko hamarraldietan, ziklo ekonomikoen aldaketara ireki eta egokituriko hiriburuak (Londres, Paris, Madril, Amsterdam, Brusela, Kopenhage, Atenas, Varsovia, Budapest, Praga, Dublin) eta hirigune handiek (Bartzelona, Frankfurt, Munich, Rotterdam, Manchester, Göteborg, Malmö, Birmingham, Manchester, Leeds, Porto, Marseilla), hain zuzen ere, enpleguaren konposizio eraberritua eta haren eraginak aprobetxatu dituzte fase berrian. Aitzitik, 2008ko atzeraldia handia baino lehen ekonomiaren bilakaerara ireki gabe sendo antzera mantenduriko eskualdeek beheraldia hasi dute 2008tik aurrera ere (Fratesi eta Rodríguez-Pose 2016).

ESKUALDEA TRANSFORMAZIO GLOBALEN ARGITAN

Azken hogei urteotan, lan-indarraren parte-hartze tasei eta ordainsari errealei erreparatu gero, Europan, dibergentzia ekonomikoa igar daiteke hiri-aglomerazio handien eta hirietatik urrundutako eskualde desindustrializatuen artean. Eskualdeen arteko dibergentziak, neurri batean, egitura ekonomikoaren ziklo ertain-luzeko garapenarekin du zerikusia. Hori ulertzeko, garrantzitsua da, alde batetik, manufakturako industriaren eraldaketa. Lehen kapituluan ikusi dugunaren harira, garraioaren eta IKTen iraultzarekin, lanaren banaketa globala beste era batera egin da, automatizazioa, merkataritza-kostuen merkeagotzea, lekualdatzea eta azpikontratzea direla eta, eta eraldaketa produktibo sakon horrek eremu industrialeko lan errutinarioa eta kualifikazio baxu-ertaina galtzea ekarri du Europan. Bestetik, horri gaineratu behar zaio hiriburuetan eta hiri-sareetan metatu direla berrikuntza zientifiko eta teknologikoaren arloko jarduera intentsiboak eta, hedaduraz, baita pertsonak, enpresak, erakunde formalak eta informalak ere, dentsitate demografiko altuko metropoli-eskualdeetan. Alde horretatik, hirigune handietan aprobetxatzen dira aglomerazioaren eta langile kualifikatuak elkartzearen abantailak.

Analisi zehatzagoa eginez gero, noski, bi poloko diagnostikoa analisi zabarra da, kluster konplexuagoak osa baitaitezke beste faktore batzuk ere aintzat hartuta: jarduera ekonomikoa, ordainsaria, enplegu-tasa, I+G inbertsioa, egitura ekonomikoa, hazkunde-maila, demografia, hezkuntza-maila, espezializazioa, diru-sarrera (gastua, zerga-transferentziak, zerbitzuen eskaria). Baina, guztiarekin, goiko esplikazioak balio du joera nagusiak igartzeko. Izan ere, eskualdeen arteko ezberdintasunak –askotarikoak, Europako eskualdeetan– manufakturako industriaren galerari eta berrikuntza dinamikei emaniko erantzunaren mendekoak dira. Gure asmoetarako, aski da ideia nagusi hori ondo jasota uztea.

2008ko atzeraldiari emaniko erantzun ezberdina horren guztiaren adibidea da: metropoli-eremu handietan eta hiriburuetan, enplegua mantendu eta sortu da; estatuen barruko desberdintasunak eskualde eta eremuka handitu dira (esate baterako, Ingalaterrako ipar-hegoan, Alemaniako mendebalde-ekialdean); eskualde ahulenak okerrago atera dira atzeralditik, eta enpleguaren galera periferietan (Mediterranear Europa, estatuetakoa hiriguneetatik urrundutako eremuak) nabarmendu da. Lehen kapituluan aipatu dugu Europan, patroi ekonomiko berrien testuinguruan, ordainsarien arteko ezberdintasunak hazi direla (ordainsari nagusien igoera, ertainen geldialdia, baxuenen txikiagotze erreala), eta horrek neurri batean 1980ko hamarraldiaz geroztiko eskualdeen arteko dibergentziak esplikatzeko balio digu. Beste hitz batzuetan esateko, ezberdintasun bertikala (pertsonen artekoa) ez ezik, ezberdintasun horizontala (esate baterako, eskualdeen artekoa) ere gertatu da (Rosés eta Wolf 2018b).

Behin joera horiek azalduta, ordea, gogora ekarri behar dugu azken urte luzeotan indarrean egon den ikuspegia. Horren arabera, aberastasuna sortu eta hazkunde ekonomikoa bideratu behar da, gero politika eraginkorrak hobetsi eta pertsonen arteko ekitatea erdiesteko. Ikuspegiaren arabera, eskualde eta hiriguneen dinamisismoak aglomerazio eta dentsitate handiagoa eta esternalitate positiboak eragiten ditu, eta produktibitatearen hazkundeak aukera emango luke banaketa-politika egokiek (ezagutzaren difusioa, laneko mugikortasuna) eskualdeen arteko ekitatea egonkortzeko. Eskualdeen arteko dibergentzia ekonomikoak, baina, balio-gabetua uzten du ikuspegi hori. Europan, politika ekonomiko eta soziala merkatuaren akatsak zuzentzera dago bideratua, baina hazkunde-ekonomia horixetan daude herritarrak laneratu eta gizarteratzeko arazoak, hain zuzen ere. Alde batetik, ezagutzak metatzeko joera du; estatu-mailan, eskualdeen arteko laneko mugikortasuna apala izaten da, eta, gainera, migrazio indibiduala ezagutza-mailaren eta lanbide-profilaren araberkoa da. Bestetik, hazkunde eta aukera-berdintasuna (edo aurre-banaketa) bereizten badira, ekonomiak dinamika propioa elikatzen du; alegia, hazkunde ekonomikoak bere bidea egiten du, neurriak ere (politika ekonomikoa, zergak, azpiegiturak) hartarako diseinatu ohi dira, eta, azkenean, segregazioa areagotu egiten da.

Tokiko edo eskualdeko berezitasunak eta politikak (*place-sensitive policies*) aintzat hartu, aglomerazio eta mugikortasun bakarreko eredu estandarra irauli, heterogeneotasuna sustatu, eta eskualdeak dinamika berrietara ireki ezean, beraz, ezberdintasunek hazteko joera izango dute. Inbertsioa (garapenerako neurriak, baliaideak eta egitasmoak aurre-banatzea), alegia.

7.3. EZBERDINTASUN BERRIAK

Ekonomiaren epe ertain-luzeko zikloari erreparatuz gero, azken hamarkadetan, askotariko ezberdintasunak azaleratu dira, eta horrek, era batera edo bestera, ordainsari pertsonalen arrakala eragiten du, izaera bertikalekoa (pertsonen artekoa) eta izaera horizontalekoa (taldeen edota eskualdeen artekoa).⁷²

72 Bussolo, M., M.E. Dávalos, V. Peragine eta R. Sundaram (2019). *Toward a New Social Contract: Taking on Distributional Tensions in Europe and Central Asia*. Washington: International Bank for Reconstruction and Development / The World Bank; Eurostat (2018). *Eurostat Regional Yearbook*, 2018 edition. Luxembourg: Publications Office of the European Union; OECD (2018). *OECD Economic Surveys: European Union 2018*. Paris: OECD Publishing.

ESKUALDEA TRANSFORMAZIO GLOBALEN ARGITAN

Lehenik eta behin, ezberdintasunen arteko bereizketa egin behar dugu, kontuan hartuz ezberdintasunok orain arteko kapituluetan ikusitako eraldaketa globalen eraginez gertatzen direla. Alde batetik, Europan, herrialdeen arteko errenten konbergentziarekin batera, eskualdeen arteko ezberdintasunak hazi dira (estatuen barruan zein Europako geografia zabalean, hirietan eta nekazari-eremuen artean). Horri estuki lotuta daude, halaber, hezkuntzari, azpiegiturei (errepide-sareak, ekimenduak), zerbitzu publikoei eta inbertsio pribatuei loturiko ezberdintasunak ere. Hori dela eta, ekitatezko arazoei gaineratu behar zaie aukera-ezberdintasunaren erreproduktzioa.

Bigarren ezberdintasuna belaunaldien artekoa da. Hori azaltzeko, garrantzi berezia dute egitura ekonomikoaren bilakaerari loturiko desindustrializazioak eta eraldaketa digitalak. Alde batetik, gazteenen arteko ezberdintasunak handiagotu dira, maila eta ibilbide formatiboek eraginda, eta, eskualdearen arabera, ezberdintasunak nabarmenagoak dira. Gazteen arteko ezberdintasunak 1980ko hamarraldia arteko joerak hautsi ditu. Orain, adin-talde gazteenetan dauden arteko ezberdintasun sozialak nabariak dira, berezitasun erantsi birekin: lehen laneratzeak asko baldintzatu ohi du lan-ibilbidea, eta erosteko ahalmenak ere aldeak nabarmentzen ditu; bestalde, soldata-arrakalari bizitzako kostuen handitzea gaineratu behar zaio.

Bestetik, laneratzeari eta kontratazioari loturiko politikak gazte eta helduen arteko aldeak ere handitu dituzte. Hauek dira arrazoi nagusiak: gazteen lan-hitzarmenetan, proportzionalki altuak dira behin-behinekotasuna, lanaldi partziala eta enplegu bitartekotua; lan-antzinatasuna txikiagoa da, eta lan-hitzarmenen babesa ere bai; langabezia-prestazioa ere zigortzailea da gazteentzat (lanean emaniko denboraren arabera diseinatua dagoen heinean, lan-merkatuko behin-behinekotasunak gazteenei kalte egiten die, baina, era berean, gazteena da langabezia-tasa handieneko adin-taldea); soldata-arrakala beste adin-tarteetako eta bereziki helduena baino handiagoa da; gazteak izaten dira ondasun higiezin iraunkor eta ez-iraunkorretan gasturako eta zorpetzerako joera dutenak.

Horrez gainera, Europan, errenta erabilgarriaren gaineko ezberdintasuna mantendu egin da 2008 urteaz geroztik (65 urtetik gorakoena % 10 hazi da, eta gaintzekoena geldialdian dago). Horri loturik, badago beste joera bat: Europan, oro har, birbanaketako politiketan adinekoen pentsioek dute pisu handiena; alegia, ongizate-politika tradizionalak nagusi dira, eta kontribuzio-pentsioko aseguruan datza transferentzien muina (pentsioei dagokie, batez beste, % 50 baino gehiago, eta atzeraldiaren osteko inbertsio sozialaren igoeraren % 60 pentsioek bereganatu dute). Gai horiek esangura berezia dute transferentzia sozialeko inbertsioek herrialdeko birbanaketa-politikan duten pisuaren arabera (ongizate-estatu sendoetan nabariagoa da, alegia).

Hirugarren ezberdintasun garrantzitsua –eskualdeen eta belaunaldien artekoarekin batera–, enpleguaren konposizio berria dela eta, lanbideen arteko polarizazioa da. Lan-merkatuko dinamiken joera lanbideak bi muturretan indartzea da. Alde batetik, eskulan-enplegu ez-errutinarioak ari dira indartzen, lan-baldintza prekariokoak, soldata baxukoak, produktibitate ahulekoak, eta enplegatuari garapen profesionalerako aukerarik ematen ez diotenak, txandakatze-maila handiarekin. Bestetik, enplegu kognitibo ez-errutinarioa ere hazten ari da, baina horrek formazio eta kapacitazio handia eskatzen du; aldiro berritzeko gaitasuna (enplegagarritasuna) eskaini ohi du, eta, oro har, ordainsari handiena dute. Ezberdintasun horrek –eskualdeko dinamiken oso mendekoa, gainera– soldata-errenten aldea (koefizientea) gero eta handiagoa izatea eragiten du. Baina horri beste eten garrantzitsu bat erantsi behar zaio: errutinazko enpleguak pisu erlatiboa eta absolutua galtzen ari dira. Horrek ere badu garrantzia, orain artean errutinazko enpleguak –eskulaneokoak zein kognitiboak–, gehiengoa izateaz gainera, ordainsari ertaineko lanpostuak ere izan direlako.

Ezberdintasun horiek guztiak inportanteak dira. Izan ere, XX. mendeko bigarren erdialdeko bi dinamika nagusi (aukera-berdintasuna eta erdiko klasea sendotzea) hausten ditu. Gaur egunean, gainera, ikasketa tertziarioak izatea ez da aski faktore laneratze bizkorra eta segurua erdiesteko, eta belaunaldien arteko ezberdintasunak hazi eta belaunaldien arteko mugikortasuna eteteko joerak hauteman daitezke.⁷³ Hezkuntzako inbertsioak badu garrantzia, baina horren eragina aldakorra da, esate baterako, errentaren banaketan, jaiotze-baldintzak (familiaren estatusa, eskualdearen egitura ekonomikoa) eta kapital ukiezinak (sozializazioa, familia-kultura, saretze-gaitasuna) direla eta.

Klase xehearen zaugarritasuna, beraz, ziklo berriko dinamiken argitan ulertu behar da. Ezberdintasunek izaera heterogeneoa dute (ezberdintasuna ez da homogeneoa, alegia), eta pertsonen intentsitate batekin edo bestearekin eragiten die, eskualdearen, belaunaldiaren eta hezkuntza-mailaren arabera; baita familia-ezauzgarrien arabera eta generoaren arabera ere, noski.

Ezberdintasunen arteko bereizketa eginda, ordea, ezberdintasunen hautemate sozialak ere bereizi behar ditugu. Ezberdintasun horizontalak dauden bezala, ezberdintasunei buruzko hautemateak ere modu horizontalean bereizi ohi dira. Horren arabera, esate baterako, gazteengan, ezberdintasunari buruzko iruditerian eta hautemateetan txirotasunak du pisua; oster, erdiko klasean, hezkuntzako gastuak, eta, helduenen artean, laneko baldintzek eta langabeziak. Era berean, errenta-maila berekoen artean, laneko segurtasunak hautematean eragiten du: enplegu ezegonkorra duenak ezberdintasunaren hautemate handiagoa du, eta sektore publikoan lan egiteko lehentasunean ere nabarmen eragiten du.

73 Chen, T., J.-J. Hallaert, A. Pitt, H. Qu, M. Queyranne, A. Rhee, A. Shabunina, J. Vandenbussche eta I. Yackovlev (2018). *Inequality and Poverty across Generations in the European Union*. IMF Staff Discussion Notes No. 18/01.

Errentaren gaineko ezberdintasunak ez ezik, beraz, haiekiko pertzepzioak ere garrantzitsuak dira, politika ekonomikoak gaur egungo aldaketa global eta teknologikoen argitan birpentsatzeko. Asko dibertsifikatu dira baldintza objektiboak eta pertzepzio subjektiboak, eta, neurri horretan, baita batzuen eta besteen eskariak ere.

7.4. ONDORIOAK

Ezberdintasun horizontal eta bertikalek iradokitzen digute Europan badaudela jatorriaren araberako ezberdintasunak (eskualdea eta familia, esate baterako) eta horiek direla pertsonen garapen indibidual eta profesionalaren baldintzatzaile nagusiak, gainera (eskualdea, esate baterako, herentziazko zama da gazteen hezkuntza-mailan edota ikasketa tertziarioak dituztenen laneratze-aukeretan).

Bi arazo bederen agerikoak dira: alde batetik, ongizate-politiken diseinua oso bestelako garaian egina dago (enplegu beteko eta ibilbide profesional iraunkorreko garaian); bestetik, egitura ekonomikoaren transformazio estrukturalak lan-merkatuan ere eragin du (enpleguaren osaera, laneratzea, kontratazioa bestelakotu dira). Guztiarekin, beste konklusio orokorrago bat ere atera liteke: ezberdintasunek, oro har, pertsona, gizatalde eta eskualdeen mugikortasun soziala ixten dute.

Gizarte industrialetan, gauza bat ikasi dugu: errentaren banaketa berdinzalea duten herrialdeetan, finantzazio publikoa dago osasunean, hezkuntzan, asistentziako zerbitzuetan. Hazkundearen ibilbide bati erantzuten dio; alegia, eragin birbanatzaile handiko hazkunde-eredua da. Ez da, noski, hazkunde-eredu bakarra. Beste muturrean legoke hazkunde ipar bakarra izatea (BPG adierazle unidimentsionala baliatuta): hazi eta –balegokio– banatu. Kasu horretan, BPGaren hazkundeak ez du zertan banaketa ekarri, eta, kasurik onenean gehiengoa egoera hobean egon arren (egoera absolutua), pertsonen arteko ezberdintasunak ere hazi egiten dira (egoera erlatiboa). Bi eredu horien arteko talka ideologikoan, Mendebaldeak behin-behineko forma ugariak garatu ditu hamarkada luzeetan. Kapitulu honetan ikusi dugunez, baina, gizarte postindustrialean, gauzak konplexuagoak dira.

Joera-aldaketen garaia bizi dugu, eta, eraldaketa globalen argitan, tokiko politikek lurraldearen garabidean, aberastasunaren sorreran eta gizarte-kohesioan aukera eta erronka berriak dituzte. Azken hiru kapituluetan eskualdearen eskalan ipini dugu arreta. Zehazki, analisi kontzeptuala, teorikoa eta konparatua baliatuta, ikusi dugu Europan eraldaketa produktiboak eskualdeen arteko dibergentzia egonkor-tu eta hedatu duela.

Neurri batean, eskualdeen ongizate-maila tokiko faktore endogenoen eta horien eraginkortasun ekonomikoaren arabera baldintzatuak daude. Zentzu horretan, ekonomia digitalean lehiakortasuneko faktore berri, ugari eta gehiagori une oro erantzuteko gai izatea erronka sistemikoa eta etengabekoa da, baina eskualdearen abantaila konpetitiboan, nazioartekotze-aukeretan edota biztanleko BPGan eragiteko aukerak baditugu. Erronka, ordea, ikaragarri konplexua da. Ikusi dugu eraldaketa produktiboak eskualde industrialetan nola eragin duen, baita eskualdeen arteko ezberdintasun horizontalak zer nolako eraginak dituen pertsona eta giza-taldeen espektatibetan eta aukera-markoetan.

Bukatutzat ematen dugu liburuaren atal teoriko eta kontzeptuala. Garrantzitsua da eraldaketa globalak eta bere eraginak europar-eskualdeetan ganoraz ulertzea. Horretaz jabetzea izan da orain arteko kapituluaren xedea. Hemendik aurrerako orrialdeetan gure herriaren egitura sozialean eta ekonomikoan arreta ipiniko dugu.

ERALDAKETA GLOBALAK ETA ESKUALDEEN GARAPEN SOZIALA ETA EKONOMIKOA

Euskal gizartea aro ekonomiko berrian



LURRALDEKO ERRONKA
EKONOMIKOAK:
8 ERAGILEEN
8 DISKURTSOAK





8.1. IKERKETAREN HELBURUAK

8.2. AUZI METODOLOGIKOAK

8.1. IKERKETAREN HELBURUAK

Ikerketaren helburu orokorra zera da: ezagutzea Gipuzkoako lurraldeak eta tokiko eragileek zer-nolako desafio eta aukerak dituzten teknologian, gobernantzan, negozio-ereduan, finantzazioan eta, oro har, lehiakortasun-faktoreetan.

Halako helburu bati erantzuteko bideak askotarikoak dira: berrikuntza-sistemako erakundeak, lehiakortasunerako programa, tresna eta baliabideak, edota eragileen interes eta gaitasunak azter daitezke, esate baterako (ikus, gure kasurako, besteak beste: Morgan, 2016; Uyarra et al., 2017). Ikerketa honetan, ordea, arreta ipini dugu lurraldeko eragile nagusiek Gipuzkoaren erronkei buruz dituzten diskurtsoetan. Zehazki, aztergai izan da Gipuzkoako lurraldeko eragileek fenomeno sozioekonomikoei buruz egiten duten interpretazioa.

Hainbat dira eragileen diskurtsoak ezagutzeko arrazoiak:

- Alde batetik, kultura eta printzipio subjektiboak garrantzitsuak dira jarduera ekonomikoa. Izan ere, eragileen ikuspuntu eta diskurtsoek garrantzi estrategikoa dute, ekonomiak dimentsio kulturala ere badu eta;
- horri lotuta, bestetik, etorkizunari buruzko narratibak, alde edo molde, eragina izaten du errealitatean. Esate baterako, eragileen gogo-aldarte, aurrera begirako motibazioa eta aspirazioa, konfiantza edota diskurtsoa inportanteak izaten dira estrategiak diseinatu, ekintza-planak bideratu edota baliabideak esleitzeko orduan;
- azken batean, eragileen estrategiak (intentsitatea eta orientazioa) ulertze aldera, modu partzialean bada ere, diskurtsoak aztertzea lagungarria da.

Eragileen interpretazioek aparteko garrantzia dute, gainera, gizartearen egiturak, balioak eta printzipioak etengabeko aldaketan dauden garai hauetan. Izan ere, ibilbide egonkor, jarraitu eta aurreikusgarriak pitzatu egiten direnean, ezohiko garrantzia hartzen du giza eragileek ziurgabetasunean eta konplexutasunean orientatzeko gaitasun estrategikoak. Beste era batera esanda, eragileen ikusmolde, hautemate eta jarrerak –aldagai estruktural eta instituzionalekin batera– lurraldearen desafioak interpretatu, aterabide bat edo bestea hautatu, eta modu

efektiboan garatzeko erabakiak zedarritzen dituzte. Azken unean, lurraldeko gaitasun estrategikoak eragileen arteko konfiantza, motibazio, espektatiba eta errepresentazio partekatuek ere orientatzen dituzte. Era berean, balio digute jakiteko zein paisaia kognitibo, sentimental eta emozionaletan hartzen dituzten eragileek erabaki garrantzitsuak.

Zehatzago esateko, lurraldearen gaitasun estrategikoa, neurri batean, bi aldagairi dago estuki lotua:

- bata erreflexibitatea da (eragileek nola hartzen dituzten aintzakotzat euren buruak eta beste eragileak testuinguru sozialean, eta eragileek nola hausnar-tzen duten testuinguru sozialari buruz euren egoera eta aukeren argitan);
- bestea erlazionalitatea da (eragileen harreman sozialen multzoa eta harremanen arteko erlazioak eta haien kalitatea eta intentsitatea, hain zuzen ere).

Erreflexibitateak eta erlazionalitateak lurraldeko eragileen gaitasun estrategikoa –hobetu eta haztea– orientatu ohi dute ziurgabetasun- eta konplexutasun-testuinguruetan. Gauzak horrela, lurraldeko eragileek desafio teknologiko eta ekonomikoari erantzuteko gaitasuna, besteak beste, testuinguruarekin harremanetan egoteko moduak ere baldintzatu ohi du. Ikerketak auzi horietaz galdegin du.

8.2. AUZI METODOLOGIKOAK

Ingurumari teknologiko eta ekonomiko berria bere tokia egiten ari da, eta lurraldeak erronka ugari ditu berrikuntza-sistema eraberritu eta enpresen arteko lankidetzak sustatzeko, talentua sortu, atxiki eta erakartzeko, edota enpresa-kulturaren kudeaketa parte-hartzaileagoa lortzeko. Izan ere, ekonomia globalean, herrialdeen ongizatea, kohesioa eta bizitza-maila lurraldearen, faktore endogenoen eta haien eraginkortasun ekonomikoaren araberakoa da neurri batean. Era berean, munduan gertatzen ari diren eraldaketa global, sakon eta orokorrek balio ahal digute gure lurraldearen neurriaz jabetzeko eta egitasmo egingarri eta lorgarriak diseinatzeko ere. XXI. mendean, aberastasunaren sorrerak eta hazkunde inklusiboak aukera eta erronka berriak ditu.

EUSKAL GIZARTEA ARO EKONOMIKO BERRIAN

Liburu hau eztabaida hori aberastera dator. Horretarako, lurraldeko eragile nagusiek egitura sozioekonomikoari eta jarduera ekonomikoari buruz zer diskurtso eta iritzirik dituzten jakin nahi izan dugu, Gipuzkoako jarduera ekonomikoaren aukera, zailtasun eta erronkak ulertze aldera. Liburuan arreta egitura sozioekonomikoari ipiniko zaio bereziki. Xede horrekin, bi ikerketa-teknika nagusi baliatu dira: elkarrizketak eta eztabaida-taldeak, biak ere erdi-egituratuak eta irekiak, 2017. urteko udaberrian eta 2018ko lehen seihilekoan zehar eginak, liburu honen kapitulu teori-koetan azaldukoak ideia orokorrak kontuan hartuta (6. taula).

Orotara, 91 pertsonak parte hartu dute: hamaseirekin, elkarrizketak egin dira, eta, gainontzekoekin, hamahiru eztabaida-talde osatu dira. Lurraldeko eragile sozioekonomikoen hautaketa hiru irizpideren arabera egin da:

- alde batetik, berrikuntza-sistemaren helizeak (gobernu eta administrazioak, ezagutza, formazio- eta ikerketa-erakundeak, finantza-entitateak, enpresak) hartu dira aintzat;
- bestetik, kontuan izan da ikuspegi historikoa eta belaunaldien artekoa. Horrek balio du ulertzeko zer-nolako jarraitutasun, etenaldi eta berrikuntzak izan diren lurraldeko sistema produktiboaren birmoldaketan eta berpiztean eta, oro har, lurraldeko ekonomia modu etengabearen eraldatzeko bokazio eta gaitasun estrukturallean;
- azkenik, berrikuntza-sistemaren eragile modura, kontuan hartu dira, sistematikoki eragileak ez ezik, sistemari buruzko aditu eta ikertzaileak ere.

Liburuan ezin dugu ikerketak emaniko guztia landu eta garatu. Hori dela eta, gai batzuei ipiniko diegu arreta. Irakurketa errazteko asmoz, lau kapitulu bereiziko dira: lehendabizi, ikuspegi historikoa baliatu eta 1970eko egiturazko krisia eta bere eragina euskal industrializazio-prozesuaren argitan interpretatuko dugu (9. kapitulu); gero, gaur eguneko egitura sozialari eta ekonomikoari arreta ipiniko diegu (10. Kapitulu), oraindik orain azaleratu zaizkigun erronkak identifikatu, garatu eta eztabaidatu aurretik (11. Kapitulu); bukatzeko, enpresek lehiakortasuneko testuinguru berrian zer nolako aukerak dituzten azalduko dugu (12. kapitulu). Lurraldearen garabide sozial eta ekonomikorako garrantzia bereziki hainbat gai –enpresari loturikoak, bereziki- liburuan aipatu gabe utziko ditugu.

6. taula: Elkarrizketa eta eztabaida-taldeetarako gidioa

Dimetsioa	Kategoria	Adierazleak
Zein da partehartzailearen ikuspegi orokorra? (Kultura ekonomikoa)	Nola deskribatzen du errealitate soziala?	Egitura soziala Kultura morala eta berrikuntza produktiboa Gizarte-kapitala Aldaketa soziala Globalizazioa eta lurraldeko botereak
	Zein da garapenari, lehiakortasunari eta haren ardatzei buruzko irakurketa?	Eragile sozialak Kultura Ehun produktiboa Berrikuntza-sistema Instituzioak
Zein da partehartzailearen balorazioa lurralde-dinamikei buruz? (Lurraldearen kontzeptualizazio ekonomikoa)	Nola ulertzen da lurraldea garapen eta lehiakortasun ekonomikoan?	Makroekonomia Giza kapitala Industria Gobernantza Baliok
	Zein dira herrialde baten helburuak? Nola kontzeptualizatzen dira?	Lehiakortasuna Ongizatea Irekiera Eraginkortasuna
	Zein da eragileen tokia, garrantzia eta funtzioa lurralde-dinamikan? Nolako harremana izan behar dute eragileek?	Estrategia Lankidetzeta Ikaskuntza
Zein da lurraldeari buruzko irakurketa? (Gipuzkoako lurraldearen diganostikoa)	Nola baloratzen da Gipuzkoako lurraldeak ekonomia modu etengabearen eraldatzeko dituen bokazio eta gaitasun estrukturala?	Ibilbidea Erronkak Eraldatzeko gaitasuna Ituna Prospekzioa

Iturria: egileak ondua



EGITURA SOZIAL ETA
9 EKONOMIKOAREN
ERALDAKETA

- 9.1. SARRERA**
- 9.2. EGITURA SOZIO-
EKONOMIKOAREN ERALDAKETA**
- 9.3. ERALDAKETAREN INPAKTUAK**
- 9.4. OPAROTASUNAREN IRUDIPENA**
- 9.5. ERALDAKETA BERRIRAKO
AHALEGINA**
- 9.6. KONTRAESANEN AZALERATZEA**
- 9.7. ATZERALDI HANDIAREN OSTEKO
BERRESKURATZE GELDOA**

9.1. SARRERA

Azken lau hamarkadetan, EAEn egitura sozial eta ekonomikoak bestelakotu dute intentsitate eta sakonera handiko krisiek, eraldaketa teknologikoei eta lan-merkatuaren eta lanbide-egituren eboluzioek. Euskal erakundetze-prozesuaren hastapenetan, 1980ko hamarraldian zehar, transformazio produktiboak eta Europako integrazio ekonomikoak biziraupeneko erronkei aurre egiteko beharra azaleratu zuten, baina, pixkanaka, herri-erronkak aldatu egin dira, eta, Europarekin, konbergentzia sozioekonomikoa berreskuratu dugu.

Gaur egungo egitura sozial eta ekonomikoak ulertze aldera, kapitulu honetan, lehenik eta behin, arreta ipiniko dugu XX. mendeko industrializazio-prozesuan eta 1970eko hamarkadaz geroztiko transformazioetan. Atzera begiratzeak gaur egungo errealitatea esplikatzen balio digu. Horren ostean, eraldaketa berrien eraginei zehatzago erreparatuko diegu, eta euskal erakundetze modernoaren ziklo berantiarrean 2000ko hamarraldiaz geroztik azaleraturiko erronka nagusiak ezagutuko ditugu. Datozen urteotan aurretik izango ditugun herri-egitasmoen aukera eta zailtasunek egiturazko izaera dute, eta horiek ibilbide historikoaren mendekoak dira, hein batean.

Solasaldietan, une oro azpimarratu da perspektiba historikoa izatearen garrantzia. Hori dela eta, azalpen historiko orokorra eskainiko da, eta xede nagusia egitura sozioekonomikoaren bilakaeraz jabetzea da. Kapituluaren azken zatian, 2008ko atzeraldiaren osteko berreskuratze- eta onbideratze-sasoian buruzko argibideak emango dira. 2017ko udaberrian eta 2018ko lehen seihilekoan zehar egin dira solaskideen elkarrizketak eta eztabaida-taldeak, eta garai hori ere ezaugarrituko dugu, hurrengo kapituluetan edukien analisiari ekin aurretik. Izan ere, solaskideen gogo-aldartea eta kezak ulertze aldera, ezinbestekoa da ekonomiaren onbideratze-sasoien erradiografia egitea.

9.2. EGITURA SOZIOEKONOMIKOAREN ERALDAKETA

1970eko eta 1980ko hamarraldietan zehar, gizartea eta ekonomia berregituratzeko premiak eta agertoki postindustrialerako erronkak azaleratu ziren herrialde aurreratuetan. Liburuaren lehen blokeko kapituluetan eman ditugu horri buruzko argibideak. EA Eren kasuan ere, industrializazioa eta heldutasun industrialeko prozesua garatzeko aukerak izan ditugun heinean, egitura sozioekonomiko berri-rako trantsizioak gutxi-asko modernizazioaren patroia klasikoei jarraitu die, testuinguru politiko eta instituzionalak erabat baldintzaturiko giro partikularrean, betiere.

Atal honetan, industrializazio-prozesuaren eta hari loturiko egitura sozioekonomikoaren diagnostiko orokorra eskainiko da. 1970eko hamarkadan euskal gizartea bestelakotu duten eraldaketa produktiboak eta gaur egungo egiturazko arazoak ulertzeko ere balioko digu.

9.2.1. Industrializazio-fasea

Mende luze bateko epean, bereziki Bilbo inguruan eta Gipuzkoan, industria modernoa sortu eta garatu zen; heldutasunera iritsi, eta, XX. mendeko azken here-nean, industria krisialdian sartu zen, ordea. Araban eta Nafarroan, industrializazioa berantiarra izan zen, eta espezializazioak eta berrikuntza teknikoak Mendebaldeko krisia samurrago kudeatzeko aukera eman zien.

Industrializazioaren hastapenak Bilbo inguruan nabarmendu ziren, burdingintzarekin lehendabizi (labe garaiak; trenbide-sareak itsasadarreko zamaketa-kaietaraino, mea garraiatzeko; Ingalaterra, Belgika eta Frantziarekin eginiko negozio oparoak), eta ontzigintzarekin geroxeago. Gipuzkoan, apalagoa izan zen burdingintza-prozesua (Bergara, Elgoibar, Vera-Iraeta, Beasain), baina trenbide-lineak garaiz iritsi ziren lurraldeko eremu gehienetara, eta, lehen sasoietatik, herrialdearen berezitasunak izan ziren –Bizkaian ez bezala– industria lurralde osoan sakabanatzea eta tokian tokiko espezializazioa. Alde horretatik, Gipuzkoan, industria sendoagoa izan zen

EUSKAL GIZARTEA ARO EKONOMIKO BERRIAN

transformazio metalikoetan (Eibar inguruan, arma laburrerako birmoldaketa; Debagoiengan, sarrailagintza), eta papergintzan (Tolosan eta Oria ibaian zehar lehendabizi) eta ehungintzan (Errenterian, Bergaran, Billabonan, Tolosan). Era berean, XIX. mendearen azken bi hamarkadetako biztanleriari erreparatuz gero, zera ikus daiteke: 1880ko hamarraldiaren hasieran, Bizkaian 190.523 pertsona zeuden; hurrengo bi hamarkadetan, berriz, % 24 eta % 31,1eko hazkundera gertatu zen (1900. urtean 312.087 izatera heldu zen); Gipuzkoan, hazkunde-tasak apalagoak izan ziren –% 8,8 eta % 7,7, hurrenez hurren–, eta biztanleria 167.207 pertsonatik 195.850 pertsonara pasatu zen.

Garai oparoak XX. mendeko lehen herenean luzatu eta nabarmendu ziren. Lehendabizi, Gerra Handiarekin (1914-1918): estatuen arteko gerra-giroan, inportazioen geldialdia eta esportazioen hazkundera zela eta, itsasertzeko tailerrak egonkortu eta ontziola modernoak zabaldu ziren, eta negozioak oparotasun handiko garaia bizi izan zuen. Horren ondoren, garai oparoa etorri zen Primo de Riveraren diktadura militarrekin ere (1923-1930): protekzionismoak eta politika ekonomiko interbentzionistak herri-lanetan (obra hidraulikoak, errepideak, burdinbideak, elektrizitatearen zabaltzea) izan zuten eragin behinena, 1920ko hamarraldiaren nazioarteko ziklo ekonomiko hedatzailearen testuinguruan.

Bizkaian, garai horretan, alde batetik, ontzi-enpresen goraldia izan zen, eta, bestetik, dibertsifikazioaren alde egin (ekipo-ondasunak eta material elektrikoa, galdaketa- eta forjaketa-sektorea), eta industrializazio-fenomenoa hainbat eskualdetara hedatu zen (Zornotza, Durango, Markina, Gernika). Gipuzkoan, lehenagoko tailer handiekin batera (CAF –Beasain, 1861–, Unión Cerrajera –Arrasate, 1906–, Patricio Echeverria –Legazpi, 1907–), enpresa ugari sortu ziren; batzuek sona berezia izan zuten, eta, Eibarko modernizazio produktiboaren ondoan (bizikleta, josteko makina, burdineria), herrialdeko eskualdeak alor berrietara zabaldu eta espezializatu ziren: altzairu-produkzioa (Zumarraga, Legazpi), bakailao-arrantza eta arrantza-faktoria (Pasaia), altzari-fabrikak (Urola Erdia, Zarautz), elikadura-industria (Donostia, Errenteria, Tolosa, Ormaiztegi, Zegama), ontzigintza (Pasaia, Orio, Hondarribia, Zumaia), eta orobat erreminta eta material elektrikoa.

Mendearen lehen hiru hamarkadetan, industrializazioak biztanleriaren bilakaeran ere utzi zuen arrastoa. 1900. urtean, Bizkaiak 312.087 eta Gipuzkoak 195.850 biztanle zeuzkaten, eta hazkunde-erritmo altuko tasak (% 12,4 eta % 18,4 artean); 1930. urtean, bi lurraldeotako biztanleria 485.969 eta 302.329koa zen, hurrenez hurren. Bizkaian, lehen hiru hamarraldietan, hazkunde-tasa % 12,4, % 17,0 eta % 18,4koa izan zen; Gipuzkoan, berriz, % 15,7, % 14,1 eta % 16,9koa. Hazkunde errealean, garrantzitsuak izan ziren hazkunde begetatiboa (heriotza-tasaren jaitsierak

eraginda) eta migrazio-mugimendua, eta, Bizkaian, bereziki Bilbo inguruan bildu zen; Gipuzkoan, ostera, industria-bilakaeraren antzera, hazkunde demografikoa ere orekatua izan zen bailaraz bailara. Bestalde, Araban, hazkunde-tasak apalagoak izan ziren (1930ean, % 5,5); bereziki Laudion eta inguruan (Bilbo inguruko sakabatatze industrialaren lehen zantzuekin) eta Gasteizen bildu zen, eta orduz geroztik hasi ziren lurraldean dentsitate txikiko eskualdeak egonkortzen.

1930eko amaieratik aurrera, erregimen frankistak, auto-hornikuntzan oinarrituz, politika ekonomiko berezia ezarri zuen Espainian: lan-merkatuaren kontrola, zerga-ezarpen txikia eta gastu militarren lehentasuna, muga argiak esportazioari eta kanpo-finantzaketari, salneurri eta merkatugaien kontrola, Estatuaren esku-hartze produktiboa lehentasunezko sektoreetan, inbertsio industrialaren kontrola. Horrek modu askotan eragin zuen euskal ekonomian: lehenik, euskal lurraldeetarako ez zen Espainiaren garapen-planetan ez arlo estrategikorik izendatu, ez interbentzio-politika zuzenik aplikatu, ez eta fabrika berririk bultzatu; bigarrenik, euskal industriak Espainiako merkatua bereganatu zuen, atzerriko lehiarik gabe, baina esportazioarako aukerak ere itxita; hirugarrenik, transformazio metalikoen industria sendotu zen –aldeaz edo moldez elektrizitate-hornikuntzari eta tresneria mekanikoa berritzeari loturiko zailtasunak kudeatzen asmatzeagatik– (i.e. Ucin); Elgoibarren, makina-erreminta sektorea sortu zen; Deba Haran osoa osagaien hornikuntzan espezializatu zen, automobilen industria laguntzaile modura (osagaien hornikuntza); eta etxetresna elektrikoaren eta etxeko tresnen alorra ere sektore berri modura egonkortzen hasi zen; Zarautz altzarien arloan nabarmendu zen, eta, bien bitartean, papergintzan eta ehungintzan, aukera izan zuten kasuetan, ez zuten dibertsifikazioarako urratsik egin. Garai haietan, halaber, metalurgiaren alorrean, Aceros Aristrain altzairuaren galdaketarako enpresa sortu zen (1955), Olaberriaren.

Industria-autarkiaren (1939-1959) garai horretan, ordea, bestelako joera ekonomikoak ere izan ziren. Lehen une batean, Mendebaldearen 1950eko berreraikuntza-sasoari etekina ateratzea lortu zen. Izan ere, ekoizpen industrialak hazkundera izan zuen, politika ekonomiko frankistaren behin-behineko malgutzeak aukera eman zuelako atzerriko finantza-laguntza onartzeko, esportazioa bideratzeko, eta petrolioaren eta ekipo-ondasunen inportazioa errazteko. Alabaina, urte gutxi aski izan ziren lehen arazoak azaleratzeko, erregimen frankistaren politika ekonomikoa zela eta: enpresa-dinamismoaren eta inbertsio pribatuaren eskasia (esku-hartze publiko handiko ekonomia), Estatuaren barne- eta kanpo-defizita, inflazioaren hazkundera eta pezetaren truke-tasa gainbaloratua, besteren artean. Horrek ekarri zuen, Europa berreraikitzen ari zenez eskaria handia zen garai batean, aukera ekonomikoen galera ez ezik, egiturazko arazoak azaleratzea ere: industriaren produktzio-ahalmenaren eskasia eta beren ahalmenaz azpitik aritzea, hornidura-ara-

EUSKAL GIZARTEA ARO EKONOMIKO BERRIAN

zoak, inbertsioen etetea, energiaren eskasia, garapen teknologiko ahuleko egitura ekonomikoa. Garai horretan dagoeneko euskal ekonomiaren bi arazo estruktural pixkanaka azaleratzen hasi ziren, gainera: batetik, produktuen lehiakortasunerako zailtasuna, eta, finantza-ahalmen arrazionalizazioari, instalazioen mekanizazioari aurre egin ezinda); eta, bestetik, elite frankistak enpresa-egoitza nagusiak eta erabakiguneak botereguneetara lekualdatzea; euskal geografian, aldiz, produkzio-zentroak eta eskulana mantendu ziren.

Euskal industriaren egoera 1960ko hamarkadan zehar onbideratzen hasi zen, oraingo honetan ere Espainiako bilakaera koiunturalak hala eraginda. Izan ere, politika ekonomiko frankistan, kanpoko sektorearen arloko egokitzapenak direla eta (atzerriko kapitalaren sarbidea, emigranteen dibisa-bidalketak, turismoaren goraldia, bereziki), hobekuntzak hasi ziren kanpoko merkataritza-balantzaren defizitean, eta, horrenbestez, industria-jarduerak ere aukera izan zuen petrolioaren, ekipo-ondasunen eta lehengaien inportazioa areagotzeko. Horrek euskal industriari aukera eman zion sasoi hartako bolada mesedegarria (Europaren berreraikitzea eta Espainiaren modernizazio pixkanakakoa eta, beraz, hazkunde ekonomikoa) aprobetxatzeko. Garai nahasgarriak izan ziren, ordea: 1959. urteko Egonkortze Planak mugak irekitzea ekarri zuen, eta Garapen Planarekin (1964-1975), aldiz, ostera ere autarkia sendotzeko ahalegina egin zen, Espainiako merkatua babestu eta esportaziorako zerga-estutzeak berariaz bultzatuta.

Hori dela eta, bi enpresa tipo egonkortu ziren: batetik, garai berrira egokitu eta handitzeen bidez ekipo-ondasunen produkzioarekin barne-merkatuan lehiatzen zirenak (etxetresnei eta garraioen ekipamenduari loturiko lantegiak); bestetik, tailer txikiak, zeinak sektoreka eta eskualdeka espezializatu baitziren landa-kapitalari eta formazio profesionaleko eskulanari esker (makina-erreminta, automobilen osagarriak, altzarigintza, etxetresna elektrikoak, etxeko burdineria). Gainontzean, garai hartan, euskal ekonomian, industria sendoak izan ziren automobilgintza eta ontzigintza, eta petrokimikaren sektorea agertu zen.

Gipuzkoari erreparatuz gero, Debarbarrenak bilakaera izan zuen, baina Eibar aldiro aitzindaria izan da (enpresa-sorkuntza, kapital soziala, berrikuntza-gaitasuna), eta haren industria-eremua 1960ko hamarkadan zehar Elgoibar, Soraluze eta Bergara alderaino hedatu zen. Ikusi dugu, gainera, herri horiek badituztela euren berariazko espezializazio-alorrak ere. Debagoienean bereziki, Arrasateko Kooperatiba Esperientziak bidea egin zuen, eta, 1960ko eta 1970eko hamarraldietan, fabriken ugaritzeak eta orografiak bailarako herrien arteko hazkunde bertikala eragin zuen (Arrasate, Aretxabaleta, Eskoriatza). Zumarraga, Legazpi, Urretxu eta Azkoitia es-

pezializazio bakarreko eremu industrialak ziren (metalurgia-jarduera), baita Urola Kostako Azpeitia eta Zestoa ingurua eta Zarautz ere (altzarigintza). Metalurgiak eta artikulu metalikoek aparteko pisua zuten Goierrin, baita garraio-materialak eta makineriak ere; Orian, papergintzak garrantzi handia izan zuen, eta aurrerago industrializatu ziren hiriburua inguratzen duten herriak, modu dibertsifikatuan.

Industria-ondasunen ekoizpenaren hazkundera igar daiteke, hain zuzen ere, jardun ekonomikoan industria goiztiarra egonkortzearekin (Gipuzkoan, eskualdeak sektoreka espezializatuz, eta Bizkaian) eta industria berantiarra hedatzearekin (Nafarroan, eskualde-buruak industrializatuz, eta Araban, berriz, hiriburuko auzoetan industrialdeak sustatuz edota Aiara, Oion eta Zanbranaren kasuan inguruko herrialdeetako merkatu-dinamikak aprobetxatuz). Foru-ekimenak, gainera, Araban eta Nafarroan, sustapen industrialerako programak bideratuz, aukera eman zuen zerga-erregimenaren bidez zerga-beherapenak arautzeko, lanbide-heziketa garatzeko, eta industria-lurzorurako eskaintza eta plangintza baliatzeko, eta, bi hamarkadako epe laburrean, espezializazio berriko industria garatu zen. Arabaren kasuan, esate baterako, 1950-1970eko hamarraldietan sortu ziren Forjas Alavesas (1951), DKW (1952), KAS (1955), Laminaciones Arregui SL (1958), Tubacex (1963), Michelin (1966), Tubos Reunidos (1968) edota Gamesa (1976), besteak beste.

Bestalde, ekoizpen industrialaren sasoi oparoa 1950-1970eko hamarraldietako oreka demografiko berrian ere igar daiteke. Esate baterako, berreraikuntza-urteetan, industria-hedapenaren prozesuak eta landa-eremuaren mekanizazioak migrazio-fluxua eragin zuen industriaguneetara, eta, horrez gainera, Gaztela Zaharretik, Extremaduratik, Galiziatik eta Andaluziako mendebaldetik etorritako biztanle berriekin, eskulana gaztetu, ugalketa-ahalmena gehitu, eta hazkunde demografikoa berehalakoa izan zen.

Altxamendu militarrek, gerrak eta gerraosteak arrastoa utzia zuten biztanleriaren hazkundera: 1930eko hamarraldian, Bizkaian % 5,3 eta Gipuzkoan % 9,7 hazi zen; 1940ko hamarraldian, berriz, % 11,3 eta % 12,7. Baina, hurrengo hamarkadetan (1950-1970), biztanleriaren bilakaera eta hazkundera intentsitate handikoa izan zen. Industrializazioa herrialde guztietan garatu zenez, gainera, hedapen demografikoa ere orokorra izan zen, balantze begetatiboaren hazkunde positiboak eta migrazio-prozesuaren bizitasunak hala eraginda. Bizkaian eta Gipuzkoan, XX. mendearen lehen erdialdean zehar, industrializazio goiztiarrak hazkunde demografikoa eragin zuen, baina hori are nabariagoa izan zen 1950-1970eko hamarraldietako industrializazio bizkorrarekin, eta, bi hamarraldi horietan, pixkanaka Araban eta Nafarroan ere hauteman zen.

EUSKAL GIZARTEA ARO EKONOMIKO BERRIAN

1950eko hamarraldian, biztanleria Araban % 16,6 (122.172 biztanle, orotara), Bizkaian % 32,5 (569.944, orotara) eta Gipuzkoan % 27,9 (374.040, orotara) hazi zen, eta apalago Nafarroan (% 5,0). 1960ko hamarraldian, berriz, Araban % 45,3 (142.435, orotara), Bizkaian % 38,2 (755.139, orotara) eta Gipuzkoan % 31,9 (478.337, orotara) hazi zen, eta Nafarroan ere % 15,6ra heldu zen (402.042, orotara). Gipuzkoan eta Bizkaian, bi hamarraldietan nabarmena izan zen migrazio-saldo positiboa, eta, Araban, 1960ko hamarraldian.

Horrekin batera, saldo naturalak bereziki eragin zuen biztanleriaren hazkundera: luzaroan bezala (1918-1920 –gripe-pandemia– eta 1936-1940 –Espainiako gerra zibila– urteetan salbu), heriotza-tasak behera jarraitu zuen, baina, horretaz gainera, 1940ko biztanleriaren goranzko joerak jarraipena izan zuen 1960ko hamarraldian. 1940ko goranzko joera biztanleria galdu osteko fenomeno arrunta da gerran (miseria gainditzen hasi eta berreskuratze ekonomikoak eragindako gogo-aldartean), baina azpimarratzekoak dira goranzkoaren jarraipena eta horren berezitasuna: 1955etik aurrera bertaraturiko etorkinen hazkundera profil berezia du (gazteak dira; ezkontzeko adinean daude; industria garapen-prozesuan dago), eta, 1950-1970 hamarraldietako saldo natural handiekin, jaiotza-tasa EAEn % 19,1era iritsi zen 1976an (41.100 jaiotza); Gipuzkoan, % 19,6ra (13.367), Araban % 20,1era (4.809) eta Bizkaian % 19,8ra (22.075).

Hazkunde demografikoa ulertzeko, hain zuzen ere, garai hartako migrazio-mugimenduak garrantzitsuak dira. 1955etik aurrera, hogeituro urteko epean, migrazio-saldoak positiboak izan ziren. Izan ere, etorkinak lau aldiz gehiago ziren, emigratzen zutenekin alderatuta. Adibidez, 1962-1975 epean, Bizkaiko migrazio-saldoa 152.398 pertsonakoa zen (% 19,15), Gipuzkoan 60.774 pertsonakoa (% 12,47), Araban 53.686 pertsonakoa (% 19,25) eta Nafarroan 20.180 pertsonakoa (% 8,13). 1970. urtean, Bizkaiko biztanleriaren % 35,4 Espainiatik etorritakoa zen, Gipuzkoan % 26,6, Araban % 30,6 eta Nafarroan % 15,3.

EAEko biztanleria, 1900ean 601.975ekoa izatetik 1975. urtean 2.038.254koa izatera pasatu zen –eritmoaren eta prozesuaren intentsitatea bistakoak dira–, eta XIX. mendearen bukaeratik zetorren hazkunde demografikoak industriaren garapena berretsi zuen (biztanleria, alde batetik, produkzio-faktorea zen, eta, bestetik, baita produkzio-hazkunderaren hartzailea ere). Orobat, industrializazio-prozesuak eskutik izan zituen Mendebaldeko Europa osoan produkzioaren eta biztanleriaren hazkunde orokorra, eta hedapen horren berezitasunak euskal herrialdeetan ere ikus daitezke: Bizkaian eta, modu apalagoan, Gipuzkoan, hazkundera etengabea izan zen, eta, Araban eta Nafarroan, hasierako balantze demografiko ahula (populazioaren galera edo hazkunde geldoa, migrazio-mugimenduak, eskulanaren

emigrazioa) XX. mendearen hirugarren hereneko hazkundearekin bestelakotu zen. 1950-1980 urteen artean, berriz, Espainiako herrialdeetatik EAera 524.402 pertsona bertaratu ziren (1980ko biztanleriaren % 24,1ren baliokidea).

Guztiarekin, alde batetik, eskualdeen garapen industrialari estuki lotuta, herrialde bakoitzeko dinamika demografikoa berezia izan zen. Era berean, bigarrenik, herrialde bakoitzeko garapen industrialak biztanleriaren kokapenean eta espazioan eragin zuen: Bizkaian, hasieratik, joera nagusia populazioaren metaketa izan zen (hiriburuan eta haren inguru zabalean); geroago, Araban, nabaria izan zen Gasteizen hazkundera (ikus bezala, Bilboko industrializazioak Aiaran eragina izan arren garapen industrial berantiarra hiriburuko auzoetan pilatu zelako); aldi berean, lurralde bietako hainbat eskualdetako dentsitatea oso txikia zen. Gipuzkoaren kasua oso bestelakoa da, eta, eskualdeen espezializazioarekin, lurralde osoan zehar garatu zen industria. Nafarroan ere, biztanleria hiriburu inguruan metatu zen arren, biztanleriaren banaketa sakabanatua zen; besteak beste, eskualde-buruak industrializatu zirelako (Pirinioaldea etengabe ari zen biztanleria galtzen, bestalde). Era berean, hirugarrenik, garai hartan, inolako plangintzarik gabe lehiatu ziren aldi berean industriarako lurzoruak, garraio-azpiegiturak, etxebizitzak, zerbitzuak; halakoak berehalakoan eta era intentsiboan eraiki izanak hirien lerrokako eta bertikaleko hazkundera ekarri zuen hainbatetan, eta, oro har, anabasa funtzionala bistakoa zen lurralde-antolaketari dagokionez.

9.2.2. Industriaren larrialdia

Euskal industriaren larrialdi-fasea 1970eko hamarraldiaren bigarren erdialdetik aurrera hasi zen nabaritzen, bereziki Bizkaian, eta, neurri apalagoan, baita Gipuzkoan ere. Atzeraldi-fasea izan zen, baina baita ekonomiaren biziraupenari loturiko krisi-garaia ere. Euskal ekonomia modernizatzeko beharra agerian utzi duten une kritikoak sakonak, ugariak eta askotarikoak izan dira. Horien azalpena kateatuz laburbilduko dugu heldutasun industrialari loturiko garaia.

Lehen une kritikoa ekonomiaren eskariak bultzaturiko 1970eko krisi energetikoa da: 1973-1974 eta 1978-1979 aldietan, petrolioaren prezioa laukoiztu eta bikoiztu egin zen, hurrenez hurren. EAeri dagokionez, sektore industrialean bete-betean eragin zuen, petrolioaren azpiproduktuekiko mendekotasun handiagatik, baina, horrez gainera, prozesu produktiboen zaharkitze teknologikoa ere azaleratu zuen, eta jatorrian krisi energetikoa zena iraupen luzeagoko krisi ekonomiko eta soziala

EUSKAL GIZARTEA ARO EKONOMIKO BERRIAN

bilakatu zen EAEn. 1970eko hamarkadan, gainera, beste hainbat gertakarik tokiko ekonomian eragin zuten: petrolioan ez ezik, bestelako ekoizpen-moduetan eta ondasunetan ere (fabrikak, dirua, makinak, erremintak) inbertsio-premia handia zegoen unean, prezioak igo ziren; nazioarte-mailan, berriz, 1972an, AEBko Erreserba Federalak dolarrak errearekin zuen erlazioa etenarazi zuen.

Hori dela eta, krisi energetikoak eta testuinguru makroekonomikoaren bilakaera negatiboak (atzeraldi ekonomikoa, inflazio-tasa altuak), denbora-tarte oso laburrean, tokiko enpresen produkzio-mailan eta irabazietan jaitsiera ikaragarriak eragin zituen, eta horren ondorio zuzenak izan ziren sektoreen pisu ekonomikoa eraldatzea eta desberdintasun geografiko eta sozialak azalartzea. Eragin batzuk epe laburrean bizi izan ziren: enpresen etekin-tasen jaitsiera, kanpo-defizita eta inportatzeko zailtasunak, inbertsio-proiektuak baztertzeko, inbertsio-ondasunen eskaria (ekoizpen-krisia) eta kontsumoko ondasunen produkzioa (kontsumo-krisia) jaitea. Ingurumari horrek zuzenean ez ezik zeharka ere (Europako hazkunde-dinamikarekiko mendekotasunagatik) eragin zuen euskal ekonomian. Krisiaren une horretan, gainera, enpresa batzuen egoera zaildu egin zen, produkzio-gaitasuna zabaltzeko asmoz estatuaren mailegu-erraztasunak eskatu ostean; nazioarteko ekonomiaren krisiak erabateko zailtasun-egoeran ipini zituen Espainiako garapen-planetara atxikitako enpresak. Aldi berean, enpresen garapenerako beste bi arazo erantsi gaineratu ziren: finantza-erakundeek industrietatik aldentzeko joera (1975. urtea arte bien arteko lotura oso zen estua, eta entitate nagusiek banku industrialek sortuak zituzten garapenari laguntzeko); eta, 1993 arte (1977-1992), Espainiaren moneta-politika berezia (inflazioa kontrolatzeko asmoz interes-tasa altuak ezartzean zetzana).

Epe laburrean, ohikoa izaten da sintomak kausatzat hartzea, baina Europako herrialdeekiko dibergentziak erakutsi zuen euskal ekonomiaren atzeraldiaren eragile nagusiak ez zirela izan aipaturiko faktore horiek. Noski, eragin zuzena izan zuten, baina, sakon-sakonean, aldaketa teknologiko eta produktiboek eragin zuten ekonomiaren krisia. 1974tik aurrera, hamabost urteko hedapen gorabeheratsuaren ondoren, industria-jarduera nabarmen jaitsi zen, sektore guztietan.

Krisia ulertzeko, bi irakurketa osagarri balia daitezke esplikaziorako. Alde batetik, EAeko industriaren balio erantsi gordina eta enplegu-tasa produkzio-adarren arabera bereiziz gero, aski nabarmena da metalurgiak eta artikulua metalikoek (Bizkaian nagusi) eta makineriak (Gipuzkoan nagusi) duten garrantzia. Munduko eskariaren beherakada, hain zuzen ere, inbertsio tradizionalako oinarritzko industriaren sektoreekin, industria mekanikoarekin eta garraio-hornidurako industria-rekin grinatu zen. Bestetik, Espainiako politika ekonomikoa eta moneta-politikak

zirela eta, interes-tasa handien testuinguruan, egoera kaltegarria zen enpresentzat: aurrezkien jatorria lan-kostuan zetzan, eta etekin gehienak interes-tasa altuko kredituak ordaintzera bideratuak zeuden. Horrek, produktibitate-arazoak ekarri ez ezik, ekoizpen-faktoreak berritzeko eta agertoki ekonomiko eraberrituan lehiatzeko aukerak ere ixten zituen.

Beste une erabakigarria europar merkatu bakarra izango da. Horrek ere euskal ekonomia irekiaren lehiakortasuna erabat ahuldu zuen, eta azaleratu zuen ekonomia irekietan baldintza errentagarrietan esportatu ahal izateko egokitze-prozesu luzearen desafioa. Adibide garbienak burdingintza eta ontzigintza dira, baina lehenagotik krisian zeuden sektoreak ere (ekipo elektrikoaren ondasunena, makina-erremintarena) erabat akitu ziren liberalizazio ekonomikoarekin. 1985. urteko ekainaren 12an, Espainia Europako Ekonomia Erkidegora Atxikitzeko Hitzarmena sinatu zen (1985. urtean euskal industriak Espainiako merkatuan eginiko salmenta BPGaren % 60 izan zen). 1986. urteko urtarrilaren 1ean sarrera efektiboa egitearekin batera, integrazio ekonomikorako eremu berriarekin, nazioarteko merkatuak garrantzia hartu zuen enpresentzat, eta eremu zabalagoak egonkortzen hasi ziren merkataritzako trukean, enpresen arteko lehia, finantza-fluxuan eta teknologia-transferentzian. 1993. urtean, euskal ekonomia ere prozesu liberalizatzailea erabat betetzen hasi zen, bai eta Europako Ekonomia Elkarrekin atzerriko herrialdeekin sinatuak zituen lehenetsuneko akordioak bere gain hartzen ere.

1992. urtea arte Espainiako barne-merkatuak garrantzia izango du oraindik ere enpresentzat (Espainiako gastu publikoaren igoera handia, inbertsioaren hazkundea sendoa eta pezetaren garaiko indarra zirela eta). Alabaina, Espainiak galdu egin zituen muga-zergen eta kanpo-merkataritzaren politika kudeatzeko aukera, eta euskal ekonomiak ere zenbait abantaila historiko galdu zituen Espainiako barne-merkatuan integratua egotetik eremu ekonomiko berrira integratzean, hala nola prezio-lehia izandako babesak. Merkataritza-politika bateratua zela eta, ondasun eta zerbitzuen inportazioaren hiru laurdenak muga-zergarik gabe geratu ziren. Ikusi dugunez, aurreko hamarkadetan, kanpo-sektorea Espainiako ekonomian aldiror gertatzen zen barne-atzeraldiari aterabide koiunturala emateko modu bat baizik ez zen; 1993tik aurrera, aldiz, Europaren eremuko merkatu bakarrak lehia-eremu zabalagoan ezarri zuen euskal ekonomia, inolako babes-laguntzarik gabe.

Neurri berean, euskal ekonomiarentzat integrazio-esparrua zabaltzeak (Europak araugintza ekonomikoa, nazioartekotzeko sarbide-esparrua, industria edota lehia-politikari buruzko estrategia baldintzatzen ditu) ordu arteko nazioarteko isolamendu erlatiboaren ajeak modu nabarmenagoan eta atzerazinean azaleratu zituen: enpresen alorrean, arazo esanguratsuenak tamaina txikia, kudeaketari eta

EUSKAL GIZARTEA ARO EKONOMIKO BERRIAN

giza baliabideei loturiko defizitak, eta nazioarte-mailako esportazio eta parte-haritze baxua ziren, baina egitura ekonomikoari loturikoak ere azaleratu ziren, hala nola etorkizuneko eskaerari loturiko produktuen urritasuna, lan-merkatuaren arauketa zurruna, zerbitzu aurreratuen eskasia, enpresa lehiakorren beharretara doitu gabeko hezkuntza-sistema, eta azpiegituren egoera desegokia, besteren artean. Espainiako politika ekonomikoak eta barne-merkatuaren sustapenak enpresei ez zien aparteko pizgarririk eragiten hobekuntza teknologikoa, soziala edota antolakuntzakoak sustatzeko. Hari beretik, 1979. urtean, EAEko I+G gastua BPGaren % 0,069 zen. Garai hartan, euskal industriaren ezaugarri bereizleak ziren ikerketarik eza, teknologia propioaren gabezia eta nazioartearekiko erabateko mendekotasuna. Horri gaineratu behar zaio atzerriko inbertsioak erakartzeko zailtasuna izan zela erronka handienetako bat euskal erakundetze-prozesuaren hastapenetan.

Alde horretatik, euskal lurraldeetan 1960ko eta 1970eko hamarkadetan zehar gertaturiko europar konbergentzia –per capita BPG antzekoa eta produktibitate handiagoa– erabat ahuldu zen, eta, ekonomiaren ordu arteko abantaila konparatiboa desegin, eta lan-merkatua modernizatzeko premia azaleratu zen. 1975. urtean, EAEko per capita BPGa Europakoarekin alderatuz % 108koa zen, eta, hamar urteren buruan, % 80ra jaitsia zegoen. Bestela esanda, heldutasun industrialeko prozesua hasi zen (goia jo zuten oinarritzko metalgintzak, transformatu metalikoen industriak, etxetresnen fabrikazioak, ontzigintzak, ehungintzak), zaharkitze teknologikoak eta agertoki ekonomiko eta komertzial berriak eraginda.

Euskal ekonomia eraldatzeko beste une garrantzitsua Moneta Batasuna eta euroa moneta bakar gisa zirkulazioan ipintzea izan zen. Ekonomia nazionaleri dagokienez, bi ondorio nagusien artean daude moneta devaluatuz lehiatzeko aukera baztertzea eta laguntza publikoa mugatzea. Euskal ekonomiari berriaz dagokienez, berriz, Europako integrazio-prozesuak, alde batetik, betekizunak eskatzen zituen (defizit publikoa, interes-tipoak eta prezioak kontrolpean izatea), eta, beste aldetik, hazkunde jarraituaren xedeak lehiakortasunerako oinarriak eraldatzea, eta irekiera eta kanpo-sektorea indartzea berretsi zuen; ondasunen, zerbitzuen eta produkzio-faktoreen eremua Europako merkatua izateak eta salerosketak eta finantza-eragiketak moneta bakarrean egiteak eraginda, alegia. Era berean, ordea, Europako integrazio ekonomikoak aukera ireki zuten interes-tasak beheratu eta Europako maila ohikoekin parekatzeko. Bestetik, Europako Merkatu Bakarrak ekarritako konkurrentzia-politikak ahalbidetu zuten Espainian monopolioak deuseztatzea eta sektore berrietan merkatu-lehiarako aukerak irekitzea; esate baterako, energiaren alorrean (liberalizazioak euskal industriari energiaren prezioa merkatu zion) edota telekomunikazioen alorretan (1995. urtean, Euskaltel telekomunikazio-operadore integratua sortu zen).

Globalizazioaren dinamikan, garai berezia izan zen, gainera: agertoki ekonomiko globalean, herrialde berriek tokia hartuko dute, bereziki euren lehiakortasun-abantailak baliatuta (kostu baxuetan oinarrituriko garapen-eredua) eta enpresa multinazionalen ekoizpen-kate globaletan txertatuta (ikus lehen kapitulua).

Garai hartan, joera demografikoetan ere etena hauteman daiteke, eta, Bizkaian eta Gipuzkoan, produkzio-arazoei eta langabeziari biztanleriaren hazkunde begetatiboaren jaitsiera ere gaineratu zitzaion. 1970eko hamarraldian, biztanleriaren hazkundera % 13,2koa izan zen Bizkaian (1960ko hamarraldian, % 38,2koa), eta, Gipuzkoan, % 9,8koa (1960ko hamarraldian, % 31,9koa); hurrengo bi hamarraldietan, berriz, hazkundera negatiboa izan zen: -% 2,1ekoa eta -% 2,9koa Bizkaian, eta -% 2,4koa eta -% 0,4koa Gipuzkoan (Arabian eta Nafarroan, ostera, % 5,8koa eta % 3,7koa, eta % 3,2koa eta % 6,2koa, hurrenez hurren). Hori dela eta, zera ikus daiteke biztanleriaren bilakaeran: 1981. urtean, Bizkaian 1.181.865 pertsona eta Gipuzkoan 692.782 pertsona zeuden, eta, bi hamarkadatan, Bizkaia 58.863 pertsona galdu zituen (2001ean, 1.123.002 pertsona zeuden orotara) eta Gipuzkoak, berriz, 19.219 (2001ean, 673.563 pertsona orotara).

Hiru fenomeno gurutzatu ziren, nolana ere. Alde batetik, 1980ko hamarraldian, heriotza-tasa baxuenak izan ziren: EAEn, 1982. urtean %6,4ra jaitsi zen (12.695 heriotza orotara); % 5,9ra Araban, % 6,7ra Bizkaian, % 5,4ra Gipuzkoan eta % 8,2ra Nafarroan. Esate baterako, XX. mendearen hasieran, Gipuzkoan, % 24,2koa zen, 1950ean % 9,9koa, 1991ean % 8,2koa, 2003an % 9,2koa eta 2018an % 9,8koa. Zehartze-prozesuaren eta bizitza-kalitatea luzatzearen ondorio naturalak dira, noski.

Bigarrenik, jaiotza-tasan ere, beherakada nabaria izan zen. 1975etik aurrera, jaiotza-tasaren beherakada azkarra eta handia izan zen: Gipuzkoan, esate baterako, jaiotza-tasa 1970. urtean % 20,9koa izatetik 1980. urtean % 10,2koa eta 1990. urtean % 7,7koa izatera pasatu zen. Garai hartan, hainbat joera bereiz daitezke: alde batetik, aurreko hamarkadetako jaiotza-tasaren gorakadak ez zuen berezko hazkundera bultzatu; bestetik, jaiotza-tasaren beherakadaren intentsitatea: urte gutxiren buruan, berezko hazkunderaren galera % 50ekoa baino handiagoa izan zen; hirugarrenik, Bizkaia eta Gipuzkoa, saldo negatiboan sartu, eta, 1994. urtean, jaiotza-tasa txikienera iritsi ziren; laugarrenik, adinaren araberako emankortasun-tasetan ere igarri zen aldaketa (1980ko hamarraldiaren bukaeran dagoeneko 30-34 urte bitarteko taldea emankortasun-tasa handiko taldea zen).

Hirugarrenik, XX. mendeko hirugarren herenari dagozkion joera demografiko berriak ulertzeko, eskualde industrialenetako migrazio-mugimenduen saldo negatiboa azpimarratu behar da. Horretan eragin zuten emigrazioaren igoerak eta

bereziki immigrazioaren jaitsierak. 1990eko hamarkadan zehar, migrazio-saldoa negatiboa izan zen (1988tik 1999ra, EAEk 52.638 pertsona galdu zituen migrazioengatik: 136.159 etorkin izan ziren, eta 188.797 emigrante).

Horri lotuta, fenomeno deigarria da, etorkinen itzulera-korronteak egonda ere, pisu handiagoa izan zuela Espainian migratzaileek lekuz aldatu izanak; aukera-marko eta espektatiba hobereneko tokiak bestelakoak ziren, alegia. Guztiarekin, joera horiek Bizkaian eta Gipuzkoan ere nabarmendu ziren, eta horrek egiaztatzen du heldutasun industrialera iritsitako lurraldeak zirela, bidenabar. Egoera bestelakoa izan zen Araban (jaitsiera apalagoak eta ez berehalakoak, saldo negatiboetara iritsi gabe), eta, neurri batean, gauza bera esan daiteke Nafarroako bilakaera demografikoaz ere.

1975-1982 epean, Bizkaiko eta Gipuzkoako saldo negatiboa 52.503 eta 32.921 pertsonakoa zen; 1982-1990 epean ere, saldo negatiboak jarraitu zuen, eta Bizkaian 42.743 eta Gipuzkoan 26.860 pertsonakoa izan zen, hurrenez hurren. Epe horietan, Araban, ia bost aldiz jaitsi arren, saldoa positiboa zen, eta berretsi zen lurraldeko industrializazio berriak hainbat espezializazio-adar garatzeko aukera eman zuela.

Euskal ekonomiaren bigarren krisia, hain zuzen ere, ekonomia europartzeko sasoian izan zen, lehenengo Golkoko Gerrak (1992. urtea) eragindako ziurgabetasunaren ondorioz, eta horrek berreskuratze sozioekonomikoaren zantzuak atzeratu zituen. Alde batetik, auzi energetikoa kudeatzeko ikasgaiak sendoak ziren, eta euskal lurraldeek ere bestelako oinarri sozioekonomikoak zituzten; hala, 1994-1995 urteak bitarte atzeratu ziren azken bi hamarkada luzeetako modernizazioaren emaitza sozial eta ekonomikoak. Bestetik, ordea, 1990eko hamarraldiko lehen urteetan, krisiak bete-betean jo zituen zenbait enpresa –Sidenor, Ulma, Irizar, Tubacex, esate baterako–, errentagarritasun-baldintza berrietan lehiatzeko berregituraketa-prozesuaren ahuleziak berretsi ziren, eta pezetaren gainbalioztatzeak (1989-1992) ere lehiatzeko zailtasunak areagotu zituen.

9.2.3. Industria-politika eta eraberritzea

1980ko hamarraldiaren bigarren erdialdetik aurrera, industria-jarduera sendotzeko ahalegina herri-erakundeen erdiguneko kezka zen, industria-garapenerako hainbat auzi esanguratsuren gaineko eskumenik izan ez arren. Industriaren eraldaketa-prozesuari ekin zitzaion.

Lehen bi hamarkaden fase luzean (1980-1990), hainbat ezaugarri nabarmendu daitezke: 1) sozietate publikoen bidez sektore publikoa garatzea, administrazio publikoaren eta industriaren garapen eta berregituraketarako; 2) plan orokorrak hobetsi izana, hots, industriari loturiko ekimenak industria-politikari berariaz loturiko planak ez ezik azpiegiturei, teknologiarri, inbertsioei edota I+Gri loturikoak ere izatea; 3) sektoreak berregituratzeko politiken ahulezia: Espainiak hartu zuen ardura, baina berregituraketa-planak laguntzetara mugatu ziren; sarritan ez ziren exekutatu, eta itxierak eta salmentak nagusitu ziren (hori dela eta, hurrengo urte luzeetan, atzerriko erabakiguneekiko mendekotasuna erabatekoa izan zen, esku hartu eta bideratzeko aukerarik gabe), harik eta Eusko Jaurlaritza –SPRI enpresa-garapenerako sozietate publikoaren bidez– arduraz enpresa eta sektore bidegarriari bultzada ematen hasi zen arte; 4) sustapen-politikaren eredia hautatu izana (*supply side policies*), hau da, eskaintza-politika aplikatzea industria-sistema egituratzeko (industrialdeen sorrera, eskualdeak biziberritzeko ekimenak, azpiegitura-proiektuak, sektoreka bereizitako kluster-politikak, enpresen inbertsiorako laguntzak eta zerbitzuak, zentro eta parke teknologikoak); 5) herri-estrategian industria-enpresak eta arlo teknologikoa lehentasuntzat jotzea hasieratik; 6) aurrezki-kutxek, mailegu-kooperatibek, arrisku-kapitalak eta elkarrekiko berme-elkar-goak industria-jardueran, berregituraketan eta proiektu berrien bultzadan izandako garrantzia.

Testuinguru berri horretara moldatzeko adibide modura, EAEn espezializazio industrialerako ahalegina hauteman daiteke; esaterako, 2000. urterako industria berritze aldera eginiko kapital-inbertsioa eta enpresek makineria eroste aldera eginiko berrikuntza-ahalegina (BPGren % 5 eta % 8 artean ibili da produktu metalikoe-tan eta makinerian eginiko inbertsioa). Era berean, hamabost urteko epean (1985-2000) kanpo-merkataritzaren bi indizeri erreparatuz gero (atzerriko ondasunen esportazioak eta atzerritik eskuraturiko ondasunen inportazioa), zera ikus daiteke: esportazioak bost aldiz handitu ziren, eta inportazioak, lau. Bestalde, 1999. urtean, EAEko I+G gastua BPGaren % 1,37 zen (500 milioi euro, alegia); enpresei zegokien BPGaren % 1,05, eta bi hamarkadatan bultzaturiko politiken –azpiegiturak, kluster-rrak– eta ahalegin teknologikoaren emaitzak erakusten ditu.

1993tik aurrera, esportazio-joerak berehala hazi ziren (1996an, produkzioaren herena ziren), eta enpresek nazioarteko merkatu-kuotan ere 1990eko hamarraldiaren bigarren erdialdetik aurrera egin zuten gora. 1993tik aurrerako merkataritza-saldorearen superabitean berrets daiteke esportazio-saldoaren joera gorakorra. Egiazki, 1992. eta 1993. urteetan pezeta debaluatzeak abantaila koiunturala eragin zuen nazioarteko merkatuetako prezio-lehian. Neurri berean, irekitasun komertzialaren maila (esportazioak + inportazioak / BPG ratioak adierazia) aztertuz gero, indizeak

EUSKAL GIZARTEA ARO EKONOMIKO BERRIAN

aparteko igoera izan zuen. Alabaina, inportazio- eta esportazio-joeretan arreta zehatzagoa ipinita, zera ikus daiteke: esportazioak eta inportazioak % 20ren azpitik daude Bizkaian BPGarekiko, eta Gipuzkoan, % 30en azpitik. Herralde txikietako enpresa industrial eta produktiboen joera izaten da nazioarteko merkatuetara irekitzea, produkzio-eskalak handitu eta eskala-ekonomien abantailak baliatzeko. Haatik, azterketa konparatiboez egiaztatzen dute Gipuzkoaren eta Bizkaiaren erabateko muga (Arabian eta Nafarroan ez bezala), eta hor oraindik ere ikus daiteke hornitzaile eta bezero espezializatuekin aritzeko zailtasuna; industrializazio goiztiarreko bi lurraldeetan –Bizkaian, bereziki– industria ordezkatzeko eta eduki ertain-altuko teknologiak eta adarrak garatzeko zailtasunak hauteman daitezke.

Bestalde, euskal ekonomiaren kanpo-dinamikotasuna eta irekitasun gorakorra adar konkretuetako enpresei zegokien. Izan ere, kontzentrazio sektorialerako joera oso nabarmena da jarduera motaren arabera: 2000. urtean, EAEn, ekipo-ondasunei zegokien esportazioen % 47,95 (1988an, % 29,07); produktu metalikoei, % 23,73 (1988an, % 30,09), eta horrek berresten du industria-krisiak eragindako sektorea izan dela. Azpimarra merezi du inportazioan ere antzerako joerak nabarmentzen direla (energiak inportazioan duen pisu erlatibo handia ahaztu gabe), zeren sektore bereko ekoizpen-kateko trukea iradokitzen baitu espezializazio sektoriala bainoago; merkataritza-espezializazio oso nabarmena, alegia.

Era berean, ordea, azken bi hamarkadetan eginiko ahaleginaren erakusle modura, 2000. urtean, esportazioaren erdiak eduki teknologiko ertain-altuei eta altuei zegozkien. Alegia, enpresek beren sektorean ekoizpen-katearen goiko mailan kokatzeko ahalegin berritzailea erakutsi zuten, emaitzak konparazioz oraindik ere apalak ziren arren; 1995ean, eduki teknologiko altuko adarrak EAeko enpresen % 8,3 ziren (1985ean, % 4,9), eta, sektore aurreratuetan, dibertsifikazioa mugatua zen. Horrez gainera, 1990eko hamarraldian zehar, lekualdatzeak (enpresa-lekualdatzeak eta ekoizpen-faseen lekualdatzeak), atzerrian eginiko inbertsioek eta orobat euskal kapitalaren nazioartekotzeak ere bidea egin zuten (Europako merkaturak bereziki eta modu apalagoan Latinoamerikan). Funtsean, euskal produkzio-sarea Europako integrazio ekonomikoan eta lanaren nazioarteko banaketa berrian birmoldatzen hasi zen. Beste adierazle garrantzitsu bat industria-arloko atzerriko inbertsioa da: 1990. urtean, 300,51 milioi eurokoa izan zen, eta pixkanaka igo zen, 1998. urtean 617,17 milioi eurora heltzeraino, eta, 1999. urtean, 3.005 milioi eurora iritsi zen.

Gainontzean, 1990eko bigarren hamarraldian, egonkortasun makroekonomikoa erdietsi zen ekonomia aurreratuetan, baita enplegu altua eta inflazio baxua ere, eta burtsa eta higikorretako aktiboen prezioek gora egin zuten. Kapitalismo fi-

nantzarioa bere bidea egiten hasi zen, eta bestelako kultura moral ekonomiko bat emulatzeko portaerak orokortu ziren, baita EAEn ere, kapitulu honen seigarren atalean ikusiko dugunez.

Aski da azalpen historikoari dagokionez. Helburu zehatza izan da industrializazio-prozesuaren argitan 1970eko krisi partikularra ulertzea. Segidan, transformazioaren eraginei erreparatuko diegu. Izan ere, eraldaketa-ahaleginak lan-merkatuaren eboluzio berezi eta kontraesanez beteak ekarri zuen. Alde batetik, herrialde industrializatua izanda, sektoreen arteko eboluzioak ohiko pausoak eman zituen; industriaren parte-hartzeak indarra galdu zuen ekonomian, eta egitura ekonomikoa bestelakotu egin zen. Baina, bestetik, era berean, berreskuratze-prozesuan, egitura ekonomikoaren transformazioak osagarri egin zituen industria lehiakorren garrantzia eta kualifikazio baxuko zerbitzuen jarduera, eta bestelako aukerak (sektore publiko hedatua eta sendoa, zerbitzu aurreratuen garrantzia) bigarren mailan geratu ziren. Euskal herrigintzak aberastasuna sortzeko trabak izan zituen (gure kasuan ere, metropoli-eremuetara lekualdatu eta zentralizatu ziren mundu global eta lehiakorren azpiegitura, baliabide eta ekimen estrategiko nagusiak, garai frankistari jarraipena emanaz). Hori deskuidatu gabe, jarraian, erakundetze-prozesuaren lehen ziklo luzean (1980-2000) ipiniko dugu arreta, hipotesi honekin lan egiteko: EAEko lan-merkatuak gaur egunean dituen berezitasunak eta dualtasun hazkorra nekez ulertuko ditugu azken hamarkadetako dinamika sozial eta ekonomikoak bistatik galduz gero. Azalpenak hari horri helduko dio, eta xedea ez da ekonomiaren sektore-egiturari buruzko analisia, beraz.

9.3. ERALDAKETAREN INPAKTUAK

EAEko ekonomiaren eraldaketaren berezitasun nagusia zera da: 1970eko urteetako krisiak enpleguan inpaktu handia izateaz gainera, bi hamarkada luze pasatu ziren jarduera ekonomikoa berreskuratu eta herrialde aurreratuekin konbergentzia makroekonomikoa ostera ere lortzeko.

EUSKAL GIZARTEA ARO EKONOMIKO BERRIAN

1970eko eta 1980ko hamarraldietan, EAEko lurralde industrializatueta –Gipuzkoan eta bereziki Bizkaian– eten egin zen enpleguaren sorrera sendo eta jarraituaren dinamika oparoa. Era berean, industriaren zaharkitze teknologikoak eta produkzio-jardueraren geldialdiak lan-merkatua modu askotara kolpatu zuen: enpresak itxi (eta Lan Sozietate Anonimo izateko berregituratu), plantillako langileak murriztu, errenta galdu, erretiroak aurreratu, etorkinak itzuli, eta langabezia –lehenengo enpleguan batez ere–. Bizkaian eta Gipuzkoan izan zen hori nabarmena; Nafarroa eta Araba, geroago industrializatzeaz gainera, dibertsifikatuagoak zeuden. *Biziraupenaren erronka* izendatu zen 1980ko hamarraldian aurre egin beharreko desafioari.

Esate baterako, EAEn, 1973 eta 1989 urteen artean, 100.000 lanpostu galdu ziren, eta, 1977-1994 bitartean, industriako enpleguaren % 42,7 galdu zen, ordu artean euskal ekonomiaren produkzioan industria astunaren hedapenean oinarrituriko manuakturen ekarpena (ekoizpen osoaren ia % 60) ahultzearekin batera.

1985. urtean, adibidez, langabezia-tasa % 21,1ekoa zen (gizonezkoen langabezia-tasa % 16koa zen, eta emakumezkoena, % 31koa); 1989. urtean, batez beste % 18,8koa; 1994. urtean, % 24,9ra igo zen. Industriako ehun tradizionalak landunetan aparteko pisua zuen heinean, 1975. eta 1984. urteen arteko krisi sakonak efektua izan zuen langabezia, eta, langabezia masiboak dibergentzia-prozesua azaleratu, eta per capita BPGa Europatik aldentzea ekarri zuen. 1980ko bigarren hamarraldian enpleguak gora egingo bazuen, erakundetze-prozesuari eta enplegu publikoaren sorrera bizkorri zor zaio, baina industriako sektorean ez zen aldaketa zantzurik, momentuz.

Halakoa izan zen krisiaren eta eraldaketaren tamaina, ezen enplegu industrialak termino absolutuetan 1960koaren parekoa baitzen 1990eko hamarraldiko berreskuratze-sasoian. 1960ko hamarraldian, EAEko sektore industrialak enplegu osoaren % 50 bereganatzen zuen –langabezia-tasa % 2koa zen–; 1999. urtean, berriz, industriakoa enplegu osoaren % 27 zen; nahiz eta Gipuzkoan eta Araban industriako enpleguaren portzentajea horren goiti egon, Bizkaian oso nabarmen goratu ziren zerbitzu-jarduerak (enpleguaren % 63), hiri-aglomerazioan oinarrituriko zerbitzu-ekonomiak eta industriaren galerak elikatuta. 1999. urtean, zerbitzuei loturiko enplegua Bizkaian % 63 zen, eta, Araban eta Gipuzkoan ere –1976an herena izanda–, % 54 eta % 56 izatera pasatu zen. Bestalde, 1980-2000 urteen artean, EAEko 1980ko biztanleriarekin alderatuz, % 7,2k alde egin zuen (157.417 bizilagunek orotara).

Krisi-giro larrian, 1986. urteko datuekin EAEko txirotasunari buruz egindako lehen ikerketan (*Euskadiko txirotasuna*, Eusko Jaurlaritza, 1987), zera azaleratu zen: etxebizitzaren % 38,5ean bazegoen txirotasun motaren bat; alegia, orotara 228.000 etxetan bazegoen gizarte-bazterketako egoeraren bat. Zehazki, % 4,9k ez zuen elikagai, arropa edota oinetakoen gastuak ordaintzeko sarrerarik; % 16k, berriz, kontsumo-ondasun iraunkorrek eta inguruko urritasunek eragindako prekaritatea bizi zuten; familien % 9,1ek bizi zuen bai diru-sarreraren bai kontsumo-ondasun iraunkorren txirotasuna. Bestalde, txirotasun estalian (seme-alaben bizi-premiak gizarte-sistemak eta bereziki gurasoek asebetetzen dituztenean), 18 eta 30 urte arteko 100.000 gazte zegoen.

Bestela esanda, 1986. urtean, EAEko biztanleriaren % 16,1 zegoen txirotasun errealean, % 13,1 ongizate gabeko beste modalitatearen batean, eta, orotara, biztanleriaren % 29,2 zegoen ongizate errealearen gabezia. Lurraldeetan arreta ipinita, berriz, ikerketaren arabera, txirotasun guztiaren % 61,9 Bizkaian zegoen, Gipuzkoan % 27,1 eta Araban beste % 11. Gainontzean, 1970eko eta 1980ko industriaren galerak eta prekaritate-prozesuak herritarren espektatibetan edota osasun publikoari loturiko adierazleetan ere modu negatiboan nabarmen eragin zuen.

EAEko gizarte-inklusiorako politiken bertute nagusia, hain zuzen ere, prekaritate forma horiek lehen unetik estatistikoki zehaztasunez aletzea izan da, horri esker ahalbidetu baita pertsonak gizarteratzeko askotariko baliabide eta prestazioen egikaritzea –diru-sarrerak bermatzeko errenta, larrialdi sozialeko laguntzak, etxebizitzarako prestazio osagarria–, hurrengo kapituluan xehetasun gehiagorekin ikusiko dugunez.

1990eko hamarkadan, biztanleriari buruzko fluxuek aldaketa ekonomikoaren zantzuak berretsi zituzten. Begirada luzean, migrazio-saldoei erreparatuta, 1981etik 2001era, EAEn 59.000 pertsona pasa galdu ziren. Begirada laburragoan, 1990-2000 urteen artean, 8.787 pertsona itzuli ziren, eta atzerriko biztanleria etorkinaren hazkunde moderatua ere izan zen (17.822 pertsona orotara). Hamarraldi horretan, bestetik, hazkunde naturala ere izan zen, jaiotza-tasen aldaketak eragin da, eta hazkunde-tasa negatiboan joera amaitu egin zen. Etorkinek –XX. mende-koekin alderatuta, beste jatorri batekoak ziren– tokiko jaiotza-tasa igo zuten aldi berean (etorkinek jaiotza-tasan eragiten dute gazteak direlako eta bizi-proiektua eta familia-proiektua garatzen dutelako), eta euskal gizartean ere 30-35 urte arteko emakumeek haurrak izango dituzte. 1996an, EAEko jaiotza-tasak pixkanaka hazteari ekin zion (% 7,6); hala, 1976. urtean (% 19,7) hazitako jaitziera aldatu zen. Horrekin batera, halere, industrializazio-sasoian Espainiatik etorritakoak euren jaioterrira itzultzen hasi ziren, ibilbide profesionala amaitu eta erretiroa hartu ostean.

EUSKAL GIZARTEA ARO EKONOMIKO BERRIAN

Neurri berean, bestalde, 1995. urteaz geroztik, ziklo hedakorrekin ekonomia onbideratzeak agerian utziko ditu egiturazko hainbat aldaketa. Horietako bat da sektore produktiboen arteko enpleguaren oso bestelako banaketa: langabezia-tasaren jaitsiera eta biztanleria landunaren igoera nabarmena ezin daitezke esplikatuz zerbitzuetako sektoreak harturiko garrantzia azpimarratu ezean, hurrengo atale-tan ikusiko dugun moduan.

Atzera begirakoak hainbat ondorio mahaigaineratzeko aukera ematen digu. Irakurketa orokorra egite aldera, agertoki ekonomiko eta komertzial berrian, EAEko berrikuntza teknologikoei askotariko efektuak izan dituzte eginkizunen arabera: eskulan errutinario askoko eginkizunak –eta lanpostuak– ordezkatu dituzte; lanpostu batzuetan –eskulan ez-kualifikatuetan bereziki–, ekoizpen-prozesuko eginkizunetan berrikuntzak txertatzearekin batera, produktibitatea hobetu eta neurri batean eginkizun eta lanpostu berriak ere sortu dira; eta badira, noski, lanpostu neutralak, hots, teknologiak ez onurarik ez eta kalterik ere eragin ez dietenak. EAEn, ondorio nagusia zera da: enpleguaren banaketa sektorialari dagokionez, 2000ko hamarraldiko datuek erakusten dute berreskurapena enpleguaren egituraren aldaketarekin batera etorri zela (okupatuen bikoitza baino gehiago zerbitzuko sektorean lanean ari da).

Hori modu zehatzagoan aletzeko, alde batetik, 1977-2007 urteen artean industriak BPGan zuen pisua % 49koa izatetik % 29koa izatera pasatu zen; betiere, horri gaineratu behar zaio zerbitzuen azpikontratazioarekin (EAEko *outsourcing* praktikak, alegia) BPGan bost puntuko igoera izan zutela enpresei zerbitzuak eskaintzeko jarduerak (I+G jarduerak, finantza- eta aholkularitza-zerbitzuak). Nolanahi den, berregituratze sektorialean zimendatu zen, neurri handi batean, EAEn konbergentzia makroekonomikoa. Bigarrenik, 1990eko hamarkadaz geroztik, trebezia mugatuko eskulan-zerbitzuetan enplegua eta soldata baxua edota prekarioa gehien hazi ziren inguruneak, hain zuzen ere, lehenago errutinazko lanpostuetako langileak metatuak zeuden eta langabezia nabarmenen hazi zen eskualde-eremuak izan ziren. Hirugarrenik, ekonomia aurreratu eta joera globalaren zantzuak agertu ziren: enpleguaren sektore eta jardueretan produktibitatea hobetzeak eta errentaren hazkundeak bestelako ondasun eta zerbitzu osagarrien eskaera handitu zuen (zerbitzuetako eskulangile ez-errutinarioak), produktibitate apalagoko sektore eta zerbitzuetan ere soldata aldez edo moldez hobetzearekin batera (errenta-efektua), baina horrek iradokitzen du eskutik datozela enpleguaren eta soldaten banaketaren polarizazioa.

1990eko hamarkadan zehar, gainera, globalizazio berriaren harira, beste irakurketa bat mahaigaineratu zen, EAEn ere kutsadura- edo emulazio-efektuz bidea egin

duena. Haren arabera, nazioarteko merkataritzak lehen eta bigarren sektoreetako ondasunen ekoizpena lekualdatzea ahalbidetzen duen heinean, lehentasunezkoa da zerbitzuetako jardueri pisu estrategikoa ematea. Zehazki esanda, egitura ekonomikoaren tertziarizazioa eta desindustrializazioa berariaz garatu behar lirateke (hori ez da nahastu behar euskal industriaren tertziarizazioa eta zerbitzu aurreratuak garatzeko proposamenarekin). Epe motzeko begiradan, tesi horrek badu erakargarritasuna, emaitzek behin-behinean azaleratzen baitute sektore tertziarioko enplegua haztearen eta per capita errenta igotzearen arteko harreman positiboa. Era berean, tesi horren argudioekin jarraituz, ondorioztatzen da langabezia-tasek kausa ziklikoek eraginda fluktuatzen dutela atzeraldietan, baina, gainontzean, langabezia-tasa egonkorra begitantzen da, biztanleria aktiboak gora egin, per capita errenta hobetu eta bizi-itxaropena luzatzen den bitarte berean. Epe motzeko irakurketa horrek aukera izango du, gainera, finantzen liberalizazioarekin aktiboak merke eskuratu eta ekonomia-zerbitzuetako jarduerarekin elikatzeko. EAEen, industriaren aldeko ahalegin berezia egin da –liburu honek une oro azpimarratuko duenez–, baina aipatu berri den ikuspegiak ere pisua hartu du 1990eko eta 2000ko hamarraldietako euskal ekonomia-eraldaketa-prozesuan zehar, eta, hala, zerbitzuetako lan prekarioak garrantzia hartu du euskal lurraldeetako ekonomietan. Hurrengo orriotan, estrategia horien lekukotza emango da.

9.4. OPAROTASUNAREN IRUDIPENA

2000ko hamarraldiaren lehen zortzi urteetan, ekonomiak urtero % 3,3ko hazkunde atxikia izan zuen; 2007ko per capita BPGa 30.599 eurokoa zen; eta EAEko per capita BPGa 27EBkoa baino % 40 handiagoa zen erosahaltenaren parekotasunari dagokionez, hots, 140,6 27EBko batez bestekoaz (indizea = 100), eta, eskualdeka desagregatuta ere, erosahaltenaren parekotasuneko per capita errenta altuago eskualdeak bakanak ziren (Alemanian, hamalautik lau; Italian, bostetik bat;

EUSKAL GIZARTEA ARO EKONOMIKO BERRIAN

Holandan, lautik bi; Suedian, zortzitik bat; Erresuma Batuan, hamaikatik bi).

Neurri berean, enpresen inbertsioa BPGaren % 25,5 zen. Gainera, enplegu ugari sortu zen (175.000 pertsona zenbatu dira, haien laurdena industriako sektorean); biztanleria landuna ia milioi bat pertsonako kopurura iritsi zen (biztanleria osoaren % 45); landunen tasa % 66,5koa zen (gizonezkoena % 75,8 eta emakumezkoena % 57), eta lan-merkatuaren modernizazio zantzuak azaldu ziren: ikasketa tertziarioak zituzten asko lanean hasi ziren; gizonezkoen tasetan –eta guztizkoan– laneratzeak goia jo, eta emakumeen lan-merkatuko parte-hartzeak modu progresiboan gora egin zuen (6. grafikoa), emakumeena gaur-gaurkoz erlatiboki ertain-txikia bada ere Europako erreferentziazko eskualdeekin alderatuta.


Era berean, langabezia-tasa % 5en azpitik kokatu zen (7. grafikoa); zehazki, 2006. urtean % 4,1koa eta 2007. urtean % 3,4koa izan zen; emakumezkoen langabezia-tasa % 30etik (gizonezkoenaren bikoitza) % 5era jaitsi zen hamar urteren buruan, gizonezkoena bezala, eta enplegu osoko langile finkoen proportzioa % 80 zen gizonen artean, eta % 70ekoa emakumeen artean. Langabezia txikienei dagokionez, Lanbidek 2007ko ekainean 21.388 pertsona eta EPAk 2008ko bigarren hiruhilekoan 16.300 pertsona erregistratu zituzten.

Gainontzean, 2007. urteko BPGaren % 29,4k industrian zuen jatorria, eta produktibitate osoa (BPGa/enplegua) 49.654 € langileko zen. (Orriotan azaltzen denaz, noski, hainbat zehaztapen egin behar lirateke, liburuan zehar ikusiko dugunez: analisi mikroekonomikoak bailaren arteko aldeak erakusten ditu; biztanleriari, lanpostuari eta jarduerari buruzko aldagaiak ere xehetasunez aztertu behar dira). 1995 eta 2008 bitarteko epealdia oparoa izan zen, eta Europarekiko konbergentzia-prozesuak ostera ere sinesgarritasuna berreskuratu zuen herrialdearen jardura ekonomiko eta sozialean. Gainontzean, administrazio publikoen zorpetzeari dagokionez ere, EAEko BPGarekiko zorraren ratioa % 1,9koa da (Nafarroan % 4koa, Katalunian % 8koa, Espainian batez beste % 5,9koa).

Ilido beretik, 2007. urtean, BPGa % 4,2 hazi zen; inbertsio-ahalegina BPGaren % 30ekoa zen, eta enpresen nazioartekotzea indartu zen (gainera, 70 enpresa-taldetik gora mundura hedatu, eta nazioarteko 200 ezarpen produktibo izan ziren). I+G gastuaren intentsitateari dagokionez (BPGarekiko I+G gastua), 1980ko eta 1990eko hamarraldietan, bilakaera hazkorra izan zen, eta, 1998. urtean, % 1,34 izatera iritsi zen; 2008. urtean, berriz, I+G gastuaren intentsitatea % 1,85ekoa zen (EB15ekoa % 1,99koa), urte gutxiren buruan ia erdia baino gehiago hazita, eta enpresen exekuzio-indizea ere (% 81,44) altua zen. Berrikuntza-sistemaren izaera dela eta, gastuaren zati handiena enpresei zegokien (zentro teknologikoak barne).


Guztiarekin, 2000ko hamarraldian eraldaketa ekonomikoa herribideratu asmoz,

6. grafikoa: EAEko 16-64 urte bitarteko biztanleen lan-tasa, sexuaren eta hiru hilekoaren arabera (%)



Iturria: EUSTAT. Biztanleria jardueraren arabera sailkatzeko inkesta.

7. grafikoa: EAEko 16 urteko eta gehiagoko biztanleen langabezia-tasa, hiru hilekoaren arabera



Iturria: EUSTAT. Biztanleria jardueraren arabera sailkatzeko inkesta.

EUSKAL GIZARTEA ARO EKONOMIKO BERRIAN

zientziaren, teknologiaren eta berrikuntzaren arloetan lehentasun estrategikoak ezarri ziren, kapituluaren bosgarren atalean ikusiko dugunez. Garai haietan, desafioa bestelakoa zen, eta bigarren eraldaketaren erronka deiturikoa ezagutzaren gizartean lehiakorrek izateko estratergiei loturik aurkeztu zen.

Europaren testuinguruan, aholku nagusia da 2010. urtean BPGarekiko I+G jardueretako gastua % 3koa izatea, eta orobat ezagutzak garapen sozial eta ekonomikoan egin beharreko ekarpenaz, politiken arteko mix optimoa diseinatzeaz eta eragileen betekizunez gainezkatu ziren analisiak eta estratergiak. Gurera etorrira, berriz, garai haietan, ekonomiaren eraldatzeak eta ezagutzan oinarrituriko lehiakortasunak lehentasunezko garrantzia hartu zuten. Horren harira, industriako sektoreak birmoldatu ziren, eta, metal transformatuekin batera, espezializazio industrialarekin produktibitate handiko kluster berriak ere garatu ziren. Zehatzago esateko, krisi industrialari erantzuna ematearekin batera, EAEko lankidetzak publiko-pribatuko estratergiak, I+G+b sistemak, eta enpresek, zentro teknologikoei eta unibertsitateei erantzukizunak partekatzeak ahaleginak aro berrirako trantsizioa iradoki zuten, eskariari loturiko politikekin ere (*demand side policies*) arreta ipinita, hurrengo atalean ikusiko dugunez.

Gainontzean, 2001-2011 aldian, biztanleria-bolumen osoan gorakada izan zen (2001-2006 aldian % 0,4ko hazkundea eta 2006-2011 aldian % 0,5ekoa), 91.000 pertsonaz goiti irabazita (2012 urtean, EAEko biztanleriak goia jo zuen: 2.181.587 pertsona). Jaiotza-tasari erreparatuz gero (1.000 biztanleko jaiotza-tasa), EAEn 1999. urtean ekin zitzaion gorakoari (% 8,1); 2008. urtean, % 9,9ra iritsi zen, eta, 2011. urtetik aurrera, beherakoa hasi zen (% 9,7), hurrengo urteetan (2012ko % 9,4 eta 2018ko % 7,4 artean) gorabeherak egon baziren ere. 2011. urtean bizirik jaiotakoak 21.180 izan ziren (% 9,7ko jaiotza-tasa).

Saldo begetatiboaren esplikazio apalarekin batera, garrantzi bereziko fenomeno bat atzerritarren etorrera jendetsua da: aurreko bi hamarraldietan galdurikoa aise berreskuratu zen. EAE biztanle-egozle izatetik jasotzaile izatera pasatu zen, baina, eremu geografikoaren arabera, portaerak ezberdinak izan dira. 1999ra arte, kanpo-migrazio saldoak (Espainiaz gairik saldoak, alegia) positiboak baina oso apalak izan ziren (2.000 pertsona ingurukoak). Haatik, Espainiako saldoak bestelakoak izan ziren: 1988-2008 aldi osoan, negatiboak izan ziren (1988. urtekoa da saldo negatiboena, 21.000 pertsona baino gehiagorekin, eta, gainerako urteetan, 4.000 pertsona ingurukoak izan zen); 2008an, joerak aldatu ziren, saldo positiboan mesedetan (2008an 49 pertsona, 2011n 6.638, 2015ean 947). Orotara, berriz, 2000. eta 2016. urtean artean 610.951 etorri ziren, eta 490.955ek alde egin zuten.

9.5. ERALDAKETA BERRIRAKO AHALEGINA

1980ko hamarkadaz geroztik, EAEko erakundetze-prozesuak eta sektore publikoaren garapenak aukera eman dute lurraldearen susperraldian faktore endogenoen alde egiteko eta, pixkanaka bada ere, lehiakortasun-abantailak eta tokiko berrikuntza-sistemak modu planifikatuan formalizatzeko.

Alde horretatik, 1980ko hamarkadaren hasieratik, ikuspegi teknologikoa eta orientazio industrialak hobetsi ziren gobernu-politikan (politika zientifikoa eta balio akademikoak bainoago). Garai hartan, ikusi bezala, eskaintza-politika nagusitu zen, industria-sistemaren egitura sendotu eta agertoki berrira egokitzeko xedearekin. Bestalde, zentro teknologikoen I+G egiturak garatzeko egitasmoak hainbat gauza erakusten dizkigu. Alde batetik, espezializazio industrialak (metal-mekanikaren garrantziarekin, ingeniartzan oinarrituriko ezagutza hobetsi zen), tokiko industriaren eragiletzak (industriak bazituen interesak, bai eta influentzia politikoa ere) eta erakundetzearen aurretiko ibilbidearekiko dependentziak (*path-dependency*) itxuratu zutela, hain zuzen ere, 1980eko eta 1990eko hamarkadetakoa fase luzea.

Zalantzarik gabe, EAEn, teknologia-politika izan da industriako ekimen bereizlea. Hasiera batean, politiken xede nagusia azpiegiturak sortzea izan zen. Enpresen ekimenez bazeuden EAEn hainbat zentro teknologiko (Inasmet 1962, Ikerlan 1974, Tekniker 1981, CEIT 1982, Gaiker 1985), eta, Eusko Jaurlaritzarekin elkarlanean, bi ekimen gauzatu ziren: batetik, 1982. urtean, entitate babestuaren figura sortu zen (zentro pribatuak espezializatu eta dirulaguntza publikoak jasotzeko); bestetik, 1986. urtean, Eusko Teknologi Ikertegien Elkartea (EITE) sortu zen, zentro teknologikoei eskaintza bateratua emateko enpresei ikerketa eta garapen teknologikoaren alorretan (industria-proiektuak, asistentzia teknikoa, zabalkunde teknologikoa, industria-kalitatea, formazioa), eta, gero, horra atxiki ziren Labein, Robotiker eta Leia ere.

Azpiegiturak sendotze aldera, teknologia-politikaren beste arlo garrantzitsu bat da hiru lurraldeetan parke teknologikoak sortzea (Zamudio 1985, Miñano 1997, Miramon 1997), enpresa, zentro teknologiko eta unibertsitateetako ikerketa-unitateak etorkizuneko sektoreetan elkarlaneko proiektuetan aritzeko asmoarekin.

EUSKAL GIZARTEA ARO EKONOMIKO BERRIAN

Enpresa-haztegien bitartez enpresa teknologiko berriak sortzea zuten helburu nagusia, eta ekinbide zehatzak izan ohi ziren I+G arloko erakundeak eta osagaiak gerturatzea (lur urbanizatua eskaini, elkarlana sustatu), ikerkuntza-arloa sendotzea, eta giza kapitala bideratzea, besteak beste. Azpiegitura teknologikoa garatzeko beste ekimen garrantzitsu bat 1989ko Teknologia Estrategiaren Unitatea izan zen, zeinak I+G politika planifikatu, teknologia-alorreko plan estrategikoa garatu eta lankidetzako proiektu zehatzak bultzatzeari ekin baitzion.

Bigarren une batean, eskaintza-politikak garatzearekin batera (lur industrialaren arloko politikak, Ezkerraldean industria-proiektuak kokatzeko dirulaguntzak, azpiegitura-planak), lehiakortasuneko estrategiek nagusiki balioa eman zieten eskaeran oinarrituriko politika eta klusterrei ere (klusterrak jarduera-sektore bereko enpresen taldekatzeek osaturikoak dira, lehen unean sektoreko desafiokoak elkarrekin eta bezeroekin arituz lantzeko asmoa dute, eta sektoreko azpiegiturak eta teknologiak sustatzeak garrantzia hartuko du). Alde horretatik, 1991tik aurrera, azpiegitura teknologikoa enpresen eskarietara bideratu, eta, klusterren bidez –euren sektorean plan estrategikoak garatuta–, ikerketa bideratu eta orientatzea bultzatu zen, baita sektoreko eragileak aliatzea, atzerriko inbertsioa erakartzea eta nazioarteko ekoizpen-katean goiko mailan lehiatzea ere. Eskariari loturiko politikak direla eta, 1990eko hamarraldian zehar planak ez ezik programak eta dirulaguntza deialdiak ere pixkanaka eragile teknologikoen elkarlanean definituriko beharriaz zehar erantzutera bideratu ziren.

Horren jarraipen modura, legealdietako planak garatu ahala pixkanaka lehentasunak zedarritu, eta sektoreak (autogintzaren industria laguntzailea, elektronika eta telekomunikazioa, makina-erreminta) eta industriako teknologiak (material aurreratuak, IKTak, fabrikazioko teknologiak) estrategietan integratu ziren. 1990eko hamarkadan, beste hainbat urrats egin ziren, hala nola enpresetan giza baliabideen kudeaketa hobetzeko ahalegina (1992. urtean, Eusko Jaurlaritzak industria-sektorean Kalitatea Sustatzeko Programa eta Euskalit –Kalitatearen Euskal Fundazioa– sortu zituen) eta Euskal Heziketa Profesionalaren Plana (1997). Hezkuntza sendotzeko asmotan, 1998. urtean, EAEko Unibertsitatea Antolatzekeo Legea ere onartu zen.

2000ko hamarkadan zehar, berriz, gobernu-planek urrats kualitatibo bat egin, eta dibertsifikazioa eta ezagutzan intentsiboak diren etorkizuneko sektoreak gaineratu zituzten. Arlo ekonomikoan, ez bairik gabe, horixe da ekimen estrategikoa azpimarragarria, anbizioaren izaera integralagatik, besteak beste. Izan ere, bi hamarraldiren buruan baziren aski sendo identifikatuak hainbat arazo garrantziko. Batzuk eskaintzari loturikoak (espezializazio-falta eta ikerketa-gaitasun mugatua).

Beste batzuk, berriz, eskariari loturikoak (enpresetan ezagutza teknologikoa xurgatzeko zailtasunak, batez ere). Berrikuntza-sistemaren arrakala inportanteak dira. Zehazki, eragileen arteko elkarlanik eza azaleratu zen, eta eskaintza teknologikoa enpresen beharretara ez doitzeak iradokitzen du eskaintzaren egokitasun eza, bereziki elkarlanaren eta produkzio-sistemari buruzko informazio-trukearen gabezia dela eta. Zentro teknologikoen eta enpresen artean, lotura estua egon izan da, baina, ikusita bi hamarraldiotan alor horri lehentasuna eman nahi izan zitzaioela, arazoak hobetzeko premia aitortu zen, erdiguneko politiken arrakalak diren heinean.

Neurri berean, Europako aholkuek eta ebidentzia enpirikoez mahaigaineratua zutenaren argitan, aitortu zen ikerketak, garapenak eta berrikuntzak hiru logika beregain dituztela, ez zegoela zertan bata bestearekin hurrenkeran lotu (ikerketa eta garapenari buruzko eredu linealaren muga), eta,aldi berean, EAEko zientziaren, teknologiaren eta berrikuntzaren artean loturak sustatzeko erabakia hartu zen. Alde batetik, enpresen lehiakortasunerako izaera desberdineko ezagutzen garrantzia aitortu zen (ezagutza zientifiko-teknologikoa, esperientzian –egitean, erabileran, interakzioan– oinarrituriko ezagutza). Bestetik, ezagutzan oinarrituriko berrikuntza-politikak ere merkatuko eskari eta pizgarriari begirako berrikuntza zientifiko-teknologikoei ere balioa eman zitzaien. Alde horretatik, azken urteetan identifikaturiko gabeziei erantzuteko, helburu estrategiko modura eragileen arteko elkarlana, jakintza berriaren sorrera, enpresa txikietan berrikuntza teknologikoa sustatzeko bultzada eta ezagutzaren ustiaketa komertziala zehaztu ziren.

Ildo beretik, 2000ko hamarraldian zehar, lehiakortasuneko estrategia berrietan, pertsonarengan ipini zen heldulekuetako bat, eta bizitza osoko ikaskuntza eta prestakuntza azpimarratzen ziren. Horrek eskatzen du pertsonen formazioa gaurkotu eta hobetzea eta azpiegitura fisiko eta adimentsuen bidez esternalitate positiboak handitzea. Berrikuntza izan zen bigarren helduleku nagusia. Eraldaketa ekonomikoan eta aberastasunaren sorreran, enpresako berrikuntzaren garrantzia hobetsi, funts bereziak onartu, Ikerketako eta Berrikuntzako Kontseilu bana eratu, eta ekimenak garatu ziren (Innovanet Sarea, Innobasque aliantza publiko-pribatua). Berrikuntzari buruzko irakurketa ez-lineala onartu zen (zientziak ez ditu zertan berrikuntza teknologikoa eta jarduera ekonomikoa ekarri; izaera zientifiko-teknologikoa ez duten berrikuntza sozialek eta antolakuntzakoek garrantzi hazkorra dute; ekonomiako sektoreak eta premiak askotarikoak dira), eta, neurri horretan, lehiakortasunak beste bi pilare ere bazituen: bata, IKTen garrantzia, eta bestea, Euskaliten bidez erakundeen kalitatea eta kudeaketa aurreratua sustatzea (EFQM ereduaren orokortzean oinarriturikoa). Enpresa berrien sustapenarekin batera, beraz, enpresaren eraldaketa (teknologikoa eta bestelakoa) zen iparretako bat, hartara efizientzia eta produktibitatea bultzatzeko asmoz. Izan ere, enpresak

EUSKAL GIZARTEA ARO EKONOMIKO BERRIAN

modu malgu eta bizkorrean merkatu dinamikoetan lehiatu zitezen, giza baliabideen kudeaketako sistemetako aldaketak ugaritu ziren: giza kapitala lehenetsi, eta pertsonen kompetentziei, lankidetzari edota taldeko lanari balioa eman zitzaion. Enpresaren dimentsio kulturalari garrantzia aitortu zitzaion. Lehiakortasunerako hirugarren helduleku nagusia - pertsonarekin eta berrikuntzarekin batera - enpresen tamainari, dimentsioari eta nazioartekotzeari buruzkoa da, enpresetako pertsonen ardurari eta ekintzaitzari buruzko auzi subjektiboagoekin batera (baliabide fisikoek ez ezik ezagutzek, trebetasunek, portaerek, sentimenduek, balioek eta erakundeko kulturak ekonomia errealean pisua dute, alegia). Hiru helduleku nagusiak –persona, berrikuntza, ekintzaitza enpresariala– zeharkatzen dituen beste ideia batek ere azpimarra merezi du: lehiakortasuneko faktoreak enpresaren mailan, lankidetzako estrategiaren bidez taldearen eta klusterren mailan, eta lurraldearen mailan herribideratzeko erabakia adostu zen.

Eraldaketa ekonomikoa gizabideratzeko xedearekin, lehiakortasunari buruzko irakurketa eraberritzeaz gainera, zientzia, teknologia eta berrikuntza-sistema (estrategiak, osagaiak, finantzazio-sistema, eragileak, arloak) eraldatzea ere azpimarratu zen. Aldaketa-ahalegin esanguratsuena politika eta eragile zientifiko eta teknologikoen arteko koordinazioan sakontzea izan zen, hartara sistemako jarduerak modu planifikatuan enpresaren berrikuntza-premietara bideratu eta etorkizuneko erronkei erantzunak emateko asmoarekin. Ikerketari ere, beraz, garrantzia aitortu zitzaion, ikerketaren izaera aplikatuari eta orientatuari balioa emanda. Horri lotuta, beste bi lehentasun nagusi ireki ziren. Alde batetik, ikertzaile bikainak egonkortu, eta lehentasuna eman zitzaion ezagutza aurreratua landu eta komunitate zientifiko osora hedatzeko lerroari (Ikerbasque sortu zen). Beste aldetik, industria eta zentro teknologikoak beste arlo (ikerketa zientifikoa) eta eragile batzuekin (unibertsitateak, ikerketa-taldeak, enpresak) elkarlanean ipini, eta berrikuntza-sistemaren desorekak oinarrizko ikerketa-proiektu bideratuekin osatzeko urratsa egin zen (Ikerketa Kooperatiboko Zentroak eta Oinarrizko Ikerketa eta Bikaintasun Zentroak dira horren adibideak).

9.6. KONTRAESANEN AZALERATZEA

2008ko urtean, ordea, kredituaren burbuilan oinarrituriko finantza-zikloak Atzeraldi Handia eragin zuen. Espainian, gainera, zorpetzeak eta zerga-politika proziklikoak aparteko krisia gaineratu zuten. Ingurumari horretan, sistema ekonomikoaren likidezia ezak enpresen finantzazioa ito zuen; merkatuko eragileen artean konfiantza gabeko giroa azaleratu, eta, azkenean, EAEko ekonomia produktiboan ere eragin zuen (aurrezkien arazoa, inbertsio produktiboaren suntsiketa, produkzio industrialaren indizean jaitsiera nabarmenak, kontsumo pribatuaren gutxiagotzea sendoa, finantza-sektorearen narriatzea, biztanleria landunaren murriztea, langabezia-tasen hazkundera, zerga-bilketaren jaitsiera bat-bateko eta esanguratsua).

Euskal lurraldeetan, Atzeraldi Handiak –eta susperraldian ziren herrialde batzuetako industriaren lehiakortasunak– ordu arteko hazkunde ekonomikoaren oinarri hauskor ugari azaleratu zituen (EAE % 5eko langabezia-tasa teknikoan zegoen), eta agerian geratu ziren oparotasunaren garaiko enplegu berriaren zimendu prekarioak. 2001-2006 seiurtekoan, esate baterako, enplegu osoaren % 4 sektore industrialeko alorretan sortu zen, eta, garai hartan ere, 363 establezimendu industrial ixtearekin batera, industriak % 3,5eko enplegu-galera izan zuen. Bestelako alorretan –eraikuntzan, komertzioan, higiezinako jardueretan–, ostera, enplegu eta enpresa kopuruaren pisu absolutu eta erlatiboa ikaragarri igo zen (seiurtekoan erdietsitako enpleguaren % 76,8, zehatz-mehatz). Banku-entitateek kudeaturiko finantza-baliabideen inbertsio-fluxuek ere sektoreen arteko desoreka iradokitzen zuten, zerbitzuetako alorren mesedetan. Atzerriko inbertsioetan arreta ipiniz gero, helburu sektoriala hauteman daiteke; zerbitzu-sektorean inbertitzen da erdia baino gehiago (atzerriko zerbitzu-enpresen ezarpenean inbertitzen da).

Krisialdiaren etorrerak egiaztatu zuen enplegu tertziarioak oinarri exogeno eta koiunturalak baizik ez zituela; jarduera ziklikoak deritze halako jarduera-alorrei (merkatuaren eta koiuntura ekonomikoaren mendeko jarduerak, alegia), eta, gainera, kualifikazio baxuko lanpostuen enplegatzaileak ziren, berritzeko eta balio erantsia sortzeko gaitasun mugatua zuten, eta lan-baldintzei loturiko aldagai nagusietan kalitate ahulagatik bereizten ziren (behin-behinekotasun altuko tasak, lan-prekaritatea, soldata baxua, lan- eta osasun-segurtasun eskasa). Bestela esateko, hamabost urte luzeko oparotasuneko eta finantza-aukerako testuinguru onura-

EUSKAL GIZARTEA ARO EKONOMIKO BERRIAN

garrian, baliabideak ez ziren behar beste eta ganoraz bideratu ekonomia errealeko alorretara, epe ertaineko produktibitatearen eta soldata altuaren mesedetan.



Gauzak horrela, hazkundearen testuinguruan, ekonomia-produktibitatea ere kontsumorako prezioen indizea baino gutxiago hazi zen (% 1,9 vs. % 2,9), eta ekonomia, oro har, landun kopuruaren eta lanorduen mende zegoen; etxebizitzaren eraikuntzan, herri-lanen pizgarrian –azpiegituretako inbertsio publikoak– eta etorkinen eskulanean –eskulan merkeagoak kualifikazio baxuko lanpostuetan– zetzan hein handi batean 1995etik aurrerako ekonomiaren susperraldia. Gainera, hamarkada eta erdiko hazkunde jarraituaren ostean, industria-alorreko enpresetan, emaitza negatiboak azaleratu ziren landunetan, balio erantsian eta negozio-zifretan. Familien zorpetzeak ere oparotasunaren garaiaren ifrentzuak aurreratzen zituen. Bestalde, industriaren tertziarizazio-maila ahula zen; zerbitzu-baliabide gutxi bideratzen zen ekoizpen-arlora, eta –hazkunde-tasa nabariak izan arren– ahulezia horrek esplikatzen ditu neurri handi batean industriaren espezializatorako eta ekoizpena berri-tzeko zailtasunak. Hori dela eta, esportazioetan, eduki teknologiko altuko produktuak % 2 inguru ziren; ertain-altuak 1990az geroztik hamabi puntu igo ziren (% 48); ertain-baxuak % 55etik % 40ra pasatu ziren, eta baxua % 8 inguruan geratu zen.

Azkenean, EAEEn, hein handi batean ekonomia errealetik aldendu eta neurritz kanpo igoa zen sektorea onbideratzea ekarri zuen krisiak, eta horrek hainbat zehar-ondorio ekarri zizkien herritarrei (langabezia, zorpetzea, asmoen krisia). Guztiarekin, oparotasunaren ameskeriak edo lilurak bi ondorio nagusi azaleratu zituen: batetik, ikusitakoak iradokitzen du garai hartako hazkunde-tasaren eragile nagusiak biztanleria landuna handitzea eta sektore tertziarioaren garrantzia direla; bestetik, ukaezina da euskal lurraldeetan ere patroi ekonomiko, finantzario eta kultural baten (banakotasuna, diru-nahia, zigorgabetasuna, xahubidea), bere neurrian, bidea egin zuela: kredituaren bolumena BPGarekiko bikoiztu (% 130 izatera iritsi zen), eta negozio-harrapakarien irabaziak apartekoak izan ziren, biztanleria landunaren kontsumo mailegatuari eta eskulan merkeari esker.

Hamarkada oso bat behar izan da errekupeazioaren lehen zantzuak nabaritzeko. BPG errealearen bilakaerari dagokionez (BPG 2008 = 100), 2016. urtean gainditu ziren 2008. urtean lorturiko emaitzak (2013an, % 93,4ra jaitsi zen); BPGaren ekarpenean ere, barne-eskariak behea jo zuen (2009an % 5,8 eta 2012an % 3,1 jaitzita); enpleguak (2008 = 100) ez zuen orduko maila berreskuratu (2008 = 100 bada, 2013an % 88,1era jaitsi zen), nahiz eta 2017an hirugarren urtez jarraian % 2,1eko hazkundera izan eta galduak ziren 119.000 denbora osoko lanpostu baliokidetatik 56.000 berreskuratu ziren 2008-2013 epean.

Orobat, Atzeraldi Handiarekin, ekonomiaren irekiera-graduak (inportazio eta esportazioen pisua BPGarekiko) 22,2 puntu galdu zituen, eta 141,9etik 119,7ra pasatu zen. Gainontzean, I+Gko gastua (BPGarekiko ehunekoa) izan zen EAEko ahulgune handienetako bat: 2003-2015 epealdian, % 1,4 eta % 2,1 artean ibili zen, baina posizio erlatibo mugatua zuen, ez soilik Europako herrialde lehiakorren alderatuta (Suedia, Finlandia, Alemania), baizik eta baita EB28arekin konparatuta ere (8. grafikoa). Ahulgunea oraindik eta nabariagoa zen alderaketa erreferentziatzko eskualdeekin eta eskualde lehiakorrenekin eginez gero.

8. grafikoa: EAEko I+G gastua



Iturria: EUSTAT.


9.7. ATZERALDI HANDIAREN OSTEKO BERRESKURATZE GELDOA

Elkarrizketak eta eztabaida-taldeak 2017. urteko udaberrian eta 2018ko lehen sei-hilekoan egiteak badu garrantzia. Merezi du garaia gaingiroki azaltzea. 2008. urteko finantza-krisiarekin batera, ikusi berri dugunez, lurraldeko ekonomiaren operatasun jarraituan etena izan zen: enpleguaren galera, kontsumoaren eta jarduera ekonomikoaren jaitsiera, zerga-bilketaren beherakada; EAE osoan, 2009. urteko hirugarren hiruhilekoan, produkzio industrialaren indizearen urte arteko tasa % 20 jaitsi zen; biztanleria landuna % 4,5 murriztu zen; kontratu mugagabeetan, urte arteko jaitsiera % 33,5koa izan zen 2009ko lehen sei-hilekoan; langabezia-tasak gorakoari ekin zion (orduan % 8a gaindituz). Gauzak horrela, zorpetze gehiegizkoaren arriskuak, aurrekontu hedakorretarako zailtasunak eta planifikaziorako trabek ordu arteko patroia irauli zuten.

Haatik, lurralde eta enpresek 2008. urteko finantza-krisiaren ondorioei aurre egiteko finantza-gaitasuna erakutsi zuten (erakunde publikoek ere bazuten zorpetzeko gaitasun handia eta politika kontraziklikoetarako inbertsio-gaitasuna, ordu arteko euren kudeaketa ortodoxoak zorpetzean, zor publikoan eta defizit publikoan erdietsitako emaitza positiboak ahalbidetu zituelako). Alabaina, inpartuak lur jota utzi zituen lurraldeko erakunde eta eragile nagusiak; Europako Banku Zentralak –Jean Claude Trichet presidentea zela–, inflazio-arriskuei aurre egiteko, interes-tipoak igotzea erabaki zuen, eta, horren ondorioz, lurraldearentzako une kritikoenak hurrengo urteak izan ziren. Adierazle sozioekonomikoek (BPGaren urte arteko aldakuntza –ikus 9. grafikoa–, biztanleriaren jarduna, langabezia-tasa, industria-jarduera, I+G gastua BPGarekiko) egiaztatzen dute 2012. urtea izan zela egiazki une kolpatu eta larriena.

Gipuzkoari dagokionez, 2012. urtean, BPGaren urte arteko aldakuntza –% 2,0koa izan zen, eta, 2013. urtean, –% 1,7koa; urte horietan, BPGaren urte arteko aldakuntzan industria % 5,2 eta % 2,8 jaitsi zen, hurrenez hurren; langabezia-tasak ere 2013-2015 tarteko urteetan % 16,6, % 16,3 eta % 14,8ra heldu ziren. Ekoizpen industrialean, berriz, ondasun-ekipoek % 6,2ko jaitsiera izan zuten 2012an, bitarteko ondasunek –% 7,4koa eta ondasun-kontsumoek –% 4,1koa. Munduko esportazioen kuotan ere nabaritzen da salmenten parte-hartzearen beheraldia.

9. grafikoa: EAEko indize gordina eta BPG. Ziklo-igoera.*



Iturria: EUSTAT. Hiruhileko kontuak.
 *Erreferentzia-urtea: 2015


Lan-merkatuari buruzko argibide inportante bat kontratuen eboluzioak erakusten du. Behin-behineko kontratuei dagokienez, 2009. urteko lehen sei hilekoan, urte arteko % 25,5eko jaitsiera izan zen, eta jaitsierak izan ziren 2012ko lehen sei hilekoan (-% 7,3) eta 2013ko lehen sei hilekoan (-% 4,4). Kontratu mugagabetan, 2008 eta 2012 bitarteko lehen sei hileko guztietan izan ziren jaitsierak: 2008an -% 2,66, 2009an -% 33,5, 2010ean -% 6,2, 2011n -% 4,8 eta 2012an -% 12,1. Bestalde, 2008-2012 bitartean, erregimen orokorreko afiliazioari dagokionez -urtaroaren efektua zuzenduta-, berriz, Gipuzkoan enplegu osoaren % 12 galdu (behin-behineko 27.000 enplegu eta 15.000 mugagabe), eta afiliazioa 241.140 pertsonatik 211.040koa izatera pasatu zen. Ekonomiaren hazkunde-erritmoaren egonkortasuna 2015. urteko bigarren erdialdeaz geroztik etorri zen; urte haietan, 16.000 langile finko eta 8.000 behin-behineko gehiago izan ziren. (Egiazki, 2000-2008 urteen artean, erregimen orokorreko afiliazioari dagokionez enplegua % 27 hazi, eta 190.487 izatetik 241.140 izatera igaro zen, baina zehaztu behar da 2008. urteaz geroztik Gipuzkoako lurraldean urtero 65 urteko 2.000 pertsona gehiago egon direla 18 urte betetzen dituztenekin alderatuta, eta urtero 7.000 pertsona inguruk hartu duela erretiroa).

EUSKAL GIZARTEA ARO EKONOMIKO BERRIAN

Lurraldeko BPGa aztertuz gero, 2006. urtean, goia joz, % 8,8 hazi zen; 2009. urtean, aldiz, % 6,5 jaitsi zen; 2015. urtean, ostera ere, % 3,4 hazi, eta hazkunde jarraituaren bideari ekin zion: 2017. urtean, BPG errealaren hazkundea % 2,9koa izan zen. BPGari erreparatuz gero biztanleko erosahalmenaren parekotasunean (EB28 = 100), 2008. urtean, hamabi puntu jaitsi eta 2013ra bitartean 132an ibili ostean, 2014. urtean 137ra pasatu, eta, 2015ean, 181era igo zen (2016an 183 eta 2017an 184, hurrenez hurren). 2017. urtean, per capita BPGa 32.969 eurokoa izan zen, 2013. urteaz geroztik (28.858 euro) etengabe igo ostean. Langabezia-tasa 2017. urtean % 11,3ra jaitsi zen (EB28n, % 7,6koa zen).

Ekonomia produktiboa onbideratzen ari den seinale, produkzio industrialaren indizean ere aldaketak izan dira (10. grafikoa), betiere nazioarteko merkataritzaren dinamika aldakorren pean. Orobat, enpleguaren urte arteko aldakuntza-tasei dagokienez, EAEn urteotan badaude susperraldi-zantzuak: 2013. urtean, -% 4,0koa izan zen, eta, orduz geroztik, 2014., 2015., 2016. eta 2017. urteetan, % 1,0, % 1,3, % 1,3 eta % 1,7koa izan zen, hurrenez hurren. Horren harira, betiere, aintzat hartu behar da nazioarteko komertzioaren hazkundearen dezelerazio garaia zela, 2008ko atzeraldiaren ostekoa, eta krisiari loturiko inbertsioaren jaitsieraren ondorioz jarduerak ekonomikoa oso ahula zela.

10. grafikoa: EAEko industria-prezioen indizea. Indize orokor gordina



Iturria: EUSTAT. Industria-prezioen indizea.

Urteotan eta hurrengo urteetan, jardueraren hazkundera aurreikusten da, jakitun izanda, noski, aurrerantzean adierazle makroekonomiko nagusien hazkunde-erritmoa kasurik onenetan ere geldoa izango dela. Hipotesi hori deigarria da, EAEko eremua gainditzen baitu: ekonomia aurreratuetakoa hazkundera 1970etako hamarraldia bitartean baino tasa txikiagoetan egonkortua dago, eta produktibitatearen hazkunderari buruzko aurreikuspenak ez dira oparoak, egiturazko auzi bi kontuan hartuz gero: eskariaren defizit kronikoa eta teknologietako inbertsioaren erritmo baxuagoa.

Iritzi hedatua da teknologia berriak ez direla izango etorkizuneko hazkunde ekonomikoaren bermea, eraldaketa teknologiko eta digitalak ez baitute eragingo aparteko berrikuntza produktiborik, azken bi mendeekin alderatuz. Hipotesi baikorragoek diote aldaketa teknologikoak produktibitatea bultzatzea dezan horizonte luzeagoa behar izaten dela; alegia, ezarpen teknologikoa amaitu eta ekonomiak inbertsioen sinergiak aprobetxatu bitarte, ikaskuntzaren kostuek epe ertaineko iraupena dute. Historiako eraldaketa teknologikoen ere berrikuntzak ekoizpen-prozesuan integratu eta denbora luzera ekarri izan dituzte produktibitatean hobekuntzak (hala gertatu zen lurrin-makinarekin eta elektrizitatearekin, eta 1980ko eta 1990eko ordenagailuetan oinarrituriko ekoizpen-jardueren automatizazioak ere lau hamarkadako ibilbidea zuen aurretik egina aurrerapen zientifiko-teknologikoen negozio-eredu berrietara doitu artean).

Nolanahi den, EAEko BPGaren bilakaeran, urte arteko aldakuntza-tasa % 3,2koa izan zen 2015eko laugarren hiruhilekoan; bada, 2016. urtean, sasoi berean, % 3,2koa izan zen, 2017an % 3koa eta 2018an % 2,2koa, 2018an hasitako motelaldiari jarraipena emanaz. Gainontzean, hazkunde geldoaren testuinguru orokorrean, joera positiboak berretsi dira, ekonomiaren beste adierazle nagusiak eta enpresen balantzea eta emaitzak aintzat hartuta (salmentak, fakturazioa, esportazioa, inbertsioak, gaitasun produktiboaren erabilera-maila, zorpetzea, eskarien kartera, balantza komertziala); neurri batean, Europako moneta-politika ez-konbentzionalak erraztuta (neurtezina da Europako Banku Zentralaren politika hedatzaileak -interes-tipo baxuak, likidezia handitzea, bonoak erosteko eta banku-kreditua estimulatzekeo programak- ekonomiaren onbideratzean izaniko garrantzia).

EUSKAL GIZARTEA ARO EKONOMIKO BERRIAN

Orobat, EAEn ere, 2017. urtean, egonkortua zen hazkunde berria, eta, Europako herrialdeekin alderatuz, beraren posizio erlatiboak hobera egin zuen: EAEko biztanle bakoitzeko BPG (erosahaltenaren parekotasunean) EB28koaren gainera kokatu zen (% 23), bai eta EB15ekoaren gainera ere (% 14). Atzerriko inbertsio produktiboak ere goia jo zuen, eta 2.616 milioi eurora heldu zen (Siemens-en eta Mercedes Benz-en artean, guztiaren % 72,8, edonola ere). 2017. urtean, Eusko Jaurlaritzak ere 2008. urteko aurrekontuen maila berreskuratu zuen.

Datuak gorabehera, gure xedeetarako, ideia honek axola digu: ekonomiaren hazkunde jarraituarekin eta enpresen balantzeak berriz ere joera positiboa hartzearekin, estrategien inguruko kezkek lehen mailako garrantzia hartu dute ostera ere lurraldeari buruzko diskurtsoetan. Giro horretan egin dira, hain zuzen, landa-laneko elkarrizketak eta eztabaida-taldeak.

EGITURA SOZIAL ETA EKONOMIKOAREN ERALDAKETA
9.7 Atzeraldi handiaren osteko
berreskuratze geldoa



EUSKAL GIZARTEA
10 ARO BERRIAN:
DIAGNOSTIKOA

- 
- 10.1. SARRERA**
 - 10.2. INDUSTRIAKO SEKTOREA
LURRALDEKO EKONOMIAN**
 - 10.3. INDUSTRIA BERRIA**
 - 10.4. EGITURA SOZIAL
ETA EKONOMIKOA**
 - 10.5. GIZARTE-INKLUSIORAKO
AHALEGINA**

10.1. SARRERA

1970eko hamarraldiaz geroztiko ziklo berrian, eboluzio garbia egon da lurraldeko ekonomiaren dinamismoan eta hazkunde-tasetan garrantzi berezia duten aldagaietan. Alde batetik, sektore produktiboetan enplegua sortzeko gaitasunean eta biztanleriaren jarduera-tasan gertatu dira aldaketak. Bestetik, lurraldearen gaitasun produktiboan pisuzkoak diren biztanleriaren eboluzioak eta giza kapitalaren hobekuntza formatiboak ere aparteko eraldaketak izan dituzte.

Datozen bi kapituluetan, eraldaketa horiek azaldu eta lurraldeari ireki zaizkion erronkak argituko dira. Kapitulu honetan, lurraldearen gaur egungo egitura ekonomiko eta sozialaren berri emango dugu. Hurrengo kapituluan, erronka nagusiei egingo diegu azpimarra.

10.2. INDUSTRIAKO SEKTOREA LURRALDEKO EKONOMIAN

1980ko hamarkadan, aurreko kapituluan ikusi bezala, lurraldeko sistema produktiboa birmoldatu eta berpiztu ziren. Garaia oso berezia zen. Alde batetik, desafio esanguratsuak azaleratu ziren, hala nola industria tradizionalaren krisia, nazioarteko ekonomia eta ekoizpena berregituratzea, Europako integrazio ekonomikoa, globalizazioa, eta hazkunde ekonomikoa geldotzea, besteak beste. Bestetik, administrazio publikoek eskumenak bereganatu zituzten, eta lurraldeko eragileek, adostasun zabalarekin, lehentasuna eman zieten industriari, haren jarduera osagarriari eta bertakotzeari. Hori dela eta, jarduera ekonomikoa biziberritzeko inbertsioak egin ziren; besteak beste, ikerketa eta garapen teknologikoan, industria-jardunerako lurretan, ezagutza- eta teknologia-alorretako lankidetzak publiko-pribatuan, aurrezki-kutxen likidezari esker enpresen laguntza finantzarioan, proiektu teknologiko eta industrial berriak bideratzen, azpiegituran edota nazioartekotzean. Horren guztiaren ondorioz, industriak ekarpen berezia egin dio balio erantsiari. Lurraldeko enpresen inbertsio sistematikoa eta jarraitua edota

erakundeen arteko kolaborazioa dira beste aldagai nagusi bi. Testuinguru horretan, industrializazio intentsiboa eta formazio eta prestakuntza apaleko eskulana bestelako industria-ereduarekin pixkanaka ordezkatzeari lotu da.

Estrategia ekonomikoa industriaren alorrean ardazteak adostasun zabala izan du, eta lurralde-mailako dimentsioa izatea erraztu du. Alegia, egitura ekonomiko industrialaren birmoldaketak –enpresa-estrategiarekin alderatuz–, garatuko bada, integrala eta bateratzailea izan behar du, eta horretarako baldintzak eragin dira lurraldean. Eragile batzuen irudiko, hainbatetan, portaera estua eta partziala egon da (gobernu erregionala erdiguneko aktore modura aritzea, estrategia zuzendua eta goitik beherakoa diseinatzea, politikak gehienbat sektore eta enpresetara soilik bideratzea, politikak merkatu-akatsen zuzenketa oinarritzea). Baina, eskuarki, lurraldeko eragileak inplikatu egin dira ezagutza (formazioa, prestakuntza, ikerketa, transferentzia, berrikuntza), sustapen ekonomikoa, finantzazioa edota balio-sistema estrategia ekonomiko industrialarekin lerrokatzeko. Horren harira, solaskideek balioa eman diete lurraldeko eragileen arteko saretze-gaitasunari, lankidetzari, konfiantzari eta arduren banaketari, gorabehera eta zailtasun guztiekin.

Alde horretatik, esate baterako, 2017. urtean, Gipuzkoako ekonomian, balio erantsi gordinaren (BEG) %27,8 industriako sektoreari zegokion; BPGaren % 28ko pisua zuen, eta lurraldeko industrian ekoizitako ondasun eta zerbitzuen moneta-balioa 6.511.875 eurokoa izan zen. Enplegu industrialari dagokionez, berriz, badaude 2008. urtean hasitako eboluzio negatiboaren aldi luzea gainditzeko zantzuak, industrian enplegua berreskuratzeko joera egonkortzen ari den heinean: 2016. urtearekin alderatuta, sektoreko biztanleria aktiboa % 11,08 hazi da, eta, 2013. urtearekin alderatuta, landunen hazkundera % 12,05ekoa izan da. Aktiboen distribuzio portzentuala sektore ekonomikoen arabera aztertuz gero, berriz, Gipuzkoan, 2018. urtean, % 22,4 industrian ari zen, eta, 2008. urtean, % 27,6; landunei dagokienez, 2018. urtean, % 25,2 ziren (2008. urtean, % 28,5), eta, 2014-2018 epean, Gizarte Segurantzaren erregimen orokorrean 4.330 afiliatuko hazkundera izan zen manufakturako industrian (guztien % 17,4).

Datu horien pisu erlatiboa ulertze aldera, Europan (EB28), industria BEGaren % 20 zen 2017. urtean, eta BPGaren % 19,3ko pisua zuen, nahiz eta eskualdeen artean ezberdintasun handiak egon. Enplegu osoko jarduera ekonomiko nagusien pisuari dagokionez, ostera, Europan, industria ahuldu egin da: 2000. urtean, langileen % 19,2 industrian enplegatua zegoen; hamasei urteren buruan, % 15,3era jaitsi zen (2017. eta 2018. urteetan ere, batez bestekoa kopuru horietan mantendu zen); 2000. urtean, hamabost herrialdek gainditzen zuten industriako landunen % 20, eta, 2016. urtean, ostera, zazpi herrialde baizik ez ziren. EB28ari erreparatuz gero,

EUSKAL GIZARTEA ARO EKONOMIKO BERRIAN

industriak pisua galdu du enplegua sortzeari dagokionez: 1996. urtean, batez bestekoa % 20,7koa zen; hurrengo aldietan, berriz, jaitsi egin da: 2016., 2017. eta 2018. urteetan, % 15,3an egonkor mantendu da. Ikus daitekeen moduan, Gipuzkoako ekonomian industriak, produktuei eta enplegu-aldagaiei dagokionez, presentzia erlatibo handiagoa du. Horrek, gainera, erakusten du ez dela gertatu industrializazio zaharreko beste hainbat lurraldetako industria-galerarik, eta egiaztatzen du berregituratzeko ahalegina eta gaitasuna badagoela.

Lurraldeko datuak gehiago xehatze aldera, lan-harremanari dagokionez, besteren kontura lan egiten dutenak guztiaren % 78,56 dira, eta beren kontura lan egiten dutenak, berriz, beste % 21,44a. Zehazki, lurraldeko –Gipuzkoako– industriako langile landunak orotara 2009. urtean 92.732 izatetik 2014. urtean 75.680 izatera pasatu ziren; hurrengo urteetan, berreskuratzeari ekin, eta, 2017. urtean, 79.930era iritsi zen kopurua (63.613 gizonetako eta 16.617 emakumezko). Industriako adarretan segmentatuta, metalurgian eta produktu metalikoetan 26.069 landun zeuden; makinerian eta tresnerian, 12.710, eta, garraio-materialean, 5.321, guztien artean hiru nagusiak aipatze aldera. Eskualdeka mugatuz gero, berriz, industrian ari zen Debagoieneko landunen % 38,5, Goierrin % 37, Debarrenean % 34, Tolosaldean % 30,4, Urola Kostan % 29,1, Bidasoaldean % 14,9 eta Donostialdean % 14,8. Industriaren garrantzia ikusarazte aldera, lurraldeko langilearen profila edo argazki-robotatzea honako hau da: gizonetako, 35-44 urte artekoa, erregimen orokorrera afiliatua, 6 eta 25 langile arteko manufaktura-industrian ari dena, formazio ertaina duena, eta lanaldi osoko kontratu mugagabea duena.

Landun kopurua teknologia-mailaren arabera aletuz gero, berriz, 2017ko datuen arabera, teknologiko eduki handietan 4.257 ari ziren (% 4,8ko urte arteko aldakuntzarekin), teknologiko eduki ertain-handietan 26.595, teknologiko eduki ertain-txikietan 32.251 eta teknologiko eduki txikietan, berriz, 13.994 (sailkatu ga-beak orotara 2.833 dira). Ikus daitekeen moduan –gogoan izan aurreko kapitulua–, teknologia-mailan gorako aldaketak izan dira, baina ekoizpen-katearen erdi-goi mailan kokatzeko zailtasunak hor dirau, oraindik ere, eta enpresa traktoreen garrantzi estrategikoa agerian uzten du.

2016. urteko datuen arabera, orotara lurraldeko industria-ustiapenaren emaitza 812.540 eurokoa izan zen, egindako inbertsioa 552.001 eurokoa, ustiapeneko sobe-rakin gordina 1.481.824 eurokoa, langileria-kostua 3.262.762 eurokoa, balio erantsia faktore-kostutan 4.744.586 eurokoa, eta salmenta garbiak 14.713.805 eurokoak. Aipatzeko beste adierazle koiunturala industriako produkzioaren indizea (IPIa) da, eta, horren arabera, 2014. urteaz geroztik industriako jarduera produktiboa lau urtez jarraian hazi da (2017. urtean aurreko urtean baino % 2,4 gehiago).

Orobat, 2017. urtean, industriako sektoreak % 2,7ko hazkundea izan zuen, eta industriako negozio-zifraren zenbateko garbiak % 5,4 gora egin zuen; 2016. urtean, manufaktura-industiaren kanporanzko irekiera irmotu egin zen (salmenten % 44,6 atzerrira zuzendu ziren); inbertsioak izan ziren, hain zuzen, eboluzio negatiboa izan zuten adierazle bakarra (% 7,1 egin zuen behera, bi urteko gorakoaren ostean). Industriako BPGaren eboluzioari dagokionez ere, aldagai nagusiek urte arteko aldakuntza-tasetan ekoizpenaren hazkundea egiaztatzen dute, eta enpleguak, berriz, % 1,7ko igoera izan zuen.

Aipaturiko datu orokor horiek, lurraldeko ekonomiaren izaera industrialia agerian ipini, eta industriaren pisua (BPGan eta enpleguan) erakusten dute. Aberastasunari buruzko ratioek ere egoera positiboa iradokitzen dute: Europako eskualdeak per capita BPGa baliatuta alderatuz gero (PPS EB28 = 100), euskal lurraldeak maila ertainean (100-<125) kokatzen dira (EAE = 122, Gipuzkoa = 123), 35.000 euro inguruko per capita BPGarekin. 2016. urteko datuen arabera, biztanleko BPGa 35.300 eurokoa (erosahalmenaren parekotasunean) izan zen; EAE Europako 218 eskualdeetatik 34. tokian zegoen, eta, antzeko eskualdeekin alderatuta, posizio erlatiboa hobetagoa lortu zuen (Salzburgo, Hesse, Vorarlberg edo Tirol, guretzat erreferentziazko eskualdeak, nabarmen hobeto daude, halere).

Bestalde, sektore ekonomiko gisa, industriak, lurraldeko BPGari eta enpleguari ez ezik, produktibitateari (BPGa / landun kopurua) ere egiten dio ekarpena (industriako langileak urtean 65.000 euro sortzen ditu batez beste). Produktibitatearen urte arteko aldakuntza-tasei dagokienez, 2013. eta 2017. urteen artean hauek izan ziren bariazioak, hurrenez hurren: % 1,2, % 3,3, % 1,7, % 1,2, % 0,9. Produktibitateari bestela erreparatuta, Gipuzkoako lurraldeko industria-produktibitatea beste sektoreekin alderatuz nabariagoa da: azken hamarkadetan, industriako produktibitatea hirukoiztu egin da beste sektoreekin alderatuta; 1980. urteaz geroztik, ekonomia osoaren produktibitatea % 46 hazi zen, eta industriarena, berriz, % 121; horrek aditzera ematen du lurraldeko enpresek badutela ahalmena aurrerabide teknologikoa bereganatzeko eta orobat industriaren ekoizpen-gaitasuna eraginkorreragoa dela.

Azkenean, datu horrek aparteko inportantzia du, produktibitateak bermatzen baitu epe ertain-luzera lan egiteko moduan daudenen per capita BPGa haztea; jarduera- eta enplegu-tasak mugagabe hazi ezin daitezkeen heinean, produktibitateak lurraldearen aberastasunari buruzko argiak eskaintzen dizkigu, eta epe ertaineko lehiakortasun-gaitasuna aurreratzen digun adierazlea ere bada. Lanaren banaketa edo langileko produktibitatea deitu, beraz, soldatak eta aberastasuna, epe ertain-luzera, BPGa / landun kopurua banaketaren arabera dira. Neurri

EUSKAL GIZARTEA ARO EKONOMIKO BERRIAN

horretan, lurraldeko produktibitateak garrantzi berezia du beste hainbat aldagai-tan ere, hala nola soldaten hazkundean, errenta erabilgarrian, kontsumo pribatuan edota inbertsio publikoan, zehatzago adierazteko. Guztia esatera, ordea, lurraldeko eta EAeko produktibitatea (lanordu bakoitzeko EB28aren batez bestekoa baino % 20 inguru balio gehiago sortzen da, eta EB15koaren parekoa da) ez ditu ekoizpen-egiturak soilik esplikatzeko (2017. urtean, industria balio erantsiaren % 24 zen EAEn). Izan ere, lanordu bakoitzeko produktibitatea jarduera ekonomiko gehientsuenetan hobetu da, eta, EAEn, lanordu bakoitzeko Europako batezbestekoa baino ia % 15 gehiagoko balioa sortzen da (8. taula). Alderaketa EB15arekin eginda ere (EB=100), balioa 103,9koa da.

8. taula: Lanordu bakoitzeko produktibitatea EAEn (EB28=100)

Urtea	Eurotan			Erosteko ahalmenaren parekotasuna		
	2000	2008	2016	200	2008	2016
Orotara	95,5	107,3	104,2	113,1	116,8	115,7
Lehen Sektorea	203,1	179,7	190,6	240,6	195,7	211,7
Industria	96,8	117,4	118,3	114,6	127,9	131,3
*Manufakturrak	98,2	120,2	117,3	116,3	130,9	130,3
Eraikuntza	123,2	152,4	154,3	146,0	166,0	171,4
Komertzioa eta ostalaritza	96,1	106,3	103,5	113,8	115,8	115,0
Informazioa eta komunikazioak	96,8	95,8	82,5	114,7	104,3	91,6
Finantza-jarduerak	119,8	153,0	115,8	141,9	166,6	128,6
Higiezin-jarduerak	66,5	118,6	180,2	78,8	129,2	200,1
Jarduera profesionalak	72,1	77,1	82,4	85,4	83,9	91,5
Administrazio publikoa	113,4	112,2	103,4	134,3	122,1	114,8
Jarduera artistikoak	75,6	85,5	76,6	89,5	93,1	85,0

Iturria: Eusko Jaurlaritza, Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritza

Horrek azpimarra merezi du, industriako produktibitatea hazi izana lurralde-mai-lako egitasmoari eta askotariko ahaleginari zor baitzaio: tokiko enpresariak ondasun-ekipoetan eta I+G jardueretan eginiko inbertsioari, langileek etengabe prestatzeko eta jarduteko eginiko ahaleginari, laneraturiko pertsona gazteen kualifikazio jasoari eta gazteok lurraldean atxikitzeko gaitasunari, edota lanbide-heziketaren eta industriako enpresen arteko gerturatzeko eta lerrotatzeko progresiboari, besteak beste. Alde horretatik, produktibitateari buruzko datuek iradokitzen dute teknologia berrien erronkei emaniko erantzuna egokia izaten ari dela. Produktibitatearen igoerak –eta modu apalagoan langabeziaren jaitsierak– esplikatzen du, hain zuzen ere, azken hamarkadetan ekonomia aurreratuekin konbergentziarako urratsa (aintzat hartuz lanean dagoen pertsonako per capita BPGa eta errenta), eta Espainiako ekonomiarekiko alde nabarientako bat ere produktibitatean dago (Espainiako produktibitatearen hazkundea antiziklikoa da: fase hedakorretan, produktibitatea gelditu egiten da, eta, atzeraldi-faseetan, langabezia % 20ra igo eta produktibitatea hazi egiten da).

Lurraldean industriak duen pisua eta horren efektu positiboa beste hainbat adierazle ere egiaztatzen dute. Esate baterako, lurraldean –ekonomia aurreratuko herrialde lehiakorretan ez bezala, bidenabar esateko– industria da liderra berrikuntza-prozesuetan, teknologian edota inbertsioan, eta industriako soldatak beste sektoreetako batezbestekoekin alderatuz % 10 altuagoak dira, promoziorako aukerak ematen ditu, lanordu efektiboak txikiagoak dira, eta behin-behinekotasunak, berriz, oso nabarmen dira baxuagoak. Industriak badu bestelako berezitasunik ere: manufakturako industriak, pertsonen laneko aukerak eskaini eta profesionalen ekintzailatzarako aukerak emateaz gainera, lurraldearen antolaketa eta biztanleriaren banaketan ere modu orekatuan eragiten du; ez ditu hiri-aglomerazioetan metatzen jarduera ekonomikoa, zerbitzuak, laneko aukerak, populazioa eta enplegua. Gipuzkoaren kasu berezian, industria lurraldean zehar sakabanatua egotea berezitasun historikoa da, gainera, bederatzigarren kapituluan ikusi moduan.

Alde horretatik, hirigunea ez ezik, bitarteko hiriguneak eta, neurri apalagoan, landaguneak modu orekatuan garabideratu dira, biztanleriaren dentsitatearen, garapenaren eta lehiakortasunaren ikuspuntutik begiratuta, orain artean bederen. Industriak azken urte luzeotan izan duen garrantziari zor zaizkio neurri batean ongizatea eta gizarte-kohesioa ere. Horren erakusle, industrializazioak eta industriak ekonomian duen sendotasunak biztanleriaren hautemate eta konfiantza sozial baikorretan hiru joera bereizlerekin eragin izan du: belaunaldien arteko mugikortasun soziala erraztu eta herritarren artean aukerak irekitzen ditu; gurasoen estatusaren eta seme-alaben hezkuntza-aukeren eta garapenaren arteko lokarriak ahaltzen ditu; jatorri sozialaren eragina makaldu ahala formazioaren eta prestigio okupazionalaren arteko loturak sendotzen ditu. Gizarte industrialak, hain zuzen ere, lurraldean herritarren aukera-markoa erraztu eta bizitzeko espektatibak hobetzeko balio izan digu.


EUSKAL GIZARTEA ARO EKONOMIKO BERRIAN

Lurraldean industriak zer-nolako garrantzia duen ulertze aldera, nazioartekotzeak ere hainbat argi dakartza: 2018. urtean, Gipuzkoako esportazioak 7.640,8 eurokoak izan ziren (inportazioak, berriz, 4.095,2 eurokoak). Aurreko urtearekin alderatuta, % 3,3 hazi zen (2017. urtean, % 4,7 hazi zen), betiere, nazioarteko merkataritzaren une aztoratuek eta ekonomiaren motelaldiak ezaugarrituriko testuinguruan. Zehazki, hazkundearen % 89 lurraldeko espezializazioari estuki loturiko alorrei zor zaie: ekipo-ondasunen esportazioa (makineria zehatzak bereziki), erdi-manufakturatuen esportazioa (burdina eta altzairua, beste erdi-manufaktura-erakuntzako materiala-), eta automobilaren sektoreko esportazioa.

Arloka ere, bereziki makineriek eta ekipo-ondasunek eta metalurgiak eta produktu metalikoen eragin dute nazioartekotzearen hazkundean. Manufakturen alorrean, berriz, maila teknologiko altukoak dira esportazio handiena izan dutenak (lurraldean pisu handiena maila ertainekoek dute, ikusi bezala). Hori inportantea da, esportazioaren kalitatea eta bermea balio erantsiko produktuetan datzalako, epe ertain-luzera begira, baina ifrentzua da lurraldean pisu erlatiboki txikia duela. Haatik, kanpo-merkataritza arlo estrategikoa izan arren, neurri batean faktore kointuturalen mendekoa da, eta lau hamarkadaren alderaketak erakusten du urteko aldakuntza oso aldakorra dela (urteko aldakuntza positibo deigarriak 1980., 1983., 1988., 1994., 1997., 2000., 2005., 2011., 2014., 2017. urteetan izan ziren), baina, era berean, bilakaera historikoak berresten du lurraldeko ekonomian nazioartekotzearen pisua hazi eta sendotu egin dela (11. grafikoa).


Nazioartekotze progresiboarekin batera (irekitasun-maila $EB28=100$ bada, EAEn 132 da), dibertsifikazio mailakaturik da beste ezaugarrietako bat; 1990eko eta 2000ko hamarraldietako kontzentrazio espazialaren maila altua arindu eta sakanbanatzen ari da. Lurraldean –Gipuzkoan– industriako langilearen urteko ekoizpena 300.000 eurokoa zen 2017ko datuen arabera; batez beste, horren % 30 EAEn eta % 30 Espainian saltzen zen, eta, ostera, % 40 nazioartean. Azken datu hori xeheago aletuta, zera ikus genezake: % 60 Europan saltzen zen (% 16,5 Frantzia, % 12,2 Alemanian, % 7,7 Erresuma Batuan), eta % 40, munduko beste leku batzuetan (% 9 Ipar Amerikan, % 15 Hego Amerikan, % 11 Asian). Nazioartekotzean, pisu esanguratsuen makineriak (% 50) eta garraioko materialek (% 20) zuten. Orobat, euskal manufaktura-industriako enpresek ere atzerriko merkatuetarantz irekitzeko beren estrategia mantendu zuten. 2017ko datuen arabera, manufaktura-industriaren salmenten % 44,6 atzerriko salmenta izan zen, eta salmenten guztizkotik % 29,4 Europar Batasunean izan zen, eta % 15,2 metatu zuten munduko gainetakoak. Manufaktura-industriako adarrei dagokienez (12. grafikoa), pisu erlatibo desberdinarekin bada ere, kanpo-salmentan negozio-bolumena esanguratsua eta hazkorra da.

11. grafikoa: Kanpo-merkataritzaren bilakaera. Uneko prezioak (milioi eurotan). Gipuzkoa



Iturria: EUSTAT Kanpo Merkataritzaren Estatistika

12. grafikoa: Manufaktura-industriaren salmenten norakoa. EAE. Uneko prezioak (mila eurotan eta ehunekotan). 2017



Iturria: EUSTAT. Industriaren estatistika.

EUSKAL GIZARTEA ARO EKONOMIKO BERRIAN

Ikus ditzagun EAEko komertzioaren helburua eta inportazioaren jatorria (9. taula). Esate baterako, esportazioen kasuan, 2017. urtean, orotara 23.856,7 milioi euro izan ziren, eta horietatik 19.467,4 milioi euro ELGA (OECD) osatzen duten herrialdeetara; Europar Batasunera 15.515,3 milioi euro, Alemaniara 3.775,5 milioi euro, Frantziara 3.693,8 milioi euro, Erresuma Batura 1.512,0 milioi euro edota Italiara 1.100,4 milioi euro; Estatu Batuetara, berriz, 1.820,8 milioi euro; Japoniara 128,6 milioi euro (urte arteko aldakuntza-tasa oso gorabeheratsua da); Errusiara 236,0 milioi euro; eta Txinara 535,7 milioi euro (urte arteko aldakuntza-tasa oso gorabeheratsua da). Neurri berean, Gipuzkoako lurraldeko industriako enpresen % 40 batez beste nazioartean saltzen da (Mondragoneko dibisio industrialetan, adibidez, batez beste % 70). Inportazioaren jatorriak ere oro har tradizionalak dira (Alemania, Frantzia, Erresuma Batua, Italia), baina balantze apalagoekin, eta estaldura-tasak ere superabita egiaztatzen du. Haatik, merkataritza-saldo negatiboa inportazioen izaera energetiko handiena dutenekin gertatzen da (% 64,0 Brasilentzat, % 63,5 Errusiarentzat eta % 96,0 Mexikorentzat), eta Txinarekin.

9. taula: EAEko komertzioaren rankinga nazioartearekin alderatuta (2017)

Esportazioak	Guztiaren %	Inportazioak	Guztiaren %
Alemania	%15,8	Alemania	%14,9
Frantzia	%15,5	Frantzia	%9,7
Estatu Batuak	%7,6	Erresuma Batua	%7,1
Erresuma Batua	%6,3	Txina	%5,6
Italia	%4,6	Italia	%5,0
Belgika	%4,1	Irlanda	%3,8
Portugal	%3,9	Mexiko	%3,8
Herbeherak	%3,2	Herbeherak	%3,5
Mexiko	%2,7	Errusia	%3,4
Txina	%2,7	Norvegia	%2,5


Iturria: EUSTAT

Datu horiek, bide batez, aditzera ematen digute era batera edo bestera jarduera ekonomikoaren garabidean eta hazkundera pisua duela Europako herrialdeen ekonomian (bereziki Frantzia, Alemanian, Erresuma Batuan) gertatzen denak, edota marko geopolitiko globalak (esaterako, merkataritzaren alorreko muga-zergak).

2018. urteko datu berrituen arabera, EAEko irekitasun komertzialaren maila (esportazioak + inportazioak / BPGa ratioak adierazia), BPGaren % 59,8 izatera iritsi zen; ondasunen esportazioek % 6,8 egin zuten gora, eta kanpo-saldoan 5.198,7 milioi euroko superabita izan zen (13. grafikoa). Esportazioak 25.487,5 milioi eurokoak izan ziren (Gipuzkoan, 7.640.842 milioi eurokoak); esportazioek BPGarekiko % 33,3ko tasa lortu zuten, eta inportazioak, berriz, 20.288,8 milioi eurokoak izan ziren (Gipuzkoan, 4.095.218 milioi eurokoak). Guztiarekin, irekitasun-graduak erakusten du 2008. urtean baino 12,6 puntu baxuagoa dela gaur-gaurkoz esportazio eta inportazioek BPGarekiko duten pisua; merkatu propioaren aldeko joera horrek Herbehereekin (35 puntu gehiago) edota Alemaniarekin (25 puntu gehiago) kontraste garbia azalartzen du.

Zehazki, nazioartekotzeari dagokionez, EAEko industriak batez beste bere produkzioaren % 60 esportatzen du; garraioko materialetan («5-10 pertsonarentzako turismoak», «Zamak garraiatzeko ibilgailu automobilak», «Ibilgailu automobilentzako zati eta osagarriak», bereziki), produkzio osoaren % 80 esportatu egiten da,

13. grafikoa: EAEko kanpo-merkataritzaren bilakaera. (milioi eurotan)*



Iturria: EUSTAT (Kanpo Merkataritzaren Estatistika)

*Kolare lausoagoetan ikus daitezke esportazio- eta inportazio-joerak.

EUSKAL GIZARTEA ARO EKONOMIKO BERRIAN

eta, pisu erlatibo ezberdinarekin bada ere, kanpo-salmenten pisua (norakoaren portzentajea eta negozio-bolumenean) garrantzitsua da manufaktura-industriako sektoreetan. Orobat, esportazioen % 90 ondasun industrialak dira; manufakturarako jarduerak nazioarteko merkataritzan sendo laguntzen du zerbitzuko negozioen aldean, beraz. 2018. urtean EAEn gehien esportaturiko produktua «Pertsonak (<10) nagusiki garraiatzeko ibilgailu automobilak, diesel motordunak (1.500 cm³-2.500 cm³)» izan zen –Arabatik– (gutzizkoaren % 7,6), eta bolumen esportatzailearen arabera bi partida garrantzitsuenak, berriz, «5-10 pertsonarentzako turismoak» (% 7,1) eta «Automobilentzako zati eta osagarriak» (% 4). EAEk inportaturiko produktu nagusia, berriz, «Petrolioaren edo mineral bituminosoen olio gordinak» izan ziren (4.772,8 milioi; gure inportazioen gutzizkoaren % 23,5); jarraian, «Gas naturala» (552,3 milioi; % 2,7); biek ala biek Bizkaia izan zuten helmuga, eta hirugarrena «Ibilgailu automobilentzako motorrak 100-200 kW-ko potentziadunak» litzateke (414,0 milioi; EAEko gutzizkoaren % 2).

Gipuzkoari dagokio EAEk esportaturikoaren % 30, eta esportazioak «Material elektrikoak» (gutzizkoaren % 37,3), «Metalak eta bere manufaktura» (% 21,7) eta «Garraio-materiala» (% 19,6) multzoetara bideratzen ditu. Lurraldea eta tokiko enpresa azken hamarkadetan nola aldatu diren ulertzeko, bestalde, industria-alarreko enpresen jarduna erakusle egokia da. Izan ere, nazioartekotzea ez da bakarrik marka, produktua edo teknologia lehiakorrek izatea, baizik eta baita munduan zehar ekoizpen-plantak, delegazio komertzialak edota asistentzia teknikorako zentroak izatea ere.

Gauzak horrela, agerian geratzen da zer garrantzia duen industriak lurraldeko jarduera ekonomikoan. Azken bi hamarkada hauetan (1995. urteaz geroztik, bereziki), sektore produktiboa berrantolatatu, eta sektoreen arteko pisu-banaketa berri garrantzitsuak izan dira aldeko testuinguru makroekonomikoa (sektore publikoaren finantza publikoak historikoki ortodoxoak izan dira), lurraldean oso errotuta dauden enpresa txiki eta ertainak, proiektu teknologikoen pisu esanguratsua, modernizazio instituzionala eta gobernuen kalitatea –zerbitzu publikoen prestazioaren inpartzialtasuna eta kalitatea–, giza kapitalaren eraldaketarekin eta lan-merkatuko parte-hartzean izaniko aldagetekin batera. Bestelakoa izan da lan-merkatuaren erreformak eta enplegu-politika aktiboen mugek ekarri dutena.

Hori dela eta, azken hamarkadetako estrategiek hainbat sendotasun azaleratu dituzte lurraldean: azkenaldian industriak ekonomian pisu erlatiboa galdu arren, manufaktura-industria erlatiboki sendo mantentzen duten herrialde-taldean kokatzen gara; azpiegitura berritzailearen garapenak eta berrikuntza-sistema

osatzen duten eragileen aniztasunak berrikuntza ertain-altuko lurralde eta eskualdeen taldean ipini gaitu; erakunde-egituraren autonomiak eta dentsitateak aukera eman digu lurraldeko beharrian eta erronkei ganoraz erantzuteko politikak diseinatzeko eta estrategiak garatzeko; lurraldeko eragileen artean konfiantzak landu eta erraztu dira, eta kapital sozialak aukera eman du tokiko berrikuntza-sisteman ezagutza-fluxuaren maila eta kalitatea hobetu eta eguneratzeko. Horiek dira aurretik ditugun erronkak.

Azken batean, lurraldearen egitura ekonomikoak erakusten du, herrialde eta eskualde nagusiekien alderatuta, industria sektore estrategiko modura ulertu eta garatzeko ahalegina egin dela. Mendebaldeko eskualde askotan, ageriko ordaina utzi du manufaktura sektorea –enpresaren xede bakarra akzionistek dirua irabaztea izanda– eskulan merkeko herrialdeetara lekualdatzeko estrategiak. Aitzitik, gure lurraldeko estrategia bestelakoa izan da, industriaren eta enplegu industrialaren aldeko apustuari esker.

10.3. INDUSTRIA BERRIA

Azken hamarkadetan, industriari buruzko datu orokorrak bestelakotu egin dira. Alde horretatik, epearen begirada luzatuz gero, industriaren garrantziari buruzko datuak modu orokorragoan ulertuko ditugu. Atal honetan, hainbat zehaztapen gaineratuko ditugu, industriak egitura ekonomikoan duen pisu erreala ulertzeko.

1980ko hamarkadaz geroztik lurraldeko ekonomiak izaniko ibilbideari erreparatuz gero, zera ondoriozta daiteke: ekonomia % 7,9ko erritmoan hazi da, eta industria, berriz, % 5,8koan. Era berean, hiru hamarkadako epean, industria zortzi urtetan baizik ez da hazi lurraldeko BPG osoaren gainetik. Horiek horrela izanda, azken hamarkadetan, industriaren jarduera-sektoreko balio erantsi gordina (BEG) % 45 izatetik % 30 inguru izatera pasatu da, eta enplegu osoaren % 45 izatetik % 25 baino gutxiago izatera. Euskal ekonomian ere, 1980eko hamarkadaz geroztik, desindustrializazio-prozesua nabaria da –1977 eta 2018 artean industrian 229.000 enplegu garbi galdu dira–, nahiz eta, industriak pisu handia izan duenez –balio erantsi gordinean, enpleguan eta errentan–, gaur-gaurkoz enpleguak galdu arren oraindik ere pisu garrantzitsua izaten jarraitu jarduera ekonomikoan; bien bitartean, per capita BPGak ere hobera egin du, gainera.

Guztiarekin, epea luzatzea ez da aski, irakurketa egoki egiteko. Izan ere, lurraldeko ekonomian industriak duen garrantziari buruzko irakurketa partziala saihestu eta azken hamarkadetan lurraldeko industriaren eboluzioa ganoraz ulertzeko, beste hainbat zehaztapen egin behar ditugu. Alde batetik, industria-sektorearen ebo-

EUSKAL GIZARTEA ARO EKONOMIKO BERRIAN

luzioa neurri batean produktibitatearen hazkundeak esplikatzeko du. Gaur-gaurkoz, produktibitateari erasan gabe BPGaren eta enplegu-tasaren hazkundera elkarren osagarri egitea herrialde lehiakorrek aterabidea eman ezin dioten auzia da. Neurri batean, beraz, lurraldeko industriaren bilakaerak patroio orokorrago bati erantzuten dio: industriaren produktibitatea hazi egin da; ez, ordea, industria-enpleguaren tasa. Bestetik, ekonomia postindustrialerako trantsizioa ere aintzat hartu behar du analisiak. Alde horretatik, lurraldeko ekonomian industriaren parte-hartzea txikitu izana lotua dago bi fenomeno osagarriari: bata, arlo teknologikoa eta antolakuntza-arloa berriro direla; bestea, laguntza-jarduerak azpikontratatzeko bizkortu duten merkatuak hedatu direla. Beste era batera esateko, batetik, industria berrira igartzeko, ekoizpena modernizatu da, eta, bestetik, lehiakortasuna hobetzeko asmoz, zerbitzu berriak erantsi dira industriaren jardunean (aholkularitza, I+D jarduerak, finantza- eta aseguru-jarduerak, zerbitzu teknikoak, diseinua, publizitatea, telekomunikazioak, marketina eta beste), eta halakoak zerbitzuen sektorean kontabilizatu ohi dira.

Gauzak horrela, lurraldeko industria-ekonomiaren garapena eta eboluzioa neurri batean hirugarren sektore aurreratuko jarduerekin bideratu da. Gaur egunean, zerbitzu profesionalak giltzarria dira enpresen lehiakortasunean. Egia da egitura produktiboan aldaketa orokorra izan dela, zerbitzuen sektorearen mesedetan, baina sektore heterogeneo horretan bada zerbitzu aurreratuen jarduera ere, eta preseski zerbitzu horiek guztiak hein handi batean industriaren mendekoak dira EAEn eta bereziki Gipuzkoako lurraldean, modu zuzenean eta zeharkakoan; industria-alorreko enpresek zerbitzu-jarduerak kanpora ateratzen dituzte (esternalizatu), eta industriako enplegu berri bakoitzeko zerbitzu aurreratuetako bi edo hiru sortu ahal dira batez beste. Industrian eta hari loturiko zerbitzuetan arreta ipiniz gero, industria eta zerbitzuen produkzioak % 116 eta % 134ko hazkundera izan dute, hurrenez hurren: industriakoa (milioi euro arruntean) 1995. urtean 5.350ekoa, 2005ean 11.267koa eta 2015ean 11.546koa izan zen; bada, urteen hurrenkera berean, zerbitzuetan 2.430ekoa, 4.855ekoa eta 5.693koa izan zen. Nolabait esateko, lurraldean bata bestearikiko duten mendekotasuna ikusita, fenomenoari industria berria deitu ahal diogu. Industriak pisua galdu du, baina irakurketa partziala egingo dugu patroio globalekin batera industria berria deritzogun fenomeno aintzat hartu ezean.

Hori guztia esanda, ordea, zehaztapen bat gehiago egin behar da. Izan ere, enpleguaren dinamikan sektoreen pisu erlatiboa aintzat hartuz gero, manufaktura-industriaren pisua antzekoa da enpleguaz eta BPGaz ari garelarik; ostera, zerbitzu aurreratuen kasuan, etena agerikoa da: zerbitzu aurreratuetan, BPGaren emaitza

emankor eta positiboak ez dira hain nabarmenak enpleguari buruzko zifrak irakurri gero. Harreman zuzen eta estu hori ere hautsi da, gizarte industrialarekin alderatuta. Lurraldeko industria berria –eta bereziki hirugarren sektore aurreratuko zerbitzuetan– lehiakortasunak ez dakar enplegu berria sortzea eta egonkortzea. Lurraldeko industriaren produktibitatea asko hazi da beste sektoreen aldean (hirukoitza da produktibitatea), baina, horri estuki lotuta, industriak enplegu osoan duen pisua galdu du. Bestela esanda, industriak lehiakortasun-gaitasuna mantentzearekin batera, berrikuntza- eta automatizazio-prozesuekin produktibitatea igotzeak balio erantsia haztea eta enplegua galtzea ekarri ditu.

Orobat, zientzia eta teknologia enpleguak ere gora egin du, baina azken bi hamarkadetakoen enpresen lekualdatze geografikoen (EAERI arlo estrategikoen ihes egin diote) eta kualifikazio altuko enpleguak metropolietan metatzeak eragin nabariak izan dituzte (2018. urteko datuen arabera, Espainiako estatuko lurralde-eremuan Madrilak enplegu osoaren % 15,6 hartzen badu ere, STEM arloak –*Science, Technology, Engineering and Mathematics*– enplegu osoaren % 25 bereganatzen du, eta, bi kategoria horietan, Kataluniak % 17,4 eta % 20,9, Valentziak % 10,5 eta % 9,0, eta EAEk % 4,8 eta % 6,0 xurgatzen dute –EAEn, % 9 eta % 11 artekoa da kualifikazio altuko enplegua; Europako eskualdeekin alderatuz, erdibideko taldean legoke–).

Berezitasun horiek guztiak aintzat hartu beharko dira etorkizun hurbileko ekonomia-eboluzioa eta egitura okupazionala ulertzeko; hurrengo urteotan produktibitatearen maila baxu mantenduko den heinean (% 1 eta % 1,5eko arteko hazkundea), eten hori –lehiakortasunaren eta enpleguaren arteko doikuntza eza– ziurrenik hain esanguratsua izango ez den arren lurraldean. Patroi ekonomiko ezberdin baten aurrean gaude, edonola ere.

Ikusitakoarekin, beraz, lurraldeko dinamika industrialean ere patroi zehatz baten zantzuak hauteman litezke –hurrengo kapituluan sakonduko dugunez–: alde batetik, industriako enplegu tradizionalaren krisiarekin, langileak ordezkatu eta galdu dira; bestetik, ordea, lurraldeko industrian, produktibitatearen hazkunde sendoa gertatu da, eta horrek landunen soldatak egonkortzea eta hobetzea eta lan-baldintza onak ere ekarri ditu; bi osagarri horiekin, hirugarrenik, ifrentzua da sektoreen arteko eskularen arteko alde garbia (sektoreen arteko enpleguaren eta soldataren polarizazioa), gizartean ezberdintzeko prozesua azalatu eta egonkortzen den heinean. Patroi horrek ez du aurrekaririk lurraldeko egitura ekonomiko eta sozialean, eta, gizarte industrialarekin alderatuz, erronka berriak irekitzen dizkigu herri modura.

10.4. EGITURA SOZIAL ETA EKONOMIKOA


Ekonomiaren eraldaketa-prozesuaz jabetzeko, industriako sektore zaharkituak birmoldatu eta ehun industrial berria gailentzearekin batera, lan-merkatuko beste hainbat transformazio ere aintzat hartu behar ditugu. Izan ere, industriari eta teknologiari lotutako sistema produktiboak hamarkada gutxiren buruan sendotu ditu eraginkortasunean, berrikuntzan, formazioan eta ezagutzan oinarrituriko egitura sozial eta ekonomikoa. Alde horretatik, espezializazio industrialak eskutik izan ditu giza kapitalaren bilakatze azkar eta orokorra, formazio baxuko okupazioen galera progresibo eta ikasketa tertziarioak dituzten 25 eta 64 urte arteko pertsonen hazkunde nabarmena. Horri estuki lotuta, lan-merkatuaren modernizazioan emakumeek biztanleria landunean harturiko pisua ere azalatu da. Guztia, betiere, oreka demografiko berrien ingurumari aldarokorean. Labur antzera, horren berri emango dugu laugarren atalean. Komeni da, gainera, azalpenak zenbait auziren arteko loturak egitea (azalpen kateatua, ez zatikatua), irakurketa dinamiko eta osoa eskura izateko.

Epe oso laburrean, gazteen maila formatiboa hazi eta hobetu egin da, eta giza kapitalak ezaugarri berriak ditu biztanleria aktiboan. Lehen adierazle esanguratsua 18-24 urte bitarteko biztanleen eskola garaiz uzteari buruzko tasa da (DBH amaitu eta ikasketak uztea) (14. grafikoa): 1994. urtean, % 17,8koa izan zen; 2006an, % 12koa, eta, 2017an, % 5,4koa (sexuen arteko arrakala ere nabarmen txikitu da, eta gizonezkoak ia emakumeen tasetara gerturatu dira). Bien bitartean, 2017an, Espainian % 18,8koa izan zen, EB28an % 10,8koa (% 12,2 gizonezkoena eta % 8,9 emakumezkoena), Alemanian % 10,1koa, Danimarkan % 8,8koa, Finlandian % 8,2koa, Suedian % 7,7koa eta Austrian % 7,4koa.

Ikasleen ibilbide formatiboa, hein handi batean, lurraldeko egitura produktiboari eta lan-merkatuaren dinamikei estuki lotua dago. Ikasle eta familien erabakietan, modu batera edo bestera, eskolaratzearen aukera-kostua (edo kostu alternatiboa) aldagai garrantzitsua da; ikasketetan segitzeagatik nerabeak jasotzen ez duen lansaria, alegia. EAEn, liburuan zehar ikusiko dugunez, lan-merkatua ez da nerabeentzat erakargarria; ikasketen kostua baxua da familientzat, eta, oro har, familien erosteko ahalmena jasangarria da. EAeko egitura ekonomikoaren eta lan-merkatuaren ezaugarriak direla eta, nerabeek ez dute eskola uzteko inolako pizgarririk.

Beste era batera esanda, ikaslearen eskolaratzea eta, zehazki, maila formatiboa esplikatzeko, pertsonaren berezitasun indibidualak (gaitasun kognitiboak, abileziak eta konpetentziak, motibazio pertsonala) edota hezkuntza-aldagaiak (eskola-anto-

14. grafikoa: EAEko 18-24 urte bitarteko biztanleek eskola garaiz uzteari buruzko tasa*



Iturria: EUSTAT

(*)Gehienez Bigarren Hezkuntzako lehen etapa burutu eta inongo ikasketa edo prestakuntzatan ari ez diren biztanleen ehunekoak

laketa parte-hartzailea, hezkuntzako inbertsio publikoa, ebaluazio-sistema malgu eta erraztailea, eskola muinbakarra) ukatu gabe, ikerketa konparatuek egiaztatzen dutenez, testuinguru sozioekonomikoa hartu behar da aintzat. Horren arabera, egia da ehun produktibo lehiakorrak biztanleria formatua behar duena, baina, era berean, nerabe eta familiek ere eskola-ibilbidea hobesteko amu eraginkorrena inguruko lan-merkatu aurreratu eta lehiakorra izaten da. Hezkuntzaren aldeko politika publikoekin batera, ekonomiaren ezaugarriek ere pisu erabakigarria dute, beraz, ikasleen eskola-ibilbidean. EAEn kasuan, erakundetze-prozesuarekin batera instituzioek eta gurasoek euren seme-alaben mesedetan eginiko inbertsioak zerikusi handia du, gainera, mugikortasun sozial goranzkoari buruzko kontakizun industrialarekin; seme-alabetan hezkuntza-inbertsioa egitea, aukera-marko industrialean, estatus sozioekonomikoa hobetzeko baliabide gisa ulertu da.

Hari beretik, araubide orokorreko irakaskuntzetako ikasleen bilakaerak ere egiaztatzen du, eskolaratzea orokortzeari, hedatzeari eta luzatzeari dagokionez, nolako eboluzio garbia egon den lurraldean (15. grafikoa). Azken urte eta hamarkadetan, eskolaratzea orokortu, eta hezkuntzaren eboluzioa ikaragarri positiboa izan da EAE osoan gainontzeko adierazle nagusienetan ere (Haur Hezkuntzako eskolaratzearen tasa netoa, Derrigorrezko Hezkuntzako egokitasun-tasak, bigarren eta-

EUSKAL GIZARTEA ARO EKONOMIKO BERRIAN


pako Bigarren Hezkuntzako eskolaratzearen tasa netoa, Batxilergoan eta gradu er-taineko Lanbide Heziketan matrikulaturiko ikasleei eta eskolaratzeari buruzko tasa gordinak, Goi Hezkuntzako eskolaratze-tasa gordinak eta matrikulaturiko ikasleak).

Guztiarekin, aldagai demografikoa aintzat hartuz gero, egitura sozialari –eta hezkuntzaren bilakaera orokorrari– buruzko argibide gehiago izango ditugu (15. grafikoa ganoraz irakurtzen lagunduko digu, bidenabar).

1960ko hamarkadan, jaiotze-tasa gordina mila biztanleko 20tik gorako jaiotzakoa zen, migrazio-prozesu sendoen testuinguruan; 1995. urtean, berriz, 7,3koa zen, eta, 1996. eta 2008. urteen artean, gora egin zuen (2008. urtean, 9,9 jaiotzakoa izatera iritsi zen mila biztanleko), eta, 2016. urtean, jaiotza-tasa gordina mila biztanleko 8,4 jaiotzakoa zen. EAEn, biztanleria kopuruak goia jo zuen 1983. urtean, eta 2001. urtean heldu zen kopuru baxuenera. 1970eko hamarkadaz geroztik, jaiotzen beherakada nabaria izan da: 1975. urtean 38.236 eta 1978. urtean 34.544 haur jaio ziren (1976an hasi zen jaiotzen beherako joera), eta, 1990. urtean, 16.361 izan ziren. 1994koa izan zen jaiotza-tasarik apalena (15.248 lagun), 1976an baino % 63 gutxiago, eta, 1995. urteaz geroztik, pixkanaka baina etengabe gora egiten hasi zen jaiotzen kopurua: 2001. urtean 17.647, 2008. urtean 21.315; 2012. urteaz geroztik, baina, ostera ere jaiotzen kopurua beherantz hasi zen (2016an, 18.240 haur jaio ziren, % 14,4 gutxiago), eta, 2018. urtean, 17.076 haur jaio ziren. 1976an izandako 41.100 jaiotzetatik 2016an 18.240 izatera igaroz, jaiotzak % 56 murriztu dira. Bestela esanda, EAEn, berrogei urteko epean 100.000 haur baino gehiagoko galera metatua gertatu da. Gainontzean, 1981etik 2001aren bukaerara bitartean, 59.222 biztanle galdu ziren (biztanleriaren % 2,8), baina 2001. eta 2011. urteen artean biztanleriaren bolumena % 4,4 hazi zen (91.446 biztanle gehiago erregistratu ziren); hurrengo bost urteetan, berriz, 3.238 biztanle gutxiago izan ziren (epe horretan, Gipuzkoak 6.909 biztanle gehiago zituen). Orobat, 1981etik 2016ra bitartean, EAEk ia 35.000 biztanle gehiago izan zituen.


Emakume bakoitzeko batez besteko seme-alaba kopuruei dagokienez, esan daiteke EAEko ugalkortasuna beheko balioetan dagoela, gure inguruko herrietan erregistratu izan denarekin alderatuta: 1975eko batezbestekoa 2,67 seme-alaba izan zen; 2016an, aldiz, 1,35 (Gipuzkoan 1,41, EB28an 1,60, Frantzia 1,92, Suedian 1,85, Alemanian 1,6). Biztanleria femeninoaren emankortasun-tasen jaitsiera nabarmena izan da epe motzean, eta, ugalkortasun-indize horiekin, nekez gerta daiteke belaunaldien arteko ordezkaterik: emakume bakoitzak batez beste 2,1 ume izan behar ditu, belaunaldi bat euren ugalketa-bizitzan izan dituzten seme-alabekin ordezkatuaz izateko (indizea kalkulatzeko, urtebetean 15 eta 49 urte bitarteko 1.000 emakumeko jaiotzak hartzen dira kontuan); eta horrek, bidenabar, bizitza luzatzearekin batera bestelako orekak ere ekarriko lituzke. 1940ko bigarren hamarraldian jaiotako emakumeak izan ziren belaunaldi-ordezkatzeari lotu zuten azkenekoak,

15. grafikoa: Araubide orokorreko irakaskuntzetako ikasleak. EAE



Iturria: EUSTAT.

16. grafikoa: Ikasleak irakasmailaka. Araubide orokorreko irakaskuntzak. EAE



(1) Haur-Lehen Hez.: Haur-Hez. -OHO edo balioidea (lehen Hez. -DBHko 1.Zikloa) hartzen ditu serie osoan, 1997/98 ikasturtean izan ezik. Ikasturte horretan, DBHko 2. zikloko 1. maila ere hartzen du.
(2) Bigarren Hez.: BBB/UBJ, IEE eta LH hartzen ditu. 1997/98 ikasturtean, ikasleak gutxitu ziren, DBHko 2. zikloko 1. maila ezarri zelako.

Iturria: EUSTAT.

EUSKAL GIZARTEA ARO EKONOMIKO BERRIAN

eta, orduz geroztik, emakume-belaunaldien ondorengotza (ugalketa-bizitzan izaniko seme-alabak) apalduz joan da (1971. eta 1975. urteen artean jaiotako emakumeen kasuan, ugalkortasun-indizea 1,4koa zen).


Hala, alde batetik, euskal lurraldeetan gertaturiko trantsizio demografikoaren prozesuak herrialde garatuetako antzeko orekak adierazten ditu (bizitza-luzera altuaren eta ugalkortasun-tasa txikiaren arteko oreka demografiko berria oinarriturikoa); bestetik, ordea, euskal lurraldeetan, denbora-tarte oso laburrean garatu da demografia berria, eta horrek askotariko desorekak eragin ditu. Horren argitan, hezkuntza-auzietara itzuliz, eskolaratze-tasen arrakasta ikasle kopuruaren gutxitzeak itxuraldatzen du, eta bilakaera ikusgarria maila absolutuan mugatuta geratzen da (15. eta 16. grafikoak). Auzi demografikoa lurraldeko baldintzatzaile nagusietakoa izango da ekonomiaren dinamismoan.

Neurri berean, azken hamarkadetako hezkuntzaren hedapenak zera ekarri du: gazteen artean (16-29 urte), datuak modu orokorrean irakurriz gero (17. taula), gehiengoa ikasten ari da (2000. urtean % 48,5, 2013. urtean % 47,8 eta 2017. urtean % 54,4); urte horietan, hurrenez hurren, lanean ari zen % 42,8, % 30,9 eta % 35,4; eta langabezia zegoen % 7,6, % 18,1 eta % 6,7 (bestelako egoera batean dago % 1,3, % 3,22 eta % 3,5 hurrenez hurren). Orobat, 16 eta 29 urte bitarteko gazteen kopuru esanguratsu bat ari da ikasten, eta, 2013. urtearekin alderatuz, gazteen artean langabeziak behera egin du. Hurrengo kapituluak ikusiko dugun moduan, Europako eskualdeekin alderatuz, datuak ezohikoak dira. Bestalde, gazteen artean, adinetik adinera ere badaude aldeak; orotara, ikastea da jarduera nagusia, baina adinean aurrera egin ahala oso nabarmen aldatzen dira jarduerak, laneko jardunaren mesedetan.

Egitura sozioekonomikoan formazioak eta ezagutzak hartu duten garrantzia ulertzeko, beste adibide bat ikasketa tertziarioak dituzten biztanleen tasa da (18. grafikoa). 1994. eta 2017. urteen artean, portzentajea bikoiztu egin zen EAEn; 2017. urtean, 30-34 adin-taldean ikasketa tertziarioak (goi-mailako lanbide-heziketa eta unibertsitate-ikasketak) zituen biztanleen tasa % 46,1ekoa izan zen; bada, EB28an, batezbestekoa % 39,9koa izan zen, Alemanian % 34koa, Austrian % 40,8koa, Espainian % 41,2koa, Finlandian % 44,6koa, Danimarkan % 48,8koa eta Suedian % 51,3koa. Ikasketa tertziarioak unibertsitate-eremura mugatuz gero, EAEn daude gazteen artean unibertsitario-tasa handienak.


Oro har, lurraldearen bilakaera eta modernizazioa egiaztatzen dute egitura sozioekonomikoei buruzko adierazle estandarrek ere (lurraldearen egitura okupazionala, biztanleria finkatzeko patroiak, klaseen egitura, per capita errentaren eboluzioa, bizitza-maila). Ildo beretik, sexuen araberako jarduera-tasen eboluzioak ere azpi-

17. taula: EAEko 16 eta 29 urte bitarteko gazteen zeregin nagusia, adin-taldean arabera (%)



Iturria: Gazteen Euskal behatokia (Gazteak eta enplegu Euskadin 2017).

18. grafikoa: EAEn ikasketa tertziarioak dituzten biztanleen tasa (30-34 urteko adin-taldea)



Iturria: EUSTAT.

marra merezi du, lan-merkatuko parte-hartzean gerturatze nabariak gertatzen ari baitira, emakumeen presentzia erlatiboa hazi ahala; 1985-1994 epean, emakumeen jarduera-tasa % 36,9koa zen (% 68,7 gizonezkoena); bada, 2017. urtea bitartean, 15 puntu igo zen (gizonezkoena, berriz, % 61,1era jaitsi zen). Bestalde, sexuaren araberrako enplegu-tasen eboluzioari erreparatuta, 1985-1994 urteen artean batez beste emakumeena % 25,6koa zen (gizonezkoena % 58,5); 2005-2014 urteen artean, batez beste % 43,7koa (gizonezkoena % 58,2), eta, 2017. urtean, % 45,7 izatera iritsi zen (gizonezkoena % 56,2). Era berean, emakumeen langabezia-tasa 1985-1994 epean % 30,7koa izan zen (gizonezkoena % 15ekoa); 2000ko hamarraldi oparoan, gizonezkoena bezalaxe, langabezia % 5 azpitik egoera iritsi zen –aurreko kapitulu-
luan ikusi bezala–, eta, gero, berriz igo zen (2017. urtean, emakumeena % 12koa zen, eta gizonezkoena, berriz, % 10,8koa).

10.5. GIZARTE- INKLUSIORAKO AHALEGINA

Lurraldearen berezitasunetako bat kohesio soziala izan da. Bi dira lurraldeko ongizatearen eta orekaren eragile nagusiak. Bata, manufakturako industriak eta espezializazio industrialak produktibitatean izaniko garrantzia eta lurraldean enpleguak egonkortu eta soldata altuak banatzeko aukera eman izana. Alde horretatik, lurraldeko espezializazio sektorialak soldadari loturiko transferentzia ekonomikoak (lansariak, ordaindutakoaren araberrako prestazioak) baliatu ditu gizarteko maila ekonomikoa eta ongizatea hobetzeko. BPGa eta per capita errenta aintzat hartuta, Gipuzkoako lurraldea Europako eskualde aberatsenen parean kokatzen da: 2018ko datuen arabera, biztanleko BPGa EB28=100 izan zen, eta, Gipuzkoan, 123, erosahaltenaren parekotasunean; lurraldeak biztanle bakoitzeko 38.000ko (PPS) BPGa dauka.

Bestela esanda, gizarte industrial eta fordistaren joerari jarraikiz, soldatapeko errentan oinarritu dira, hein handi batean, langileen inklusio soziala eta gizarte-eskubideetarako sarbidea, eta ez hainbeste landunen kopuruan eta hezkuntza-maila kualifikatuan. Era berean, lurraldean herritarren ongizate-maila orokortu eta kohesio soziala bultzatze aldera, oso ahula da errentaren banaketa primarioaren garrantzia.

Hain zuzen ere, lurraldeko desberdintasun sozialak ulertzeko, langabeziari baino, lurraldeko enpleguaren eta soldaten dinamika partzialari erreparatu behar zaio (alegia, soldataren sakabanaketa da ezberdintasunen eragilea). Horrek lan-merkatu desorekatu eta zatitua azaleratu du; manufakturarako industriako langileen eta sektore publikoko langile finkoen ifrentzua zerbitzuetako landunen gehiengoaren egoera da –eta langabezia-tasa erlatiboki esanguratsua, neurri batean–.

Alde horretatik, gizarteko ongizatearen eta orekaren eragile nagusia, manufakturarako industriaren pisuarekin batera, bigarrenik, lurraldeko desberdintasun sozialen mekanismo zuzentzaileak izan dira. Beste era batera esanda, zergen bidezko transferentzia eta zerbitzuak, eta bereziki diru-sarrerak bermatzeko errenta, zeinak balio izan baitu ziklo ekonomikoek kaltetuak eta zailtasun estrukturalak dituzten herritarrak gizartetik baztertzea eragozteko. Jakin behar dugu horri balioa ematen.

Hain zuzen ere, EAE osoan, pertsonen inklusiorako neurriek aparteko garrantzia izan dute gizartearen egituraketan. 1980ko hamarkadaz geroztik, Eusko Jaurlaritzak ezagutza-metodo eta hurbilketa estatistiko bereziak erabili ditu, txirotasuna diru-sarrerei ez ezik bestelako baliabide gabeziari ere atxikita (erreserbako ondasun-baliabideen gabezia, epe motz eta ertainerako bizi-aukeren baldintzak, gurasoen jatorriko etxetik emantzipatzea), modu horretan prekaritatearen askotariko alderdiak aintzat hartuz. Horri esker, gainera, txirotasuna ez ezik ongizate gabeziatzko bestelako prekaritate-moduak ere diagnostikatu izan dira; era batera edo bestera integrazio eta berdintasun soziala eragozten dutenak, alegia. Egiazki, ezagutza zehatz eta askotariko horri esker –adostasun politikoa eskutik hartuta–, 1989. urteaz geroztik sistema berezkoa eta egokia diseinatu da EAEn, parekorik gabekoa Europa osoan, prestazio anitzekoa, txirotasunari eta prekaritate modu guztiei aurre egiteko.

Alde horretatik, iparra betiere enplegurako eskubidearen aplikazio efektiboa izanda, EAEn garaturiko elkartasun-mekanismoak baditu hainbat berezitasun: eskubide subjektiboa da –ez da aukera politikoari edo aurrekontu-baliabideen mendea–; diru-sarrerarik ez duten pertsonen ez ezik, irekia dago landunei (ordainsari baxukoei, enpleguak ez baitu zertan integrazio soziala bermatu), pentsiodunei (pentsioak lanbide arteko gutxieneko soldataren azpitik dituzten pentsionistei) eta familia zaurgarriari (alokairuko gastua, etxebizitzako prestazioa eta larrialdi-egoeratarako laguntzak emanaz); prestazio ugarik osatua dago (langabeziarako dirulaguntzak, ardurapeko seme-alabengatiko prestazioak, pentsio ez-kontributiboak edota gizarteratzeko gutxieneko errentak, besteak beste). Era berean, eredu berezi horren beste berezitasunak dira, esate baterako, azpienpleguan eta soldata baxuko enpleguetan daudenek ere eska dezaketela (diru-sarrerak enple-

EUSKAL GIZARTEA ARO EKONOMIKO BERRIAN

guaren hobari-sistema gisa ere ulertuta, beraz); bestalde, eskaerako hilabetea da familia-unitatearen diru-sarrera konputatzeko erreferentzia (horrek prestazioak eskatzeko aukerak erraztu eta ugaritzen ditu), eta enplegurako pizgarrien sistema baliatzen da (laneratzearen mesedetan). Neurri berean, diru-sarrerak bermatzeko politiketan etxebizitzako beharrak estaltzea lorpen handienetako bat da, txirotasunari eta prekaritateei aurre egiteko neurri zuzentzaile lagungarria den neurrian.

2014. urteko datuen argitan (2014ko behar sozialei buruzko inkestaren PGDI pobrezia-moduluaren emaitzen txostena, Eusko Jaurlaritza), esaterako, EAEko biztanleriaren % 5,9k pobrezia erreala pairatzen du (127.339 pertsona dira, eta % 75 baino gehiago dira seme-alabak dituzten bikoteak eta familia gurasobakarrak), eta % 5,6k (120.555 pertsona) ongizate gabeziaren beste modalitatearen bat sufritzen du (beraz, ongizate errearen gabezia biztanleriaren % 11,5i dagokio, orotara 247.954 pertsonari); guztietan ere, beraz, 2000. urteko kopuruetera itzuli gara. 2008. urteko krisiak, horrenbestez, enpleguaren % 10 inguru suntsitzearekin batera, nagusiki landun ahulenei eragin die (% 10 txiroenak diru-sarrera arruntaren % 13,4 galdu du, eta % 10-% 20 arteko baxuenak % 8,2). Erabateko ongizatearen duen biztanleriaren pisu erlatiboa, ostera, hazi egin da: 2014an, % 38,4ak zuen erabateko ongizatea; 2008an, % 32k, eta, 2012an, % 37,4k. Egoera horretan hartzen dute garrantzia, hain zuzen ere, gizarte-sistemaren baliabide eta laguntza ekonomikoek –diru-sarrerak bermatzeko errenta, larrialdi sozialeko laguntzak, etxebizitzarako prestazio osagarria.


EAEEn, orotara, –2014. urteko datuekin jarraituz– familien % 7 da gizarte-inklusiorako neurrien onuraduna; horrek BPGaren % 0,64ko kostua dakar, eta, datuen arabera, txirotasuna % 40ra hedatu eta intentsitatea % 80ra murriztu ditu. Gizarte-sistemaren baliabide eta laguntza ekonomikoak baliatu dituztenak orotara 151.591 pertsona izan dira. Laguntza-jasotzaileen kolektiboari gizarte-sistematik datorkio sarrera guztien % 41,1, eta 80.499 pertsonak lortu dute gizarte-sistemari esker txirotasun erreala gainditzea (71.092 pertsona dira lortu ez dutenak). Bestela esanda, gizarte-sistemaren elkartasun-mekanismoei esker, sarreraren galera nabarmen arindu ahal izan da 2008. urteaz geroztik txiroenen artean. Biztanleria txiroenari erreparatu gero, diru-sarreraren galera % 13,4koa izan da % 10 txiroenen kasuan (bestela, % 25,7koa zatekeen); % 10 eta % 20 txiroenen kasuan, % 8,2koa izan da galera erreala (% 13,5koa zatekeen gizarte-sistemaren elkartasun-baliabiderik erabili ezean); % 20 eta % 30 txiroenen kasuan, berriz, % 8,7koa zatekeen, baina galera % 4,4koa izatea erdietsi da.

Aintzat hartu behar da klaseen arteko desberdintasun sozialak nabarmen handitu direla Mendebaldeko gizarteetan dezil baxuenekiko: desberdintasun sozialak

handitzea bereziki errentaren medianaren eta errenta baxuen arteko distantzia zabaltzeak espikatzen du (goiko klasearekin eta erdiko klasearekin alderatuz, diru-sarreraren galera nabarmenagoa izan da dezil baxuenetan), enplegua galdu edo lanorduak eta soldata jaitsi direlako. Horrekin alderatuta, bigarren mailakoa da erdiko klasearen eta goiko klasearen arteko –P90/P50– desberdintasun soziala. Gainera, errenta baxueneko biztanleria izan ohi da errentaren zati handiena hipoteka-zorrera bideratu ohi duena. Hori da ekonomia aurreratuetako herrialdeetan azken hamarkadetan gertaturiko gizarte-etenaren adierazle nagusia. Ikusitako datuekin berrets daitekeen moduan, EAEko elkartasun-mekanismoek, hain zuzen ere, hori hobeto kudeatzea erdietsi dute.

Gauzak horrela, desberdintasun-adierazle estandarrak eskutan, emaitza agerikoa da: Gipuzkoa da European errenta-desberdintasun txikienetakoa duen herrialdea. Zehazki, errenta altueneko biztanleen % 20k errenta baxueneko biztanleen % 20k baino ia lau aldiz gehiago jasotzen du (s20/s80 desberdintasun-adierazleak) (18. taula). GINI indizeak ere lurraldearen kohesioa iradokitzen du (GINI indizea galdeketa oinarritzen da, eta errenta altuak gutxiago zenbatetsi ohi ditu), Suediaren eta Finlandiaren parean, nahiz eta Gipuzkoan eta EAEn desberdintasun sozialak nabariak izan errentaren banaketa primarioan, lehen adierazi dugun moduan.

18. taula: s20/s80 desberdintasun-adierazleak (1996-2016 eboluzioa)



EUSKAL GIZARTEA ARO EKONOMIKO BERRIAN

Gaur artean bederen, gizarte-politikak epe motzera txirotasun kronikoaren eta miseria edo premia gorriaren deuseztatzea erdiesten saiatu dira. Haatik, EAEko giza garapenaren ereduak lehentasuna eman die gizarte-inklusiari eta epe ertainerako begiradari ere, alde edo moldez prekaritatearen forma askotarikoak ulertu eta gorako mugikortasun sozialeko prozesuak sustatzen ahaleginduz; besteak beste, zerbitzu publikoen bidez, hezkuntzaren eta osasunaren alorretan. Alde horretatik, azken lau hamarkadetan, pisuzko bi indargune izan dira lurraldean; hain zuzen ere, ordainsari ertain eta altuko enpleguaren sektore indartsua eta ongizate-estatu garatua –diru-sarrerak bermatzeko sistema askotariko eta prestazio ugariak barne–. Horrela hartu du forma berezia lurraldean (behin-behinekoa, betiere) hazkunde inklusiboan oinarrituriko giza garapenak. Neurri batean, ordea, garapen-eredu hori kapitalismoaren metaketa-fase konkretu bati oso lotua dago, eta, azkenaldian, oso bestelako agertoki ekonomikoa ari da osatzen, liburuaren lehen blokeko kapituluetan ikusi moduan. Horren eraginak jarraian ikusiko ditugu.



11 EUSKAL GIZARTEA ARO BERRIAN: ERRONKAK

11.1. SARRERA

**11.2. ENPRESA-DINAMISMO
EZBERDINAK**

11.3. LAN-MERKATUKO ARRAKALAK

11.4. GAZTEAK ETA LANERATZEA

**11.5. HEZKUNTZA ADIERAZLEAK
ETA LAN MERKATUA**

11.6. AUZI DEMOGRAFIKOA

**11.7. GIZARTE KOHESIOAREN
ARRAKALAK**

11.1. SARRERA

Lurraldearen garapenari eta lehiakortasunari buruzko erronkak ulertze aldera, arretaguneetako bat azken emaitzak izan ohi dira. Horrek balio digu hazkunderari eta ongizateari buruzko adierazle nagusiak ezagutzeko (biztanleko BPGa, biztanleko errenta erabilgarria, iraupen luzeko langabezia, ikasten eta lanik egiten ez dutenen tasa, pobrezia arriskuaren tasa, bizitzaren gogobetetze-tasa). Horiekin batera, beste arretagunea bitarteko emaitzak izan ohi dira; alegia, hazkunderako baliabideak (enplegua eta langabezia, produktibitatea, berrikuntza, esportazioak).

Aurreko bi kapituluei jarraipena eman asmoz, kapitulu honetan, adierazle horietan ipiniko dugu arreta, baina helburu zehatz birekin: lurraldearen egitura sozioekonomikoaren eraldaketak azalatu dizkigun alderdi kritikoak ulertzea eta aurrerabide sozialaren erronka nagusiak identifikatzea. Izan ere, erreferentziatzko eskualdeekin alderatuta, ikus daiteke egitura ekonomikoaren transformazioak lurraldeko ongizateari eta kohesioari desafio berriak ekarri dizkiola. Orain artean ezagutu gabeko patrioiak hauteman daitezke, eta iradoki genezake gaur arteko herri-garapenak berritzeko premia dugula.

Kapitulu honetan, solasaldietan gehien aipaturiko auziei erreparatuko diegu: enpresa-dinamismoen arteko ezberdintasunak, lan-merkatuaren segmentazioa, gazteak laneratzeko zailtasuna, biztanleria landunaren formakuntzaren eta lan-merkatuko eskariaren arteko etena, oreka demografiko berria, eta gizarte-kohesioko arrakalak. Guztiak ere enpleguarekin erlazioan ipinita landuko dira. Lurraldearen aurrerabide sozialean ditugun erronkak ezagutzeko balioko digute.

11.2. ENPRESA-DINAMISMO EZBERDINAK

Lurraldeko enpresek denbora-tarte laburrean heldutasun industrialari loturiko arazoak gainditu eta industriaren fase berrira igarotzeko ahalegina egin dute, igarobide horretan bat-batean 2008ko finantza-krisia jasatearekin batera. 1990eko eta 2000ko hamarkadetan, industriaren jokaleku berrira igarotzeko helduleku nagusiak hazkunde ekonomikoa, jarduera produktiboan teknologia xurgatzea eta diru-sarreraren portzentaje esanguratsu bat berrinbertitzea izan dira.

Agertoki teknologiko eta komertzial berrirako trantsizioa egitearekin batera, ordea, ziklo ekonomikoak etengabe laburtzeak ekoizpen-egiturak aldi oro moldatzea eskatzen du, merkatuaren eskaera berehalako eta aldakorrei erantzun lehiakorra eman ahal izateko. Alde horretatik, produktibitatearen iturri nagusia informazioa bilakatu ahala (sektoreka, eskulanaren banaketa aldatu da, eta informazioa sortu, prozesatu eta transmititzeko eginkizunek garrantzia hartu dute), enpresen lehiakortasunerako adierazle gero eta garrantzitsuagoak dira I+G eta berrikuntzan inbertitzeko ahalegina (langileak jardun osoz I+G jardueretan, barne-gastu osoaren portzentajea, barne-gastu osoa BPGarekin alderatuz), aktibo ukiezinetan inbertitzea edota eskulan kualifikatuko lanpostuak sendotzea.

Testuinguruak betekizun zeharo ezberdinak dituen bezalaxe, EAEk eta batik bat Gipuzkoak badute berezitasun erantsi bat. Ekonomia aurreratueta eta Europako eskualde lehiakorretan, ezohikoa da eskualde industrializatuaren presentzia sendoa, eta, oro har, manufaktura-industriaren proportzioaren eta errenta-mailaren arteko korrelazioa negatiboa da. Lurraldeko egitura ekonomikoan, ordea, industria da motor ekonomiko nagusia, eta produktibitate altuak sektoreko enplegua eta soldata goiko mailan kokatzen ditu. Hori dela eta, EAEn ere egitasmo garrantzitsua da zerbitzu aurreratuak eta hezkuntzari eta osasunari loturiko jarduerak bultzatzea (hori ulertu ezinda gabilta, oraindik ere), baina, gure kasuan, Gipuzkoan, beste bi egitasmo ere berariaz kudeatu behar ditugu: alde batetik, produktibitate altuko industria-sektorea egonkortzea; eta, bestetik, sektore tradizionaleri neurriko dimentsioa ematea, hots, modu zuhurrean ebaluatzea industria mota baten garabiderako aukera errealeak. Azken hamar urteotako eboluzioak hainbat pista ematen dizkigu (jarraian datozen ideiei buruz, sakonago idatzi da hurrengo kapituluan, gaiak lurraldearentzat duen garrantzia dela eta).

Lurraldeko ahulezia garrantzitsuetako bat, solasaldietan hainbatetan errepikatu den bezala, enpresen arteko arrakala gero eta handiagoari loturik dago, agertoki ekonomiko eta komertzial berrian lehiakortasuneko faktoreek duten garapen zeharo ezberdina dela eta. Enpresen arteko arrakala nabaria da lehiakortasunari buruzko palanka nagusietan: I+G inbertsioan (enpresetako I+G langileak eta gastua), enpresen berrikuntza-ahaleginean (berrikuntzak produktuetan, prozesuetan, marketinean edota diseinuan), berrikuntzaren emaitzetan (marka erregistratuaren eskabideak, enpresa edo merkaturako produktu berrien salmentak), maila eta espezializazio teknologikoan, edota nazioartekotze-gaitasunean.

2008ko finantza-krisiak lurraldeko enpresa-dinamismoari buruzko aldagai esanguratsuen azaleratu zituen. Ordu artean, enpresen ibilbidea eta lurraldeko hazkundea gehiegizko eskarian, zorpetzean eta prezioetan zetzan neurri handi batean, eta

EUSKAL GIZARTEA ARO EKONOMIKO BERRIAN

egoera horrek bermatu zuen enpresa-jarduera ugariaren errentagarritasuna. Neurri berean, hazkunde ekonomikoa eta produktibitatearen gelditasuna osagarriak izan zitezten bermatu zen. Hori da baliabide produktiboak efizientzia gutxiagoko jarduera eta enpresetara berregokitzearen ordaina. Atzeraldi ekonomikoak hori guztia azaleratu zuen, eta horrek esplikatzen du ondorenean, jarduera- eta enpresa-galerarekin batera, lanordu bakoitzeko BPGa haztea ere. Alde horretatik, 2008ko finantza-krisiak enpresen arrakala egiaztatu, galera eta itxierak ekarri, eta, partzialki bada ere, egitura ekonomiko industrialia fase produktibo berrira egokitzea erraztu zuen.

Hori dela eta, enpleguari dagokionez, 2008. eta 2017. urteen artean, euskal industrian 45.733 enplegu galdu ziren (% 18,3 gutxiago, hasierako zifrekin alderatuz gero); erdiak Gipuzkoako lurraldean, eta kolpea pisu handieneko sektoreetan jo zuen: galeraren ia erdia metalurgia eta produktu metalikoen adarrari dagokio (hamar urtetan, enpleguak % 22,9 behera egin zuen); ekipo-makineria eta garraio materialaren sektoreek % 8,3ko eta % 2,1eko galerak izan zituzten, hurrenez hurren; kautxua eta plastikoen arloan, berriz, % 26 gutxitu zen enplegua.

Horrez gainera, ordea, enpresa ugari galtzearekin batera, fase berriari loturiko arrakalak ere nabarmendu ziren: industria digitalerako trantsizioan dualtasun nabariak azaleratu ziren enpresen artean; lurraldean gaitasun eta erritmo zeharo ezberdinak garatu ziren negozio-eredu berriak enpresen jardunean sartu eta egonkortzeko, eraldaketa teknologikoa garatzeko, oinarri berritzailea (teknologikoa, antolakuntzakoa, komertzioakoa) bereganatzeko, estrategiak eta finantzazioa dibertsifikatzeko, edota inguruko enpresekin eta eragileekin loturak ezartzeko. Hori da krisiaren lehen eragina gainditu osteko egoera berria.

Neurri batean, beraz, lurraldeak jakin izan du 2008ko finantza-krisia kudeatu eta enpresa-ehuna agertoki berrira egokitzen. Alde horretatik, enpresa lehiakorrek nazioartekotu eta eskaintzako faktoreen garrantzia hobesteak osagarri egin dezake BPGan esportazioen pisua nabarmentzea eta egiturazko langabezia-tasa txikitzea. Alabaina, ekonomiaren gaitasun produktibo agregatuak –eta produktibitatea lehiakortasun, soldata eta enplegu hobegoekin bat etortzeak– zera eskatzen du: faktore produktiboak enpresa eta sektore efizienteetara lekualdatzea. Erabakia, noski, ez da batere erraza, epe motzeko kostu sozialak handiak direlako. Gainera, nazioarteko lehiakortasunaren abantailak –lurraldearen kasuan, bereziki, balio erantsiko nazioarteko kateetan– epe luzeko inbertsioaren ordaina dira (giza kapitala hobetzea, I+G+b arloan eta kapital teknologikoan inbertsioak egitea, digitalizazioa, sektore publikoaren erregulazioa eta efizientzia, garentziaren talentua).

Lehiakortasunaren adierazle egokiena, hain zuzen ere, produktibitatea eta soldata garatzea da; hori da, guretzat, ezbairik gabe, 2008. urteko finantza-krisiaren ikasgai nagusia. Kontrako kasuan, produktibitate baxu eta kontrazikliko batean oinarrituriko hazkunde-patroian oinarrituko da ekonomia. Egoera aski ezaguna da: produktibitate baliogabea eta soldata altuak oparotasun-garaietan; krisiaren etorrerarekin batera, langabezia eta produktibitate urria, eta, hazkunde-zantzuak sumatzen direnean, langabezia murriztea, kualifikazio edota esperientzia urriko soldatapekoak lan-merkatuan sartzea, eta langileen artean banatzeko aberastasuna ere gero eta txikiagoa. 2008aren ostean larrialdi berezia jasan duten enpresetan arreta ipiniz gero, zera ikus liteke: enplegua haztearekin batera, BPGa ere hazi da, baina ez produktibitatea, enplegua BPGa baino gehiago hazi baita, eta, beraz, lehiakortasuna enplegu prekarioan edota kualifikazio baxuko lanpostuen proportzio altuan oinarritzen da.


Euskal ekonomian, produktibitatea irabaztea eta soldatak igotzea luzaroan eskutik joan izan badira ere, azken urteotan, termino errealetan dibergentziak gertatu dira bi aldagaien artean. 2008-2016 epeko soldaten eboluzioak bi ondorio azaleratzen ditu, hain zuzen ere: batetik, soldata baxuak jaitsi dira gehien; bestetik, soldataren sakabanaketan, bi faktore daude: sektoreen eta lanpostuen bilakaera (industriako sektorean eta lanpostu altuetan soldatak igo dira, esaterako), eta belaunaldien arteko alde hazkorra (lehen laneratzeetan eta gazteen ibilbide profesionalean, ordainsarien jaitsiera absolutu eta erlatiboa gertatu dira). Nolanahi den, aintzat hartu behar da 2017. urtean industriaren alorreko produktibitatearen igoera ere % 0,9koa baizik ez zela izan.

EUSKAL GIZARTEA ARO EKONOMIKO BERRIAN


Laburbilduz, arreta merezi du enpresen arteko arrakalak. Enpresei buruzko datu estrukturalak (auzi finantzarioak eta laboralak) eta nazioartekotzeari buruzkoek onbideratzea erakutsi arren, 2012. urteaz geroztik berrikuntzan inbertsioa apaltzeak zaildu egiten du erronkak aurrera eramatea (produktu eta zerbitzuen berrikuntza, enpresetan IKTak eta digitalizazioa sendotzea). Hogeitaz urteko epean, I+G arloan dabilen pertsonalean eta barne-gastuan aldakuntza nabariak eta ezegonkorrak izan dira, gainera (19. grafikoa). Azken hori dela eta, bestalde, BPG-arekiko I+G gastuaren portzentajeak erakusten du I+G intentsitatea EB15ekoaren batezbestekotik gertu dagoela; I+G arloan dabilen pertsonalaren portzentajea enpleguarekin alderatuta, ostera, EB15ekoaren batezbestekoaren gainetik dago. Ezberdintasunak azpimarra merezi du, iradokitzen baitu Europako eskualdeetan I+G arloan dabilen pertsonen lan-kostua handiagoa dela (bereziki espezializazioak eta produktibitateak eraginda, eta baita ordainsariengatik ere). Hori kezkatzeko datua da.

19. grafikoa:

EAEko DOBn* I+Gan dabilen pertsonala.
Urteko aldaketa %



EAEko I+Gko barne-gastua.
Urteko aldaketa %



Iturria: EUSTAT.
*DOB: Dedikazio Osoko Baliokidetzatza

Enpresa-dinamismoari buruzko asimetriek lurraldeko bailaren arteko aldeak ere berretsi dituzte. Alde batetik, eskualde batzuek badituzte dinamika aurreratuak (industria eraginkorra eta lehiakorra, biztanleria formatua erakartzeko gaitasuna, prestakuntza, transferentziarako eta loturak ezartzeko guneak). Halakoak, ordea, toki zehazetan metatu ohi direnez (11. taula), ondorioak –bailaren arteko desberdintasun sozial eta ekonomikoak– azalerratu dira, lurraldeko biztanleria-entitateak (eskualdeak, herriak, auzoak) jarduerarekiko harremanaren arabera segmentatuz gero.

11. taula: BPGaren banaketa eskualdeka (Oinarria 2010. SEC95)

EREMUA	BPGa. Indizea: Euskadi=100. Oinarria: 2010. SEC95	BPGa lanpostuko. Indizea: Euska- di=100. Oinarria: 2010. SEC95	BEGa. Industria eta Energia. Oina- rria: 2010. SEC95	BEGa. Manufak- tura-industria. Oinarria: 2010. SEC95
EAE	100	100	23,7	20
Gipuzkoa	101	100	27,6	23,6
Bidasoa Behea	81	97	16,3	13,8
Debarrena	95	102	35	31,7
Debagoiena	127	103	46,7	42,6
Donostialdea	102	96	16,3	12,5
Goierri	108	110	48,7	42,5
Tolosaldea	102	103	37,8	34,6
Urola Kosta	95	102	35,6	30,4

Iturriak: EUSTAT

Heldutasun industrialak hainbat erronka ekarri zituen; 2008ko finantza-krisiak, berriz, enpresa-dinamismo ezberdin eta dibergente bat utzi zituen agerian. Era berean, ikuspegi konparatuak ere, Europako eskualde dinamiko eta lehiakorrenekin alderatuta, kezkatzeko moduko hainbat adierazle mahaigaineratu zituen (per capita BPGa murriztea, esportaziorako zailtasunak, enpleguaren galera, bizi-asetasunean arazoak eta ezberdintasun hazkorrak).

Lurraldearen ahultasunak, ordea, nabaritu egiten dira emaitza ekonomikoak aurrerapen sozialari loturiko adierazleetara aldatzeko zailtasunak direla eta. Analisi konparatuak erakusten du aurrerapen sozialaren edo ongizatearen maila erlatiboa ez datozela bat EAeko per capita BPGaren mailarekin; 2017. urtean, Europako testuinguruko per capita BPGari dagokionez, 272 eskualdeen artean 35. posizioan zegoen EAE; Europako Aurrerabide Sozialaren Indizea deiturikoan, ostera, 102. posizioan. Hori ulertzeko, baina, lurraldeko beste desberdintasun batzuei erreparatu behar diegu.

11.3. LAN-MERKATUKO ARRAKALAK

2008. urteko krisiaren aurreko agertokiarekin alderatuz, 2017an BPGa orduko garaietara itzulia zegoen testuinguruan, lan-merkatuaren egitura eta dinamikak aurrerabide sozialean gertaturiko hainbat eten azaltzen dizkigu. Jarraian, arreta ipiniko dugu enplegu ordainduaren dimentsio nagusietan (4.3.1), epe luzeko langabezia (4.3.2), eta aberastasunaren eta langabeziaren arteko aldentze-joeran (4.3.3). Solasaldietan azpimarra berezia merezi izan ez duen arren, garrantzitsua da lan-merkatuko dinamiketan arreta ipintzea, lurraldeko aurrerabide sozialean azaleratzen ari diren hainbat dibergentzia-prozesuri balioa eman diezaiegun.

11.3.1. Ordainsarien erosahalmena

EAEen badira enplegu ordainduaren kalitateari eta galerari buruz arreta merezi duten auziak. Alde batetik, hamar urteko epean, gorabehera asko gertatu dira soldaten erosahamenean. 2008. eta 2015. urteen artean, Laneko Prezioaren Indizeak (urtetik urterako soldata-kostuaren aldakuntza enplegu-multzo homogeen batean) dio soldaten erosahalmena batez beste bost puntu jaitsi zela. Izan ere, indizeak egiaztatzen du ordainsarien igoera % 6,7koa izan zela (2008. urtean 100 eta 2015ean 106,7), baina, epe berean, inflazioa % 11,5 hazi zen (soldatek 4,8 puntuko erosahalmena galdu zuten). Indizeak, ordea, enplegu-konposizio berbera mantenduta egiten du neurketa, eta enplegua aldatu zutenen kasuetan izan ziren jaitsiera handienak, hain zuzen ere. Nolanahi den, soldatak inflazioaren azpitik hazi ziren.

Haatik, Soldata Kostuei buruzko Urteko Inkestari erreparatuz gero (soldatak ez ezik, langilearen bestelako irabazi ekonomikoak ere zenbatzen ditu), soldata-kostuak (2008-2016 epean) % 4,7 hazi ziren, bereziki 2008. eta 2013. urteen artean. 2013an, EAEko inoizko batez besteko soldata handiena lortu zen (27.120 euro); esate baterako, ordainsarien mailako fluktuazioak ulertzeko, enpresa handietan (200 langile baino gehiagokoak), zeinetan soldatapekoen herenak aritzen diren, % 12,5eko hazkundea izan zen.

Soldata-kostuen datua, baina, uste baino interesgarriagoa da, zeharka lan-merkatuko beste hainbat dinamika ulertzeko ere balio digulako. Hasteko eta behin, sektoreka, oso ezberdinak dira soldata-kostuak: industrian, % 11,5 hazi zen; eraikuntzan, % 6, eta, zerbitzuetan –enplegu osoaren bi heren hartzen zituen sektorea–, % 3,8. Soldata-kostuak bigarren gogoeta-ildo bat ere irekitzen du. Esan bezala, 2008. eta 2013. urteen artean, soldata-kostua hazi zen, baina garai hartantxe atera ziren lan-merkatutik soldata baxuko behin-behineko langileak. Lan-merkatuko konposizioari erreparatzea garrantzitsua da, efektu estatistikoa ulertzeko.

Konposizio-efektuak aintzat hartuz gero, enpleguaren galerak soldaten batez besteko igoera dakar, soldata baxuko enplegu prekarioaren galera nagusitzen delako, eta, ostera, enplegua sortzerakoan, batezbestekoa jaitsi egiten da: batetik, ordainsari baxukoak laneratu eta lanaldi partziala igotzen delako, eta, bestetik, industrian ere gero eta handiagoa delako zerbitzuak azpikontratatzea. Alegia, 2013tik aurrerako enplegua kalitate eskasekoa da; langileen ordainsariak jaitsi egin ziren, eta, 2016an, hiru urteko jaitsiera jarraituarekin, batez besteko soldata 26.461 eu-

EUSKAL GIZARTEA ARO EKONOMIKO BERRIAN

rora jaitsi zen (% 2,5eko jaitsiera). 2013. eta 2016. urteen artean, 200 langile baino gehiago zituzten enpresetan, esate baterako, ordainsariak batez beste % 6,1 jaitsi ziren. Gainontzean, enplegu egonkorreko landunen ordainsariak hazi egin ziren batez besteko balioetan (2018. eta 2019. urteetan, batez besteko soldata-kostuak % 2,4 hazi ziren), eta, 2018an, batez besteko soldata (% 1,86ko igoera) KPla baino bi hamarren gehiago hazi zen.

Ikus daitezkeen moduan, analisiak ertz askotatik egin daitezke, eta zaila da behin betiko ondorioak eta orokorrak ateratzea. Alabaina, badaude hainbat konklusio argi. Langileen erosahalmena bi taldetan ahuldu da modu nabarmenean: kualifikazio baxuko langileetan eta, bereziki, langile hasiberrietan (gazteak kualifikazio beretarako eta sektore beretan kostu baxuagoan kontratatzen dira, baita industria eta zerbitzu aurreratuetan ere). 25 urtetik beherako landunen kasuan, esate baterako, 2008. urteko batez besteko soldata 13.405 eurokoa zen; hurrengo urteotan, % 15 jaitsi zen, eta, prezioen eboluzioa dela eta, % 22,6 txikiagoa zen euren erosahalmena. 25-34 urte bitarteko landunen artean, berriz, soldaten batezbestekoa ia mantendu egin zen, baina, inflazioaren eraginez, erosahalmena % 10 jaitsi zen. Era berean, 2008. eta 2014. urteen arteko datuekin, zera ikus daiteke: lehen hiru dezil txikikoenen batez besteko soldata (EAEn, hilean 1.105 euro baino gutxiago kobratzen dutenen kasua) ahuldu egin zen, eta gainontzekoena –kopuru aldakorretan– hazi.

Beste auzi garrantzitsu bat enpleguaren kalitatea eskastu izanari (soldata, lanaldia, lanaren iraunkortasuna) lotua dago. Pisuzko arrazoietako bat –hurrengo atalean ikusiko dugunez– lehen laneratzeko ordainsariak jaitsi izana da, baina, horrez gainera, krisiaren ostean lanera itzuli zirenen ordainsarien prekaritatea ere handitu zen (antzinatasuna da, gainera, enplegatuen artean galbahe inportantea, bost urteren azpitik egon direnen kalterako), eta lanaldi murriztuen eta behin-behinekotasunaren tasak igo. Gazteen artean, esate baterako, enplegu-ezegonkortasuna 35 urte ingurura arte luzatu zen, hitzarmenik gabeko lan-baldintzetan negoziatu behar zutelako bereziki (adibidez, Gipuzkoan, 19-25 adin-tarteko landunen batez besteko soldata 7.000 ingurukoa zen, eta 26-35 artekoena, berriz, 20.154 eurokoa).

2018. urteko datuen arabera, EAEn, behin-behinekotasuna % 25,8koa zen (EBko batezbestekoa: % 14,2); enplegu bakoitzeko 3,14 kontratu egin ziren, eta kontratuen % 49,9k ez zuen hilabeteko iraupena gainditzen. Begirada jasoz gero, behin-behinekotasunak gora egin zuen sei urtez jarraian, eta, 2019ko lehen sei hilabetean, 445.535era iritsi zen. Aldi berean, 2018an, 88.625 kontratu mugagabe sinatu ziren (2017an 73.328 eta 2008an 71.194); ia kasu gehienetan, behin-behineko kontratuak izan ziren kontratu mugagabeen aurrekaria. Gauzak horrela, 2019ko

ekainean kontratu mugagabeak zituzten kotizatzaileak zifra gorenetara iritsi ziren (536.819), baina lehen seihilekoan jaitsi zen, 2013tik lehen aldiz (% 7,3ko jaitsiera; 42.030 kontratu mugagabe), 2018ko lehen seihilekoan % 21,8 igo ostean. Halere, azken urteotako kontratu berriei erreparatuz gero, hamar kontratutatik bederatzi behin-behinekoak izan ziren.

Bestalde, lanaldi murriztuaren eraginez, 2008. urtearekin alderatuz, 2019. urtean, dedikazio osoko baliokidetzako lanpostuen 30.540 ez ziren lan-merkatura itzuli (lan egindako ordu kopuru osoa zati lurralde ekonomikoan dedikazio osoan lan egindako orduen batezbestekoa). Lanaldi murriztuko kontratuak % 31 ziren 2008an; 2017an, % 40 izan ziren; bestalde, hamarretik zazpi emakumezkoak ziren, eta % 17ko pisua zuten lan-merkatuan. Belaunaldi-txandaketa da lan-merkatuaren kalitate-galera esplikatzeko duen beste faktore bat. Lan-merkatuaren egoera eskatu izanaren arrazoiak bat da erretiroa hartzen dutenek enplegu-baldintza mugagabeak eta ordainsari altuak (soldata altuak, osagarriak, antzinasuna) izan dituztela, orain laneratzen direnekin eta lan-merkatuan ari direnekin alderatuz gero. Hemen aipatu diren faktoreek badute zerikusia, besteak beste, 2012ko Espainiako lan-erreformarekin eta negoziazio kolektiboaren etenaldiarekin (negoziazio kolektibo egonkor, seguru eta malguen kaltetan).

Horrek guztiak beste datu hauek ulertzen laguntzen du: 2008. urteaz geroztik, langabezia-tasa % 16,7ra iritsi zen 2015eko lehen hiruhilekoan; 2019ko lehen hiruhilekoan, % 9,9ra jaitsita zegoen; bestalde, 13.500 pertsona jaitsi zen biztanleria aktiboa, eta, epe berean, 42.200 pertsona igo zen biztanleria landuna. Era berean, 2008ko uztailarekin alderatuta, 2019an 9.518 pertsona gutxiago zegoen Gizarte Segurantzaren afiliatuta (973.417, orotara). Auzi demografikoez gain, lan-merkatuko dinamikak ere ezin daitezke bistatik galdu, noski.

Errepara diezaigun, bukatzeko, Gipuzkoako lurraldeari. 2008-2016 urteen artean, soldatapekoen erosahalmena bederatzi puntu jaitsi zen (soldatak % 17,1 igo, eta inflazioa % 25,1 hazi zen). Soldataren banaketa, ordea, ezberdina da dezil bakoitzari erreparatuz gero (12. taula). Diru-sarrera handieneko dezila eta hamargarrena alderatuta (medianak, betiere), 2008an, aberatsenak 38,9 aldiz handiagoko soldata jaso zuen; 2016an, berriz, 63,3 aldiz handiagoa (851 euro vs 55.430), eta horrek % 62,7ko aldakuntza esan nahi du, 2005. eta 2008. urteen arteko aldakuntza –% 3,0koa izan baitzen. Hori, neurri batean, dezil baxuenek guztiarekiko pisua galdu izanari zor zaio (2008an guztiaren % 0,7 eta 2016an guztiaren % 0,4), baita dezil handiena hamar urteren buruan % 25,5etik % 26,8ra pasatu izanari ere. Lau dezil baxuenak jaitsi dira, eta gainerakoak igo; dezilean gora egin ahala, igoera handiagoa da. Hori da dezil bakoitzeko medianaren portzentajezko aldakuntzak erakusten diguna. Begirada luzatuz gero, 2005-2008 urteen artekoarekin alderatuz gero, nabaria da aldea.

EUSKAL GIZARTEA ARO EKONOMIKO BERRIAN

2016. urtean, gipuzkoarren batez besteko soldata 24.484koa euro izan zen. Baina, sektoreak alderatuta, zera ikus daiteke: batez besteko lansari handiena banketxeko langileak zuen (44.378 euro); komunikazioaren alorreko langileen batezbestekoa 33.176 eurokoa zen; industriakoa, 30.164koa (Gipuzkoako industria metalurgikoan, % 10ekoa zen sektoreko hitzarmen berritua); enpresei zerbitzua ematen dien sektorekoa, 20.615 eurokoa; nekazaritzakoa, 17.414 eurokoa, eta zerbitzu pertsonaletakoa, 13.356 eurokoa.

Lan-merkatuaren segmentazioak eta dualtasunak ertz gehiago ditu, noski. Ikusitakoarekin, industriako soldatapekoen galera azpimarratu behar da (2005. urteaz geroztik, 21.642 langile galdu, eta, 2016an, 64.129 langile geratu ziren), eta zerbitzuen gorakada, bereziki zerbitzu sozialetakoa (71.092 soldatapeko), guztiaren % 24,4. Lurraldearen ikuspegitik begiratuta, agertoki berriak aparteko garrantzia du, besteak beste, lurraldearen ongizatea eta kohesioa hein handi batean lan-merkatuaren mendekoa izan den heinean langileen arteko desorekak ohikoa baino arrakala handiagoa azaleratzen duelako.

12. taula: Lurraldeko ordainsariak (Gipuzkoa)

	Soldatak. Dezil Bakoitzeko medianaren balioa (€)		Dezil bakoitzeko medianaren portzentajezko aldakuntzak		
	2008	2016	2005/2008	2008/2016	2005/2016
D1	1.393	851	18,3	-38,9	-27,7
D2	6.228	5.182	17,4	-16,8	-2,4
D3	11.563	10.377	17,4	-10,3	5,4
D4	16.346	15.270	16,4	-6,6	8,7
D5	19.987	19.690	14,2	-1,5	12,5
D6	23.554	23.844	13,6	1,2	15,0
D7	27.491	28.569	13,7	3,9	18
D8	32.166	34.138	13,8	6,1	20,8
D9	38.031	40.912	14,3	7,6	23,0
D10	52.632	55.430	14,2	5,3	0,3

Iturriak: Gipuzkoako Foru Aldundia, Ogasuna eta Finantzak departamendua. Egileak ondua.

11.3.2. Epe luzeko langabezia

Lan-merkatuko dinamikekin batera, lurraldeko aurrerabide soziala eta horren desorekak ulertze aldera, beste aldagai garrantzitsu bat langabeziari buruzko datuek ematen dute. Enpleguak gero eta zailtasun gehiago ditu integrazio sozialerako araubide modura; lurraldeko lan-merkatuak arazoak ditu biztanleria aktiboaren enplegua orokortzeko, bai eta ere pertsonak laneratzeko. Alde horretatik, Gipuzkoan, 24.000 langabetuak adinaren, ikasketa-mailaren eta enplegua bilatzen daramaten denboraren arabera segmentatuz gero, hainbat kontu deigarri azpimarratu litezke.

Alde batetik, 11.000 pertsona inguruk lan-merkatuan sartzeko arazo larriak dituzte adinagatik eta ikasketa-mailagatik. Haien egoera hiru arrazoi osagarri direla eta nabarmentzen da. Lehenik eta behin, iraupen luzeko (bi urtetik gora) langabeen portzentajea esanguratsua da; horrek zuzeneko eragina du pertsonaren enplegagarritasunean, eta langabeen profil hori agerikoagoa izan daiteke langabezia-tasak txikitu ahala (Gipuzkoaren kasuan, industriak egitura ekonomikoan duen pisua dela eta, azpimarratu behar da 44 urtetik gorako epe luzeko emakume langabea, formakuntza baxukoa eta zerbitzuen alorrekoa dela langabeen profila, laneratzeko zailtasun handiak dituen).

Bigarrenik, langabe kronifikatuaren profila 45 urtetik gorakoa da, eta oinarrizko ikasketak dituen, baina aurreikusten da profil horretako enplegu gutxi sortzea, eta, sortzekotan, aurreikusten da kualifikazio baxuko eta eskubide zaurgarriko lanpostuak izango direla. Halarik ere, Bigarren Hezkuntzako bigarren etapa (224) edo ikasketa tertziarioak (690) bukatuak dituzten 45-54 urteen arteko ia mila pertsonak bi urte baino gehiago daramate langabezia. Era berean, 55-64 urteen artean, 718 pertsonak bi urtetik behera daramate langabezia (552k amaitua dute Bigarren Hezkuntzako lehen etapa), eta bi urtetik gora, berriz, 2.310 pertsonak. Badago heterogeneotasuna, beraz. Hirugarrenik, langabeen artean, 45 urtetik gorakoa portzentaje esanguratsua da, eta adin-tarte horietan da preseski lurraldeko maila formatiboa bereziki baxua. Enplegagarritasun oso baxuko artean, 45 urtetik gorakoei dagokienez, 1.131k Lehen Hezkuntza edo gutxiago dute, eta 4.039k, Bigarren Hezkuntzako lehen etapa.

Zailtasunak daude epe luzeko langabezia-tasa handia murrizteko, eta horrek iradokitzen du egiturazko izaera hartu duela eta ekonomiaren ziklo gorakorrek eragin apala duela. Langabeziak, alde horretatik, beste arazo bat azaleratu du; alegia, langabeziagatik prestazioa jasotzen dutenak (ordaindutakoaren arabera prestazioa edo langabezia egoteagatik subsidioren bat) talde gero eta txikiagoa direla

EUSKAL GIZARTEA ARO EKONOMIKO BERRIAN

langabeen artean. Epe luzeko langabezian, gainera, emakumezkoak gehiago dira; epe motzeko langabezian, aldiz, gizonezkoak gehiago dira. Lehen laneratzeko kolektibo esanguratsuen (hamarretik bat dira) 44 urtetik gorako emakumezkoena da, eta 30-44 urteen artekoa, eta, langabeen artean, zerbitzuen sektorekoak dira nagusi (gehienak komertzioan eta ostalaritzan, eta jarduera tekniko eta administratiboetan).

Bestalde, ostera, beste 13.000 pertsona langabeei dagokienez (esan dugu 24.000 langabe direla orotara), adinagatik (20-24, 25-34, 35-44 urte artekoak) eta ikasketak-mailagatik (adin-tarteetan behera egin ahala, ikasketak-mailen hazkundera progresibo da), aurreikuspena da 6.600 langabek lan-merkatuan sartzeko potentzialtasun handiak dituztela eta 6.400 pertsonak, berriz, tarteko aukera.

EAEn ere, biztanle aktibo ez-landunen tasa kualifikazio-maila orokorraren arabera segmentatuz gero, hainbat datu hauteman daitezke: «Ikasketak kualifikatuak eta lan-esperientzia esanguratsua» dituztenen artean, 2015eko ez-landunen tasa % 4,8koa zen, baina, 45 urte edo gehiagoko gizonetako, % 5,8koa, eta, 35 urtetik beherako emakumezkoetan % 12,7koa. «Ikasketak kualifikaturik gabekoa baina aipatzeko moduko lan-esperientzia eta prestakuntza osagarria» zituztenen artean, berriz, ez-landunen tasa % 12,1koa zen (2007. urtean baino hamar puntu gehiago), baina 35 urtetik beherako gizonetako (% 20,3) eta 35-44 urte arteko emakumezkoak (% 23,2) nabarmentzen dira. Apala zen «Ikasketak kualifikaturik eta prestakuntza osagarririk gabekoa baina aipatzeko moduko lan-esperientzia» zutenen ez-landunen tasa (% 4,8), nahiz eta 35-44 urte arteko gizonetako % 12ra iristen zen. Oso da bestelakoa hurrengo kualifikazio-mailan zeuden ez-landunen tasa. Zehazki, «Aipatzeko moduko lan-esperientziarik gabekoa baina ikasketak kualifikatuekin» kategoriako ez-landunen tasa % 31,7koa zen (aldiz, 1999an % 23,9koa eta 2007an % 11,7koa zen), eta, aldeaz edo moldez, gizonetako eta emakumezkoen adin-tartea guztietan ia herena da. «Ikasketak kualifikaturik eta aipatzeko moduko lan-esperientziarik gabekoa baina prestakuntza osagarria» dutenen kasuan, berriz, % 44koa zen ez-landunen tasa (2007an, % 16,4ra jaitsi zen), baina oraindik eta gehiago handitu zen 45 urteko eta hortik gorako gizonetako (% 53,9; 1999-2008 urteetan, aldiz, % 15etik % 19,4ra bitartean ibili zen) eta 35 urtetik beherako emakumeetan (% 51,5; 1999. urtean, aldiz, % 45,8koa izan zen, eta, 2007an, % 16,8koa). «Ikasketak kualifikaturik eta aipatzeko moduko lan-esperientziarik gabekoa» da ez-landunen tasa handiena zuen kategoria: 1999ko % 33,3tik 2007ko % 11,9ra jaitsi ostean, % 51,4ra igo zen, eta, 35 urtetik beherako emakumeen kasuan (% 53,4 orotara), % 67,2ra heldu zen.

Gainontzean, langabeziari buruzko datuek, azken lau hamarkaden perspektiban, zera erakusten dute: EAEko ekonomian, atzeraldi- eta krisi-sasietan galdutako enplegua handiagoa eta bizkorragoa izaten da oparotasun-garaietan sortzen dena baino. Aztertu beharko lirateke, besteak beste, produktibitatearen eta soldataren arteko harreman-dinamika (zer neurritan datozen bat soldatak beharko da ea doikuntzak soldatetan egin daitezkeen ala orain artean bezala nagusiki enpleguetan egin behar diren). Neurri berean, 1995-2008 urteen arteko oparotasunak egiaztatzen zuen –bederatzigarren kapituluan ikusi bezala– enpleguari buruzko irakurketa kuantitatiboa (enplegu kopuru handia) eta kualitatiboa (enplegu lehiakorren tasa baxua) ez zetozela bat; alegia, produktibitate urriko hazkundean zetzan, eta gaurko egitura sozioekonomikoan haren ondorio negatiboak azaleratzen dira, oraindik ere.

11.3.3. Aberastasuna eta langabezia

2018ko datuen arabera, Gipuzkoako langabezia-tasa % 7,2koa da (Bizkaikoa % 10,8koa eta Arabakoa % 9,9koa), eta, bien bitartean, Espainiakoa % 14,9koa, Italiakoa % 10,1koa, Frantziakoa % 9,3koa, eurogunekoa % 8,1koa, Portugalgoa % 6,6koa, Suediakoa % 6,5koa eta Alemaniakoa % 3,4koa dira, baina aldeak ikaragarri handitzen dira eskualdekako datuekin erkatuz gero. Nolanahi den, lurraldeko aurrerabide sozialari buruzko arazoak ulertze aldera, langabezia gai inportantea da.

Europako eskualdeekin alderatuta, euskal lurraldeetan, langabeziaren eta per capita BPGaren arteko etena da auzi deigarrietako bat. 280 eskualdetatik 240tan, EAEn baino langabezia gutxiago dago (40 eskualdek soilik dute % 10etik gorako langabezia), eta EBko langabezia-tasa ofiziala % 6,9koa da, nahiz eta langabe guztietatik aldi luze bat lanik egin gabe –bi urte edo gehiago– egin dutenen tasa antzerakoa izan (EBn % 43,2 eta EAEn % 42,1). Langabe gutxien dituztenak, berriz, kontinentearen erdialdean daude, eta eskualde oso aberatsak dira: Praga (% 1,3), Txekiar Errepublikako hego-mendebaldea (% 1,5) eta Alemaniako Mittelfranken (% 1,8). Haatik, aberastasunari erreparatu gero, EAE lurralde aberatsenetatik gertuago dago (280 eskualdetatik 50.a izango litzateke, 2018. urteko datuen arabera): 36.300 euroko per capita errentarekin, erosteko ahalmenaren arabera moldatuta (PPS).

Antzeko aberastasuna duten eskualdeekin konparatuz gero, beste horietan langabezia txikiagoa da (West Vlandereenek 34.400 euroko per capita BPGa du, eta % 2,6ko langabezia, eta Niederbayernek 36.400 euroko per capita BPGa eta % 2,1eko langabezia). Guretzat erreferentziakoak diren beste eskualde batzuetan, berriz, hau ikus dezakegu: Tirolen, biztanleko BPGa 40.200 eurokoa da, eta langabezia, berriz, % 3,3koa; Salzburgon, biztanleko BPGa 44.800 eurokoa, eta langabezia, % 3,1koa; Flandrian, biztanleko BPGa 35.100 eurokoa, eta langabezia, % 4,4koa; Bavarian, biztanleko BPGa 41.700 eurokoa, eta langabezia, % 2,3koa; Baden-Württemberg-en, biztanleko BPGa 41.300 eurokoa, eta langabezia, % 2,9koa; Vorarlberg-en, biztanleko BPGa 41.100 eurokoa, eta langabezia, % 3,7koa; Austria Garaian, biztanleko BPGa 37.800 eurokoa, eta langabezia, % 3,9koa.

Lurraldeko aurrerabide sozialaren mugak ulertzeko, beraz, langabezia eta, hedaduraz, gizarteko desberdintasanak fenomeno bereziak dira, aberastasun parekoa duten Europako eskualdeetan ez baitago halako langabezia-tasarik. Lan-merkatua dela eta, gainera, soldaten sakabanaketa da gure beste elementu bereizlea. Lurraldeak aurrerabide sozialean dituen arrakalak ulertzeko, baina, aldagai gehiago ere badago, eta horiek aztertzen segituko dugu.

11.4. GAZTEAK ETA LANERATZEA

Enpleguaren eboluzioan arreta ipiniz gero, gazteen (25 urtez azpikoak) enpleguaren eboluzioak –maila absolutuan eta erlatiboan– aparteko zailtasunak ditu. Horrek agerian uzten du lan-arloan zabaltzen den beste erronka: alegia, gazteak lan-merkatuan sartzeko trantsizioa azkartu eta egokitzeko premia. Europako herrialdeekin eta erreferentziako eskualdeekin alderatuta, hainbat elementu deigarri hauteman litezke. Bi aipatuko ditugu: (a) gazteen artean laneratzea atzeratu izana eta (b) gazteek lehen lana lortzeko eta egonkortzeko duten zailtasuna, eta bigarren auziari erreparatuko diogu bereziki.

Lehen elementu deigarria gazteen artean laneratzeko adina atzeratu izana eta 16-24 urte arteko gazte aktiboen kopurua herena izatea da (2017an, 16-19 urte arteko 5.731 eta 20-24 urte arteko 41.238). 16-29 urte bitartean, berriz, % 49,1koa zen

biztanleriaren jarduera-tasa; Europako herrialdeekin alderatuta, ratioa oso baxua da. EAEn, gazteen jarduera-tasa urtero jaitsi da azken lau hamarkadetan. 1986. urtean, langabezia gogorra zen unean –% 51koa zen gazteen langabezia-tasa–, 331.000 ziren (gazteen jarduera-tasa % 53koa zen). Horrek iradokitzen du, lan-merkatuaren egoera koiunturala gorabehera, epe ertaineko begiradarekin egiten zela hezkuntza luzatzearen aldeko hautua. Gainera, 25-34 urte arteko adin-tartean, enplegu-tasa altua zen, eta ikasketa-mailak laneratzeko aukerak errazten zituen. Nolanahi den, euskal gazteen artean, ikasketak eta enplegua aukera baztertzailak dira gaur-gaurkoz, eta, lau hamarkadako epean, gazteen jarduera-tasa nabarmen aldatu da; Europako herrialde lehiakorrenetan, adin bererako, % 55 eta % 70 artean dabil tasa, eta datu horrek haiengandik aldentzen gaitu, beraz.

Bigarren elementu deigarria gazteek lehen aldiz laneratzeko eta enplegua egonkortzeko dituzten zailtasunak dira. Gaiari tarte zabalagoa eskainiko diogu 11.3.1. atalean gazteei buruz esandakoak osatze aldera. Esate baterako, gazte landunen ehunekoak 2006an % 54,9 izatetik 2016an % 37,5 izatera pasatu zen (biztanleria osoan, hiru puntukoa izan zen 2006-2016 urteen arteko landunen tasaren jaitsiera), eta langabezia-tasa lau aldiz handitu zen. Gazte soldatadunen erdiak behin-behineko kontratua zuen; landunen artean, lanaldi murriztuak etengabe gora egin zuen (hirutik batek halako enplegu mota zeukan), eta 16-29 urte artekoen batez besteko soldata 996 eurokoa zen (gizonezkoena 1.125 eurokoa eta emakumezkoena 867 eurokoa). Horiek horrela izanda, batez besteko soldata jasotzen zuen gazteak batez beste soldataren erdia baino gehiago bideratu behar zuen hipoteka-maileguaren lehen kuota ordaintzera, eta, alokairua hobetsiz gero, soldataren % 60 errenta ordaintzera bideratu behar izaten zuen.

Zailtasun horiek gogoan izanda, ordea, komeni da gazteenen egoeren arteko alderaketa egoki marraztea. Jarraian, lau profil orokor bereiziko ditugu, eta egitura sozioekonomikoaren beste hainbat dimentsiorekin loturik osatuko dugu azalpena. Izan ere, solasaldietan, ikuspegi ezberdinak agertu dira gazteenei buruz. Hemen planteatuko dugu gazteen egoeraren gaineko irakurketen ugaritasuna errealtate heterogeneoari zor zaiola neurri batean.

Alde batetik, gazteenen artean, badira gutxi batzuk oso profil zaugarrikoak, eskola-ibilbidea eten dutenak, izan eskola-porrotagatik (DBH amaitu ez dutenak), izan eskola goiz utzi dutelako (18 eta 24 urtekoen artean DBH amaitu eta ikasketekin aurrera egiten ez dutenak): 2017. urtean, EAEn, % 5,4koa zen eskola goiz uzten dutenen tasa (20. grafikoa). Pertsona horien hezkuntza-enplegurako trantsizioa arazoz eta zailtasunez betea izango da, joan-etorri askorekin, eta lan-merkatuko dinamikek –bestelako esku-hartzerik ezean– zaildu egingo dute haien lan-biografia duina eta egonkorra izatea. Era berean, 35 urtetik beherako biztanle aktibo langabearen tasa % 7,5koa zen;


EUSKAL GIZARTEA ARO EKONOMIKO BERRIAN

erdi-mailako LH I eta bigarren mailako ikasketa ez-profesionalak dituztenen artean, berriz, % 11,3 eta % 11,7koa zen, hurrenez hurren, eta bietan ere joera hazkorra da.

Nolanahi den, lehen profilari dagokionez, bada beste arazo bat ere: eskola goiz uzten dutenen tasa askoz nabarmenagoa da gurasoek ikasketa baxuak dituztenen kasuan; etorkinak eta auzo jakin batzuk nabarmentzen diren heinean, klase sozialeko belaunaldien arteko erreprodukzioa gertatzen da, beraz. Edonola ere, eskolatzeta-tasa altuek agerian uzten dute erakundetze-prozesuarekin neurri politikoak hartu direla. Horren harira, gainera, EAEn ere beste ezohiko neurri bat hartu da: Oinarrizko Lanbide Heziketak –oinarrizko prestakuntza, DBHko lehen zikloa gainditu eta porrot egin dutenentzat–, bi urteko iraupenarekin, 15 eta 17 urteko gazteei aukera ematen die DBHko titulua eskuratzeko –ezagutza akademiko orokorrak, ofizio bat ikastea eta oinarrizko titulu profesionala–, eta erdi-mailako LHrako sarbidea ematen du (Batxilergoa egin ez dutenentzako aukera da). Neurri ezohikoa da, eta garrantzi berezia izan du. Izan ere, eskola-porrotak, bestela, badu arazo erantsi bat: DBHko titulua eskuratzen ez dutenek ez lukete bestela lehen ikasketekin jarraitzeko modurik, eta, alde horretatik, eskola uztea bazterketa sozialaren parekidea ere bada, azkenean.

Bigarrenik, gazte batzuek, hainbatetan maila formatibo ertain-altua izan arren, zailtasunak dituzte lan-merkatuko dinamiketara doitzeko, beren ibilbide formatiboagatik. Gaur-gaurkoz, zerbitzuen arloan biltzen da profil horretako pertsonen

20. grafikoa: EAEn eskola goiz uzten dutenen tasa, sexuaren arabera (%), 2017



Iturria: EUSTAT.

kopuru esanguratsuen, baina, horrekin batera, egitura okupazional berrian egonkortzeko edota higikortasunerako aukerak ere mugatuak geratzen dira (klase asmotsuaren krisia, espektatiben higatzea): formakuntza baxuko enpleguak (eta, normalean, beraz, lanpostuek eskatzen duten baino kualifikazio altuagoko ikasketak), behin-behinekoak, soldata baxukoak eta txandaketa handikoak direnez (lan-prekaritate gogorra), gazteen adin-tarteko multzo esanguratsu bati zailtzen ari zaio lan-ibilbidea egonkortzea.

Horrek, bide batez, iradokitzen du produktibitate baxuko sektore edota egin-kizunak modu kezagarri batean ugaritu direla, eta jakinekoa da langileetan inbertitzeko pizgarri eskaseko lanpostuak direla-eta behin-behinekotasunak esperientzia metatzea, enplegarritasuna eta produktibitatea galarazten dituela; zirkulu biziosoa da, eta egiturazko desorekak dakartza, beraz. Lerroartean, noski, formakuntza- eta enplegu-sistemaren doikuntza eza ere badago; ikasketa tertziarioak hedatu arren, ez diote ehun produktiboaren beharrei erantzuna ematen, eta, sakonean, giza baliabideen kudeaketa ez-eraginkorra ere azaleratzen da.

Gainontzean, alde batetik, EAEn, lanaldi partzialeko soldatapekoak % 20 inguru dira, eta lan horietatik erdiak baino gehiago dira azpienpleguak (lanaldi partzial nahi gabekoak, astean 30 ordu edo gutxiagokoak, eta lanaldi osoko lanpostua topatu ezin edo ordu gehiago lan egitea gustatuko litzaiekeen enplegu mota); bestetik, azpienpleguak, behin-behinekotasunaren antzera, badiu hainbat ertz: premiazko arazoa emakumeena da (emakume landunen % 27k eta gizonezkoen % 7k lanaldi murriztua dute), eta soldata-arrakalaren eragile nagusietakoa da (batez beste, lanaldi osokoen batez besteko soldata lanaldi murriztukoena baino ia hiru aldiz handiagoa da); prekaritate forma berri bat da, lanaldi partziala oro har nahi gabekoa delako, baina enpresaren jarduera ekonomikoaren arabera oso ezberdina da: jarduera industrialean, nabarmen baxuagoa da; kualifikazio baxuko lanpostuetan eta, beraz, soldata baxuenetan, ostera, fenomeno orokorra da. Azpienpleguak, behin-behinekotasunak eta txandakatze altuak (iraupen oso laburreko kontratuak) lan-prekaritatearen forma garaikideak dira, krisiaren ostean sendotuak eta ekonomiararen onbideratzearekin irauli ez direnak (behin-behinekotasuna hazi da, eta azpienplegua ez da jaisten); ondorioz, lan-txirotasuna gizartean iltzatuta geratu da. Biztanleria gazte landunei buruzko tasek hainbat ifrentzu dituzte, beraz.

Lehen bi gazte-profil orokor horien pisu hazkorrek hainbat kezka zabaltzen ditu. Alde batetik, azpienpleguak pisua hartu du, eta prekaritate-molde hori lan-txirotasunari estuki lotua dago. Bestetik, lehen laneratzeak eta hastapeneko-lan esperientzietako baldintzek (enpleguaren kalitatea, lanpostua, soldata) gaur-gaurkoz erabat baldintzatzen dute etorkizuneko lan-ibilbidea ere; bataren eta bestearen

EUSKAL GIZARTEA ARO EKONOMIKO BERRIAN

arteko korrelazioa estua da. Eta lurraldeko egitura ekonomikoarentzat ere sako-neko auziak irekitzen dira. Izan ere, lehiakortasuna ezin daiteke orain monetaren kanbio-tipoarekin egin; enplegua prekarizatzea eta soldatetan doikuntzak egitea –bereziki, soldata baxueneko deziletan– produktibitate-arazozen seinale baizik ez da azken batean, eta azpienpleguak, epe motz eta luzera, ezberdintasun sozialak nabarmentzen eta egonkortzen ditu. 2017. urtean, landunen % 28,5 behin-behinean zegoen.

Behin-behinekotasuna, 1980ko eta 1990eko hamarraldian koiuntura zehatz bati erantzuteko ezarria –enpresarien uzkuetzearen aurrean enplegua berriz aktibatze-ko baliabide eta pizgarri gisa ezarri zen–, egiturazkoa bilakatu da, eta gazteekin ari da grinatzen bereziki; hala, erretiro aurreratua hartzen dutenekin batera, lan-merkatuan babesik gabe geratu den kolektiboa osatzen dute, hain zuzen ere. Horixe da lan-merkatuaren dualizazioa eragiten ari den faktoreetako bat; landun egonkortuen erabateko babesaren aldean, enpresa publiko, pribatu zein kooperatiboetan. Alde horretatik, lan-harremanen indibidualizazioak eta prekarizazioak askotariko ondorioak dituzte: alde batetik, pertsonak trabak dituzte euren bizi-baldintzez arduratu eta bizitza-proiektu autonomoak garatzeko; bestetik, lurraldearen eta aberastasuna sortzearen ikuspegitik begiratuta, aintzat hartu beharra dago lan-merkatuaren behin-behinekotasunak alde edo moldez giza kapitalean inbertsioa mugatu eta produktibitate baxuko enpleguak egonkortzen dituela.

Hirugarrenik, lehenengo bi profil orokor horiekin alderatuta, Lanbide Heziketan (LH) eta lanbide-arlo konkretuetan ikasketak eginikoen egoera bestelakoa da; zer esanik ez eskualde industrialetan, lurraldeak langile-profil digitalizatuaren eta teknikoaren eskaera handia duen heinean. Lurraldeko enpresek formakuntza espezializatu eta teknikoaren premia handia dute, Industria 4.0 izenekoari erantzuna emateko (sistemen integrazioan, automatizazioan, ikuskaritzan eta kontrolean ezagutza duten profesionalak; zibersegurtasuneko adituak; lantegia eta negozioa hobetzeko datuen analisisan trebatuak, hau da, matematikako, fisikako eta estatistikako ezagutzak dituztenak; fabrika adimendunetako sentsoreekin eta automatizazioarekin loturiko teknologian esperientzia dutenak; industria konektatua eta prozesuan eta mantenuan gaituriko profesionalak). Azken batean, lurraldeko enpresetan ere digitalizazioak –zehazki, Gauzen Internetek, Big Datak, adimen artifizialeko teknologiak– eta automatizazioak garrantzia hartu ahala, gaitasun digitalak, datuen prozesatzea eta adimen artifiziala lehentasunezko ezagutzak eta trebeziak dira. Guztiarekin, modu apalagoan bada ere, pixkanaka badaude biozientziak sustatzeko egitasmoak, eta robotika eta teknologia aurreratua osasunaren eremura egokitzeko ahalegina ere badago.

Erdi-mailako LH (teknikari-titulua eskuratzeko balio du, eta ofizioari loturiko edu-

kiak eta lan-orientazioari eta ekintzailtzari loturiko moduluak lantzen dira) eta goi-mailako LH (goi-mailako teknikari-titulua eskuratzeko balio du) enpresatik oso hurbileko prestakuntzak dira; 2.000 ordutan, ikaskuntzaren zati bat ikastetxean jasotzen da, eta beste zatia lantokiko prestakuntza praktikoari dagokio (goi-mailakoan jardueren % 70 praktikak dira), eta, batean zein bestean, laneratze-maila oso handia da. LHko ikasleen laneratzeak 2008. urteko krisiaren aurreko tasak berreskuratu ditu (2018an, batez beste % 86koa zen), eta, sektore industrialei loturikoetan (robotika, fabrikazio mekanikoa, sistema mikroinformatikoak, konstrukzio metalikoak, soldadura eta galdaragintza, eta efizientzia energetikoaren arloa bereziki), okupazioa erabatekoa da. Orobat, 2015ean, goi-mailako LH II ikasi eta 35 urtez behera zituzten biztanle aktibo langabeak % 4,3 ziren (1999an % 21,1, 2003an % 12,4 eta 2007an % 7,4). Lurraldeko enpresek, gainera, halako jardueretarako lanpostuak bete gabe dituzte.

LHk arrakasta itzela izan du lurraldean, solasaldietan hainbatetan adierazi den moduan. Alde batetik, ikasleei garabide tekniko eta praktikoa eta enplegarritasuna bermatzen die (formakuntza praktikoa indartzen ari da, konpetentzia leunek, gaitasun profesoalek eta enpresako arazo eta proiektuetan oinarrituriko ikaskuntzak pisua hartu ahala); zer esanik ez, formakuntzan zehar enpresako ikaskuntzak duen garrantzia dela eta; laneratze-sistema eraginkorra da, eta hezitzaileen prestakuntzak eta eskaintzaren moldagarritasunak erraztu egiten dute lurraldeko beharretara egokitzea. Alde horretatik, LHko zentroek organizazio- eta pertsona-mailan eginiko berrikuntza-ahalegina (heziketa-eskaintza eta titulazioak gaurkotzea, ikaste-irakaste metodoak berritzea eta erronketan oinarrituriko ikaskuntza, zeharkako konpetentzien garrantzia) eta enpresekin sorturiko lotura aparteko lorpenak dira (EAEko LHren berezitasun nabarmena da zentroen eskaintza bailarako sektore ekonomikoetara erabat doitu ohi dela). Laneratzearekin eta enplegarritasunarekin batera, bestetik, LHren mailakatze-sistemak badu alderdi positibo bat: ikasleari jarraitutasuna bermatzen diola ikasketa moten artean (oinarritzkoa, erdi-mailakoa, goi-mailakoa, baita unibertsitatekoa ere). Gainera, hirugarrenik, LHko zentroak bikainak izan dira teknologiaren, prestakuntzaren eta kudeaketaren eremuetako ikerketa eta berrikuntza aplikatuan, eta ahalegina egiten dute elkarlanari eta aliantzei esker ideia edo teknologia bat sortzen denetik gizarateak haren onura jasotzen duen arte sor litezkeen gaitasunen hutsuneen kudeaketan ere (Tknika zentroa da horren adibidea).

Horren harira, arreta merezi du LH Dualak, ikaskuntza eta formakuntza hezkuntza-zentroen eta enpresen artean banatu eta koordinatzeak ondo bidean indarra hartuko baitu. 2018. urteko datuen arabera, EAEn, LH Dualeko ikasleen enplegarritasuna % 96,2koa da, eta ikasleen % 85 enpresa berean ari da lanean (gainon-

EUSKAL GIZARTEA ARO EKONOMIKO BERRIAN

tzekoek sektore bereko enpresa batean lan egiten dute). LH Dualaren bilakaerak, berriz, zera erakusten du: 2018-2019 ikasturtean, ziklo industrialeko matrikulazioen % 27 bereganatu zuen (2.295 ikasle guztira); urtebeteko epean, matrikulazioa % 20 hazi da; hezkuntza-modalitate hori 97 zentrok eskaintzen dute, eta 1.434 enpresa daude inplikaturik (2012-2013 ikasturtean 124 eta 2017-2018 ikasturtean 1.122). LH Dualeko ikasleak, berriz, % 80 inguru goi-mailako heziketa-zikloan ari dira. Enpresei dagokienez, % 80 ETEak dira, bereziki arlo industrialekoak. Horrek badu garrantzia, enpresen kopuru esanguratsu batek aitortu baitu zaila dela profil kualifikatu jakinak kontratatzea, eta, bestalde, enpresetako langileen % 50 LH ikasitakoa baita. Ifrentzu esanguratsuena enpresa txiki eta mikroek ikasketen dualen konpromisoa, jarraipena eta prestakuntza bereganatu eta normalizatzeko duten zailtasuna da.

Halere, LHri dagokionez, bi arazo osagarri hautematen dira. Alde batetik, 2018-2019 ikasturteko datuen arabera, ikasle matrikulatuak orotara 42.353 dira, eta emakumeak guztiaren % 53,51; ikasle guztien % 45 ziklo industrialetan ari dira, eta emakumeak ziklo industrialetan ari direnen % 10 dira (emakumeak laguntzako sektoreetan matrikulatzen dira). Bestetik, gaur-gaurkoz, LH, beste ibilbideekin alderatuta (Batxilergoa eta goi-mailako unibertsitate-ikasketak), bigarren mailako aukera izaten da ikasleentzat eta haien familientzat, eta ikasketetako errendimendu akademikoaren arabera izaten da LHko ikasketak hautatzea, gaur oraindik ere. Bien bitartean, lurraldeko enpresek LHko arlo industrialeko pertsona kualifikatuak xurgatzeko gaitasuna eta premia dute.

Laugarren profil bat ere badago: gazte batzuei maila formatiboak (urte asko ematen dute ikasten) eta ibilbide formatiboak (ikasketen espezializazioa) lan-merkatuan sartzea atzeratzen diete (zortzi urtekoa da batezbestekoa); hainbatetan, trantsizioa luzea izaten da, baina aukera izaten dute lurraldeko ehun produktiboan ibilbide profesionala egiteko –aisialdia, soldata altua eta prestakuntza etengabea–, enpresek gazteen talentua atxikitzeko gaitasuna izanez gero bederen. Guztiarekin, lurraldetik begiratuta, hemen ere ifrentzuak badira: alde batetik, gazteen lan-ibilbidea eta ordainsariak bestelakotu dira, orain dela bi hamarkada unibertsitateko goi-ikasketen teknikoak egin ohi zituzten lankideekin alderatuta (eskaintza haztearekin batera, eskariaren portaerak bestelakotu dira, eta gainkualifikazioa arlo teknikoan ere badago), eta, ondorioz, lansariaren kostu globala ere jaitsi da; beste aldetik, azken bi hamarkadetan, sektore tertziario kualifikatuan –ingeniaritza-alorrean, finantza-zerbitzu espezializatuetan–, estrategia geografiko segmentatua eta zentralizatzailea bideratu da (Bartzelona eta bereziki Madril), eta gazteak lurraldean atxikitzeko aukerak neurri batean mugatu dira.

Nolanahi den, inportantea da gazteriar buruzko diagnostikoak ondo aletzea, errealitate soziologiko konplexua ulertzeko ez ezik, baita aterabiderako planak eta egitasmoak ganoraz diseinatzeko ere. Gazteen laneratzeak herribideari buruzko

agenda politikoan garrantzia hartu beharko luke hurrengo urteotan, eta estrategiak nahitaez ugaritu beharko dira (bazterketa soziala saihesteko, azpienplegua erregulatzeko, formakuntza tekniko eta aplikatua sendotzeko, talentudunak atxikitzeko). Guztiarekin, gazteen kasuan badira azpimarratu beharreko azken ideia bi: batetik, esan bezala, gazteen laneko jardueraren ratioa oso baxua da Europako herrialdeekin alderatuta, laneratzeko adinaren atzerapena eta gaztetan formakuntza eta enplegua bateratzeko joera urria dela eta; bestetik, lan-merkatuko desorekak, belaunaldien arteko arrakalarekin batera, arlo publikoan lan egiteko aukera sendotzen du. Biak ala biak, euskalherrigintza molde errotu batekin alderatuta, joera berrien erakusle lirateke, eta, aldi berean, baita oso bestelako balioen eroaleak ere.

11.5. HEZKUNTZA-ADIERAZLEAK ETA LAN-MERKATUA

Hezkuntza-maila jarduera-, enplegu- eta langabezia-tasen faktore erabakigarria da. EAEko eremuan, esate baterako, egitura ekonomikoa dela eta, langabezia-tasa nabariagoa da formakuntza gabekoen edota ikasketak zituztenen artean (2018. urtean, bigarren mailako ikasketak zituztenen artean langabezia % 16,03koa zen, eta batezbestekoa, berriz, % 9,97koa zen), eta, ikasketak mailan gora egin ahala, aukerak ugaritu egiten dira, baina kualifikazio bat edo beste dutenen enplegu-tasetan ere aldea 50 puntu portzentualekoa izan daiteke; horrek agerian uzten du maila formatiboak ez ezik ibilbide formatiboak ere baduela garrantzia. Lurraldeko aurrerabide soziala ulertze aldera, biztanleria landunaren formakuntza-maila eta ibilbide formatiboaren eta lan-merkatuko eskariaren arteko etena ere auzi garrantzitsua da. Atal honetan, horri erreparatuko diogu.

EUSKAL GIZARTEA ARO EKONOMIKO BERRIAN

Hezkuntza –aurreko kapituluan ikusi dugunez– epe laburrean eta modu orokortuan hedatu da euskal lurraldeetan. Horrek ageriko garrantzia du, baina hezkuntza-enplegua harremana ulertze aldera, matazak hari gehiago ere baditu. Ikuspegi konparatua baliatuz gero, EAeko enpresa-inguruneari loturiko adierazlee-tan, ezaugarri bereziak azaleratzen dira.

Eskolatze-mailari eta eskolatze motari erreparatuz gero, alde batetik, pertsona landu-naren batez besteko ikasketa-mailari dagokionez, goi-mailako ikasketen tasa hazten ari da (2018. urtean, % 57); baina, aldi berean, biztanleriaren ia heren batek ez dute goi-mailako bigarren edo hirugarren hezkuntzarik, eta hori ikaragarri nabarmentzen da berrogeita bost urtetik gorako adin-tarteetan (EAEn, 16 urtetik gorakoan ia erdiek bigarren mailako ikasketak soilik dituzte, eta haien enplegu-tasa % 30,5koa da). Bigarren Hezkuntzako eta goi-mailako ikasketak dituen 25-64 urte arteko biztanle-riaren portzentajea nabarmen baxua da Europako eskualdeekin alderatuta.

Muga estutuz gero, 24-65 urte arteko biztanleriaren arazo erantsia da Bigarren Hezkuntzako lehen maila soilik dutenen portzentaje esanguratsua. Horrek guztiak isla garbia du adin-tarteak eta sexuak kualifikazioaren eta lan-esperientziaren ara-bera desberdinduz gero (13. taula).

Europa osoan dute kualifikazio baxukoek langabeziarako, txirotasunerako eta gizarte-bazterketarako arrisku handiagoa. Esate baterako, 2017. urteko datuen arabera, kualifikazio baxukoak kasuan, heren bat ez-aktiboa eta erdiak soldatape-koak dira (% 89,1koa da goi-mailako kualifikazioa duten biztanle landunen ehune-koa); txirotasun-arriskua % 34,2koa da, eta euren seme-alabena, % 60koa (% 9koa goi-mailako ikasketak dituztenen seme-alaben kasuan), eta diru-sarreraren ba-tezbestekoa 14.513 eurokoa da (25.552 eurokoa goi-mailako ikasketak dituztenen kasuan). Alde horiek euskal lurraldeetara orokortu daitezke. Haatik, alde naba-riena da EB28koen batezbestekoa nabarmen baxuagoa dela kualifikazio baxuko helduen kopuruari eta adin-tarteen arteko desberdintasunari dagokienez: 25-34 urte bitartean % 17koa, 35-44 urte bitartean % 22koa, 45-54 urte bitartean % 29koa eta 55-64 urte bitartean % 32,8koa (EB28koen batezbestekoaren orde z erreferen-tziatzko eskualde eta herrialdeenak baliatuz gero, desberdintasunak nabarmendu egiten dira). Enpleguak eta eginkizunek hurrengo urteotan izango duten bilakae-rak tentsioak izango ditu lurraldeko biztanleriaren kualifikazio-mailarekin.

Bigarrenik, biztanleria landunean ikasketa-maila baxukoei dagokien kopuru altua-rekin batera, Bigarren eta Hirugarren Mailako Hezkuntza duen 25-64 urte arteko biztanleria, Europako herrialde eta eskualdeekin alderatuz, erlatiboki ahula da. Langile adinduen hezkuntza-maila baxuarekin batera, bigarrenik, euskal lurraldee-tako Lanbide Heziketako ikasleak kokapen ertainean daude erlatiboki. Era berean,

13. taula: EAEko biztanle aktiboak, kualifikazio (tipo sintetikoak) maila orokorraren arabera, sexuari eta adinari jarraikiz. 2015

	Orotarra		Gizonezkoak			Emakumezkoak		
		< 35 urte	35-44 urte	≥ 45 urte	< 35 urte	35-44 urte	≥ 45 urte	
Ikasketa kualifikatuak eta lan-esperientzia esanguratsua	379.077	25.605	67.605	94.632	32.658	73.573	84.738	
Ikasketa kualifikaturik gabea baina aipatzeko moduko lan-esperientziarekin eta prestakuntza osagarriarekin	53.740	5.111	8.572	15.984	4.987	7.125	11.960	
Ikasketa kualifikaturik eta prestakuntza osagarriarekin gabea baina aipatzeko moduko lan-esperientziarekin	218.137	13.382	28.919	91.884	7.214	14.547	62.191	
Aipatzeko moduko lan-esperientziarik gabea baina ikasketa kualifikatuekin	193.448	45.739	25.048	14.955	55.391	32.088	20.227	
Ikasketa kualifikaturik eta aipatzeko moduko lan-esperientziarik gabea baina prestakuntza osagarriarekin	158.938	38.073	26.873	24.931	26.118	19.785	23.158	
Ikasketa kualifikaturik eta aipatzeko moduko lan-esperientziarik gabea	109.435	7.064	13.921	33.973	6.963	14.640	32.875	

Iturriak: EUSTAT, Egileak ondua.

2018. urtean, 25-34 urte arteko gazteen artean orotara % 54,4k zeukan goi-mailako titulazioa (emakumeen % 58,8k eta gizonen % 49,9k); bestalde, % 16,5ek Lanbide Heziketako goi-mailako zikloa bete zuen (gizonezkoak nabarmen gehiago ziren). Haatik, lurraldearen egitura eta espezializazioa dela eta, profil profesional horren gabezia (adar teknologikoari eta zerbitzu aurreratuei loturikoetan) agerikoa egiten da, eta enpresen beharrei eta lan-eskaintzari erantzuteko dagoen arazoa azalazten du.

Hirugarrenik, goi-mailako unibertsitate-ikasleen kopurua erlatiboki esanguratsua da. Alabaina, hamarkada gutxitan unibertsitate-ikasketak dituen biztanleria masiboki

EUSKAL GIZARTEA ARO EKONOMIKO BERRIAN

ugaritzeak desoreka agertzen du lurraldeko ehun produktiboarekin; lurraldeak ez du ikasketa tertziarioak –edo zehazki, ibilbideak orotara hartuta– xurgatzeko gaitasunik.

Azken urteotan, euskal lurraldeetako segregazio okupazionalak ere arreta erakarri du. Gizon eta emakumeen arteko soldata-arrakalaren erakusleetak bat (*wage premium*) emakumezkoek jarduera prekarizatu eta gaizki ordainduetan lan egitea da. 2016. urteko datuen arabera, errenta pertsonala aintzat hartuz, batez beste gizonezkoena 25.696 eurokoa zen, eta emakumezkoena, 15.578 eurokoa; errenta erabilgarriari dagokionez, berriz, 21.288 eurokoa eta 13.315 eurokoa, hurrenez hurren. 2018. urteko datuei begiraturaz gero, emakumezkoen kontratu berrien % 92,7 zerbitzuen alorrean egin zen (zerbitzuetako kontratuen % 58,6 emakumezkoen zegozkien: osasuneko teknikariak, bulegoko langileak, komertzioa, lan ez-kualifikatua), eta, arlo industrialean, % 6,6 (industriako sektoreko kontratuen % 21,8 izan ziren emakumezkoentzat: 5.774 emakume eta 49.445 gizonezko).

Urte bereko datuekin jarraituz, EAE zen Europako eskualdeekin alderatuta mila biztanleko zientzia, matematika eta ingeniarietako ikasle gehien zituena (mila biztanleko 39,7); ingeniariak hogeita bost mila inguru ziren biztanleria landunaren barruan (langile aktiboen % 3), eta lan-merkatuari begira aurreikuspen onak –lehen sarbidea, soldata, ibilbide profesionala, egonkortasuna– zituzten: lehen bost urteko ibilbidean, batez beste 29.419 euroko soldata gordina jaso zuten (Gipuzkoako lurraldean, 34.884 euro). Haatik, begia unibertsitate-ikasleentako ikasleengan ipiniz gero, 2015-2016 ikasturteko datuen arabera, 66.830 ikasleen artean, zera ikusten da: ikasleak zientzietan, unibertsitate-ikasleen % 6,1 dira, eta emakumezkoen kopurua –ehunekoa– ere berbera da; ingeniaritzan eta arkitekturan, orotara ikasleak % 24,1 dira, eta, ostera, emakumezkoen % 12,9; osasun-zientzietan, ikasleak orotara % 13,1 eta emakumezkoetan % 18,6; gizarte- eta lege-zientzietan, ikasleak orotara % 47,1 eta emakumezkoen % 51,3, eta arte eta giza zientzietan, ikasleak orotara % 9,6 eta emakumezkoetan % 11,2.


Orobat, Lan Heziketan matrikulatutako ikasleak ere graduaren eta familia profesionalaren eta sexuaren arabera alderatuz gero, hezkuntzako genero-etena oso nabarmena da. Segregazio okupazionalak ertz ugari baditu ere, hezkuntzari loturikoa ezin daiteke bistatik galdu: segregazio horizontalak (gizon eta emakumeek lan ezberdinak egiteko joera) eta lan administratibo errutinario eta asistentzialetan –zaintzako lanak, erizaintzakoak, gizarte-lanekoak– emakumezkoak nagusitzeak, besteak beste, badu zerikusia ibilbide formatiboekin, eta, lanaldi partzialarekin eta azpi-enpleguarekin batera, laneko desberdintasunen eragile nagusia da.

Bizitzako istripu bat –sexu batekoa edo bestekoa izatea– baliabide ekonomiko ez-berdinak izatera heltzen bada ibilbide formatiboek eraginda, hori desberdintasun eta injustizia sozialen adierazpen bilakatzen da. Gaur-gaurkoz, generoen arteko desberdintasunak eragina du bereziki soldata-arrakalan, lan-merkatuko jarduera-tasa baxuagoan, eta erretiroa hartu osteko batez besteko pentsio txikiagoan, esate baterako. Haatik, ikusita eraldaketa teknologikoen testuinguruan STEM –*Science, Technology, Engineering and Mathematics*– arloek duten garrantzia (profesioen arteko prestigioan, laneko egonkortasunean eta ibilbide profesionalean, soldata eta pizgarrietan), generoan oinarrituriko arrakala digitalak kezka eragiten du.

Alderaketak gorabehera, ordea, hezkuntzari loturiko aldagai horiek guztiek aparteko esanahia dute aurrerabide sozialari dagokionez, aintzat hartuz gero lurraldeak zer egitasmu eta erronka dauzkan ehun produktiboari eta lan-merkatuari lotuta (industria eta zerbitzu aurreratuen pisua, eraldaketa digitala, egiten jakiteari buruzko kompetentzien garrantzia). Arrakalak eta etenak deigarriak dira.

Bestalde, etengabeko prestakuntzan eta formakuntza jarraituan ari diren gizon-emakumeen kopurua apala eta mugatua da, eta korrelazio estua dago parte-hartzearen eta ikasketa-mailaren artean (21. grafikoa). Formakuntza eta prestakuntza modu jarraituan bereganatzeko joera ahula dute kualifikazio

21. grafikoa: Ikasketzako parte-hartzea, ikasketa-mailaren arabera



Iturria: GFA 2018

*Ikasten duen 25 eta 74 urte bitarteko bitztanleria.

baxukoek eta automatizazio arrisku handia duten enplegu edota jardueretako langileek. Dударik gabe, bizitza osoko ikasketa neurri batean aurretiko ikasketen eta formakuntzaren mendekoa da, baina, datozen urteetan, etengabeko prestakuntzari loturiko neurriak ezinbestean normalizatuko dira eragile nagusien artean –formakuntzarako zentroak, enpresak, pertsonak–, formakuntzak eta giza kapitalaren mailak ez ezik langileen etengabeko prestakuntzak ere biztanleria aktiboaren enplegarritasunean garrantzi berezia duen heinean.


Nolanahi den, lanpostu eta jardueren bizitza-zikloa gero eta laburragoa izan ahala, pertsonen trebezia eta gaitasun bereziak izan beharko dituzte (sormena, lankidetzatza, adimen artifizialarekin kooperatzeko gaitasuna), merkatuko jardueretan aritzeo ez ezik gaitasun berrietan birgaitzeko aukerak izateko; lanpostu batean ibilbide lineala egiteko aukerak bagenitu legez lan egitea arazoak ematen ari da (arazoak pertsonaren enplegarritasunean, arazoak enpresetako berrikuntza-politiketan, arazoak politika aktiboen birformulazioan, arazoak pertsonen laneratzean). Haatik, gaur-gaurkoz, hezkuntza formalean eskuraturiko ezagutzak du pisua, eduki es-tandarizatuak baliatuta eta eginkizun kodetu eta aurreikusgarrietan oinarrituriko lanpostu-sailkapenetan oinarrituta. Lanpostuetako eginkizunen edukia erabat aldatu da, eta eginkizun berriak une oro sortzen dira, ordea. Hezkuntza arautuko ikasketek pisu erabakigarria izango badute ere, eraldaketa teknologiko eta digitalak pertsonen trebeziak aldiro moldatzea eta negozio-eredu berriek gaitasunak une oro berritzea eskatuko duten heinean, formakuntza jarraituak –arautua eta ez-arautua– garrantzi berezia izango du jardueren zaugarritasunari egoki erantzuteko. Alde horretatik, hain zuzen ere, lanpostu berean lan-indarraren batez besteko denbora-iraupena zenbat eta luzeagoa izan, orduan eta handiagoa izango da konputerizazio-arriskua ere (langileek pizgarri, gaitasun, motibazio gutxiago dituztelako, besteak beste).

Ikusita hurrengo urteotan eraldaketa teknologikoak enpleguaren konposizioa itxuraldatu eta eginkizun eta jarduera berriak sortuko dituela, argi dago formakuntza jarraituaren inguruko kultura (goi-hezkuntzako erakundeena, enpresena, pertsonena) nabarmen eraberritu beharko dela, pertsonen ezagutzak, gaitasunak eta

trebeziak aldiro gaurkotzeko aukera eta erantzukizuna izan ditzaten. Horrek arazo larria iradokitzen du epe ertainera. Izan ere, negozio-eredu berrietan ukiezinak garrantzia hartzearekin batera giza kapitala eskatuko den bezala, egitura produktiboan oro har eta lurraldeko industrian zehazki produktibitatea arinduko da, kualifikazio baxuak eta etengabeko prestakuntzaren tasa eskasak eraginda (ez soilik langabeen kasuan). Gauza jakina da digitalki intentsiboak izango diren sektoreetan sortuko direla neurri handi batean lanpostu eta jarduera berriak; ezinbestekoa da bizitza osoko ikaskuntzarako sistema eraginkor bat.

Euskal lurraldeetan, gainera, ehun produktiboetatik eta biztanleriaren ikasket-mailagatik, lan-merkatuak goi-mailako ikasketadunak aldeztu edo moldez-jardue-
 ra batean edo bestean xurgatzeko gaitasuna du (22. grafikoa): haien enplegu-tasa % 74,0koa da, eta langabezia-tasa, berriz, % 7,2koa. Bigarren mailako ikasketaren bat (lehen etapa, bigarren etapa orokorra edo profesionala) duen biztanleriaren enplegu-tasa ere, ikuspegi konparatuak erakusten duenez, beste herrialdeetan

22. grafikoa: Formakuntza-mailaren araberako enpleguaren eboluzioa EAEan, 2017



Iturria: INE

baino handiagoa da. Ildo beretik, ikasitakoaren eta enpleguaren artean etena egon daitekeen arren, euskal lurraldeetan ikasketa-mailak modu positiboan eragiten du enplegua izateko aukeran. Izan ere, biztanleriaren ikasketa-mailaren eta jarduerari, langabeziari eta enpleguari buruzko tasen arteko harremanak herrialdez herrialde alderatuz gero, zera ondorioztatzen da: langabezia, hainbatetan, maila akademikoari ez ezik, testuinguru geografikoari eta egitura ekonomikoari estuki lotua ere ageri da; herrialdeak elkarren segidan ipinita, ikus daiteke langabeziaren eta unibertsitate-tasen arteko harremana askotarikoa dela.

Alde batetik, ikasketa-mailak eragin zuzena du biztanleriaren lan-baldintzetan, lan-merkaturako sarbide-tasetan, enpleguaren kalitatean eta ordainsarrietan. Bestetik, ordea, testuinguruko ezaugarriek ere pisu erabakigarria dute. Izan ere, enplegagarritasunerako aukerak hazi egiten dira ingurune dinamikoetan, ezagutzan oinarrituriko enpresek balio erantsia jardunean xurgatzeko eta lehiakortasuna hobetzeko ahalmena duten heinean. Alde horretatik, garrantzitsuak dira, batetik, eskualdeko lan-merkatua, eta, bestetik, goi-hezkuntzako erakundeen irakaskuntza-sistemarekin edota ingurune produktiboarekin duten lotura, besteak beste. Hirugarrenik, eskulan-eskari handia duten profesioetarako prestatzen duten titulazioak hautatzen dituzten ikasleek ibilbide hobeak dituzte lan-merkatuan sartzeko. Hori erraztu eta arindu egiten da, noski, goi-hezkuntzako erakundeek ikasleak modu berezian formatu eta trebatuz gero (formakuntza espezializatua eta integrala, konpetentzia digitalak, abantaila erlazionalak, mugikortasunaren kultura). Liburu honen 5.4. kapituluari aritu gara gai horietaz.

11.6. AUZI DEMOGRAFIKOA


Langabeziari dagokionez, hezkuntza-maila eta jarduera-sektorea bi galbahe nagusi dira, eta hiru arazo sendo ditugu: bata, langabeziaren kronifikazioa; bestea, lan-biografiak egonkortzeko ezintasuna; hirugarrena, gazteenetan langabezia-tasak arintzeko zailtasuna. Enplegua izan da, ezbairik gabe, lurraldeko kohesio sozialeko mekanismo garrantzitsuena, baina, eraldaketa teknologikoarekin, polarizazioa egonkortzen ari da. Lan prekarioa eta gaizki ordaindua eta lan-merkatuan sartzeko zailtasuna bi egoera hazkor dira, eta gazteei eta lan-bizitzako azken fase luzean enplegua galdu dutenei eragiten diete, oso nabarmen. Guztiarekin, enplegua bestela ere irakur daiteke. Atal honetan, demografiaren ertzetik osatuko dugu enpleguari buruzko analisia, aurrerabide sozialari buruzko hainbat erronka berri ezagut ditzagun.

11.6.1. Oreka demografiko berria

Esate baterako, lurraldeko –Gipuzkoako– enplegu-tasak 2008. urtean jo zuen goia (Gizarte Segurantzako afiliazio osoan, 323.489 pertsona, eta erregimen orokorreko afiliazioan, 241.140 pertsona), eta krisiaren doikuntzak nagusiki behin-behineko enpleguan eragin zuen (Gipuzkoko soldatapekoen enpleguaren % 22,5), eta azken urteotako bilakaerak ere ibilbide baikorrerako sintomak azalera dituzte, baina aurreikuspenek iradokitzen dute auzi demografikoek nabarmen baldintzatuko dutela afiliazioa (23. grafikoa).

Azken ideia horri lotuta, aurreikuspenen arabera, 2008. urteaz geroztik batez bes-

23. grafikoa: Lurraldeko enpleguaren eskaria eta eskaintza (eta 2015. urteaz geroztiko aurreikuspek+nak)



Eskaintza 1: Aktibitate tasaren 2 puntu portzentualeko igogerarekin estimatuta
Eskaintza 2: Aktibitate tasaren hazkundera gabe

Iturria: ADEGI

te 7.000 pertsonak hartzen du erretiroa lurraldean; 18 urte betetzen dituztenen aldean, 65 urte betetzen dituzten 2.000 pertsona gehiago dago urtero, eta 2014-2029 urteetarako proiektioek diote 16-65 urte bitarteko biztanleria batez beste 3.400 pertsona gutxiagokoa izango dela urtero. Aldaketak esanguratsuak dira biztanleriaren egiturari. EAEn ere, aurreikusten da biztanleria landunak 190.000 pertsonako galera izatea 2025. urteko horizontean. Bestalde, aintzat hartu behar da Europako eskualdeekin alderatuz gero, 2018. urteko datuen arabera, EAE 55-64 urte bitartekoen enplegu-ratio baxueneko taldean zegoela (% 22,1 eta % 47,6 bitarteko taldean, hain zuzen ere); pertsona potentzialki aktiboaren artean, kopuru esanguratsua zen inaktiboena (erretiratu edo aurretik erretiratu). Hain zuzen ere, erretiro aurreratua eta gazteen laneratzea atzeratzea esplikatzen du EAEn 16 eta 64 urte arteko epealdian biztanleriaren parte-hartze tasa beste eskualdeekin alderatuta erlatiboki txikia izatea. Baina auzi demografikoek ere badute zeresana.

Lurraldeko saldo begetatiboa, bizitza-luzeraren eta jaiotza-tasa baxuaren arteko desorekak eraginda, negatiboa da, eta biztanleriaren uzkurdurak zaharkitzea eragiten du. Saldo begetatibo negatiboa Europa osoko oreka demografiko berriaren prozesu naturala da; alegia, biztanleriaren piramide eraberrituan, belaunaldi populatuak heltzen dira bizitzaren amaierara –datozen hamarkadetan, baby boomeko belaunaldia–, eta gero eta jende gutxiago dago guraso izateko adin-tartean (1976tik aurrerakoa). Alde batetik, gizon eta emakumeen bizi-itxaropena etengabe hazi da (batez beste, gehiago eta osasuntsuago bizi gara): 1980ko adierazleekin alderatuta (71 urte gizonentzat eta 78,5 emakumeentzat), 2016. urtean, bizi-itxaropena 7,7 urte igo zen emakumeentzat (86,2), eta 9,3 gizonentzat (80,3). Bestetik, bizi-itxaropenarekin batera, jaiotza-tasa moteldu da hainbat fenomeno osagarri dela eta: ugalketako haurren hilkortasun-tasa jaitsi, eta efizientzia demografikoak bilakaera ebolutiboa ekarri du; industrializazioak eta modernizazio-prozesuak eskolaratzea eta eskolaldia hedatzea eta luzatzea ekarri dute, eta lan-merkatuko araudiek, berriz, laneratzea atzeratu dute. Ingurumari horretan, gainera, emakumeen eskola-ibilbidea orokortu, maila formatiboa igo eta laneratzea erraztu dira. Faktore historiko horiek inportanteak dira epe luzeko joera demografikoak ulertzeko.

XX. mende osoko begirada baliatuz gero, 1900-1905 urteetan, EAEn 601.965 biztanle zeuden; jaiotzak 106.249 eta heriotzak 72.832 izan ziren (hazkunde begetatiboa 33.417 pertsonakoa izan zen, beraz); 1940-1945 urteetan, 907.768 biztanle zeuden (mugimendu naturalari dagokionez, 86.836 jaiotza, 61.438 heriotza, 25.398ko hazkunde begetatiboa); 1960-1965 artean, berriz, 1.356.793 biztanle (177.052 jaiotza, 56.478 heriotza, 120.574ko hazkunde begetatiboa), eta, 1980-

1985 urteen artean, berriz, 2.167.909 biztanle (124.037 jaiotza, 73.306 heriotza, 50.731ko hazkunde begetatiboa). Bukatzeko, 1995-2000 urteen artean dagoeneko hazkunde begetatiboa negatiboa zen: 2.073.527 biztanle izanda, 81.875 jaiotza, 89.691 heriotza, eta -7.816ko hazkunde begetatiboa izan ziren.

Bestalde, 1900. eta 1905. urteen arteko jaiotza-tasa (biztanleria osoarekiko jaiotzen portzentajea gisa ulertuta) %17,65ekoa zen; 1995-2000 urteen artean, berriz, % 3,89ra jaitsi zen. Jaiotza-tasa gordinak zera erakusten digu: 1960ko hamarkadan, % 20tik gorakoa izan zen; 1976an, % 19,7koa (41.000 bizirik jaiotako umeak); 1970eko bigarren erditik 1995. urtera bitartean, tasak behera egin zuen (1995. urtean, % 7,3, eta 15.322 bizirik jaiotako umeak); gero, gorakoari ekin, eta, 2008. urtean, % 9,9ra iritsi zen (21.315 bizirik jaiotako umeak); orduz gero, ostera ere beherakoari ekin zion, eta, 2016. urtean, % 8,4koa izan zen (18.240 bizirik jaiotako umeak). Bestela esanda, 1976-2016 urteen artean, jaiotzak % 56 murriztu dira. Neurri berean, lurraldeko saldo begetatibo negatiboa, neurri batean, heriotzei ere zor zaie noski; gizarte zaharkituetan, bizi-itxaropenaren luzatzea dela eta, heriotza-tasa berandu baino lehen nabarmendu egiten da (1980. eta 2016. urteen artean, % 42 handitu da heriotzen kopurua).

Guztiarekin, berehalako efektua da biztanleriaren piramidea –haur eta gazteek biztanleriaren proportzio handiena eta adinekoek proportzio baxuena ordezkatzeko duten oreka demografikoa– itxuraldatzea, eta bilakaerak piramide alderantzikatua aurreikusten du. Edo, hobeto esanda, 20-64 urte artekoa gero eta estuagoa da; 65etik gorakoa, gero eta handiagoa, eta 0-19 artekoa, aldakorra, azken hiru hamarkadetako faktore koiunturalen arabera. Alabaina, oreka demografiko berrian, saldo begetatibo negatiboaren bilakaera naturalarekin batera, bada beste datu inportante bat; alegia, ugalkortasun-indizea. Izan ere, oreka demografiko berria, faktore historikoek ez ezik, faktore berantiarragoek ere esplikatzen dute. Errepara diezaiegun beste faktore horiei ere.

Emakumeek, goi-hezkuntza aparteko inbertsioa egin ostean, lanaren aldeko apustua hobesten dute. Hori dela eta, ikasketak luzatzeak atzeratu egiten du familia-nukleotik emantzipatzea eta gurasotasuneranzko urratsa egitea. Baina, gero ere, emakumeek apustua egiten dute lan ordainduetan aritzeko. Aldaketa kulturala erabatekoa da: transformazio berantiar eta bizkorra gertatu da emakumeen giza kapitalean eta laneratzean. Eraldaketa hori, ordea, ama izateko baldintzekin talka betean dago, amatasunaren kostu pertsonal eta sozialek iradokitzen dutenez.

Alde batetik, emakumeentzat, hezkuntza-inbertsioa egin eta lan ordainduetan aritzeko aukera hainbatetan bateraezina da ama izateko erabakiaren baldintza ezinbestekoekin (laneko egonkortasuna, erosteko ahalmena, gizon eta emakumeen arteko kontziliazioa eta arduen banaketa, lanerako garraio-kostua eta denbora, lanordu malgu eta jarraituak, haurren zaintzarako denbora). Bigarrenik, halarik ere, emakumeen artean –ikasketa-mailaz haratago–, laneratzeko joera orokorra da: 16 urte eta gehiagoko biztanleriaren jarduera-tasa % 56,3koa izanik (2017. urtean), lan-merkatuko emakumeen presentzia erlatiboa nabarmen hazi da (% 47,8 emakumeak dira, eta, emakumeen artean, tasa % 51,9koa da, eta % 61,1 gizonezkoena).

Hirugarrenik, amatasunaren ostean lanera itzultzeak arrisku gehiegi ditu, eta emakumeek, familiaren eta enpleguaren arteko aukeran, nagusiki bigarrena hobesten dute. Amatasunak ordainsaria gutxitzea dakar emakumeentzat, eta hori nabarmendu egiten da zaintzen banaketa desorekatuan: enplegua utzi, lanaldi partzialetan aritu, edota kontziliazioa errazten duten kalitate eskaseko lanpostuak baliatzen dituzte. Era berean, EAEn lanaldia murrizteagatik edo lana aldi batez uzteagatik emaniko dirulaguntzek emakumeen –nagusiki emakumeak baitira gaur-gaurkoz halako neurriak hartzen dituztenak– batez besteko soldataren % 15 estaltzen dute. Halaber, dirulaguntza jasotzeak lanean izan ditzakeen zehar-efektuei buruzko kezka eta beldurra ere hazi egin da. Arduen banaketa desorekatuak badiu kostuak, beraz: soldata-arrakala handitzen du, azpienpleguak eta laneko parte-hartze txikiagoak eraginda. Alegia, amatasunarekin, soldata-arrakala handitu egiten da sexuen arabera lanaren banaketan (aztertu beharko da emakumeek zer neurritan hautatzen duten lehendik ere enplegu batzuk baztertea amatasuna zigortzeko arriskuagatik), eta, gainera, laneratzearekin, galera ez da berreskuratzen (*child penalty*). Azpienpleguak pisu nabariegia du gazte eta emakumeengan, eta, etxeko diru-sarrera nagusia emakumezkoarena denean, inpaktu negatiboak aparteko maila erdiesten du.

Lehen hiru faktore horiek iradokitzen dute emakumeek ugalkortasun handieneko garaian seme-alabak izateko nahia –eta eskubide erreproduktiboak– oztopatu egiten dela. Ugalkortasun-tasak bi ume nahi izatetik urrun daude. Hori bere horretan arazo publikoa da, emantzipazioa atzeratzen baita esku-hartze publikoaren urritasunagatik edota lan egonkor eta ondo ordainduaren eta etxebizitza eskuragarrien zailtasunagatik.

Familiaren ekonomia berria da laugarren espelikazioa, eta badu garrantzia erdiko gizarte-mailan: etxeko errenta hobetzeak eta haurrari kalitatezko arreta eskaintzeak (gurasoen asebetetzea, seme-alabetan inbertitzea –ekonomikoki, afektiboki, emozionalki– bizitzan arrakasta izateko) pisua du jaiotzen beherakadan. Bosgarren osagai pisuzkoa –iritzi publikoari buruzko ikerketek aldiro berretsi legez– etxebi-

zitzaren arazoa da; biztanlerian oro har eta gazteenen artean bereziki, lan-merkatua eta etxebizitza dira bi arazo nagusiak (maila kolektiboan zein pertsonalean).

Azkenik, ugalketari buruzko erabakietan, garrantzi berezia dute belaualdien arteko metabolismo subjektiboak eta gazteenen artean bizitza-estiloak ugaritzeak, fragmentatzeak eta bizi-aukerak aprobetxatu eta gozatzeko nahiak ere, azken batean eragina baitute sexua, maitasuna, bikotea, ardurak ulertzeko moduan. Emakumeen kasuan, hezkuntzak, autonomia finantzarioak, eta portaerak atxikitzen dituzten gizarte tradizioletako kortse normatiboak lausotzeak emantzipatzea ekarri die; bizitzako erabakietarako autonomia handiagoa da, eta hori ezin daiteke bistatik galdu ugalkortasuna txikitzea esplikatzen. Are gehiago, pertsonen kasuan –emakumeak zein gizonak–, haurrik ez izatea askatasunezko erabaki bat da. EAEko 2001. eta 2014. urteen arteko serieak alderatuta, haurrak garapen pertsonalerako izatearen garrantzia oso nabarmen ahuldu da, eta haurrik izateko asmorik ez duten pertsonen kopurua, berriz, igotzen ari da.

11.6.2. Politika natalisten aukerak eta mugak

Ikus daitekeen moduan, biztanleria aktibo femeninoa hazi eta egonkortzeak (euren jarduera-tasari, gainera, gazteenen kasuan goi-mailako kualifikazioa erantsi behar zaio) politika publikoentzako hainbat betekizun azaleratu ditu. Azken batean, familia, gurasotasuna eta zaintza auziaren erdigunean kokatzen ditu. Alde horretatik, garrantzitsua da galdetzea zer neurritan sustatu behar duten administrazioak eta gizarteak pertsonen ondorengoak izatea, eskubidea balitz bezala, emakumezkoen nahia gaur eguneko baldintza objektiboetan betetzen ez den heinean.

Hori dela eta, eztabaidara irekitako auziak dira haurren zaintza sozializatzea, pertsonen eta bereziki emakumeen haurrak izatearen aukeraren kostua (lan- eta bizitza-mailan) jasan beharrik izan ez dezaten, amatasun- eta aitatasun-baimen eskuzabalak hobetu eta luzatzea, haurtzaroko zerbitzu unibertsalak eskaintzea, enplegu-forma malgu eta seguruak bermatzea, zerga-sistema baliatzea (zerga-kenkariak, zerga-salbuespenak, zerga negatiboa), bestelako etxebizitza-politika bat aktibatzea, eta umea zaintzeko arduragatik 18 urte arteko prestazio unibertsala eskaintzea. EAEko gizarte-politiken ahulguneetako bi –gaiari loturiko hainbat eskumen Espainiako administrazio nagusiak izanda ere– familia eta haurtzaroa dira. EBko batezbestekoarekin alderatuta, esate baterako, inbertsio publikoa hiru aldiz txikiagoa da.

EUSKAL GIZARTEA ARO EKONOMIKO BERRIAN

Irakurketa murriztailea da, ordea, tesi ekonomizista hutsa baliatzea, ikusi dugunez. Alde batetik, emantzipazio goiztiarreko herrialdeetan ere gauza arrunta da oreka demografiko berria. Esate baterako, EAEko ugalkortasuna beheko balioetan dago: 2016an, batez besteko seme-alaba kopurua 1,35ekoa izan zen, eta horrek erabat aldentzen gaitu 1975eko 2,67 seme-alabetatik edota belaunaldien ordezkatzeari lortzeko beharrezkoak diren 2,1etik. Baina, beste herrialdeei erreparatuz gero, ikus daiteke nazioartean ere ugalkortasun-indizeak baxuak direla: 2016ko datuen arabera, EAEko ugalkortasun-indizea Italia eta Portugalgoaren antzeko mailan dago (1,34 seme-alaba), Europako batezbestekotik behera (1,60); Alemanian, emakumeko 1,6 seme-alabakoa da indizea (2002. urtean 1,34koa zen), eta urrunago daude Frantzia (1,92 seme-alaba) eta Suedia (1,85). Aldeak badaude, noski. Era berean, 1940ko hamarkadatik aurrera, European oro har jaiotako emakumeetan ondorengotza murriztu egin da eta 1960tik aurrera ez da lortu belaunaldia ordeztzea. Kasu horretan ere, badira aldeak (Frantzia, Norvegia, Suedia). Baina, ugalkortasun-tasei eta guraso izateko adinari dagokienez, aldeak mugatuak dira (aldeak, esaterako, handiagoak dira herrialdeetako bilakaera historikoan), eta aldagaien arteko konplexutasuna handiegia da, kausalitatea dagoela ebazteko. Ez dago ebidentziarik esateko politika natalista batek ugalketa-adinean diren emakumeen ugalkortasun-tasa handituko duela.

Jaiotza-tasak eragiteko, beraz, ikuspegi ekonomizista kamutsa da. Baina politika natalistek arazo gehiago ere badituzte. Izan ere, ugalkortasun-adinean den biztanleriaren tamaina dela eta, joera demografikoak ez dira leheneratuko, eta azken urteotan eta hurrengoetan politikak aldatuagatik ere jaiotzen kopurua ez da aldatuko (ugalkortasun-indizea mantendu eta hobetu arren, erreprodukzio-adinean den biztanleria gero eta txikiagoa da). 1980ko eta 1990eko hamarraldietan jaiotakoak (jaiotza-tasa baxueneko belaunaldia) heldutasunera iritsi ahala, esate baterako, belaunaldi-ordezkapena gero eta zailagoa izaten ari da. Hirugarrenik, ordea, faktore historikoak ere badaude, baita faktore soziokulturalak ere, ikus bezala. Politika natalistak ezin du ahaztu emakume eta gizonen bizi-horizontean ez duela zertan egon haurrak izateko desiorik (prokreazio desioaren jaitziera, ikusi dugunez).

Ingurumari honetan, faktore historiko eta berantiarragoek eraginda, amatasunaren adina pixkanaka atzeratzen joan da –faktore inportantea jaiotze-tasaren behe-rakadan–: belaunaldi berrietan, lehendabiziko seme-alabaren batez besteko adina 31 urte da, eta ama izateko emakumeen adin-talde ugariena 34 urtetik gorakoa izan da (1980ko hamarkadan, 20 eta 24 urte artekoak, eta, 1990eko hamarkadan, 25 eta 29 urte bitartekoak); 2016. urtean, 30 urte edo gehiago zituen haurren bat izandako emakumeak % 83,3 ziren; talderik ugariena 35 eta 39 urte arteko emaku-

meena zen (jaiotza guztien % 37,1); amen herenek umeak 30 eta 34 urte bitartean izan zituzten; 30 urte baino gutxiagokoak, berriz, % 16,7 izan ziren, eta amen batez besteko adina 32,9 urtekoa izan zen. Gipuzkoan, esate baterako, 40 urtetik gorako 128 emakume ama izan ziren 1996an; 2007an, aldiz, 313, eta, 2016an, 627. Gai horrek dimentsio medikoa ere badu (ugalkortasun-arazoak, haurdunaldiari loturiko arriskuak, ugalketa lagundurako teknikak, hipertentsioaren eta diabetesaren hazkundea), baina, guri dagokigunez, ama izateko batez besteko adina igotzearen ondorioak dira ugalkortasun-tasak jaiste eta emakumeen ondorengotzaren neurria izugarri murriztea.

Ikusitakoarekin, biztanleriaren egitura oso nabarmen aldatu da adinaren arabera (14. taula): 1981. eta 2016. urteen artean, adinekoen biztanleria bikoiztu egin zen (% 9,2tik % 21,4ra); 85 urte eta gehiagokoak ere 35 urteko epean bost aldiz baino gehiago ugaritu dira (36 urtetan 5,5ez biderkatu da, eta biztanleria osoaren % 3,7 dira); ostera, 1981ean, 20 urte baino gutxiagokoak hiru pertsonatik bat ziren, eta, 2016an, % 18,3 (EB28an, batez beste % 21). 1981. urtean, 65 urteko eta hortik gorako biztanleak 0,3 ziren 16 urtetik beherako biztanle bakoitzeko; 2016an, aldiz, harreman hori 1,4ra igaro zen. Bestalde, arreta 20-64 adin-tartean ipiniz gero, bilakaera ere agerikoa da: 1976. urtean, 1.146.563 ziren (% 55,3); 1989an, 1.293.997 (% 60,9); 2011n, 1.341.905 (% 62,6), eta, 2018an, 1.294.338 (% 59,5). Herralde garatuetan ere hauteman daiteke bizitza-luzeraren eta ugalkortasun-tasa txikiaren arteko oreka demografiko berria.

14. taula: EAEko biztanleria adin-tarteka (%)

Adina	Guztira								
	1976	1981	1988	1995	2001	2012	2016	2022	2031
≥65	8,3	9,2	11,1	14,6	18,0	19,8	21,4	23,6	28,2
20-64	55,3	56,5	60,5	63,5	64,5	62,6	60,3	58,0	54,8
≤19	36,4	34,3	28,4	21,9	17,5	17,6	18,3	18,4	17,0

Iturriak: EUSTAT. Egileak ondua.

EUSKAL GIZARTEA ARO EKONOMIKO BERRIAN

Biztanleriaren egitura XX. mendeko begirada zabalago batetik aztertuz gero, aldaketak nabarmenago hauteman litezke (15. taula). Biztanleria eta haren egitura aldakortasunari dagokionez aztertuz gero (portzentajeetan), zera ikus daiteke: XX. mende osoan zehar, EAEko biztanleria osoa % 248,86 hazi da (gizonezkoak % 242,44 eta emakumezkoak % 255,24), 0-15 urte artekoak % 21,31, 16-64 urte artekoak % 318,98 eta 65 urte eta gehiagokoak % 1.114,33. Zehatzago, aldakuntzak hogeita bost urteko epeka aztertuz gero, 1925ean (1900-1925 urteen artean, alegia) aldakuntza osoa % 36,90ekoa izan zen, 0-15 urteen artekoa % 24,71ekoa, 16-64 artekoa % 44,02koa eta 65 urte edo gehiagokoa % 44,97koa; 1950ean, aldakuntza osoa % 23,97koa izan zen, 0-15 urteen artekoa -% 5,02koa, 16-64 artekoa % 36,35ekoa eta 65 urte edo gehiagokoa % 67,30ekoa; 1975ean, aldakuntza osoa % 100,05ekoa izan zen, 0-15 urteen artekoa % 122,70ekoa, 16-64 artekoa % 87,80koa, eta 65 urte edo gehiagokoa % 133,87koa; eta, 2000. urtean, aldakuntza osoa % 2,75ekoa izan zen, 0-15 urteen artekoa -% 54,01ekoa, 16-64 artekoa % 13,61ekoa eta 65 urte edo gehiagokoa % 119,38koa.

15. taula: XX. mendeko biztanleria eta egitura (EAE)

	Orotara	Gizonezkoak	Emakumezkoak	0-15 urte	16-64 urte	65 eta gehiago
1900	601.975	300.062	301.913	223.351	349.213	29.411
	%100	%49,85	%50,15	%37,10	%58,01	%4,89
1925	824.099	402.065	422.036	278.532	502.931	42.636
	%100	%48,79	%51,21	%33,80	%61,03	%5,17
1950	1.021.652	472.476	549.176	264.550	685.771	71.331
	%100	%46,25	%53,75	%25,89	%67,12	%6,98
1975	2.043.850	997.551	1.046.299	589.166	1.287.865	166.819
	%100	%48,81	%51,19	%28,83	%63,01	%8,16
2000	2.100.039	1.027.524	1.072.515	270.945	1.463.125	365.969
	%100	%48,93	%51,07	%12,90	%69,97	%17,43

Iturriak: INE. Egileak ondua.

11.6.3. Demografia eta garabide sozioekonomikoa

Ordezkapen-tasetara iristeko arazoak –ikus bederatzigarren kapitulua– eta egitura demografiko berria dela eta, lan-merkatuan bistakoak dira jite orokorreko hainbat ondorio. Izan ere, 2031. urteari begirako aurreikuspenetan biztanleria 10.000 pertsona inguru haziko den arren, biztanleria potentzialki aktiboa 100.000 pertsona murriztuko da.

Alde batetik, biztanleria aktiboa murriztu eta enpleguaren eskaera haziko da, erretiratuko diren pertsonak ordezkatzeko premiagatik (bi hamarkadatan zehar, 190.000 pertsona biztanleria landunetik kanpora geratuko da 2030ra bitartean), bai eta ekonomiaren hazkundeagatik eta enpleguaren sorreragatik ere. Gaur-gaurkoz, bestetik, EAEko lan-merkatuan % 48 dira 45 urtetik gorakoak. Joera demografikoek ageriko ondorioa izango dute enpleguan: lan-merkatutik ateratzen den 1,5 pertsonako 1 laneratuko da, eta lan-merkatuan sartzen diren pertsonen ordezkatze-tasak urteko % 30eko murrizketa iradokitzen du. Ikusita, gainera, 1970eko hamarkadako produktibitatearen hazkundera inola ere aurreikusten ez dela, EAEen ez dago arrazoi oinarriturik langabezia aparteko kezka izateko (beste kontu bat dira enpleguaren konposizio berria eta kualifikazioen espektroan bi poloak sendotzea).

Baby boomaren belaunaldiak erretiroa hartzeak eta industriako enplegu produktiboen mantentzeak, bidenabar, gaur-gaurkoz gazte formatuen etorkizunari buruzko hautemate sozial baikorra eragiten du. Alde horretatik, presio demografikoa arindu, eta enpleguaren auzia kudeatzeko aukerak erraztu daitezke. Azken batean, biztanleria aktiboa jaisteak eta enpleguaren eboluzioa positiboa izateak biztanleria langabearen tasa murriztuko du. Gainera, gerta daiteke biztanleria aktiboa txikitzea (gizartea zaharkitzearekin batera) eta per capita BPGa haztea, digitalizazioa eta automatizazioa lurraldeko jardueretan sendotuz gero.

Bigarren ondorio nagusia da, ordea, pertsona langileen batez besteko adina handitu ahala erronka digitalera moldatzeko aukerak eta etengabeko prestakuntza sendotzeko kultura ere ahultzea. Langileen formakuntza arautuaren garaia eta teknologien etorreraren garaia alderatuta, esate baterako, agerikoa da euskal lurraldeetako paradoxa. Epe laburrean, ezinbestean, etengabeko formakuntzan

inbertsioak handitu eta jokabide indibidual eta sozialak ere moldatu egin beharko dira lan-bizitza osoan zehar, kualifikazio altuko enpleguak lortu eta une oro berritzeko aukera izateko. Beste arretagunea erretiro aurreratuen tasa altua da, eta ezagutzaren eta gaitasun profesionalen deskapitalizazioan eragiten du, besteak beste enplegua uztearekin batera bat-batean eteten direlako norberaren esperientzia ez ezik belaunaldien arteko jarraitutasuna eta trebakuntza.

Bistakoa denez, auzi demografikoak bestelako aukera eta erronkak ere baditu, noski, lurraldeko garapen sozioekonomikoan. Horien artean ezagunenak izan ohi dira pentsiodunen eta kotizatzaileen arteko oreka (gure pentsio-sistema banaketa bidezkoa da; enpleguaren gaineko kotizazio sozialekin finantzatzen da, eta enplegu bete, estandar eta iraunkorraren eredu historikoan funtsatzen da), osasun-prestazioak, edota helduentzako asistentzia sozialeko politikak. Adin nagusiko biztanleriaren ongizateak erronka ugari ditu (*age related expenses*). Hori dela eta, proiektio demografikoek kezka berezia eragiten dute, ongizate-politikak biztanleriak piramide-itxura duen garaian pentsatuak direlako. Era berean, bizi-itxaropena luzatzeak biztanleria aktiboa estutzea ere badakar, bizi-zikloak birpentsatu eta bizitza-aktiboaren eta ez-aktiboaren arteko trantsizioak beste era batera formulatu ezean. Horrek badu garrantzia, EAEn indar berezia baitu bizi-itxaropena luzatzeak (herrialde aurreratutako orotan legez), bizitza-adina batezbestekoa baino gehiago luzatu eta ugalkortasun-tasa inon baino baxuagoa denez gero.

Guztiarekin, laugarren atalean ikusi dugu gazteen laneratzean (jarduera-tasa baxua, laneratu eta egonkortzeko zailtasunak) badagoela zer hobetu. Hori aintzat hartuta, aldagai demografikoa ez genduke baliatu behar agertoki katastrofistak sortzeko. Adibide bat besterik ez da, gogora ekartzeko biztanleria aktiboa ez dela auzi demografiko hutsa eta auzi gehiago ere ireki daitezkeela eztabaidara: aukera dago erretiro-adina kasu batzuetan gradualki atzeratzeko; emakumeen jarduera-tasa ere txikia da (2018. urtean, gizonezkoena baino 10 puntu baxuagoa; % 52 eta % 61,5, hurrenez hurren); badaude aukerak negoziazio kolektiboetan lan-bizitza osoan zehar langileek enpresarekin pentsio osagarriak bultzatzeko, edota egitura ekonomiko lehiakorra eta produktibitatea ere hobets daitezke.

Alabaina, oreka demografiko berriaren efektu ekonomikoak bestelakoak ere badira, eta inpaktua izango dute ekonomiaren hazkundean, defizitaren kudeaketan, zerga-bilketan edo inflazioan ere, enplegu-tasa txikitu eta produktibitatea jaitsiko den heinean. Horren harira, aurrezki agregatuen tasan ere aldaketak igar daitezke, adin-taldearekin lotura estua dutelako kontsumoak, errentak edota in-

bertsioak ere; gaur artean bederen, adin nagusian, aurrezkiak handitu eta gastua edota inbertsioa jaitsi egiten dira, eta, erretiroarekin, ondasun neto positiboak kontsumitu ohi dira; aldiz, gazte eta helduen kasuan, errenta eta ordainsariaren fluxu-espektatiba dela medio, gasturako eta zorpetzerako joera esanguratsuagoa da (ondasun higiezin iraunkor eta ez-iraunkorretan bereziki). Defizitari eta zorrari buruzko adierazleek ere, neurri batean, demografia berriak zerga-bilketan izango duen inpaktua iragartzen dute (pertsone fisikoen errentaren gaineko zerga da horren adibidea).

Kasurik onenean, hori guztia BPGaren dinamismoak leunduko du (kontsumoa neurri handi batean errentaren mendekoa den heinean), baina horrek produktibitatea eskatzen du, eta, horretan, eskulanaren galerak eragina izango du (hori teknologiak baretu dezakeen arren). Horretan ere, parekidetasunak eta talentuak ere ekarpena egin dezakete. Garapen teknologikoak alde ona izan dezake (enplegua ordezkatu eta aberastasuna sortzen badu), baina biztanleria zahartzeak eragin negatiboa ere badu (batez besteko aurrerabide teknologikoaren berrikuntza eta zabalkundea makaltzen dira).

11.7. GIZARTE-KOHESIOAREN ARRAKALAK

Ikusitako guztiak iradokitzen du dagoeneko hauteman daitezkeen joerak sendotuko direla etorkizun hurbileko enpleguan, besteak beste eskaeraren aldeak hala eraginda. Alde batetik, eskulan ez-errutinarioko zerbitzuetan –eta bereziki zerbitzu pertsonaletan–, eskaera haziko da, bizi-itzaropena luzatzearen, ongizate-premiari buruzko politika inklusiboagoen eta emakumeen jarduera-tasa handitzearen eraginez. Beste alde batetik, EAEko langile kualifikatuen eskaintza oparora enpleguan gauzatuko balitz (sektore publikoan, zerbitzu aurreratuetan, manufakturako industrian), haien okupazio eta jarduerak (kalitatezkoa eta produktibitate handikoa) soldata altuak, lanordu orekatuak eta aisialdia ekarriko lituzke, eta errenta-efektuak, berriz, eskaera berriak eta beste sektoreetan enplegua haztea; ondasun eta zerbitzuen arteko osagarritasuna eta efektu neto agregatuak positiboak dira, alegia. Izan ere, errenta ertain-handiko langileak eta pertsonak

EUSKAL GIZARTEA ARO EKONOMIKO BERRIAN

lehtasun propioak izan ohi ditu zerbitzuen kontsumoan; alegia, tokiko enplegu mota bat (lan intentsiboko zerbitzu ez-errutinarioa, produktibitate baxukoa) eskatu eta kontsumitu ohi du. Horri deritzogu errenta-efektua. Bi aldaketa-patroi nagusi dira, eta lurraldeko lan-merkatuan (lanpostu- eta klase-egituretan, enpleguaren konposizioan eta distribuzioan, estratifikazio sozialean) nabarmen eragingo dute, eta azken urteotako ekonomiaren polarizazioa sendotu.

Alde horretatik, lurraldeko dinamika sozioekonomikoek aurreratzen digute enpleguaren kalitatea eta ordainsaria izan daitezkeela lurraldeko aurrerabide sozialari loturiko bi auzi esanguratsu, enpleguaren eta soldataren banaketan bi poloak egonkortu daitezkeen heinean. Aurrerabide sozialaren mugak ulertze aldera, EAEren heldutasun industrialak zabaldu dituen erronka berriekin batera, lan-merkatuko dinamikak ere aintzat hartu behar dira; besteak beste, honako hauek: profil profesionalaren inguruko ahulezia nabariak, espezializazio handiko edota kualifikazio zehatzeko lanpostuak betetzeko zailtasunak, biztanleria aktiboa murriztea, gazteen jarduera-tasa baxua, edota segregazio okupazionala. Nekez baztertu ditzakegu egitura sozioekonomikoaren ezaugarri horiek lurraldearen kohesioa ulertzeko analisisietatik.

Horri guztiari beste hiru dinamika osagarri erantsi behar dizkiogu: enpresei nazioarteko testuinguru lehiakorrean aritzeak dakarkien erronka (ekoizpen-kate globaletan aritzeak dinamismoa eskatzen du; aldakortasuna handia da; jarduerak eta premiak eraberritzen dira); merkatu globalean ibilbide profesionala egin nahi duten kualifikazio altuko pertsonak atxiki edo erakartzeko aukera; behin-behinekotasunak ikaskuntzarako aukerak mugatzen dizkietenen biografia indibidual eta laboralak (lan-merkatuaren dualtasuna, enplegararritasunerako trabak). Horrek guztiak lan-merkatuko jardueren eta lan-harremanen erregulazio-marko gaurkotu bat eskatzen du, segmentazioa leundu eta kontratu tipoak, hitzarmen kolektiboak, eta politika aktiboak eta pasiboak eraberritzeko. Gai horien kudeaketak –gatazka ugariren iturburu izan liteke– lurraldeko ongizatearen eta kohesioaren auzi ugari argituko ditu.

Horiekin batera, ordea, gizarte-kohesioari desafio zeharo diferenteak ireki zaizkio agertoki berrian, bereziki txirotasunaren kronifikazioak, azpienpleguak eta etxebizitzaren prezioek eraginda. Horren harira, diru-sarrerak bermatzeko errentak txirotasuna (hedadura eta intentsitatea) arintzeko aukera egokiak ematen ditu, aurreko kapituluari ikusi dugunez. Baina, gaur-gaurkoz, premia duten guztiengana ganoraz heltzeko irismena eta gaitasuna mugatua da (arriku-egoeran daudenen % 72,9ra heltzen da). Bestalde, lurraldeak ez du eskumenik errentari loturiko hainbat arlo (lan-harremanen erregulazioa, pentsio-sistema, langabezia-prestazioa) erabakitzeko. Guztiarekin, enplegu-politikak eta gizarte-politikak ezberdintzeko premia azaleratzen da. Izan ere, gizarte-babeserako sistema ezin da ordaindutakoaren

araberako ereduan oinarritu; besteak beste, ikusita zailtasunak daudela laneratzeko edota enplegu estandar eta iraunkorraren eredua agortu dela.

Azken krisi ekonomikoa ahulenekin grinatu da: enplegua galtzea eta enpleguaren kalitatea ahultzea ekoizpen-sistemako eremu prekario, ez-kualifikatu eta aldakorretan ari diren pertsonetan nabarmendu da (eta gehiengoak familia-ardurak ditu). Horrek bi ondorio ageriko ditu: bata, herritarren aukera-berdintasuna, goranzko mugikortasun soziala eta merituetan oinarrituriko biografia profesionalak higatzea; bestea, errenta altueneko biztanleriaren (% 20) eta errenta baxuenekoaren (% 20) arteko aldea handitzea (EAEan, 2014an, ratioa 4,2koa zen; 2008an, aldiz, 3,6koa). Halarik ere, Gipuzkoako lurraldean, aldeak txikiagoak dira (aldeak Bilbon, Gasteizen eta Ezkerraldean nabaritzen dira). Alabaina, kasu guztietan, aterabidea zaila begitantzen da.

Iparrari beti biztanleria aktiboari lanerako aukerak eskaintzea izanda ere, lanaldi partzialak, azpienpleguak, errentagarritasun baxuko enplegu autonomoak edota laneratzeko zailtasunak iradokitzen dute enpleguak ez diola bizitza-kalitate hobea emango biztanleriaren zati bati; hainbat kasuan, gainera, bazterketa-arriskua eta txirotasun erreala handiagotu egingo dira, enpleguaren polarizazioak ez ezik langabeziaren kronifikazioak ere hala eraginda. Halarik ere, lan-merkatuaren dinamika eta ordainsari baxuak ez ezik, baliabideen gabezia badaude beste faktore batzuk ere (famiariaren konposizioa, etxebizitzaren kostua, diru-sarrera bakarreko etxea). Horregatik da garrantzitsua diru-sarrerak bermatzeko politiketan landunak ere aintzat hartzea.

Edozein kasutan, datozen urteotan, herritarren ziurtasun ekonomikoa bermatu, eta gizarterako forma berriak diseinatu eta esperimentatu beharko dira (administrazio publikoa bidelagun izanda, baina auzoek eta gertuko komunitateko eragileek lidergoa hartuta, aukeran). Aintzat hartu behar da, gainera, txirotasun oso modu ezberdinean eragiten diela biztanleria autoktonoari (2017. urtean, 45.103 onuradun) eta biztanle atzeritarreko etxeetako pertsoneri (2017. urtean, 16.928 onuradun). Guztiarekin, gizarte-koehesioan irekia dagoen auzia bat da: desberdintasun sozialak zerga eta transferentzia bidez doitzen dira hein handi batean –diru-sarrerak bermatzeko errenta tartean–, zeren eta errenten banaketa primarioan, Europako eskualdeekin alderatuta, EAEko desberdintasunak esanguratsuagoak dira.

Bestalde, demografia berriak ere adinekoen mendekotasunari buruzko irakurketa –profilak, funtzioak, ardurak– eraberritzea eskatuko du. Neurri berean, aterabide arruntak –eguneko zentroak, egoitzetako plazak– gainditzea ere eskatuko du. Alde batetik, pertsoneri etxean eskaini beharko zaie arreta soziosanitarioa (eta

EUSKAL GIZARTEA ARO EKONOMIKO BERRIAN

prebentzioak, arreta zuzenak eta gertutasunak pisua hartu ahala, ezinbestekoa izango da udal mailako gaitasun ekonomiko eta teknikoak indartzea eta zerbitzuen arteko osagarritasunak lerrokatzea). Bestetik, gihar komunitarioa eta erlazionala sendotzea garrantzitsua izango da, auzoak biziberritzeko eta bizigarriak egiteko; azken batean, pertsonen autonomia eta pertsonen arteko bizikidetzak gizabideratzeko. Adinari, bizi-zikloari eta belaunaldi-faktoreari buruzko esanahi sozialaren aldakortasuna ere nabarmenduko da.

Zerbait aldatu behar badugu, bizi-zikloan logika zurrun eta baztergarriak baliatzea izango da (ikasi ala lan egin, enplegua ala zaintza, aktiboa ala inaktiboa). Gizarte-politikan –inbertsio soziala haurretan eta nerabeetan zentratzearekin batera–, erronka nagusia logika inklusiboak eta kohesionatzaileak sustatzean datza (haur eta nerabeen aukera-berdintasuna, gazteen emantzipazioa, enplegua duintzea, zaintzaren sozializazioa). Herri bezala, aurrerabide sozialak ortzi-muga kolektiboa eskatzen du, eta erabakiak helburu politiko argi eta zehatzetan gauzatzea.

Edozein kasutan, lurraldearen ibilbide historikoarekin alderatuta, berrikuntzak askotarikoak izango dira. Tokiko administrazioen lehentasunetako bat ongizateari eta gizarte-zerbitzuei loturiko alorra izango da, baina, gizarte zibila sendotu ezean, nekez emango zaie beharizan berriei erantzun zuzenik –pertsonek gizarteratzea, aktibazioa, parte-hartzea, alegia–. Administrazioak zerbitzu-emaile gisa gaitzartzea eta kostuak etengabe haztea gauza kezagarria da kultura herrigilean. Baina arazo lodiagoa da nola ahultzen eta ordezkutzen ari den herritargoan beharizanekiko erantzukizuna eta lankidetzak; etorkizunarekiko ardura eta demokratizazio soziala (pertsonek burujabea izatea, besteekiko zorduna eta gizabideratze partekatuekiko erantzulea) ez dator bat antolamendu paternalistarekin –ez eta ere kapitalarekiko mendekotasunarekin, noski–. Azken hiru kapitulu hauetan hainbatetan ikusi den moduan, euskalherrigintza egiteko modu batek arrakalak ditu, balio individualistek indarra hartu ahala. Gaia berariaz landuko dugu hurrengo liburu batean.



ENPRESAK ETA
12 LEHIAKORTASUN-
FAKTORE BERRIAK

12.1. SARRERA

**12.2. LEHIAKORTASUN-
FAKTORE BERRIAK**

**12.3. ENPRESEN ARTEKO
DISPAREKOTASUNAK**

**12.4. BERRIKUNTZA-JARDUERAK
GARATZEKO GAITASUNA**

**12.5. LURRALDEKO ENPRESEN
EGITURA ETA TAMAINA**

**12.6. AKTIBO INTANGIBLEEN
GARRANTZIA**

12.7. AZKEN OHARRAK

12.1. SARRERA

Azken bi hamarkadetan, herri-erakundeek eta lurraldeko beste eragile nagusiek lehiakortasun-faktore berriei erantzuteko programa estrategikoak, lehentasunak, baliabideak eta mekanismo erraztaileak zedarritu dituzte. Izan ere, lurraldeko ekoizpen-ehunari dagokionez, xede orokorra diferentziazio edo bereizketarako estrategiak garatzea da, enpresen maila teknologikoan eta berrikuntza-gaitasunetan oinarriturik, balio erantsi handiagoko jardueretan espezializatzeko.

Eraldaketa ekonomiko eta produktibo handien testuinguruan, lanaren nazioarteko banaketa berriari erantzuteko eta ehun produktibo eta sozialean estrategia berritzaileak estimulatzeko ahaleginak badu lehendik ere ibilbidea egina. Egitura ekonomikoaren eraginkortasuna eta enpleguaren bolumena, konposizioa eta kalitatea gaurkotze aldera, 2000ko hamarraldiko lurralde-estragietan hasiak ziren eraldaketa industrialak, sektore berrien sustapena, eta elementu ukiezinak eta, helduraz, enpresetako negozio-eredua birdefinitzeko ahalegina, bederatzigarren kapituluari ikusi dugunez. Zehazki, lurraldearen egitura produktiboa biziberritze aldera, azken urteotan, eragileen arteko jarduera estrategikoak (arlotu lehiakorrek, teknologia erraztaileak, lehentasunezko merkatuak) definitu eta zehaztu dira.

Hori dela eta, aurreikuspen-ahaleginak neurri batean erraztu egin du 2008. urteko finantza-krisiaren osteko testuinguru ekonomiko eta enpresariala kudeatzea. Estrategia bateratuak adostea, ordea, egitasmo konplexua izaten ari da. Alde batetik, 1970eko krisiaz geroztik, eta 2000. urtea hastearekin, ekoizpen-sisteman bazeuden ezagutzak eta berrikuntzak aplikatzeko estrategiak, lurraldeko eredia gaurkatzeko asmoarekin (i.e. sistema ekonomikoaren mekanismo endogenoetako aldaketak). Bestetik, ordea, berrikuntza-sistemen garapenean eskaintzako politikek lehentasuna hartu izana estrategia-aldaketa garrantzitsua da, bosgarren kapituluari esanikoen harira. Berrikuntza-politiken aldaketa estrategikoa, baina, prozesu luze eta gatazkatsua da. Izan ere, bete-betean eragiten du eragileen arduratan, identitatean eta zereginetan, eta batzuetan erresistentziak eta besteetan zailtasunak azaleratu izan dira.

Kapitulu honen helburua testuinguru berrian lurraldeko enpresen aukerak, mugak eta desafioak zein diren azaltzea da; betiere, industria nola aldatzen ari den eta horrek estregietan nola eragiten duen aintzat hartuta. Lehenik eta behin, lurraldeko enpresen agertoki berriari erreparatuko diogu, ugariak baitira trantsizioa eragiten duten faktore-eraldatzaileak. Horrek balioko digu enpresen arteko

dualtasun gero eta handiagoari azpimarra egiteko. Kapitulu honetan, besteak beste, enpresen egiturak eta tamainaren garrantziak zenbait dinamismotan nola eragiten duen azalduko dugu.

12.2. LEHIAKORTASUN-FAKTORE BERRIAK

Lurraldearentzat, aldaketa nagusia industria ulertzeko moduan datza. Hiru dira, liburuan zehar ikusitakoa laburbiltze aldera, azpimarra merezi duten faktore eraldatzaileak.

Lehenik, globalizazioaren ekonomia berriak eskatzen du eskualdea sektore-etan edo klusterretan ez ezik arlo zehatzetan espezializatzea eta balio-katearen goi-mailan kokatzea. Gipuzkoak, esate baterako, espezializazio adimendunerako estrategia nagusiak elektromugikortasunean, zahartzaroan, gastronomiaren eraldaketa digitalean, zibersegurtasunean, kulturen eta klima-aldaketan zedarritu ditu, lurraldearen garapen-aukerak eta erronka nagusiak aintzat hartuta. Lurraldearen misioa, beraz, arlo horietan jarduera berriak sortzea da, eragileen arteko elkarlanean oinarrituta, eta produktu eta zerbitzu berritzaileak eskainiz.

Bigarrenik, horrez gainera, enpresen lehiakortasunerako desafio berria eraldaketa teknologikoari eta digitalari eta bereziki negozio-eredu berriei dago lotua. Izan ere, eraldaketa industrialak gainditu egiten du makinak egitearen edota makinekin produktu teknologikoa berritzearen erronka soil. Manufakturako industriaren kasuan, teknologia sortu eta garatzeaz haratago, erronka zera da: nola baliatu eta nola kudeatu teknologia negozioa egiteko. Izan ere, enpresen balio erantsia negozio-ereduan ere badatza modu progresibo batean (bezeroaren premiei aterabidea eman, mantenu eta logistikako zerbitzuak eskaini, kalitatean eta prezioan lehiatu). Industriaren eraldaketak eta nazioarteko produkzioaren berregituratzeak ezarritako erronka nagusietako bat da, hain zuzen ere, negozio-eredu berriari dagokiona (zerbitzuen eskaintza integrala eta aurreratua, ekoizpen-kate globalean txertatuta).

Hirugarrenik, lehiakortasun-faktoreak ugaritu eta berritzearekin batera, gainera, enpresan garrantzia hartu dute, inbertsioek ez ezik, ekoizpen-prozesu eta egitura malgu, pertsonalizatu eta globalei erantzun dieten erakunde-antolakuntzak eta kultura enpresarialak ere. Manufakturako industriak, beraz, askotariko trantsizioak kudeatu behar ditu, negozio-eredu berriaren eskaerek hala eraginda.

Alde horretatik, nazioarteko merkatuan lehiatzen diren lurraldeko enpresei erreparatuz gero, azalpena modu praktikoagoan egin liteke: enpresek zerbitzuaren eskaintzan aurkitzen dute nagusiki diferentziazioa. Horrek esan nahi du gaitasuna izan behar dutela merkatuan bezeroarentzako konponbidea diseinatzeko; produktua diseinatzeko eta ezartzeko kudeaketa-eredu bat garatu behar dutela; arazoei irtenbideak eman, eta ezagutza transferitzeko abilezia izan behar dutela. Bestela esateko, enpresak nazioartean lehiatu daitezten, inbertsioa eta finantzaketa ezinbestekoak dira, baita ekoizpen-prozesuaren kudeaketa malgua (arreta pertsonalizatua eta integrala) eta langileen prestakuntza eta erantzukizuna ere (nazioarteko eskaerak istantean erantzutea, une oro prest egotea, kulturartekotasuna). Azken batean, bezeroaren eskaerak, langile eta enpresen gaitasuna ez ezik, antolaketa, kultura eta pertsonen kualifikazioa eta trebezia eraldatzea ere badakarte.

12.3. ENPRESEN ARTEKO DESBERDINTASUNAK

Lurraldeko industrian eta enpresa-egituran arreta zehatzagoa ipiniz gero, eragilean finantzazioari, lehiakortasunari eta nazioartekotzeari buruzko diagnostikoe-tan, enpresen arteko dualtasuna azaleratzen da.

Lurraldean badira enpresak gaitasunak eta estrategiak dituztenak nazioarteko ekonomian lehiatzeko. Baina enpresen arteko arraila ere nabaria da. Demografia enpresarialari erreparatuz gero, azken urteotako doikuntzak (enpresen itxiera eta galera, berregituratze-estrategiak), neurri batean, horri aterabidea eman eta enpresen egoera onbideratu badu ere (balantze saneatuak, zorpetze-maila txikiagoa, merkatuen, jardueren eta finantzazioaren dibertsifikazioa), arazoa egiturazkoa da.

Irakurketa horren arabera, enpresa batzuek badituzte produktu, prozesu edota zerbitzu propioak; berrikuntza (teknologikoa, antolakuntzako, prestakuntzako) dute enpresaren estrategiaren erdiguneko apustutzat; badute nazioarteko merkatuetan lehiatzeko gaitasuna, eta gai dira gainontzeko herri eta enpresetatik ikas-teko, gainera. Enpresa horiek, kasu gehienetan, badute ibilbide bat, ikuspegia eta estrategia, baita autonomia teknologikoa eta ingurumari digitalean eraldatzeko gaitasuna ere, eta negozio-eredu propio, malgu eta dibertsifikatu bat garatzeko

aukera eta ahalegina baliatu dute, eskutik dituzten heinean espezializazio teknologikoa, inbertsiorako finantza-giharra eta langileak erakarri, atxiki eta prestatzeko baliabideak.

Hori dela eta, enpresek produktibitatean oinarrituriko hazkundera dute; inbertsio-gaitasunak eta gazte formatuak erakartzeko baliabide eta lansariek aukera ematen diete ekoizpen-faktoreen –kapitala eta lana– produktibitatea hobetzeko. Lurraldeko enpresa-tipologia horretan, industria aurreratuz hitz egin genezake: enpresek lortzen dute nazioarteko merkatuan balio erantsiko produktuekin lehiatzea eta lan-kostu altuko eremuetan kalitatezko lanpostu esanguratsuak sortzea.

Enpresa-dinamismoaren adierazle nagusi bi dira lurraldeko hainbat enpresak dituzten autonomia teknologikoa eta nazioartekotzea, eta horrek, fluxu industrialak bermatu, eta erronka berrietarako eskalako ekonomiak eskaintzen dizkie, hain zuzen ere. Alde horretatik, lurraldeko enpresek badute pisua nazioarteko merkatuan. Zehazki, nazioartean lehiatzen diren enpresen ezaugarriak zerrendatuz gero, zera ikus liteke: gama ertain-altuko produktuak fabrikatu, eta kostu altuko prezioekin lehiatzen dira (nahiz eta aukerarik ez izan merkatu lehiakorrean posizionatu eta herri-marka baliatzeko, aktibo ukiezin garrantzitsua den heinean). Nazioartekotzeak garrantzia hartzeaz gainera, lurraldeko enpresa lehiakorrek atzerrian ekoizten dute; multilokalizaziorako estrategiak baliatuta, besteak beste. Azken urteotan, gainera, esportazioen dibertsifikazioa areagotu egin da. Oraindik ere –2018ko datuen arabera–, lurraldeko esportazioen helburu nagusiak Frantzia (3.887,396 milioi euro, % 15,3), Alemania (3.835,396 milioi euro, % 15,0), Estatu Batuak (2.118,448 milioi euro, % 8,3) eta Erresuma Batua (1.713,785 milioi euro, % 6,8) dira. Baina, azken urteotan, eremu berrietara hedatzeko ahalegina ere egin da. 2007tik eta 2018ra bitarteko urteak alderatuta, Australiara % 249 hedatu da, Ekialde Ertainera % 128, Asiarra % 50, eta aukera errealek daude beste leku batzuetara ere igarotzeko (Europako ekialdea, Errusia, India, eta, zer esanik ez, Afrika).

Autonomia teknologikoarekin eta nazioartekotzearekin batera, enpresa-dinamismoaren beste adierazle bat dira, esate baterako, merkatu-nitxo oso definituetan Europako edo nazioarteko merkatu-kuotan liderrak diren tamaina ertaineko enpresak (*ezkutuko irabazleak*). Halako enpresak, merkatu-kuota esanguratsu bati esker, mundu-mailako lider nagusiak –edo nagusietakoak– dira. Zehazki, EAEko datuei erreparatuta, miloi bat biztanleko 14 *ezkutuko irabazleren* ratioa dugu. Alderaketa egiteko, hauek dira beste herrialdeetako ratioak: 1-2 Frantzian, AEBn eta Japonian; 10 Herbehereetan; 14-16 Suitzan, Austrian eta Alemanian; 25-29 Baden-Württemberg eta Hanburgo Landerretan. Alde horretatik, euskal lurraldeko enpresek enpresa ertainen dinamismoarekin erantzuten diote multinazionalen eta enpresa handien hutsuneari nazioarteko lehia ekonomikoan.

EUSKAL GIZARTEA ARO EKONOMIKO BERRIAN

Baina, halako enpresa dinamikoen ondoan, badago oso bestelako egoera bat; zehazki, enpresa txikiena (sektore tradizionaletan ari diren enpresa txikiak, zehazki). Haien egoera ahula eta oso mendekoa da, eta etorkizunari begira jartzeko aukera eta baliabide oso mugatuak dituzte. Enpresen gehiengoak ahultasunak ditu (produktu propioaren gabezia, bezero gutxirekiko harremanak, estrategia diferentziatuetarako zailtasunak, enpresa edo bezero –multinazional– baten erabateko mendekotasuna, ordu-kostuan lehiatzeko joera, irekitasun eza). Halakoetan, gainera, enpresen lehiakortasun-aukerak estutu egiten dira, lurraldera ekoizpen-kostu baxuagoko eta produktibitate- edota lanordu-indize altuagoko enpresa lehiakorren inpaktua iritsi ahala.

Neurri berean, enpresek zailtasunak dituzte prozesuetan eraldaketa digitala modu eraginkor batean garatzeko (baliabiderik eza, IKTetako espezialisten eta kualifikazio egokiko profesionalen gabezia, azpiegitura-arazoak). Horren erakusle da, esate baterako, zer zailtasun dagoen enpresetan *e-commerce* plataforma baliatzeko, sare sozialetan agerpen aktiboa izateko eta kudeatzeko, eta bezeroen kudeaketarako CRM (*Customer Relationship Management*) softwarea edota ERP aplikazioak (*Enterprise Resource Planning*) erabiltzeko. Baina, mundu lehiakor eta aldakor honetan, digitalizaziorako eskaera etengabe hazten da, edonola ere: berrikuntza xurgatzeko gaitasunak eskatzen du eraldaketa berriei loturiko teknologiak –adimen artifiziala, Big Data, Gauzen Internet– baliatzen jakitea, gero eta ziklo estu eta laburragokoa baita aurrerabide teknologikoak jarduera industrialean duen eragin-tartea. Era berean, industria digitalizatuak badu beste berezitasun bat: behin enpresa-sistemak balio-kate batean elkartuta, sistema horiek bezeroarekin konektatuz gero, zaildu egiten da enpresa lehiakorra ordezkatzea, eta, alde horretatik, berandu ibiltzeak balio-katera txertatzeko aukera ixtea ere ekar dezake.

ETEen lehiakortasunak desafio ugari ditu digitalizazioari loturiko alorretan, beraz. Haatik, teknologia eta balio erantsiko jarduerak berrikuntzako inbertsioa –teknologia, giza kapitala, aktibo ukiezinak– eskatzen dute. Enpresen arteko dualtasunak, ordea, ibilbide luzeagoko estrategiarekin ere badu lotura. Administrazio publikoek enprekin izaniko harremana zeharkako laguntza-politiketan oinarritu da luza-roan (enpresak teknologiaz hornitzeko azpiegiturak sustatzea eta haien erabilerrako dirulaguntzak ematea, nagusiki). Alabaina, ETEen kasuan, enpresen gabezia nagusietako bi dira berrikuntza-sistemako eragileek garaturiko teknologiak euren premiekin bat ez etortzea eta berrikuntza-sistemako eragileekin kapital erlazional sendo, jarraitu eta eraginkorra izateko ahulezia. Bosgarren kapituluaren (5.3. kapituluaren) ikusi dugu, ordea, zer garrantzia duten harremanekin loturiko faktoreek lehiakortasunerako abantaila gisa.

Gainontzean, ahulgune horiei estuki lotuta, ziklo ekonomikoen bilakaeraren mendeakoa izateak ere arrisku handiak ditu, eta horixe da lurraldearen ahulezia nabaria: lurraldeko industria motaren espezializazioa dela eta (ekipo-ondasunak, ondasun iraunkorrak, bitarteko ondasunak), enpresak merkatu horien eboluzioaren mende daude, alegia. Horrek erronka berriak azaleratzen ditu. Izan ere, transformazio produktiboak ez du esan nahi robotak eta algoritmoak txertatzea soilik. Berrikuntza teknologikoa inbertsio handiak eskatzen dituen jarduera produktibo bat da, baina ekoizpen-prozesuan teknologiak integratzea bezain garrantzitsua da eginkizun eta desafio berriak identifikatzea. Alegia, aurrea hartzeko gaitasuna izatea garrantzitsua da, zeren eta eginkizunak berritzearen mende baitago prozesu berrian automatizazioa eta digitalizazioa sustatzea. Modu teknikoago batean adierazteko, digitalizazioa berrikuntzaren jarduera subsidiarioa da. Beheraldian diren sektoreak edo prezio baxuko produktuen lehiaren aurrean zaugarriak diren sektoreak al bait arinen bestelakotu eta balio erantsiko jardueretara iragateak berrikuntza eskatzen du, eta jarduera eraberrituetan digitalizazioa txertatzea, noski.

Lurraldeko enpresa traktoreak osagarrien mende dauden heinean, azken horien eraldaketa digitalerako zailtasunek lurraldeko ekonomiaren lehiakortasuna moteldu dezakete, gainera. Era berean, lurraldearen ikuspegitik begiratuta, saldo begetatibo negatiboa ikusita, epe motzera gazteak atxiki eta talentua erakartzea ezinbestekoa gertatuko den heinean, lan-baldintza onak beharko dira, eta hori lurraldeko enpresak lehiakorrak izatearen eta lan-baldintza onak eskaintzearen mende dago. Lan-ibilbide egonkorrek eta gorakoak beharko dira, mundu digital, global eta aldakor honetan profesionalak lurraldeko enpresetan aritzeko.

12.4. BERRIKUNTZA-JARDUERAK GARATZEKO GAITASUNA

Lurraldearen indarguneak bi dira: bata, ekoizpen-ehunaren espezializazio industrial erlatiboki sendoa; bestea, enpresa nagusiek produktuen garapen teknologikoan eta fabrikazio-prozesuen kalitatearen eta efizientziaren hobekuntzan eginiko ahalgina. Alde horretatik, lurraldeko enpresa-ehunak erakutsi du baduela gaitasuna nazioarteko ekonomia berrian egokitzeko. Haatik, kezka-galdera nagusia da oinarri horiek aski izango ote diren agertoki berriaren erronkei erantzuteko. Gai horren inguruan, berrikuntza-jarduerak garatzeko gaitasunak hainbat argibide ematen dizkigu. Atal honetan, adierazleak azaldu, emaitzak laburtu eta diagnostiko orokorra jasoko dugu.

12.4.1. Berrikuntzaren adierazleak

Labur bada ere, azaldu dezagun lehendabizi zer adierazle erabili ohi diren eskualdeen berrikuntza-gaitasuna ezagutzeko. Europako Batzordearen eskutik, Berrikuntza Adierazleen Panelak hiru bloke bereizi zituen 2008-2010 urteetarako: bideratzaileak edo enpresaz kanpoko berrikuntza-eragile nagusiak (giza baliabideak, finantzazioa eta laguntza); enpresa-jarduerak edo enpresek berrikuntzarako egiten dituzten ahaleginak, enpresen jarduerak berrikuntzaren prozesuan funtsezko garrantzia duten heinean (enpresaren inbertsioak, loturak eta enpresa-ekimena, etekinak); eta enpresa-jardueren produktibitatea (merkatuan edo beren erakundean berrikuntzak sartu dituzten enpresak eta berrikuntzarako jarduerak enpleguan, esportazioetan eta salmentan eragindako arrakasta ekonomikoa).

Alabaina, urteetako berrikuspenekin ikasitakoagatik, eta hainbat testuinguru nazionaletan gertatzen diren berrikuntza-prozesuen eta eredu aniztasuna egokiarazteko diseinatze aldera, hurrengo urteetan egokitzapenak egin dira. Gaur egunean, Berrikuntza Adierazleen Panelak lau bloke nagusi bereizten ditu, eta blokeetako

ENPRESAK ETA LEHIAKORTASUN-FAKTORE BERRIAK
12.4 Berrikuntza-jarduerak
garatzeko gaitasuna

bakoitzean indize konposatua eta adierazleak aletzen ditu (hurrengo orrialdeetan, zehatzago): esparruko baldintzak (giza baliabideak, ikerketa-sistemaren erakargarritasuna, berrikuntzarako inguru egokia), inbertsioak (finantzazioa eta laguntza, enpresako inbertsioak), berrikuntza-jarduerak (jarduera berritzaileak, loturak, aktibo ukiezinak) eta eraginak (eraginak enpleguan, eraginak salmentan). Alde horretatik, berrikuntza-sistemaren sarrerako adierazleak (*input*), emaitzak (*output*) eta jarduera ekonomikoan dituen ondorioak (*outcome*) ezagutzeko balio digute. Hori dela eta, I+Gri buruzko estatistiken mugak gaindituz (baliabide eta inbertsioen adierazle soilak da), emaitzak, gaitasunak eta inplikazioak ere aintzat hartzen ahalegintzen da, eta onartzen du badaudela I+Gaz bestelako berrikuntza-jarduerak ere (teknologikoak ez ezik, antolakuntzari, prozesuari eta komertzializazioari loturikoak). Gauzak horrela, Europako Berrikuntza Adierazleen Panelak, berrikuntzaren emaitzak konparatu, eta argibideak aurreratzen dizkigu ikerkuntza- eta berrikuntza-sistemen indar eta ahuleziak ezagutzeko.

Azken batean, beraz, berrikuntza-indizeak neurtzen du herrialde edota eskualdeetako ekonomiek zenbateraino duten berrikuntza-jarduerak garatzeko gaitasuna (17. taula).

17. taula: Berrikuntza-adierazleen panela. Europar Batasuna eta EAE, ranking EIS 2018*

HERRIAK	EIS 2018	EB28 Lekuaren Arabera	Esparruko baldintzak	Inbertsioak	Berrikuntza-jarduerak	Eraginak
Suedia	0,71	140,8	0,86	0,70	0,64	0,61
Danimarka	0,67	132,4	0,88	0,55	0,63	0,52
Finlandia	0,65	128,7	0,76	0,63	0,65	0,49
Herbeherak	0,65	128,5	0,77	0,52	0,63	0,62
Alemania	0,60	119,6	0,45	0,67	0,66	0,67
Austria	0,58	114,7	0,54	0,59	0,67	0,46
Frantzia	0,55	109,2	0,57	0,58	0,48	0,62
EB 28	0,50	100,0	0,47	0,51	0,47	0,62
EAE	0,48	94,7	0,63	0,36	0,36	0,56

Iturriak: EUSTAT. Egileak landua.
 *Lau bloke nagusien indize konposatuak

EUSKAL GIZARTEA ARO EKONOMIKO BERRIAN

Emaitza nagusiei buruzko irakurketa egin aurretik, azaldu ditzagun xeheago EAEko datuak. Lau blokeetatik lehenengo bloke nagusia berrikuntzarako esparruaren baldintzei buruzkoa da, eta berrikuntzaren errendimenduaren bultzatzaile nagusiak azaleratzen ditu. Lehenengoa giza baliabideak dira, eta prestakuntza- eta hezkuntza-maila handiko lan-indarraren erabilgarritasuna neurtzen du. 2009-2017 urteen artean, hobekuntza nabariak izan dira dimentsio guztietan: graduaturiko doktore berriei dagokienez, 2009. urtean 25-34 urte artekoen % 1,14 izatetik 2016. urtean % 3,73 izatera pasatu zen; hirugarren mailako ikasketak zituzten 25-34 urte bitarteko biztanleak 2010. urtean % 49,10 ziren, eta, 2017an, % 53,8; etengabeko hezkuntzan ari diren biztanleen portzentajea (25-64 urte), berriz, 2010. urtean % 9,60koa izan zen; 2014. eta 2016. urteen artean, % 12,2 eta % 15,8 artean ibili zen, eta, ostera, 2017. urtean, % 9,1era jaitsi zen. Aurreko kapituluetan ikusi legez, hauteman daiteke nolako eraldaketa bizkor eta orokorra izan den giza kapitalaren hobekuntza formatiboan, etengabeko prestakuntzan emaitzak oraindik ere ahulak diren arren.

Bigarren dimentsioa ikerketa-sistemaren erakargarritasuna da, eta zientzia-egituraren lehiakortasuna neurtzen du. Nazioarteko koargitalpen zientifikoaren kopurua bikoiztu egin da 2010. urtetik 2017. urtera bitartean (2017an, 939,28 ziren milioi biztanleko), eta emaitza antzekoak mantentzen dira nazioartean gehien aipatutako Top-%10 argitalpenenetan argitalpen zientifikoak (herrialdeko argitalpen zientifiko guztiekiko ehunekotan) (2015. urtean, % 10,91) eta atzerriko doktoreak (herrialdeko doktore kopuru osoarekiko ehunekotan) (2016. urtean, % 30,70) aintzat hartuz gero. Dударik gabe, bigarren dimentsioak berresten du 2000ko hamarraldian bikaintasunezko zientziari eta ikerketa-sistema gaurkotzeari emaniko garrantziak eragin positiboak izan dituela. Hirugarren dimentsioa berrikuntzara irekitako in-gurunea da, eta abiadura handiko sare zabalen ezarpena eta aukerek bultzatutako ekimena neurtzen ditu: lehenengoari dagokionez, aurrerapen nabariak egin badira ere, aldaketak mugatuak dira aukerek bultzatutako ekimena (motibazio-indizea) aintzat hartuz gero.

Bigarren bloke nagusia inbertsioak dira, eta ikerkuntzan eta berrikuntzan eginiko inbertsio publiko eta pribatuaren berri ematen digu. Alde batetik, finantzazioari eta laguntzari buruzko dimentsioak berrikuntzarako proiektuen finantzazioa eskuratzeko aukerak eta gobernuek ikerketa eta berrikuntzarako ekintzei eskainitako laguntzak neurtzen ditu: I+Gko gastu publikoa maila apalean (BPGaren % 0,450 eta % 0,500 artean) ibili da urteotan, eta arrisku-kapitala BPGaren % 0,032 izan da 2017. urtean.

Inbertsioei buruzko blokean, bigarren dimentsioa enpresako inbertsioek osatzen dute, eta enpresek berrikuntza lortzeko asmoz egiten dituzten I+G inbertsioak eta I+G ez direnak neurtzen ditu. Enpresa-inbertsioei buruzko neurketak zera diosku: I+Gko gastu pribatua 2009. urtean BPGaren % 1,49koa izatetik 2012. urtean % 1,58koa izatera pasatu zen, eta, 2017. urtean, % 1,37ra iritsi zen; I+G ez diren berrikuntzetako gastua negozio-bolumen osoaren % 0,81 izan zen 2008. urtean, eta, hurrengo urteetan, beherako joerari heldu zion, % 0,58 izatera iritsi baitzen 2015. urtean; azkenik, langileen IKT gaitasunak garatzeko edo hobetzeko prestakuntza ematen duten enpresak guztien % 18,4 ziren 2010. urtean, % 25,87 2015. urtean, eta % 21,80ra jaitsi zen 2017. urtean.

Berrikuntza-jarduerak dira hirugarren blokea, eta enpresen berrikuntza-ahalegina neurtzen du. Lehen dimentsioa jarduera berritzaileak dira, eta merkatuan edo beren erakundeetan berrikuntzak barneratu dituzten ETEak zenbatzen ditu. Hiru dimentsio hartzen dira kontuan: produktu edo prozesuetan berritzaileak izan diren ETEei dagokionez, ETE guztien % 36,27 eta % 34,06 artean ibili ziren 2008tik 2015era (2011. urtean, % 37,82 izatera iritsi zen); hazkunde handiko enpresa berritzaileen eboluzioa aldakorra izan da: 2008. urtean, ETE guztien % 25,38 ziren, eta, hurrengo urtean, % 27,91; 2012an % 19,42ra jaitsi zen kopurua, eta, 2015ean, % 21,06ra iritsi zen; barruko berrikuntzak sustatu zituzten ETEei dagokionez, 2008-2015 epean, ETE guztien % 31,12 (2014. urtea) eta % 34,7 (2010. urtea) artean ibili ziren.

Berrikuntza-jarduerari buruzko bigarren dimentsioa loturak dira; alegia, enpresa berritzaileek eta sektore publikoak beren artean loturak izateko eta elkarlanerako egindako ahaleginak neurtzen ditu. Hiru adierazle hartzen ditu kontuan: besteekin lankidetzan ari diren ETE berritzaileei dagokionez, 2008. urtean ETE guztien % 9,06 ziren, eta, 2011. urtean, % 14,61; 2015. urtean, % 11,34 izatera pasatu zen, eta I+G gastu publikoaren kofinantzazio pribatua, berriz, urte horietan guztietan batez beste guztiaren % 0,02koa izan zen. (Hirugarren adierazleak milioi biztanleko zenbat koargitalpen publiko-pribatu dagoen neurtzen du, baina datuak ez daude eskuragarri). Berrikuntza-jarduerari buruzko hirugarren dimentsioa aktibo intelektualak dira, eta berrikuntza-prozesuetatik sortutako jabetza intelektualaren eskubideen formak jasotzen ditu. Hiru adierazle hartzen ditu kontuan: PCT (Patenteen Kooperazio Itunaren arabera tramitaturik) patenteen eskaerari dagokionez (BPGaren bilioia (EAP eurotan) aintzat hartuta), azken urteotan % 1,59an mantendu da; EUko marka komertzialei dagokionez (BPGaren bilioia (EAP eurotan) aintzat hartuta), 2012. urtean % 6,94 izatera heldu ziren, eta, hurrengo urteetan jaitsi, eta 2017an % 5,94 izan ziren; azkenik, EUko diseinuei dagokionez (BPGaren bilioia (EAP eurotan) aintzat hartuta), 2013. urtean % 2,28 izan ziren, eta, 2015ean % 1,25era jaitsi, eta 2017an % 2,24 izatera pasatu zen.

EUSKAL GIZARTEA ARO EKONOMIKO BERRIAN

Laugarren eta azken blokea eraginari buruzkoa da, eta enpresek berrikuntza-jardueretan egiten duten ahalegina neurtzen du. Lehen dimentsioak berrikuntzak enpleguan duen eragina neurtzen du, eta enpleguan eginiko berrikuntzaren arrakasta ekonomikoa ezagutzeko balio digu. Azken urteotan, ezagutza-maila altuko zerbitzuetako enplegua eskulanaren % 12 eta % 12,6 artean ibili da. (Bigarren adierazleari buruzko datuak –hazkunde handiko enpresa berritzaileetako enplegua, enplegu guztiaren ehunekotan– ez daude eskuragarri.) Era berean, berrikuntza-jarduerei esker salmentetan izaniko arrakasta ekonomikoa (salmentekiko inpaktua) ere neurtzen da. Datu horrek zera diosku: erdi- eta goi-teknologiako produktuen esportazioak produktuen esportazio guztien erdiak edo gehixeago izan ohi dira; ezagutza-maila altuko zerbitzuen esportazioak zerbitzuen esportazio guztien % 39,99 eta % 45,93 artean ibili ziren 2009-2016 urteetan; merkaturako eta enpresarako berriak diren produktuen salmentak, berriz, negozio-bolumenaren, % 11,08 eta % 18,74 artean ibili ziren 2008tik 2015era bitartean.

Horrek guztiak EAEko berrikuntza-emaizten nukleoa osatzen du. Azken urteotako bilakaera Europako herrialde nagusiekin alderatuz gero (18. taula), berrikuntza-adierazleetan nola gauden jakingo dugu.

18. taula: Berrikuntza-adierazleak (2018)

		EAE	EB 28	Suedia	Alemania	Danimarka
Giza baliabideen adierazleak	Graduaturoko doktore berriak (25-34 urte arteko biztanle guztiekiko)	%3,73	%2,01	%2,71	%2,78	%3,21
	Hirugarren mailako ikasketak dituztenak (25-34)	%53,80	%39,0	%47,40	%31,30	%46,20
	Etengabeko hezkuntzan ari diren biztanleak (25-64)	%9,10	%10,90	%30,40	%8,40	%26,80
Ikerkuntza-sistema erakargarrien adierazleak:	Nazioarteko koargitalpen zientifikoak (milioi biztanleko)	%939,28	%517,45	%2.018,78	%812,25	%2.345,89
	Nazioartean gehien aipatutako Top-%10 argitalpenen argitalpen zientifikoak (herrialdeko argitalpen guztiekiko)	%10,91	%10,57	%12,09	%11,33	%13,37
	Atzerriko doktoreak (herrialdeko doktore guztiekiko)	%30,70	%26,07	%34,69	%9,12	%33,40
Berrikuntzarako inguru egokiaren adierazleak	Banda zabalaren ezarpena	%27,50	%16,00	%39,00	%14,00	%42,00
	Aukerak bultzatutako ekimena (Motibazio-indeza)	%1,88	%3,34	%7,82	%3,96	%11,09
Finantzaioa eta laguntza-adierazleak:	I+Gko gastu publikoa (BPGarekiko)	%0,45	%0,70	%0,98	%0,94	%0,97
	Arrisku-kapitala (BPGarekiko)	%0,03	%0,12	%0,08	%0,07	%0,06
Enpresaren inbertsioen adierazleak:	I+Gko gastu pribatua (BPGarekiko)	%1,37	%1,32	%2,26	%2,00	%1,89
	I+G ez diren berrikuntzetako gastuak (negozio-bolumen osoarekiko)	%0,58	%0,76	%1,12	%1,26	%0,29
	Langileen IKT gaitasunak garatzeko edo hobetzeko prestakuntza ematen duten enpresak .	%21,80	%21,00	%28,00	%28,00	%27,00
Berritzaileen adierazleak:	Produktu edo prozesuak berritu dituzten ETEak (ETE guztien kopuruarekiko)	%34,06	%30,90	%40,41	%41,56	%34,65
	Hazkunde handiko enpresa berritzaileak	%21,10	%34,89	%35,10	%49,09	%39,98
	Barruko berrikuntzak egin dituzten ETEak (ETE guztien kopuruarekiko)	%32,17	%28,77	%35,08	%37,90	%28,22
Lotura-adierazleak:	Besteekin lankidetzan ari diren ETE berritzaileak (ETE guztien kopuruarekiko)	%11,34	%11,22	%13,51	%10,10	%13,23
	Koargitalpen publiko-pribatuak (milioi biztanleko)	---	%40,93	%130,56	%62,44	%162,82
	I+G gastu publikoaren kofinantzazio pribatua	%0,02	%0,05	%0,04	%0,12	%0,03
Aktibo intelektualen adierazleak:	PCT patenteen eskaerak, BPGaren bilioia (EAP eurotan).	%1,59	%3,53	%9,08	%6,11	%6,05
	EUko marka komertzialak, BPGaren bilioia (EAP eurotan).	%5,94	%7,86	%11,44	%9,51	%12,79
	EUko diseinuak, BPGaren bilioia (EAP eurotan).	%2,24	%4,44	%4,67	%6,72	%7,94
Enpleguarekiko inpaktuen adierazleak:	Enplegua ezagutza-maila altuko zerbitzuetan (eskulanarekiko)	%12,60	%14,20	%18,50	%14,80	%15,10
	Hazkunde handiko enpresa berritzaileen enplegua (enplegu guztiarekiko)	---	%4,85	%5,47	%4,63	%4,52
Salmentekiko inpaktuen adierazleak:	Erdi- eta goi-teknologiako produktuen esportazioak (produktuen esportazio guztiekiko)	%53,07	%56,67	%54,45	%68,21	%47,98
	Ezagutza-maila altuko zerbitzuen esportazioak (zerbitzuen esportazio guztiekiko)	%69,23	%69,23	%73,15	%74,55	%71,73
	Merkaturako eta enpresarako berriak diren produktuen salmentak (negozio-bolumenarekiko)	%13,37	%13,37	%6,89	%13,34	%6,96

Iturriak: EUSTAT. Egileak landua.

12.4.2. Berrikuntza-adierazleen argitzaileak

Ikuspegi historikoa baliatuz gero, badira joera batzuk aldatu eta hobetu direnak, eta badira beste batzuk –hobetu beharrekoak– ahulgune modura mantentzen direnak.

Alde batetik, berrikuntzaren inputak –giza baliabideen sistemak, oro har– oinarri sendoak ditu. Pertsonen hezkuntza eta formakuntza tertziarioan, epe laburrean eraldaketa handia gertatu da herri modura. Era berean, zientzia-politiketan 2000ko hamarkadan zehar harturiko neurriek, finantzazioa eta erakundeak indartuz ikerketan oinarrituriko estrategiek emaitza oparoak utzi dituzte epe laburreko denboran. Ikerketa-sistemaren erakargarritasuna ere ahalegin berriei zor zaie.

Alabaina, zailtasun nabaria dago hobekuntza bizkor hori zientzian oinarrituriko berrikuntzetara lekualdatzeko, enpresek ezagutza berria xurgatzeko duten gaitasun ezagatik ez ezik, baita ez delako enpresen premiei loturiko ezagutza bat ere. Hori dela eta, ikerketa zientifikoari buruzko adierazle positiboek ez dute eraginik enpresen berrikuntzan eta lehiakortasunean. Bestalde, etengabeko prestakuntzan ahalegin berezia egiten da, baina hori ikasketa-maila altuko eta adar teknikoko enpresa ertain-handietako pertsonen artean nabarmendu ohi da.

Bestalde, berrikuntzaren outputetan dago ahulezia handiena. Gaur egunean, ordea, enpresek lehiatzeko beharrezkoak dituzten faktore garrantzitsuak dira enpresa berritzaileen arteko lankidetzak, berrikuntza ez-teknologikoa (diseinua, antolaketa, komertzializazioa, marketina), ikerketaren absortzio enpresariala, edota berrikuntza-prozesuetatik sortutako aktibo intelektuala, besteak beste. Neurri berean, euskal lurraldeetan badago ibilbide sendoa enpresako kulturaren kudeaketan –antolaketa-egitura parte-hartzaileak, interkooperazioko mekanismoak–, eta, 2000ko hamarraldian ere, enpresetan kudeaketa hobetzeko ekimen publikoak sustatu dira, baina, halarik ere, berrikuntza ez-teknologikoan (antolakuntzari eta marketinari loturiko berrikuntzak), hobekuntza-abagunea handia da.

Ikusita eskualdearen produktibitatea, enpleguaren konposizioa eta kalitatea edota soldata altuak manufakturako industriaren eta bereziki zerbitzu aurreratuen eraginkortasunari lotuak daudela, ahulezia deigarri gehiago ere badaude. Esate baterako, EAEn, gaur-gaurkoz, I+G gastuaren intentsitatea oso baxua da EB 15ekoaren aldean –EB 28koarekin alderatuta, hobeagoa–, eta, erreferentziatzko eskualdeekin

alderatuta, arrakala oraindik eta handiagoa da. Era berean, azken urteotan, inbertsioek behera egin dute, oro har, enpresen aktibo ukigarrietan. Gaur egungo ildo estrategikoak direla eta (espezializazio adimenduna, negozio-ereduaren berrikusketa, aktibo ukiezin hornidura eta garrantzia produktibitatean, eta ekoizpen, prozesu edota zerbitzuetako balio erantsia), auzi horiek garrantzitsuak dira.

Haatik, berrikuntzaren alorreko indargune sendoenetakoa maila ertain-altuko teknologiako manufakturako enpleguaren portzentaje esanguratsua da. Era berean, berrikuntzaren output ekonomikoetan (ikus aurreko kapituluetan: produktibitatea, enplegu-tasa, per capita BPGa) azaleratu dira emaitza oparoenak. Efektu ekonomikoei erreparatuz gero, emaitzak positiboak dira, ez soilik erdi- eta goi-mailako produktuen enplegu eta esportazioetan, baizik eta baita ezagutzari eta zientzian oinarrituriko berrikuntzari dagokienez ere (ezagutza-maila altuko zerbitzuen esportazioak eta merkaturako eta enpresarako berriak diren produktuen salmentak); alegia, joera tradizionala irauli da. Gaur-gaurkoz merkatuan lehiatzeko gaitasuna badugu, eta enpresak tokia hartzen ari dira merkatu globalean, modu dibertsifikatuan. Enpresetako eduki teknologiko ertain-altuko eta ezagutza intentsiboko lanpostuetan pertsona enplegatuak baditugun heinean, talentu hori kudeatzea aukerako estrategia da.

Emaitzen analisiak zera iradokitzen digu, beraz: berrikuntza-sistemak badu efiizientzia-arazo bat (inputak emaitzetara lekualdatzeko eraginkortasun baxua, baina nabarmen hobetua), eta, oster, indargune nagusia inpaktuan edo berrikuntzako outputak ekonomiara eraldatzeko gaitasunean dago. Nolabait esateko, berrikuntzaren emaitzetan ditugu arazoak, baina baliabideetan (inputak) eta merkatuan (inpaktua, edo berrikuntzaren outputak ekonomiara eraldatzeko gaitasuna) sendoago ageri gara.

12.5. LURRALDEKO ENPRESEN EGITURA ETA TAMAINA

Enpresen arteko dualtasuna edota enpresen berrikuntza-jarduerak garatzeko gaitasuna egoki ulertu ahal izateko, baina, enpresa-tipologia aintzat hartu beharra dago. Horren harira, lurraldeko enpresen egituran eta enpleguan ipini behar da arreta. Gipuzkoan zentratuko dugu analisia.

2017. urtean, datu orokorra da lurraldean 59.500 enpresa eta 294.400 langile ze-goela. Tamainaren araberako irakurketa eginez gero, 250 langile baino gehiagoko 85 enpresa zeuden (% 0,1), eta 42.800 pertsonari ematen zioten lana (% 14,5); 100-250 langileko enpresak 260 ziren (% 0,4), eta 38.800 pertsonari ematen zioten lana (% 13,2); 50-100 eta 20-50 pertsona artekoen kasuan, 475 (% 0,8) eta 1.430 (% 2,4) enpresa zeuden, hurrenez hurren, eta langileei dagokienez, berriz, 32.500 (% 11) eta 43.800 (% 14,9); datuak nabarmen aldatzen dira hurrengo segmentuetan: 3-20 pertsonako 13.600 enpresa ageri dira (% 22,9), eta 83.000 pertsonari ematen zioten lana; 1-2 pertsonako enpresak 19.600 ziren (% 33), eta 29.5000 pertsonarentzako enplegua sortzen zuten (% 10); azkenik, soldatapekorik gabeko 24.000 enpresa zeuden (% 40,4).

Datu horien interpretazioa hiru irizpide orokorrekin osa liteke. Alde batetik, enpresei eta enplegatuei erreparatuz gero, ikuspuntu konparatuak zera erakusten digu: 0-9 langileko enpresak % 92,8 ziren Gipuzkoan; Europan (EB 28) eta Alemanian, berriz, % 82,3 eta % 92,8, eta, enplegatuei dagokienez, % 40,4, % 29,1 eta % 18,9, hurrenez hurren. 10-50 langileko enpresak Gipuzkoan % 6,2 ziren; Europan (EB 28) eta Alemanian, % 6 eta % 14,7, eta, enplegatuei dagokienez, berriz, % 23, % 20,7 eta % 23,1, hurrenez hurren. 50 langile baino gehiago dituztenen kasuan, Gipuzkoan enpresak % 1 ziren; Europan (EB 28) eta Alemanian, % 1,2 eta % 3, eta, enplegatuei dagokienez, berriz, % 36,6, % 50,2 eta % 58, hurrenez hurren. Lehen ondorio nagusia gutxieneko optimoaren tamaina duten enpresen gabezia da (50 enplegatu baino gehiagoko enpresak).

Bigarrenik, enpresen tamainak alde nabariak eragiten ditu berrikuntzaren txertatze-mailari, I+G gastuari edota nazioartekotzeari dagokienez. Enpresen tamaina irizpide orokor modura hartu eta lurraldean I+Ga sustatzen duten enpresa

kopuruarekin alderatuz gero, zera ikus genezake: 250 langile baino gehiagoko enpresen % 22,7k sustatzen du I+Ga, 50-249 bitartekoen % 12,6k, eta 50 langile baino gutxiagoko % 6,7k. Orotara, beraz, % 8,5ek. Neurri berean, enpresetako I+G gastuari erreparatuta ere, enpresaren tamainak –batez beste, betiere– aldeak eragiten ditu. 250 langile baino gehiagoko enpresetan, I+G gastua 2000. urtean 2,250 milioikoa izatetik 2015ean 4,5 milioikoa izatera pasatu zen. Gorakada nabarmen baxuagoa izan zen tamaina txikiagoko enpresetan: 50-249 pertsonako enpresetan, 1,1 milioikoa izatetik 1,6 milioikoa izatera pasatu zen, eta, 50 pertsona baino gutxiagoko enpresetan, berriz, 450 mila eurokoa izatetik 625 mila eurokoa izatera. Tamaina bakoitzeko enpresa kopurua dela eta, I+G gastuaren batezbestekoak azpimarra merezi du: 2000. urtean, 1,1 milioi eurokoa izan zen gastua, eta, 2015ean, 1,3 milioikoa.

Hirugarrenik, enpresa gutxi dira I+Ga sustatzen dutenak; oro har, manufakturako industriako I+G gastuaren intentsitatea (I+G gastuaren ehunekoa BEGarekiko) ia erdia baizik ez da EB 15ekoarekin alderatuta; horrek ekoizpen-egituraren teknologia altuko manufaktura-industriaren ahultasuna ere azaleratzen du (EB 15ekoan I+Gko enpresa-gastuaren lautik hiru egiten dute), eta, jatorri publikoari dagokionez, tokiko gobernuen dirulaguntzek, zerga-kenkariak eta I+G programetako dirulaguntzek dute pisu handiena, eta horrek zailtasunak azaleratzen ditu nolabait irekitasun-graduan eta nazioarteko deialdi publikoetan lehiatzeko.

Neurri berean, enpresaren tamainak eta produktibitateak elkar elikatu ohi dute. Modu esanguratsu batean, enpresa produktiboak dira lehiakorrenak eta hazteko gaitasun nabarmenagoa dutenak. Era berean, enpresa handiak dira merkatu berrietara irekiz, aurrerapen teknologikoz baliatuz eta giza kapitala aprobetxatuz eskalako ekonomiei etekina atera ohi dietenak. Abantaila horiek bereganatzeko gaitasunak dituzten enpresek ahalmen produktiboa hobetzen dute. Egitura produktibo atomizatuak eta enpresa ertain eta handietako enpleguaren parte-hartze txikiagoak, oster, inpaktu negatiboa eragiten dute produktibitatean. Alde horretatik, produktibitateko aldea enpresen tamainagatik gertatu ohi da, ekoizpenaren konposizio sektorialagatik bainoago.

Tamainari loturiko beste elementu bat ETEek aktibo ukigarrietan –makinerian, bereziki– inbertsioak errazago egitea da, aktibo ukiezinetan baino –I+Ga, datu-baseak, formakuntza, merkatu-ikerketak, softwarea–, eta, lurraldeko ETEen ahalegina bietan esanguratsua bada ere, euren pisuak nabarmen eragiten du datu agregatuan, aktibo ukiezinen kaltetan. Bestela esanda, enpresen produktibitate agregatu baxua ETEen kopuru handiari zor zaio; enpresen lan-produktibitatea erreferentziatzeko eskualdeetako bezainbestekoa izan arren, lurraldeko ETEen kopurua esanguratsua da, eta horrek markatzen du eskualde lehiakorren

EUSKAL GIZARTEA ARO EKONOMIKO BERRIAN

arteko aldea. Hari beretik, deigarria da bankuek kredituen berme modura aktibo ukigarriak eskatzea; horrek berrikuntzarako finantzazioa zailtzen die ETEei. Gaiak aparteko larritasuna hartzen du enpresa txikiak eta mikroak hornikuntza-kateei lotuak ez badaude eta enpresa ertain eta handietan bezala I+Ga sustatzen ez badute; horrek guztiak agerian uzten du ETEen zaugarritasuna.

Herrialdeen arteko produktibitate agregatua, beraz, enpresen tamainari lotua dago nagusiki. Bistakoa denez, datuak zuhurtziaz irakurri behar dira, eta kausalitate ez dago egiaztatuta, tamainak bere horretan ezer gutxi esan dezakeelako; esate baterako, enpresen arteko kooperazioak, neurri batean, egitura produktibo atomizatuak saihestu dezake, eta tamainaren garrantzia erlatibizatu. Era berean, bestelako arazoak ere badaude (funts publikoen pisu esanguratsua enpresen I+Gan, nazioarteko jatorria duen finantzazioaren garrantzi txikia). Baina agerikoa da enpresen tamaina optimoak erraztu egiten dituela berrikuntza-prozesuak. Neurri berean, enpresa txikien eta mikroenpresen kopuru oso esanguratsu batek ez du gaitasun finantzariorik giza kapitalean (langileen prestakuntzan, talentuaren atxikitzean eta erakartzean) eta ekipo-ondasunetan inbertitzeko, eta horrek ere esplikatzen du produktibitate baxua. Haatik, pertsonen kualifikazioa giltzarria da lehiakorrek izate aldera I+G jardueretan inbertitzeko; ETEetan, batez beste, pertsona kualifikatuaren eskaria baxua izan ohi da. Kultura ekintzaileak –giza adimena erakartzeko azpiegitura sozialak eta ekosistemak– EAEn oro har eta lurraldean bereziki laguntzen badu ere, enpresen tipologiak (egitura, tamaina, espezializazioa) sarritan zaildu egiten du egoera (enpresa txikien galera da horren erakuslea). Ezin daitezke aldagai horiek bazterrean utzi, lurraldeko enpresen aukerak eta gaitasunak neurrian ebaluatuko baditugu.

Neurria hartu eta alderaketen arriskuez jabetu gaitetzen, aski da muturreko datu batzuk hona aldatzea. Esate baterako, I+G industrialeko gastu handieneko enpresei dagokienez, 2019. urterako aurreikuspenek diotenez, automozioaren arloan Toyotak 11.337 bilioi dolar gastatuko ditu, eta Volkswagonek 10.358 bilioi dolar, eta, orotara, arloan, 46.307 bilioi dolar; aeroespazioan eta defentsan, berriz, Boeingek 3.180 bilioi dolar; energiaren alorrean, ostera, General Electricek 5.255 bilioi dolar, eta Petrochinak 3.500 bilioi dolar; IKTetan, Amazonek 30.500 bilioi dolar, AlphabetGooglek 21.004 bilioi dolar, Applek 15.520 bilioi dolar, eta, arloan, orotara, 95.568 bilioi dolar; bititza-zientzien teknologietan, berriz, Roche Holdingsek 12.962 bilioi dolar, Merck taldeak 12.273 bilioi dolar, Johnson & Johnsonek 12.111 bilioi dolar, eta, orotara, 54.365 bilioi dolar.

Lurraldeko enpresen dinamikotasunak tamainarekin lehiatu ezin badu, beste aukera batzuk pentsatu beharko dira. Izan ere, egitura ekonomiko industrialaren aukerak eta zailtasunak nazioarteko begirada luzea aintzat hartuta diagnostikatu behar ditugu, ezinbestean: multinazional handiak eta industria-konglomeratuak urri dira, baina trakzio-efektu erabakigarria dute industria-alorreko hainbat eskualdetan; lurraldeko enpresa handien proportzioa txikia da; tokiko enpresa txiki eta ertainak (ETE), euren erreferentziazko lehiakideekin alderatuta, txikiak dira, eta ugariagoak; ekoizpen-ehunean, nagusiki sektore teknologiko baxuko eta ertain-baxuko enpresak nagusitu dira, eta horrek zaugarri egiten ditu, susperraldian diren herrialdeetan kopia azkarrean oinarritu eta kostu baxuagoetan ekoizteko gaitasuna dela eta; lurraldearen azalera eta biztanleriak ere, *a priori* gaitasunak –giza baliabideak, finantzazioa, azpiegitura teknologikoak– garatzeko aukerak txikiagotu, eta inbertsio hobereneko proiektuei ekiteko ahalbideak mugatzen ditu. Lurraldearen neurriaz jabetzea garrantzitsua da, beraz, enpresen dinamismoari edota berrikuntza-jarduerei buruz aritzeroan.

12.6. AKTIBO UKIEZINEN GARRANTZIA

Globalizazio berriarekin, industriaren pisua eta inpaktua erabat aldatzen ari dira lurraldeko ekonomian. Alde batetik, egiturazko joerek iradokitzen dute ekonomiaren lehiakortasuna epe ertainean nekez oinarritu daitekeela politika makroekonomikoan eta soldaten debaluazioan, eta, ezinbestean, produktuaren eta negozio-ereduen berrikuntzan eta IKTetan eta automatizazio-prozesuetan oinarrituriko hobekuntzak sustatu beharko dira. Bestetik, zerbitzuetan oinarrituriko jardueren esternalizazioa ere garrantzia hartzen ari da: jarduera industrialara gero eta konplexuagoa izatearekin batera, zerbitzu tekniko eta finantzarioaren premia hazten da. Alde horretatik, zerbitzuen produkzioak aparteko pisua izango du jarduera industrialean. Gainontzean, lurraldeko industriaren etorkizunean pisu berezia hartuko dute produktu eta zerbitzu jasagarriek, digitalizazioak edota mugikortasunak, eta, epe laburrean, industria ulertu eta egiteko moduak itxura zeharo diferentea hartuko du lurraldean.

EUSKAL GIZARTEA ARO EKONOMIKO BERRIAN

Lurraldeko enpresa lehiakorrek hainbat irakaspen osagarri gaineratzen dizkigute: enpresek gaitasunak lantzeko inbertsioak egin behar dituzte informazio digitalizazioan (softwarean eta datu-baseetan), berrikuntzan (I+G jardueretan eta diseinuetan eta beste produktu berrietan) eta konpetentzia ekonomikoetan (publizitatea, merkatuko ikerketak, enpresaren formakuntza eta giza kapitala eguneratzea, antolaketa). Betekizun horiek enpresaren antolaketa eraldatzeari loturik daude. Gauzak horrela, enpresek gaitasunak lantzeko inbertsioak egin behar dituzte softwarean, I+G jardueretan eta, bereziki, adimen artifiziala baliatu ahal izateko datu-baseetan. Era berean, negozio-eredu berriek sofistikazioa indartzera behartzen dute; alegia, produktu berriak diseinatzera eta markaren irudia sortzera, beste enpresetatik bereizi eta bezeroak fidelizatu ahal izateko. Ahalegin horrek, neurri berean, pertsona kualifikatu eta prestatuak eskatzen ditu lanpostu horietarako. Aldagai horiek guztiek zera iradokitzen dute: aktibo ukiezinetan inbertitzeak garrantzia du (ikus 5.2. kapitulua), eta, industria berrian, aktibo ukiezinetan inbertitzea da produktibitatea hazteko iturri oparoena.

Eraldaketa teknologikoak inbertsio erantsiak egitea eskatzen du; alegia, kapital ukigarria gutxietsi gabe, ukiezinetan ere inbertsioa egitea. Gauzak horrela, arreta ipini behar da enpresaren kudeaketa aurreratuan, ahalmen teknologikoan, berrikuntzaren intentsitatean, finantzazio-gaitasunean eta negozio-eredu berrietan. Haatik, EAEn, oro har, berrikuntza-sistemaren irakurketa mugatua gailendu da (irakurketa teknologikoa, berrikuntza makineriako inbertsioari lotzea, I+Gn oinarrituriko berrikuntzaren bultzadan zentratzea); bestelako antolaerei eta berrikuntzako jardueri, ordea, gutxiago erreparatu zaie (diseinua, enpresa-kulturaren kudeaketa hobetzea, marketina, eta beste batzuk).

Gainera, lurraldeko enpresen arteko arraila oso nabarmena da. Izan ere, enpresa ertain-handiek eta eduki teknologikoan lehiakorrek direnek aurrera egin eta biziberritzeko aukerak izan ditzakete I+G inbertsioari, berrikuntza-ahaleginari, aliantzei, pertsonen gaitasun eta konpetentziei, eta negozio-eredu berriei esker, eta, neurri berean, enpresa txiki eta ertainek zailtasunak izaten dituzte, oro har, lehiakortasun-faktoreetan eragiteko; hain zuzen ere, enpresaren berariazko zailtasun estrukturalak direla eta.

Azken urteotan ETEek oro har aktibo ukigarri eta ukiezinetan ahalegin berezia egin duten arren, lurraldeko enpresa txiki eta ertainen pisua apartekoa da, eta, alde horretatik, enpresa askok ahultasun eta zailtasunak dituzte lehiakortasun-faktore berriei erantzuteko. Haietako batzuek lotura dute enpresen antolaketa eta hornidura

zaharkituarekin. Beste arazo batzuk enpresen gaitasunari eta eraginkortasunari loturikoak dira. Pisuzko arazoen artean, hauek aipa daitezke: giza baliabideen eskasia edota eginkizunak gai administratiboetara mugatzea; pertsona, estrategia eta bezeroen kudeaketan profesionalizazio falta; inbertsiorako aukera edota kultura gabezia; finantzaziorako marjinarik eza edota inbertsioa erakartzeko zailtasunak; informazio mugatua. Halakoei kontu egin behar zaie, hein batean, enpresa-tipologia horrek pisua duelako lurraldean, auzi teknologikoa gainditu eta eragina baitu berrikuntzaren alderdi sozialean, antolakuntzan eta arlo komertzialean.

Lurraldeko enpresetan, ukiezinaren balioa hobekuntza-eremu nabarientetokoa da; alegia, nolako harremanak dituen enpresaren antolaketan eta enpresaren inguruarekin (beste eragileekin, bezeroekin, erakundeekin). Guztiarekin, enpresen eta erakundeen arteko ahuleziak enpresen ahultasunei eta harremanak izateko eta xurgatzeko gaitasun urriei zor zaizkie hein handi batean. Azken ideia horiei dagokienez, bestalde, aintzat hartu beharko da enpresa barruko gaitasunak hobetzeko premia (doktoreak kontratatzea, I+G jarduera sendotzea, patenteen kultura nor bere egitea), baina, hainbat kasutan, ziurrenik, ezagutzen oinarrituriko berrikuntzaren gaitasuna hobetzeko asmoz, lehentasunezkoa izango da kapital erlazonala ontzea, jarduera- eta merkatu-nitxo berriak identifikatzea, eta erakundeen arteko harremana sendotu eta eraginkor bilakatzea (kasu horretan, erakunde bitartekariak garrantzitsuak dira: klusterrak eta elkarte sektorialak, eskualdeetako garapen-agentziak, merkataritza-ganbera, enpresa-elkarteak, berrikuntzari eta kudeaketari loturiko erakundeak, besteak beste). Aukera dutenen kasuan, noski, onuragarriena berrikuntzarako estrategia mistoak garatzea da.

Azken batean, industriaren izaera eta helburuak bestelakotu dira; merkatuko zikloak progresiboki laburtzen ari dira, eta, aldi berean, malgutasuna, espezializazioa eta dibertsifikazioa zaintzea eskatzen da. Haatik, lurraldeko industrian nagusi dira manufaktura-jarduera tradizionalak, eta, gaur-gaurkoz, maila teknologiko ertain-baxuko eta baxuko sektoreen presentzia ere sendoa da. Hori dela eta, ekoizpen-ehunaren zati esanguratsu batek arriskua du antzerako gaitasun teknologikoa eta kalitatea eta ekoizpen-kostu txikiagoak dituzten enpresen lehia-presioa izateko. Era berean, enpresa berritzaileen inbertsio-ahalegina ere produktuen eta prozesuaren hobekuntzara bideratu ohi da bereziki, eta, ostera, apalagoak dira antolaketaren berrikuntza eta berrikuntza komertziala. Gauzak horrela, produktuen garapenean sendotasun erlatibo nabaritu daitekeen arren, ahuleziak daude produktu edo zerbitzu berriak merkaturatzeko eta negozio-eredu berriak garatzeko.

12.7. AZKEN OHARRAK

Eskualde industrial bizienean, herrialde emergenteei aurre egiteko lehiakortasun eta estrategia gisa, teknologia altuko industriaren eta ezagutzan intentsiboak diren zerbitzu aurreratuen alde egin dute apustu. Horren arabera, enpresa eta lurraldeen lehiakortasun-faktore nagusiak hauek dira: esfortzu teknologikoa, I+G alorretara bideraturiko baliabideen bolumena, eta enpresen berrikuntzan eta efizientzian eragina duten neurri eta estrategiak garatzea.

Berrikuntzari buruzko adierazleak, lehiakortasun-faktore berrien argitan, oso garrantzitsuak dira, eta industria-politikari buruzko hainbat argibide aurreratuak dizkigute. Azken hamar urteotako bilakaerak erakusten du lurraldeko enpresa lehiakorrek urrats sendoak egin dituztela, nahiz eta oro har euskal ekonomiak zailtasunak izan Europako eskualde dinamikoaren garapenaren erritmoari jarraitzeko. Guztiarekin, berrikuntzari buruzko adierazleak irakurrita, lehiakortasuna eta industria-politika gaurkotzeak hainbat gogoeta irekitzeko aukera ematen du, solasaldietan hauteman dugunez. Gogoeta horiek formulatuz itxiko dugu kapitulua.

Alde batetik, ezagutza- eta teknologia-erakunde eta -enpresen arteko loturetan eta berrikuntza ez-teknologikoan, badago zer hobetu. Deigarria da gure lurraldean harremanen ahulezia azaleratzea. Alde horretatik, eragileen arteko harremanak egokitzeko premia dago. Enpresen eraginkortasuna neurri batean lurraldeko gaitasunei (formakuntza, prestakuntza, ikerketa, transferentzia, berrikuntza, finantzazioa, antolaketa) loturik dagoen heinean, eragile publiko, pribatu eta komunitarioen arteko harremanak garrantzi berezia hartzen du. Eragileen arteko harremanak –harremanen intentsitatea, kalitatea, dentsitatea– sendotzeak, ordea, eskutik du beste erronka bat; alegia, eragileen identitatea, erantzukizuna eta rola argitzea. Gaur egun, oraindik ere nahasmen handia dago berrikuntza-sistemako eragileen betekizunen inguruan. Adibide batekin azaltzeko, herri-ikuspegitik begiratuta, zentro teknologiko batek Europako deialdi-lehiakorretatik finantzazioa jaso eta bikaintasunezko ikerketa bat egiteak bide mugatua izango du, berrikuntzak lurraldeko enpresen premiei erantzungo ez badie.

Bigarrenik, lagungarria gerta daiteke, gurea bezalako herri txiki batean, administrazio publikoek ere arlokako plan zatikatuak eta partzialak (goi-hezkuntza, zientzia eta teknologia, nazioartekotzea, industria) gaintitu eta herri-politikak plan oso eta orokorragoen mesedetan garatzea. Hori eraginkorra izango bada, ordea, hainbat printzipio orokorrekin bateratzen asmatu beharko da. Lurraldeko

antolaketa instituzioen arteko eskumenen partekatzean oinarritzen den heinean, estrategia eta tresnak definitzean ere ikuspegi globalaren eta espazio deszentralizatuen arteko aukerak birpentsa daitezke. Izan ere, harremanekin loturiko erronka horiek guztiak lehiakortasun-faktore erabakigarriak dira. Bestalde, erakunde eta eragileen arteko elkarlana bultzatzen denean enpresa teknologikoki, sozialki eta antolaketari dagokionez berritzeko, beharrezkoak izaten dira enpresa ertainak eta bereziki txikiak ere estrategia horietan murgiltzeko ekimen erraztaileak. Izan ere, gobernuen lehiakortasun-planetan, enpresen gehiengo itzalean geratu ohi da, eta administrazioek enpresa askotara heltzeko zailtasunak ere badituzte; lurraldeko enpresa askoren defizitak eta mugak sarriegitan oinarritzkoak dira, eta plan orokorren estrategiek bigarren mailan utzi ohi dituzte auzi operatibo eta praktikoak. Era berean, ETEak enpresa multinazionalen mende dauden heinean, hainbatetan, lantegiak berritzeko edota dibertsifikatzeko aukera potentzialak mugatuak geratzen dira. Ikus daitekeenez, enpresen eraginkortasuna sustatzeko mugak eta arazoak askotarikoak dira, beraz. Alde horretatik, enpresa traktoreen eta enpresa osagarrien arteko aliantzak eta saretzeak indartzeko premia ezinbestekoa begitانتzen da, hala enpresen gaitasun teknologikoa eta produktiboa sendotu eta enpresa hornitzaileak ere nazioarteko hitzarmenetara elkarlanean bultzatuta. Horretan, maila lokaleko erakunde bitartekariak garrantzitsuak dira.

Hirugarrenik, krisi-garaia gainditzeko bidean, lurraldeko ekonomiak zailtasunak ditu Europako herrialde dinamikoen ikerketa, garapen eta berrikuntza-eritmoiei erantzuteko, bereziki enpresen I+G gastuaren egikaritzea aintzat hartuz gero, baina arazoak nabarmendu egiten dira alderaketak eskualdeekin eta bereziki erreferentziazko eskualdeekin eginez gero. Berrikuntzari loturiko adierazle nagusietan (I+G gastua BPGarekin, enpresetan fakturazioa aintzat hartuz I+G jardueretara bideraturiko inbertsioaren portzentajea, I+G ekintzak sustatzen dituzten enpresa kopuruaren eboluzioa, enpresek berrikuntza teknologikoa eta ez-teknologikoa barneratzea), batez besteko eboluzioa negatiboa da. 2012. urtean, zailtasunak nabaritu ziren, eta hurrengo urteetako eboluzioak bi ezaugarri azaleratu ditu: alde batetik, arreta batezbestekoan ipinita, eboluzioak zantzu negatiboak ditu; bestetik, arreta enpresen arteko aldean ipinita, dualtasun hazkorra hautematen da. Europako eskualdeekin alderatuz, I+G ahaleginaren eboluzio negatiboak ahuldu egin du euskal ekonomiaren posizio erlatiboa, lurraldeari buruzko adierazle nagusietan.

Herrialdeka I+G gastu osoaren banaketa aletuz gero ere, lurraldearen neurria beste era batera irakurriko dugu. EAEko I+G gastuaren bilakaera azken urteotan BPGaren % 2 inguruan ibili da; 20.000 langile inguru daude I+G arloan denbora osoko jardunean; I+G gastuaren egikaritze-sektore nagusia enpresak eta irabazi asmo gabeko erakunde pribatuak dira (bikaintasunezko ikerketa-zentroak); finantzaketan ere,

EUSKAL GIZARTEA ARO EKONOMIKO BERRIAN

enpresak du pisua –baina, inguruko herrialde eta eskualdeekin alderatuta, pisu erlatibo baxuagoa du–, eta EAEko I+Gko barne-gastua igo egin da azken urteotan.

Lurraldeko ekonomiaren I+G adierazleei buruzko inbertsio-ahalegina moteltzeak aditzera ematen du lurraldeko enpresen lehiakortasun-gaitasunak arrakalak dituela. Horrek ondoan du, ordea, arazo erantsi bat. Izan ere, euskal enpresen trantsizio-bideetako posizio, gaitasun eta erritmoei erreparatuz gero, garapen dualaren bidea sendotzeko zantzuak oso nabariak dira. Lurraldean enpresek duten pisua eta garrantzia ezagututa, horren inplikazioak askotarikoak dira lehiakortasunean, bizi-kalitatean, ongizatean eta bizi-espektatiba indibidual eta kolektiboetan. Enpresen arteko dualtasunak esplikatzen du, neurri batean, Europako eskualde dinamikoetatik urruntzea.

Laugarrenik, sustapen ekonomikorako eta lehiakortasunerako estrategietan, industria-politikak oraindik ere industriaren kontzeptualizazio hertsia –klasikoa– gainditu beharko du, eta arreta jarduera-hobi berrietan ipini. Alde horretatik, aberastasuna sortzeak non eta nola sortu asmatzea ere esan nahi du.

Agerikoa denez, lurraldeak baditu indarguneak eta ibilbide oparoa eskulangintza aurreratuan bidea egiteko. Alabaina, aberastasun-funts berria zer arlok osatuko duten eta espezializazio adimenduna nora bideratuko den ere zehaztu eta garatu beharko da. Horixe da urteotako egitasmo oparoena. Gauzak horrela, industriaren espezializazioak aintzat hartu beharko ditu, besteak beste, bizi-estiloak eta, oro har, gizarte-beharrak eta osasuna (arreta aringarria, dependentzia, ongizate soziala), edota energia, ingurumena, etxebizitza eta mugikortasun jasangarria. Horregatik dira berrikuntzari buruzko adierazleak aintzat hartzeko modukoak. Neurri berean, jarduera tradizionalak eraberritzeko premia ere badago; esate baterako, automobilaren alorreko hornitzaileek agertoki estruktural zeharo diferentea dute aurrez aurre (auto elektrikoak merkatuaren zati bat bereganatuko du, eta fabrikatzaileak serbituziorako edo ibilgailuen alokairurako plataformak diseinatzen ari dira). Nolanahi den, plataforma digitalek askotariko inpaktuak izango dituzte lan-merkatuan, negozio-eredu gisa, arlo ugarian.



AZKEN
OHARRAK

Euskal lurraldeak ere egitasmoak garatzen ari dira aldagai endogeno eta exogenoek jositako testuinguru ekonomiko eta teknologiko zeharo diferentean. Egiturazko aldaketek bete-betean eragin dute euskal lurraldeetan, eta, eraldaketa sozial eta ekonomikoarekin batera, pertsonen espektatibak eta aukera errealak ere bestelakotu egin dira. Esate baterako, enpleguen eta okupazio profesionalen arabera, pertsonen bizi-baldintza objektiboak oso ezberdinak dira. Gizarte post-industrialean, egitura sozialeko gizataldeen artean etena igar daiteke garapen pertsonal eta profesionalerako aukerak, baliabide kulturalak eta bizi-espektatibak aintzat hartuz gero. Kasu batzuetan, laneratzeari eta inklusio sozialari loturiko ekimenek bizi-aukera duin eta autonomo baterako indar gero eta ahulagoa dute. Beste kasu batzuetan, berriz, formazioak eta enpleguak ongizate-maila altuko bizitzak esperimintatzeko aukera ematen dute; balio-kate globaletan lehiatzeko gai diren enpresetan produktibitate eta soldata altuko okupazioetan arituta, adibidez. Enpleguaren konposizio berria eta distribuzio polarizatua adibide bat da, liburuan zehar ikusi ditugun beste askoren artean, eraldaketa globalen testuinguruan aro ekonomiko berria ulertzeko.

Liburuaren xede nagusia izan da lurraldearen garabide sozial eta ekonomikoan azaleratu zaigun abagune berria ulertzen hastea. Lehen pausoa eman dugu. Alde horretatik, liburuan ikusi dugu 1976-1994 urteen arteko egiturazko krisiak pertsonen beharrianak eta aukerak herribideratzeko baldintza historikoak eraldatu dituela. Hasieran, ziklo ekonomiko gorakorrean ostera ere Europarekin bat egiteak aurrerabide soziala orokortu zelako ustea zabaldu zuen. 2008. urteko atzeraldia, ordea, egitura sozial eta ekonomikoari loturiko argazki zuhurragoa azaleratu zigun. Oparotasunaren lilurari errealtate gordinago batek hartu dio lekua. Baina oraindik ere herri-aukerak testuinguru globalaren argitan interpretatzeko zailtasunak ditugu. Errazagoa da nor bere baitan bilduta irakurketak egitea. Alabaina, disrupzio teknologikoak, nazioarteko merkataritzak, ekonomia globalaren grabitate-zentroa lekualdatzeak edota patroi ekonomiko berrien iritsierak Europari bete-betean eragin diete; Europako eskualdeen arteko dibergentzia-prozesua etenik gabekoa da, eta, euskal lurraldeetan ere, luzaroan emantzat jotako aukerak, promesak eta garabidea zaharkitu egin zaizkigu.

Liburuak horren berri eman nahi izan du, betiere analisia eraldaketa globalen testuinguruan kokatuta. Sarrerako orrietan esan bezala, liburuak aurreneko pausoak urratu nahi izan ditu. Badira aipatu ditugun hainbat gogoeta-lerro gehiago sakontzea merezi dutenak. Era berean, liburua pisutsuegia ez izateko, hainbat gai aipatu gabe utzi ditugu; esate baterako, lurraldeko enpresak eta gune estrategikoak atxikitze desafioa gero eta zailagoa, enpresek finantzazioa dibertsifikatzeko erronka eta horren inplikazioak arlo instituzional, sozial eta kulturean, edota gure tradizio herrigileari jarraitutasuna emateko balioa, kontzientzia eta erantzukizuna lausotzea. Pertsonen beharrianak eta ongizate materiala gizabideratzeko auziak ugariak dira. Jarraituko dugu.



BIBLIO- GRAFIA

Acemoglu, D. & P. Restrepo (2017a). "Secular Stagnation? The Effect of Aging on Economic Growth in the Age of Automation". *American Economic Review*, 107 (5): 174-179.

Acemoglu, D. & P. Restrepo (2017b). *Robots and Jobs: Evidence from US Labor Markets*. National Bureau of Economic Research, No. w23285.

Acemoglu, D. & P. Restrepo (2018). *Artificial Intelligence, Automation and Work*. No w24196, National Bureau of Economic Research.

Allison, G. (2018). *Destined for War: Can America and China Escape Thucydides' Trap?* Boston: Mariner Brooks.

Andrews, D., C. Criscuolo & P.N. Gal (2015). *Frontier Firms, Technology Diffusion and Public Policy: Micro Evidence from OECD Countries*. The Future of Productivity: Main Background Papers. Paris: OECD.

Arntz, M., T. Gregory & U. Zierahn (2016). *The Risk of Automation for Jobs in OECD Countries: A Comparative Analysis*. OECD Social, Employment, and Migration Working Papers, 189.

Atkinson, T. (2015). *Inequality: What Can Be Done?* Harvard: Harvard University Press.

Autor, D. H. (2015). "Why are there still so many jobs? The history and future of workplace automation". *The Journal of Economic Perspectives*, 29 (3): 3-30.

Autor, D. H. & D. Dorn (2013). "The Growth of Low-Skill Service Jobs and the Polarisation of the US Labour Market". *American Economic Review*, 96 (2): 189-194.

Autor, D., D. Dorn, L. F. Katz, C. Patterson et al. J. Van Reenen (2017). "The Fall of the Labor Share and the Rise of Superstar Firms." NBER Working Paper, No. 23396.

Avent, R. (2016). *The Wealth of Humans. Work and Its Absence in the Twenty-first Century*. London: St. Martin's Press.

Baldwin, R. (2015). "The World Trade Organization and the Future of Multilateralism." *Journal of Economic Perspectives*, 30 (1): 95-116.

Baldwin, R. (2016). *The Great Convergence: Information Technology and the New Globalization*. Harvard: Harvard University Press.

Baldwin, R. (2019). *The Robotics Upheaval: Globalization, Robotics and the Future of Work*. London: W&N.

Baqae, D. & E. Farhi (2017). *Aggregate productivity and the rise of mark-ups*. CEPR Policy, 04 December 2017.

Bárány, Z. L. & C. Siegel (2017). "Job Polarization and Structural Change." *American Economic Journal: Macroeconomics*, 10 (1): 57-89.

Borras, S. & C. Edquist (2019). *Holistic Innovation Policy: Theoretical Foundations, Policy Problems, and Instrument Choices*. Oxford: Oxford University Press.

Brynjolfsson, E. & T. Mitchell (2017). "What Can Machine Learning Do? Workforce Implications". *Science*, 358 (6370): 1530-1534.

Bughin, J., J. Seong, J. Manyika, L. Hämäläinen, E. Windhagen & E. Hazan (2019). *Tackling Europe's gap in digital and AI*. McKinsey & Company. Discussion Paper. Castells, M. (arg.) (2018). *Europe's Crisis*. Cambridge: Polity Press.

Chiacchio, F., G. Petropoulos & D. Pitcher (2018). *The impact of industrial robots on EU employment and wages: A local labour market approach*. Bruegel Working Paper.

Dahl Fitjar, R., P. Benneworth & B. Terje Asheim (2019). *Towards regional responsible research and innovation? Integrating RRI and RIS3 in European innovation policy*. Science and Public Policy, scz029, <https://doi.org/10.1093/scipol/scz029>

Datta, N. (2019). *Willing to pay for security: Gig workers, freelancers, and the self-employed want steady jobs*. CEPR Policy, 19 July 2019.

De Loecker, J. & J. Eeckhout (2017). *The Rise of Market Power and the Macroeconomic Implications*. National Bureau of Economic Research Working Paper Series, Working Paper 23687.

Eizagirre, A. (2018). "Opportunities and policy challenges of digital economy to small regions: the case of Gipuzkoa". *European Public & Social Innovation Review*, 3 (1): 68-81.

- Emmenegger, P. (arg.) (2012).** *The Age of Dualization. The Changing Face of Inequality in Deindustrializing Societies.* Oxford & Nueva York: Oxford University Press.
- Fratesi, U. & A. Rodríguez-Pose (2016).** "The crisis and regional employment in Europe: what role for sheltered economies?". *Cambridge Journal of Regions, Economy and Society*, 9(1): 33-57.
- Frey, C.B. (2019).** *The Technology Trap: Capital, Labor, and Power in the Age of Automation.* Princeton: Princeton University Press.
- Frey, C.B. & M. Osborne (2017).** "The Future of Employment: How Susceptible are Jobs to Computerisation?". *Technological Forecasting and Social Change*, 114: 254-280.
- Frieden, J.A., D.A. Lake & J.L. Broz (arg.) (2017).** *International Political Economy: Perspectives on Global Power and Wealth.* New York: WW Norton & Co.
- Gereff, G. (2013).** "Global value chains in a post-Washington Consensus world". *Review of International Political Economy*, 21 (1): 9-37.
- Goodhart, D. (2017).** *The Road of Somewheres: The New Tribes Shaping British Politics.* London: Penguin Books.
- Goos, M., A. Manning & A. Salomons (2014).** "Explaining Job Polarization: Routine- Biased Technological Change and Offshoring". *American Economic Review*, 104 (8): 2509-2526.
- Gregory, T., A. Salomons & U. Zierahn (2016).** *Racing With or Against the Machine? Evidence from Europe.* ZEW Discussion Paper No. 16-053.
- Grillitsch, M. & M. Sotarauta (2019).** *Trinity of change agency, regional development paths and opportunity spaces.* Progress in Human Geography, DOI: 10.1177/0309132519853870
- Grossman, G.M., E. Helpman, E. Oberfeld & T. Sampson (2017).** *The Productivity Slowdown and the Declining Labor Share: A Neoclassical Exploration.* NBER Working Paper No. 23853.
- Grullon, G., Y. Larkin & R. Michaely (2019):** "Are US Industries Becoming More Concentrated?". *Review of Finance*, 23 (4): 697-743.
- Guilluy, C. (2015).** *La France périphérique: Comment on a sacrifié les classes populaires.* Paris: Flammarion.
- Guilluy, C. & M. Debevoise (2019).** *Twilight of the Elites: Prosperity, the Periphery, and the Future of France.* London: Yale University Press.
- Haskel, J. & S. Westlake (2019).** *Capitalism without Capital: The Rise of the Intangible Economy.* Princeton: Princeton University Press.
- Harvey, D. (2012).** *The Enigma of Capital: And the Crises of Capitalism.* New York: Oxford.
- Jorgenson, D W. & M. Timmer (2011),** "Structural Change in Advanced Nations: A New Set of Stylized Facts". *Scandinavian Journal of Economics*, 113 (1): 1-29.
- Karabarbounis, L. & B. Neiman (2013).** *The Global Decline of the Labor Share.* NBER Working Paper No. 19136.
- Khanna, P. (2016).** *Connectography: Mapping the Future of Global Civilization.* New York: Random House.
- Khanna, P. (2019).** *The Future is Asian: Commerce, Conflict and Culture in the 21st Century.* New York: Simon & Schuster.
- Kleinberg, J., H. Lakkaraju, J. Leskovec, J. Ludwig & S. Mullainathan (2018).** "Human Decisions and Machine Predictions". *The Quarterly Journal of Economics*, 133 (1): 237- 293.
- Koch, M., I. Manuylob & M. Smolka (2019).** *Robots and Firms.* Economics Working Papers 2019-05, Department of Economics and Business Economics, Aarhus University.
- Kunst, D. (2019).** *Deskilling among Manufacturing Production Workers.* Tinbergen Institute Discussion Paper, TI 2019-050/VI.
- Lessenich, S. (2016).** *Neben uns die Sintflut: Die Externalisierungsgesellschaft und ihr Preis.* München: Verlag. The Global Decline of the Labor Share.
- Lindert, P.H. & J.G. Williamson (2016).** *Unequal Gains American Growth and Inequality since 1700.* New Jersey: Princeton University Press.

Mações, B. (2019). *Belt and Road: A Chinese World Order*. London: C. Hurst US & Co.

Maddison, A. (2007). *Contours of the World Economy, 1-2030 AD: Essays in Macro- Economic History*. Oxford: Oxford University Press.

Manyika, J., S. Ramaswamy, J. Bughin, J. Woetzel, M. Birshan & Z. Nagpal (2018). *Superstars: The dynamics of firms, sectors, and cities leading the global economy*. McKinsey Global Institute.

Mazzucato, M. (2013). *The Entrepreneurial State: Debunking public vs. private sector myths*. London: Anthem.

Mazzucato, M. (2016). "From market fixing to market-creating: a new framework for innovation policy". *Industry & Innovation*, 23 (2): 140-156.

Mazzucato, M. (2018). *The Value of Everything: Making and Taking in the Global Economy*. London: Allen Lane – Penguin.

Mas, M., J. Fernández de Guevara, J.C. Robledo, M. Cardona, M. López-Cobo, R. Righi & S. Samoilii (2018). *The 2018 PREDICT Key Facts Report: An Analysis of ICT R&D in the EU and Beyond*. JRC Technical Reports. Luxembourg: Publications Office of the European Union.

Milanovic, B. (2016). *Global Inequality. A New Approach for the Age of Globalization*. Harvard: Harvard University Press.

Milberg, W. & D. Winkler (2013). *Outsourcing Economics: Global Value Chains in Capitalist Development*. Oxford: Oxford University Press.

Mokyr, J., C. Vickers & N. L. Ziebarth (2015). "The history of technological anxiety and the future of economic growth: Is this time different?" *The Journal of Economic Perspectives*, 29 (3): 31-50.

Moretti, E. (2010). "Local Multipliers". *American Economic Review*, 100 (2): 373-77.

Morgan, K. (2004). "The Exaggerated Death of Geography: Learning, Proximity and Territorial Innovation Systems." *Journal of Economic Geography*, 4 (1): 3-21.

Morgan, K. (2016). "Collective entrepreneurship: the Basque model of innovation." *European Planning Studies*, 24(8): 1544-1560.

Morgan, K. & P. Marques (2019). "The Public Animateur: mission-led innovation and the "smart state" in Europe". *Cambridge Journal of Regions, Economy and Society*, 2 (2): 179-193.

Morisson, A. & Doussineau, M. (2019). "Regional innovation governance and place-based policies: design, implementation and implications." *Regional Studies, Regional Science*, 6 (1):101-116.

Naughton, B. (2017). *The Chinese Economy. Adaptation and Growth*. Cambridge (Massachusetts): MIT Press.

Nickel, S., S. Redding & J. Swaffild (2008). *The uneven pace of deindustrialization in the OECD*. Center for Economic Performance, London School of Economics.

Perez, C. (2002). *Technological Revolutions and Financial Capital: The Dynamics of Bubbles and Golden Ages*. Cheltenham: Edward Elgar.

Piketty, T., F. Alvarado, L. Chancel, E. Saez & G. Zukman (2018). *Rapport sur les inégalités mondiales*. Paris: Le Seuil.

Posner, E.A. & E.G. Weyl (2018). *Radical Markets: Uprooting Capitalism and Democracy for a Just Society*. Princeton: Princeton University Press.

Potrafke, N. (2015). "The Evidence on Globalisation". *The World Economy*, 38 (3): 509-552.

Rachman, G. (2011). *Zero-Sum World: Politics, Power, and Prosperity After the Crash*. London: Atlantic Books.

Ridao-Cano, R. C. Bodewig (2018). *Growing United: Upgrading Europe's Convergence Machine*. *World Bank Report on the European Union*. Washington: International Bank for Reconstruction and Development / The World Bank.

Rodríguez-Pose, A. (2018). "The Revenge of the Places that Don't Matter (and What to do About it)." *Cambridge Journal of Regions, Economy and Society*, 11 (1): 189-209.

Rodrik, D. (1997). *Has Globalization Gone Too Far?* Washington, DC: Institute for International Economics.

Rodrik, D. (2011). *The Globalization Paradox: Democracy and the Future of the World Economy.* New York: W.W. Norton.

Rodrik, D. (2016). "Premature Deindustrialization". *Journal of Economic Growth*, 21 (1): 1–33.

Rodrik, D. (2018). *Straight Talk on Trade: Ideas for a Sane World Economy.* Princeton, NJ: Princeton University Press.

Rosés, J.R. & N. Wolf (2018a). *The Economic Development of Europe's Regions: A Quantitative History since 1900.* London: Routledge.

Rosés, J.R. & N. Wolf (2018b). *Regional economic development in Europe, 1900-2010: a description of the patterns.* CEPR Discussion Paper No. 12749.

Salido, O. & J. Carabaña (2019). "An increasingly squeezed middle class? Changing income distributions and inequality in the EU15 through the last economic cycle." *Journal of Contemporary European Studies*, 27 (3): 343-356.

Schiller, D. (2014). *Digital Depression: The Crisis of Digital Capitalism.* Chicago: University of Illinois Press.

Schwab, K. (2017). *The Fourth Industrial Revolution.* New York: Crown Publishing Group.

Simon, D., S. Kuhlmann, J. Stamm & W. Canzler (arg.) (2019). *Handbook on Science and Public Policy.* Cheltenham: Edward Elgar Publishing Ltd.

Storper, M. (2018). "Separate Worlds? Explaining the current wave of regional economic polarization". *Journal of Economic Geography*, 18 (2): 247–270.

Stiglitz, J.E. & B.C. Greenwald (2014). *Creating a Learning Society: A New Approach to Growth.* Columbia: Columbia University Press.

Sun, Y. & S. Grimes (2017). *China and Global Value Chains: Globalization and the Information and Communications Technology Sector.* London: Routledge.

Tepper, J. & D. Hearn (2019). *The Myth of Capitalism: Monopolies and the Death of Competition.* New Jersey: Wiley & Sons.

Tooze, A. (2018). *Crashed: How a Decade of Financial Crises Changed the World.* New York: Wiking.

Uyarra, E., K. Flanagan, E. Magro, J. Wilson & M. Sotorauta (2017): "Understanding regional innovation policy dynamics: Actors, agency and learning." *Environment and Planning C: Politics and Space*, 35 (4): 559-568.

Uyarra, U., B. Ribeiro & L. Dale-Clough (2019). *Exploring the normative turn in regional innovation policy: responsibility and the quest for public value.* European Planning Studies, DOI: 10.1080/09654313.2019.1609425

Vence, J.D. (2016). *Hillbilly Elegy: A Memoir of a Family and Culture in Crisis.* New York: Harper.

WEF World Economic Forum (2018): *Creative Disruption: The Impact of Emerging Technologies on the Creative Economy.* White Paper.

Wilkinson, R. & K. Pickett (2019). *The Inner Level How More Equal Societies Reduce Stress, Restore Sanity and Improve Everyone's Well-being.* London: Penguin.

Eraldaketa teknologikoak, ekonomikoak eta sozialak eskala globalekoak dira, sakonera handikoak, etengabekoak, berehalakoak eta askotarikoak. Liburuak arreta ipini die mundu-mailako transformazioei eta eskualdeen garabidean izaniko eraginei. Bestalde, eraldaketa horien argitan gure herrian egitura soziala eta ekonomikoa nola aldatu den argitu dugu. Egitura ekonomikoak erakusten digu aldaketa teknologikoa 1990eko hamarraldiaz geroztik bizia izan dela, lurraldeko enpresek oro har berrikuntza xurgatzeko gaitasuna izan baitute, eta, horren ondorioz, hobekuntzak izan dira produktibitatean eta lansarrietan. Era berean, ordea, enpleguaren eta soldataren distribuzioa ere zeharo aldatu zaigu sektore produktiboen artean, eta, herri modura, pertsonen hezkuntza-inbertsioari ez diogu ahal besteko errentagarritasuna atera. Egitura sozialean ere, hiru belaunaldi eskaseko epean bestelakotu dira orekak giza kapitalaren maila formatiboari, demografiari, ongizateari eta gizarte-mailei dagokienez, besteak beste.

Mundura irekia dagoen herria izaki, lurraldearen garabide sozialean azaleratu zaigun abagune berria, ezinbestean, eraldaketa globalen argitan ulertu behar dugu. Hori dugu lan-egitasmu, eta, liburu honekin, aurreneko pausoak urratu ditugu. Liburuak, gure lurraldeko pertsonen beharrezan erantzuna emate aldera, egitasmu lorgarriak zehazten laguntzeko ekarpenean parte hartu nahi du.



Mondragon
Unibertsitatea

Humanitate eta Hezkuntza
Zientzien Fakultatea

LANKI Kooperatibismoaren Ikertegia